

# Analak eta Historiak I

ERROMAKO HIRIAN,

LEHENEN GOTAN,

ERREGEEK AGINDU

ZUTEN; ASKATASUNA

ETA KONTSULATUA

LUZIO BRUTOK

EZARRI ZITUEN.

DIKTADURAK ALDI

BATERAKO

ONARTZEN ZIREN.

DEZENBIROEN

AGINTEAK ERE EZ

ZUEN PARE BAT

URTETIK GORA

IRAUN, EZTA TRIBUNO

MILITARREN AGINTE

KONTSULARRAK ERE

LUZARO. EZ

ZINNAREN, EZ

SULAREN NAGUSIGOA

EZ ZEN LUZEA IZAN;

PONPEIOREN ETA

KRASOREN BOTEREA...

*Historiae - Annales*

P. K. Tazito 9

*Erroman* 8

O P. K. TAZITO



Analak eta Historiak I



ISBN 84-88303-02-5



9 788488 303028



Euskaratzalea: Xabier Amuriza

# ANALAK ETA HISTORIAK

P. K. TAZITO

# Analak eta Historiak



1991

# HITZAURREA

Jatorrizko izenburua:  
*Annales; Historiae*  
Euskaratzaila: *Xabier Amuriza*  
Berrikuslea: *Jesus Naberan*  
Hitzaurregilea: *Carmen Codoñer Merino*

Lehen argitalpena: 2004ko urrian

© Itzulpenarena: Xabier Amuriza  
© Klasikoak, 2000  
Begoñako Andra Mari, 16 • 48006 Bilbo  
Tel.: 94 • 416 14 89 / Fax: 94 • 416 63 48

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatiak edo osorik obra hau birstorzea edozein bitarteko edo prozeduraz, erreprografia eta trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokaten edo mailegutza publikoaren bidez banatzea ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia 2004-X-25

ISBN: 84-88303-033 (Obra osoarena)  
ISBN: 84-88303-02-05 (Lehen liburuarena)  
Lege gordailua: BI.-2612-04

Fotokonposaketa: L&A Discinua.  
Begoñako Andra Mari, 10 • 48006 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.  
Ibarsusi Bidea, 3 • 48004 Bilbo

Discinua eta Maketa: A.I.C.  
Infante Don Juan Etorbidea, 26 • 20008 Donostia

*Historiae* eta *Annales* Tazitoren lanik garrantzitsuenak dira, historialari bezala. *Agrikolaren bizitza* eta *Germania* ere historikotzat jo daitezke, baina biak ere monografiak dira, euren interes nagusia eta dudagabea historiari berari gehigarri zaion ildotik garatzen baita. *Hizzarien elkarrizketa* delakoa, berriz, politikari-idazleak izan zuen eboluzioari buruzko tratatua da areago. Bere eginkizun nagusia, errepublika aroan, ororian zentratzen zen, baina, botere absolutua progresiboki ezarri ahala, hitzak gizartean zeukan boterearen desagerpena onartu beharra zeukan.

Aurkezpen baten arretagai nagusia autorearen, oraingoan Tazitoren, lana bada ere, ehundaka ez ezik, ia bi mila urtez urrunten gaituen garairako, autorearen ingurunea ezagutzea nahitaezkoa da, bere zenbait alderditan, behintzat. Horrek kontaketa zerbait zehatzago ulerterren lagun dezake, kasu honetan kontaketa historikoa delako, zailtasunak areagotzen zaizkiona. Tazitoren bizitzatik hasteak bera bizi izan zen garaira garamatza.

## 1. BIZITZA

Haren bizitzaz dauzkagun berriak oso urriak dira. Berak oso gutxi ematen dizkigu, batzuk beste autore latindar batzuengen aurki-

tzen ditugu, eta beste batzuk, azkenik, haren figuraz arduratu diren ikertzaileen lanketa dira.

### 1.1 Bizitza pribatua

Haren bizitza pribatuaz oso gutxi dakigu; izena bera ere zalantzapean dago: ez dakigu Publio Kornelio ala Gaio Kornelio den, lekukotzek bitzuek ematen baitituzte. Bere jaiotza egunik ere ez dakigu zehatz, 56. urte inguruan, Neronen aginte hasieran, kokatzen da baina. Ondorio hau Pliniok bere adinaren eta harenaren artean egiten duen konparazioan oinarritzen da, berea txikiagoa, Tazitorri bidaltzen dion (7.20.3-4) gutun batean dioenez: «Geroari deigarri egingo zaio, bere bakanagatik, adinean, egoera sozialean eta ospe literarioan berdinduriko bi gizonek denean elkar babestu izana. Egia da ni gaztetxoa nintzela, zuk jada entzute eta aintza osoa erdietsiak zenituenean...»

Bere jaiotza-lekuaz are zalantza gehiago dago, zeinari buruz, daturik ezean, Erromatik Narbonar Galiara (Vaison-la Romaine ingurua) doazen hipotesiak egiten diren, Galia Zisalpinotik eta Terrenitik pasaturik (*HA Flav. Vop. Tac.*, 10.3). Horietariko edozein oinarritzeko arrazoiak dedukzioak dira, Tazitorri egokitzeko modukoak diren testu edo egoeretatik, nahiz eta, gaur egun, historialariak Narbonar Galiara makurtzen diren, alde horretako Tacitus *cognomen*-aren maiatasuna bide.

Ziur dakiguna da, Tazitok berak emandako berriak direlako, 78. urtean, Julio Agrikolaren alabarekin ezkondu zela, Britaniako kontsula eta legatua bera, Domizianoren agintaldian, Tazitok bere lan txikiatariko bat eskaini ziona: *Agrikolaren bizitza*. Baita ezagutzen dugu, Plinio Gaztearen gutunei esker (*ep.2.1.6; 2.11.1; 4.13.11; 7.20.4*), bien arteko adiskidetasuna eta elkarlana ere, abokatu salatzaile bezala, Mario Priskoren (100. urtea), korrupzioaren errudun eta, Domizianoren agintaldian, *delator* ezagunaren, aurka-ko prozesuan. Azken albiste honek bere bizitza politikora garamata zuzen.

Bere heriotza-eguna ere dudazkoa da, eta Asian prokonsul izan zen dataren ezagutzan oinarritzen da, 112/113. urteetan, Adrianoaren garaian. Heriotza, beraz, 117-120. urteetan kokatzen da. Horrela, haren bizitzak Neron-Adrianoren bitartea hartzen du.

### 1.2. Egoera eta karrera politikoa

Haren karrera politikoa, *Analak* 1-1-ean berak dioskunez, Vespasianorekin hasi zen berez; Titoren agintaldian, kuestore kargua izan zuen, eta *cursus honorum*-ean aurrerantz egin zuen, Domizianorekin pretoretza eskuratu arte, 88. urtean, *Ludi Saeculares* izeneko ospakizun urtean. Horien antolakuntzan parte hartu zuen, hartarako ardura zeukan *XViri sacris faciundis* izeneko abade elkarteko (*collegium*) kide legez. (*Anal.* 11.11). Segurrenik, postu militarra ere izan zuen ondoren, zeren, bere aitaginarreba Agrikola 93an hil zelarik, bera Erromatik kanpora egona baitzen lau urtez. Trajanoren kontsul bezala kokatzen dute.

Bere emaitza historikoaren aldetik, nabarmentzea garrantzitsua delakoan nago Tazitok zer aro bizi izan zuen kontzienteki. Hamar bat urtetatik, inguruko gertaeren uler-maila bat izan daitekeela emanik, Tazito bere lanean bere biziaren propiak islatzeko moduan egon zitekeen, 68an hiltzen den Neronen urteetatik eta honen heriotzari jarraitu zion gerra zibiletik hasita, orduan hamahiru bat urte izango baitzituen. Aurreko aldia, Julio-Klaudiotar dinastiari dagokiona, bere aurrekoen gomutetatik ezagutua izan zezakeen. Baldin Tazitok, 66. urtean, 60 bat urteko pertsonengandik, K. o. 14. urteko Augustoren heriotzatik gora, behintzat, gorabehera sozio-politiko guztiak osoki bizi izan zituztenengandik, aurreko aldietako kontuak entzun zitzakeela pentsatzen badugu, Tiberiorengan agintaldiaren hasieran jartzen gara.

Bizipen pertsonaloi edo izanak zituen jendearengandik zuzen zetozenoi, eskuragarri ziren dokumentu ofizialetan erregistraturiko datuak gehitu behar zaizkie, hala nola, Senatuaren bilkuretako Aktak (*Acta senatus*) eta gazeta ofiziala bezalako bat zenak (*Acta diurna*) emaniko berriak; biak estatuaren Artxiboetan gordetzen ziren. Bere lanetan ematen duen zenbait albistetan, berak *Historiak* eta *Analak* liburueta historiaturiko garaiak jorratu zituzten aurreko historialariak edo Neronen ama *Agrippina minor*-enak bezalako memoriak ere aipatzen ditu (*Analak*, 4.53). Azken bi puntuotan, historialari batenak iza-nik, interesgarrienak eurok izan arren, daturik eza erabateko da; Tazitok iturri hauek erabili zituela baldin badakigu, berak bere lanean horren konstantzia utzi duelako da, zeren, dokumentu ofizialen desagerpen bidezkoari dagokionean ez ezik, lan historikoei dagokienean ere ez baita kontserbatu, Erromaren historiaren ulerkuntzarako, hain urte

erabakigarri horietaz idatzi zuten historialarien testurik. Tiberioren gizon Veleio Paterkuloren lan laburra bakarrik geratzen zaigu, enperadore honi buruzko berriak dakartzana; gainerako lanetik, zatiak bakarrik geratzen zaizkigu, batzuk haietaz Tazitok berak egiten duen aipamenari esker gordeak. Egoera, nolanahi ere, okerragoa da, historialarie buruzko aipamenak urriak baitira, zeren Tazitok, bere iturriak aipatzeko, esamolde orokorragoak nahiago izaten baititu: *scriptores annalium*, *scriptores eorum temporum*, etab.

Tazitoren bizialdia, 65 bat urtetako aldia, gizakume baten biziatarako luzeegia ez bada ere, garrantzi politikorik goreneko gertaera zosita dago: dinastia baten, Augustok ezarritako Julio-Klaudiotar dinastiaren amaia, eta ondorengo gerra zibila, 69. urtean; dinastia berri baten agintaldia, Flaviar dinastiarena, zeinak, Nervak 69an buruturiko transizio laburraren ondoren, Antoninotarren dinastiari bide eman zion; horrek esan nahi du gerra zibila bezalako biolentzia ageriko aldiak izan zirela, eta biolentzia ezkutukoak, Neronen (62-68) eta Domizianoren (93-96) azken urteak, baita normal itxurako aldiak ere. Bidezko denez, azken irizpen horren azpian, monarkaren botere absolutuaren finkapen progresiboak jarraitzen duela atera behar da, zeinak, logikoki, Senatuaren eta senatarien boterearen murrizketa dakarren. Prozesu lentoa, izaitez, Augustorekin hasi zena eta, Tazitok idazten duen garaian, I. mendearren azkenetan eta II.naren lehenengoetan, jada bueltagabea zena.

## 2. TAZITOREN LANA

### 2. 1. Lan txikiak

#### 2. 1. 1. Deskribapena

Arinki bada ere, gure autorearen «lan txikiak» direlakoei buruzko pintzelkada batzuk ematea komeni da. Era ezberdineko hiru monografia dira: *Germania*, *De vita Iuli Agricolae* eta *Dialogus de oratoribus*.

*Julio Agrikolaren Bizitza* Domizianoren heriotzatik gerotxoago idatzia dela dirudi, 96. urtean. Biografiaren ezaugarriak ditu, *laudatio-*

*nes funebres* direlakoenak, pertsonaia handien heriotzako erritualak eurok; eta, Tazitok idazten duen unean, berri samarra den genero batenak, zeinari *exitus uirorum illustrium* deritzon. Izatez, Agrikolaren figuraren inguruaren zentraturiko monografia da, haren pertsonarekin zerikusia duten garapen historikoei sarrera ematen diena, batez ere, erromatar armadaren buru, haren Britaniako kanpainei dagozkien bizitza zatikoak.

Erromatar historialariekin, euren lanetan, etnografia tankerako deskribapenak egitera jotzen duten arren, *Germania* tratatu etnografikoa da berez, genero historiko arraroa, arrotza ere bai, esan genezake, aurreko literatura latindarraren barruan. 98an idatzia izan zen, hau ere, aurreko bezala, Nervaren agintaldian, Erromaren herri «barbaroekiko» harremana arazo serioa izaten hasi zenean. Arrakasta handik mendetara eterri zitzaison, germaniar herrien identitatea finkapen bila ari denean, eta basati onaren irudia mendebal Europan zabaltzen ari denean. Erromatar gizartearekiko kontraposizioz, gizakiaren irudi gutxiago degradatua eskaintzen bide duen *Germania* hau, gero antzinako zibilizazioekiko harremanetik eterriko ziren kutsapenetatik libre zegoen iraganra errebindikatzeko moduan erabiltzen da.

*Hizlarien elkarrizketa* delakoaz, luzaro eztabaidatu zen Tazitoren ote zen, hango prosa gainerako produkzio literarioarekin bat ez zetorrela eta. Estilo aldakuntzaren justifikaziotzat, landutako genero ezberdina izan da arrazoi nagusietarikoa, orain autoretza onartzeko ematen dena.

Guri iritsi zaigun moduan, amaitu gabe eta hutsuneekin, oratoriak zer destino daukan planteatzen du, eztabaidea politikoa ezinezkoa den munduan. Botere absolutua daukatenek ez dute aurkako iritzirik onartzen; eztabaidan jartzen ez diren erabakiak botereak ezartzen ditu; karguak ez daude haietara jotzen dutenen konbikzio ahalmenaren gorabeheran, enperadoreak izendatuak baizik; eta, oratoriaren alferrekooa osatzeko, justiziaren administrazioa geroz agintarien esku-rago dago. Hori nahikoa ez balitz, eta *orator* delakoaren esparrua literatura lanera zabaldurik, hemen ere idazleak ez dauka askoz esparru handiagorik, berea adierazteko. Tazitok elkarrizketa aurreragoko garaian girotzen du, Domizianoren agintaldian, horrek bere ideiak adierazteko bidea ematen baitio, bere sasoiko egoera politikotik urrundurik.

## 2. 1. 2. Transmisioa

XV. mendean, 1431-n, Niccolo Niccolik Hersfeld-en eskuizkribu bat aurkitu zuen, Tazitoren hiru lanok eta Suetonioren *de grammaticis et rhetoribus* zekartzana eta, 1455ean, Pier Candido Decembriok, Erroman, Alemaniak etorritako kodize batekin identifikatu zuena. Geroztik, *Germania* eta *Dialogus*-aren transmisio komuna daukagu, eta beste bat zatikakoa, *Agricola*-rentzat. Azken honena, IX. mendearen erdialdeko eskuizkribu bat kontserbatzen zen, beharbada, Fuldan idatzia, gero desagertu egin dena. Kodize honetan, *Agricola* IX. mendeko kopiatzaileak zati bat kopiatutik eta XV. mendeko kopiatzaile batek osatutik zegoen. Beraz, aditurek uste dutenez, *Agrikola*-k tradizio eskuizkribatu ezberdina dauka beste lan bietarik, zeren kasu batean dauzkagun XV. mendeko eskuizkribuek Hersfeld-go eskuizkribu galduetik datozenak baitira, eta bestean, bera ere desagertua den Fuldakotik. Eta hori *Hersfeldensis*-ak, Italiara heldu zenean, hiru lanak hartzen zituela.

Oraingo eskuizkribuak kopietatik datoz. *Germania* eta *Dialogus* transmitzen dituztenak Viena, Munich, Paris, Napoli eta Venesiako Biblioteketan, eta Vatikanoko Biblioteka Apostolikoan daude. *Agricola* hiru eskuizkributan bakarrik kontserbatzen dugu, euretariko bi Vatikanokoan eta bestea Toldeoko Katedraleko Bibliotekan.

## 2. 2. Historiak eta Analak

### 2. 2. 1. Historien eta Analen idatz-data eta bi lanen arteko aldiak

*Historien* idatz-data 98. urtearen azken inguruan jarri ohi da, eta amaiera 109an. Esana dugunez, kontatzen diren gertakariak 69tik 96ra izanak dira: 69ko gerra zibila, Neronen heriotza ondoren etorri zena. Urte horri «hiru emperadoreen urtea» deritzo (Galba, Oton eta Vitelio, indar militar eta politiko ezberdinek emperadore aldarrikatuak).

*Analen* kasuan, euron idazketa beranduagokoa da. Hasiera 116. urtean jartzen zaie, Tazitoren bizitzaren azkenetik hurbil samar, nahiz eta euretan jorratzen duen aldi historikoa *Historietan* jorratua baino lehenagokoa den, hautatutako aldia *Historien* hasierakoarekin lotzen dela. Julio-Klaudiotor dinastiaz dihardu, bere fundatzaile Augusto salbu. Tiberio, Kaligula, Klaudio eta Neron emperadoreei gagozkie. Hots, *Analen* amaierak, Tazitok hitzaurrean dioenetik, Neronen agin-

taldia hartzen zuenak, bere azkenean *Historien* hasierarekin bat egiten zuen, baldin Neronen azkena 69ko gerra zibilaren hasieratik banatzen duten hilabete bakanak albora uzten baditugu.

Bi lanen izaera osagarri hauxe da arrazoia, (K.o.14tik K.o.96ra arte), euren segida, guregana iritsi diren eskuizkribuetan, idazketan jarraitutako ordenaren alderantzizkoa izateko. *Analek* gehi *Historiek* kondaira kronologikoki koherentea osatzen zuten: Erromaren historia, Tiberiorengandik Domizianoren gainaino, berau barne.

### 2. 2. 2. Historien eta Analen luzera eta edukia

Bi lanetako testua, orain dauagun bezala, oso desoso dago. Izan ere, *Historiak* mozturik gelditzen dira V. liburuaren hasieran, 70. urtean, eta *Analak* 66ra arte bakarrik hartzen dute, Neronen heriotza baino bi urte lehenago. Horrez gainera, azken hauetan, ia V. liburu osoa falta da azken zatian, eta VI. liburuaren hasiera (29-31. urteak), VII.tik X.eraino, eta XI.ren hasiera (37-41. urteak) XVI. liburuaren erdialdean amaitzen dira (66an, esan dugunez).

Estridongo Jeronimok bere *Zakariasi iruzkina*-n (3.14) dakarren berri batek jakinarazten digu bi lanak batera, «Augustorengandik Domizianoren<sup>1</sup> heriotzaraino», hogeita hamar liburu zirela. Liburu kopuruak bien osoa izendatzeak, «enperadoreen bizitzak» bezala izendatzuz, nahikoa argi uzten du nola, oso lehenengotatik, *Historiak* eta *Analak* osotasun bat bezala hartuak izan ziren, aipatu dugun elkarren osagarritasun horren ondorioz. Ez dago jakiterik Tazitok, papirozko *volumina* zirelakoetan, idazti horiei eman zien hasierako ordena horrelakoa izan zen ala ez. Batzuk kopietatik edo kopietatik harako bolumenak izanik, segurrena da kopiatzaileek, denak bateratzean, iritzi zioten sekuentziarik egokiena hautatu izan zezaketela, bera, jakina, gertaeran ordena kronologikoari zerraiona izanik. Jeronimok argi uzten duena da, IV. mende azkenean, bi testuak lan bakartzat jotzen zirela eta esleitzentzitzen segida, berriz, kronologikoa zela.

Beraz, Jeronimok emandako hogeita hamar liburu kopurua onartzen badugu, hamahiru liburu bakarrik dauzkagu osorik, eta V.

<sup>1</sup> Datu hau ez dago kontracsanean, *Analak* Tiberiorekin hasteari buruz gorago esandakoarekin. Izatez, Tazitok, Tiberioren agintaldiarekin hasi aurretik, Augustoren azken unez mintzo den kapitulu batzuk sartzen ditu, eta hori hitzaurrean bertan iragartzeari du: «Hortik datorkit asmoa, Augustoren berri laburki eta azken aldia bakarrik emateko eta, gero, Tiberioren eta gainerakoenei berri, sunzin eta norkeria gabe, horiekikoan urrun baitauka». Hasiera horrexek justifika dezake Jeronimoren iritzia, lana abiatzen den figurari buruz.

liburuaren zati nimino bat eta VI. liburuaren zati handi bat, gehi *Historien* V. liburuaren erdia baino gutxitxoago zela pentsa genezakeena. Galdutakoaren totala Tiberioren agintaldi zati bat izango litzateke (29-31. urteak), Kaligularen agintaldia eta Klaudioren lehenengo urteak (37-41. urteak), eta Neronen agintaldiaren azkena (67-68). Halaber, *Historiak* 70. urtean, Vespasianok agintea hartzetik laster, amaitzen direla kontuan izanik, 70etik 96ra doazen urteak izango lirateke, hau da, Vespasianoren agintaldirik gehiena, Titorena eta Domizianorena, zeinaren heriotza 96an gertatzen den.

Jeronimok aipaturiko liburu kopuru osoa *Historien* eta *Analen* artean nola banatu beharko litzatekeen erabakitzeko, saiakera ugari izan da. Hipotesirik onartuena, R. Syme-k proposatua, *Analak* hexadetan antolaturik zeudelako ideiatik abiatzen da. Ideia honen oinarria da lehenengo sei liburuak Tiberioren agintaldiari eskaintzen zaizkiola, eta Neronen aginteratzea XIII. liburuan hasten dela. Liburuengana segida, beraz, seinakako multzoetan, honakoa litzateke: I-VI. liburuak, Tiberio (14-31); VII-XII. liburuak, Kaligula eta Klaudio (32-54); eta XIII-XVIII. liburuak, Neron (54-68).

*Analei* hamazortzi liburu esleitzeak *Historien* kopurua hamarrean uztea dakar, eta onartzea ezen, lan honen amaia 70. urtean gelditzen denez gero, gainerako kondairak, 96. urtera arte, zortzi liburu baino gutxiagotan sartu beharko lukeela. Hipotesi honi planteatzen zaion eragozpen nagusia da desproporcionatua nabaria lekarkeela lehenengo lau liburuengana historiaturiko liburu-kopuruan; lehenengo bietan bi urte, eta hurrengo zortziengana, gainerako hogeita seiak bildu beharko lirateke; halaber, *Analen* azken bi liburuek Neronen agintaldiko azken bi urteak azaltzen jardun beharko lukeete.

Arazo hau konpondu guran, Sagek gaia banatzeko beste era bat iradokitzen du. Proposamen horren koskarik handiena da bere formulazioa Jeronimoren albistea okerra izatetik abiatzen dela. Jeronimok Tazitoren lana jada desosorik ezagutuko zukeen. Lan honek, berez, 31 liburu izango zituen, Plinio Zaharraren *Historiek* bezala. 31 liburuotarik 17 *Analei* legozkieke, eta 14 *Historiei*.

## 2. 2. 3. Transmisioa

Kontsolagarri gisan, segurrenik, literatura latindarretik kontserbatu zaizkigun lanak onenak direla esan ohi da. Tazitoren kasua beste-

lakoaren erakusgarri izan daiteke. Kanona osatzen duten autoreek kontserbatu izan dira, eta kanon hori, mendeetan zehar, aldatuz joan da: klasikotzat oso goiz aitorturiko autoreei, denborarekin, beste batzuk gehituz joan zaizkie, arrazoi ezberdinak bide: euren eduki morala; transmititu duten tankera historiko, mitologiko, instituzionaleko ugari-tasuna; eguneroko arazoekiko lotura zuzena... Bere garaian, Plinio Gaztearen adierazpenei jaramon egitekotan, idazle miretsia izan zen Tazito ahaztuta egon zen mendeetan zehar. Egia da ondorengo historialari handiengana eragina izan zuena, hala nola Amiano Martzelinoengana (IV. mendea), baina bana-banako eragina izan zen, orokorra izatera iristen ez dena, transmisio egokia segurtatzeko nahitaezko berau. Horrexek esplikatzen du bere lanaren estimuari buruzko nahasmena, Jeronimorenengana nabaria dena, eta, batez ere, esplikatzen du nola hain desosorik iritsi den guregana, eta eskuizkribu bakarrean, zeinetik gainerako eskuizkribuak datozen.

Lana kontserbatzen diguten kodizeetariko bat, oraintxe ikusiko dugunez, garai karolinokoa da, non Frantzian kokaturiko «errenazimendu» bat gertatzen den. Idazkeria karolina sortzen da, irakurtze errazkoea eta Europa guztira zabaltzen dena; eta bere jarraitzaile sentitzen diren kultura bat berreskuratzeko oinarrizkotzat jotzen diren autoreak kopiatzen dituzte. Bestea Monte Cassinoko abadiatik dator, XI. mendekoa da, —Abadiaren distiraldia bera—, eta hizki beneventarrean idatxita dago.

Eskuizkribu bakoitzetik transmitituriko lanak ez dira berdinak. Mediceus I.a izeneko kodexa, IX. mendekoa, Fulda monastegitik dator, Karlomagnoren Inperioaren eremuko berau, eta orain Florentzian dago (Biblioteca Mediceo-Laurentiana, 68.1). *Analen* lehenengo sei liburuak dakartzat, Tiberioren agintaldia, gorago aipatu ditugun hutsune-ekin. Fuldatik Corbeyko monastegira pasatu zen, Westfalian berau, eta XVI. mende hasieran Italiara eraman zuten, italiar humanistek XV. mendean abiatu zuten eskuizkribuen «aurkikuntza» eta «berreskuratze» prozesu luzean. Italian, Mediciko Joan kardinalaren eskura pasatuko zen, zeina gero Leon X.a izango zen, eta kodize horrexen gainean oinarriturik dago *editio princeps*-a, Filipo Beroaldo Gaztearen eskutik.

*Analen* XI-XVI. liburuak eta jarraian *Historien* I-V liburuak transmititzen dituen Mediceus II.ari buruz (Biblioteca Mediceo-Laurentiana, 68.2), XV. mendean Florentziara pasatu zen, segurrenik, Boccaccioaren interbentzioari esker.

Geroagoko eskuizkribuen balioari buruzko anitz eztabaidaren ondoren, badirudi gehiengoak onarturiko ondorioa iritsi direla, hots, horiek guztiak aipaturiko eskuizkribuetatik edo denen eredu komun batetik datozena. Ondorioa, testuaren leheneratzean, ahalbideen urritasuna da, zenbait pasartetan arazorik agertzen den guztian.

### 3. HISTORIA GENERO BEZALA

Historialari greko-latinoak eta oraingoak bereizteko, hitz bera erabiltzeak hasieran nahaste bat eragiten du, nahitaez argitu beharrekoa, Tazitoren irakurketari okerreko ikuspegitik heldu gura ez badiogu.

Erromatarrentzat, historia genero literario bat da. Baiezpen hau, idazleen euren ikuskeran oinarritua eta genero ezberdinaren idatzeta eramateko erari buruz arauak ematen dituena, ez da transmititzen denaren egijatasunarekin uztarrezina. Berez, horrek ez lekarke gertaeren azalpena irakurleari atsegin egiteko behar den apainduriaz janztea besterik. Esaterako, paisaien eta batailen deskribapenak sartzea gomendatzen da; eta, hain era argian ez bada ere, historialariak egoki deritzen pertsonaien karakterizazioari laguntzen dieten diskurtsoak nahitaezkoak dira. Diskurtso horiek, estilo zuzen eta zeharrean enuntziatuak, kondaira historikoetan tartekatzen dira.

Hala ere, literatura idazteak badu eskakizun bat, guk egijatasunaren parekotzat jotzen dugunaren aurkakoa, objektibilitatea, alegia, gertaeren aurkezpenean. Historialaria objektiboa izan daitekeela ukatzearekin ez dugu hain pentsaera errrotu honena egiten. Izatez, diskurtso historiko «científico» datxekion subjektibilitatea erromatarren diskurtso historiko-literarioaren subjektibilitatetik urrun dago. Gaur egun, historia metodo ezberdinak aplikatuz idazten da. Metodooak historialariaren ideologiarengan arabera hautatzen dira, eta horrexek erabakitzentzu gertaerak nolako jitez aurkezten diren, maneiaturiko datuei nolako hierarkia ezartzten zaien, etab. Baino historialaria hautaturiko metodoa datu egiazta-tuen gainean aplikatzen saiatzen da. Bestalde, objektibilitatearen sentsa-zioa, oro har, prosa aseptikoa erabiliz transmititzen da, zeinaren bitartez ez baitoa irakurlearen gozamen bila, haren informazio eta formazio bila baizik.

Erromatar historialariekin euren azalpena, sarritan, protagonista egiten dituzten gizakumeen izaerari dagozkien datuetan oinarritzen

dute; arreta irabazteko eta norabidetzeko asmoa duten pasarteekin markatzen dituzte giroak; gogoeta eta iritzi propioak sartzen dituzte, ez datu fidagarrien arteko erlaziotik ateratak ondoriotzat, egintza bakanen amaitzat baizik. Hala dio Tazitoren aditu batek, historialari honi prozedura induktiboa esleitzen dionean.

#### 3.1. Aurrekari literarioak

Premisa hauen onarpenak egiten du, bai historiaren, bai poesia-ren kasuan, aurrekariak interesgarri izan daitezen, latin-hizkuntzako edozein historialariri buruz iritzirik emateko. Generora egokituriko arau erretorikoak begiten dituen aipuetatik ateratzen denez), nahiz eta historiok zer datatan amaitzen ziren jakin ez. Tazitoren garaikide Fabio Rustikok ere Neronen aldia historiatu zuen.

Ez dago aierurik ere egiterik autore hauek nolako eragina izan zuten Tazitoren historiara hurbiltzeko eran. Horixe da arrazoia, aurreko historialariek Tazitorenengan izan zitzaketen eraginez mintzatzean, Salustio argi propioz nabarmenzeko. Inguruau izan zitzuten zirkuntzantz politikoetan halako kointzidentzia bat, baita Zizeronen prosatik aldentze komuna ere, badira aski arrazoi, bien artean kidetasun argia hautemateko.

#### 3.2. Ezaugarri propioak

Tazitoren eta Salustioren arteko kidetasunak badiren arren, ez dago dudarik, ez politikoki, ez kulturalki, parekotasunak ez direla handiegiak. Salustiok idazten duenean, Erromako egoera politikoa sendatzeko modukoa da, erakundeak ibili baitabilitza eta arriskua gizabankoen portaeratik baitator. Botere absolutua ez da mamitzeraino iristen eta, Zesarren eta Pompeioreni arteko gerra zibila bizi duen arren, Zesarren aldean jokatu izanak ez dirudi benetako lorratzik utzi dionik. Haren monografieei darien pesimismoak, arrazoi jakinen ondorio denak eta, interpretazioa ekarrita, indibidualez haragoko kausen berri ematen digunak, ez dauka Tazitoren pesimismoaren antzik; hau jada egitura behin betikora iritsitako errealtitate jarraituari buruzko autorearen analisiaren emaitza da.

Bestalde, Salustiorekiko antzak honako kontuan oinarritzen dira: nahiz eta Tazitok *analgileen* tankeran idatzi, hots, narrazioaren

gida edo egiturazko banakuntzaren irizpidetzat, urteko espazioa hartzeko tradizioari eutsi, Augustorekin gertaturiko aldakuntza politikoen ondorioz, hurrengo monarkak narrazioaren ardatz bihurtu dira; horrek Katilinaren eta Jugurtaren monografietara hurbiltzen du. Tiberiori dedikaturiko hexada, nolabait, monografia antzekoa da, zeinaren irakurketak bere baitan duen zentzua. Kontradikzio hori IV. mendean jada desagertua da. *Analen* eta *Historien* irakurketari biografia independentei bezala ekiten zaie. Hortik dator Jeronimok, Tazitoren lanaz mintzatzean, Augustorengandik Domizianorenganako enperadoreen bizi-tzak bezala ikustea.

Tazitoren historialari gisako egiatasuna dela eta, bi lanen hitzarrre programatikoak dauzkagu. Bietan, aurre-azalpen bat ematen du, bere idatz-jarrera zein den; azalpen hori argitu egin nahi du, Erromako sistema politikoek sorreratik izan duten eboluzioaren ondorioz. Historietan, hitzaurrearen ardaztat, jardun historiatzailea hartzen da, zirkunstantzia politikoen araberakoa; *Analetan*, historia idazteko era ezberdinak justifikatzen dituzten zirkunstantzia politikoak dira ardatz. Lehen kasuan, historiografiaren azalpen labur bat; bigarrenean, Erromako historia politikoaren kondaira labur bat. Bietan, ideia berbera: erregimen politikoak erabakitzentzu historiagilearen jarduna, haren egiatasuna eta, areago oraindik, haren balio literarioa.

Puntu komuna Augustoren agintaldiaren azkenera iristean lortzen da. Bakarraren aginteak egiari moxala ezartzen dio; batzuetan, pertsonaia historiatuaren onerako eta, beste batzuetan, txarrerako aldatzen du. Tazito, monarkia baten menpean bizi arren, ez da bortxaturik sentitzen, Trajanorekin askatasun garaia bizi baitute, non (*Historiak* 1.3) *sentire quae uelis et quae sentias dicere licet*. Bai lan batean, bai bestean, askatasun horixe da bere historiaren neutraltasuna baiesteko modua damaiona, eta hori Mendebaldeko ondare kulturalera igaro diren formulekin zehazten du. *Historietan* dio: *neque amore quisquam et sine odio dicendus est*. Eta, *Analetan*, ideia bere erarik ezagunenean errepikatzen da, beharbada, enuntziatu orokorragoari eragiten dion laburtasun handiagoagatik: *sine ira et studio*.

Tazitoren lan historikoaren berezitasunak ulertzeko ahaleginean, beharbada, jakin beharrekoa izango da diktadura batek idazleengan nolako eragina daukan. Txandako monarkak ezarritako araura makurturen ez den edozein jarduni errezeloz begiratzen dion aginte zorrozepe-

an bizi izaten ohiturik, politikariak ezertan nabarmendu gabe pasatu behar du, eta idazleak arbitrarrietate nabarmenegikoa ez den monarka bat tronuratzeak eskainiko dion aukeraren zain egon behar du. Baina inoiz ahaztu gabe monarkaren botere absolutuak (eta horixe da K.o. I. mendearen azkenetako egoera, Tazito bere *Historiak* idazten hasten denean) hortxe jarraitzen duela, jokatzeko gertu, eta monarka arrazoizko baten heriotzak beste baten zorotasuna ekar dezakeela. Zirkunstantzia horietan, historialaria beharturik dago informazioa era neutroan, ez konprometigarrian, ematera, bere historia era onezkoan apaintzera, txandako enperadorearen ederra lortu gura badu; edo bere pentsakizunak anbiguotasunean, zehar-aipuetan, ironian ezkutatzera. Ez dago garaien ustelkeriari buruzko adierazpen borobilik egiterik, Salustioren antzera, ez jarrera-hartze zuzenik, interpretazio okerra izan dezaketen auzietan. Zizeronen estiloak idazleengan eragindako neketik aparte, badira arrazoia, beste prosa mota bat abiatzeko, ideiak halakotzat enuntziatu gabe transmititzeko bidea ematen duena.

Tazitok bete-betean bereganaturiko egoera horrexek esplika lezake, beharbada, zergatik ez duen betetzen bere *Historien* (1.1.4.) hitzaurrean eginiko promesa: Nerva eta Trajanoren agintaldien historia idaztea, mundu segurragora itzultzeaz baliaturik. Botere absolutuak, *sine ira et studio* delakoaren, Tazito historialariaren lemaren aurrez, gertaeren azalpenean jarrera-hartze bat bilatzen du. Horren ausentzia berez da deliktiboa.

Tazitoren prosa berdingabea da eta ez zuen imitatzailerik ere izan. Egia historikoak mila aurpegia hartzen ditu. Tazitoren adierazpen pertsonalak urriak dira eta, euretariko baten aurrez gaudenean ere, benetako esanahia –idatzira pasatzean, autoreak gogoan zeukan– ez da nabaria. Bakoitza norabide bat baino gehiagotarantz bidera daiteke; horregatik, zaila da jakitera heltzea, ez bakarrik haren jarrera politikoa zein zen, baizik zeintzuk printzipio erlijioso eta moraletatik abiatzen zen.

Gertaerei buruz jaulkitako iritziak pilatu egiten dira: haietaz arduratu ziren historialariak iritzi ezberdinak dituzte; zurrumurruet –ia beti askotarikoak, gertaera berari buruz– norabide ezberdinatarantz daramate; inori zehazki esleitzen ez zaizkion eta, beraz, objektibilitatea sentsazio handiagoa eman dezaketen informazioak ugaldu eta elkar-gaindu egiten dira, eta gertaerak errealitatean izan ohi diren bezain koa-

dro konplexuaren aurrez uzten dute irakurlea. Brakiologiak, lotura logikozko partikulen urritasuna, hitzen eta esamoldeen erabilerako alda-kuntza, dena batzen da, interpretazio bakar bat zaitzeko.

## 5. HARRERA.

Tazitoren eragina urria da bere heriotzaren ondorengo lehenengo mendeetan, eta ia hutsa, Erdi Aroan zehar. Ikusia dugunez, haren «aurkikunde» XV. mendean gertatzen da eta edizio osoa, 1515ean. Hots, humanisten artean, zizeronismorik beroena zabaltzen denean.

Lehen-lehenetik, Tazitorri begiratzeko iritziak ezberdinak dira. Alde batetik, harengan, onartutako ereduaren, Zizeronen aldean, latin txarraren kasu argi bat ikusten dutenak daude; bestetik, haren lanak eta, euron artean, *Germania*, batez ere, nazionalismo hasberriaren euskarritzat, gartsuki hartzen dituztenak eta haren argitasun politikoari arretaz begiratzen diotenak daude.

Baina, batez ere, XVI. mendearen azken aldetik eta XVII. mendearen lehenengo erdian zehar dugu, Tazitoren alde politikoak garrantzirik handiena hartzen duena. 1580-1581ko ikasturte akademikoan, Justus Lipsiusek haren lana 1580ean argitaratu zuenetik berehala, Marko Antonio Muretek Erroman hiru hitzaldi ematen ditu Tazitoren gainean, eta 1589an, Lipsiusek bere *Politicorum libri sex* lana argitaratzen du, «Tazitismoa» bezala ezaguturiko mugimenduaren sorreran eragin handia izan zuena. Lan honen edukiak ondorengo komentaristek eramango dituzten jarraibide formalak ere eskaintzen ditu. Lipsiusek autore askoren aipuak biltzen ditu, gobernatzuenen jokabideareen gida izateko asmoz; horien denen artean, pasarterik gehien ematen duena Tazito da. XVI. mende azkenean hasi eta ia mende oso batean zehar indarrean jarraituko duen pentsamendu korronteak era ezberdinak hartzen ditu, nahiz eta interesgarrienak ‘Estatu arrazoia’ delakoarekin zerikusi estua daukan.

Izan ere, gehiegizko zizeronismoaren aurkako erreakzio gisan, Tazitoren prosak arreta pizten du bere trinkotasunagatik, maximetan jaulkitako pentsamenduaren zolitasunagatik, adierazpenaren kontzisio-agatik. Historialarien aldekoak eta kontrakoak sarritan jarkitzen dira. Haren balorapena, historialari eta moralista bezala, alde politikotik

bereitzetina da eta Tazitoren gurtzaren erarik argiena daka: haren garrantzia, pentsamendu politikoaren historiarako. Haren maximek edo, XVII. mendean deitzen zaien moduan, aforismoeik, interes morala eta politikoa elkartzten dituzte. Parekotasun tazitoak ezartzen dira, zenbait monarka garaikide iradokitzen dituztenak: Tiberioren pertsonaia, kasuaren arabera, Albako Duke, Felipe II., Olivaresko Konde Duke edo herri bateko politikari garrantzitsuarekin bat egiten da, idazten den une eta lekuaren gorabeheran.

Urte horietan zehar, *Iruzkinak* ugaltzen dira. Horien errepresen-tazio idatzirik nabarienek aforismoei toki nabarmena ematen dite, Hipokratesek medikuntzan markaturiko ereduari jarrai, edozein zientziak bereganatzeko modukoa berau. Eta autorerik ezagunenak giro politikokoak dira, hitzaren esanahi hertsiko politikariak ez direnean.

P. Burke-k dioenez: «They (iruzkingileak, alegia) were not content with a tacitean Tacitus, but wanted what Álamos de Barrientos called *ciencia política*... Alamos wrote with admiration: *Los secretos de estado que toca y misterios de la prudencia política, que tiene encerrados en sus relaciones.*» Misterio hauek haren *Aforismoa* ondo aztertuz argitu daitezke, hortxe baitago Tazitoren jakinduria politikoa, azalean sumaezina.

Bidezko denez, horien interpretazio librean, bada ‘makiavelismoarekin’ nahastu ahal izatea ere. Ohartarazi dutenez, bada arazorik, pentsamendu politikoko bi korronteen arteko mugak ezartzean. Anbi-guetatez markaturiko Tazitoren idaztiak interpretatzeko zailtasunari berezko zaio ondorio ezberdinetara iritsi ahal izatea, halako neurrian, non, oraindik gaur ere, iritzi kontrakoak baitaude haren jarrerari buruz, monarkia bezalako instituzioen aurrean.

XVII. mendearen azkenerantz, tazitismoa indargetuz doa eta Tazitoren balorapena unean tñeko korronte estilistikoetara egokitzen da, nahiz eta inoiz ez galdu konnotazio politikorik, irakurlearen ideo-logicaren arabera, kolore bata edo bestea hartzen duenik.

Carmen Codoñer Merino  
Salamancako Unibertsitatea

## Bibliografia

- AUBRION, E. *Rhetorique et histoire chez Tacite*, Metz, Faculté des Lettres, 1985.
- BARTHES, R., «Tácito y el barroco fúnebre.» *Ensayos críticos*. Barcelona: Seix Barral, 1967.
- BURKE, P., «*Tacitism*», *Tacitus* (ed. T. A. DOREY), Londres, Routledge and Kegan Paul, 1969, 149-171. or.
- BURKE, P., «*Tacitism, scepticism, and reason of state*», *The Cambridge history of political thought. 1450-1700* (ed. J. H. BURNS), Cambridge University Press, 1991, 479-498. or.
- GOODYEAR, F. R. D., *The Annals of Tacitus*, 2 bol., Cambridge, Cambridge University Press 1972.
- LUCE, T. J.- WOODMAN, A. j. (edk.), *Tacitus and the Tacitean Tradition*, Princeton, Princeton University Press, 1993.
- LUCE, T. J., «*Tacitus conception on historical change: the problem of discovering the historian's opinions*», *Past perspectives: studies in Greek and roman historical writing* (MOXON, I.S.; SAMART, J.D.; WOODMAN A.J. eds.), Cambridge, Cambridge University Press, 1986, 143-157. or.
- MARAVALL, J. A., *Estudios de historia del pensamiento español. Siglo XVII*, Madrid, Cultura Hispánica, 1975.
- MARTIN, R. H., *Tacitus*, Berkeley, 1981.
- MARTIN, R. H., «*Structure and interpretation in the 'Annals' of Tacitus*», *ANRW II. 33. 2*, 1990, 1500-1581.
- MENDELL, Clarence W., *Tacitus: the man and his work*, New Haven, Yale University Press-Oxford University Press, 1957.
- SAGE, M. M., «*Tacitus' historical works: a survey and appraisal*», *ANRW II. 33. 2*, 1990, 851-1030.
- SHOTTER, D. C. A., «*Tacitus view of emperors and the principate*», *ANRW II. 33. 5*, 1991, 3263-3331.
- SYME, R., *Tacitus*, 2 bol., Oxford, Clarendon Press 1958.
- SYME, R., *Ten studies in Tacitus*, Oxford, Oxford University Press, 1970.
- TARRANT, R. J., «*Tacitus. Annales*», L. D. REYNOLDS, *Texts and Transmission: a survey of the Latin Classics*, Oxford, Clarendon Press, 1983
- WALKER, B., *The 'Annals' of Tacitus: a study in the writing of history*,

Manchester, Manchester University Press, 1952.

WINTERBOTTOM, M., «Tacitus» L. D. REYNOLDS-ENGAN, *Texts and transmission*, Oxford, Oxford University Press, 1981, 407-411. or.

WOODMAN A. J., *Velleius Paterculus: the Tiberian narrative*, Cambridge, Cambridge University Press, 1977.

WOODMAN A. J., *Rhetoric in classical historiography: four studies*, London, Croom Helm, 1988.

P. K. TAZITO

ANALAK

*P. CORNELI TACITI ANNALIVM  
LIBER PRIMVS*

[1] *Urbem Romam a principio reges habuere; libertatem et consulatum L. Brutus instituit. Dictatura ad tempus sumebantur; neque decemviralis potestas ultra biennum, neque tribunorum militum consolare ius diu valuit. Non Cinnae, non Sulla longa dominatio; et Pompei Crassique potentia cito in Caesarem, Lepidi atque Antonii arma in Augustum cessere, qui cuncta discordiis civilibus fessa nomine principis sub imperium accepit. Sed veteris populi Romani prospera vel adversa claris scriptoribus memorata sunt; temporibusque Augusti dicendis non defuere decora ingenia, donec gliscente adulazione deterrentur: Tiberii Gaique et Claudi ac Neronis res florentibus ipsis ob metum falsae, postquam occiderant, recentibus odiis compositae sunt. Inde consilium mihi pauca de Augusto et extrema tradere, mox Tiberii principatum et cetera, sine ira et studio, quorum causas procul habeo.*

[2] *Postquam Bruto et Cassio caesis nulla iam publica arma, Pompeius apud Siciliam oppressus exutoque Lepido, imperfecto Antonio ne Iulianis quidem partibus nisi Caesar dux reliquis, posito triumviri nomine consulem se ferens et ad tuendam plebem tribunicio iure contentum, ubi militem*

**ANALAK  
LEHEN LIBURUA**

1. Erromako hirian, lehenengotan, erregeek agindu zuten; askatasuna eta kontsulatua Luzio Brutok ezarri zituen. Diktadurak aldi baterako onartzen ziren. Dezenbiroen agintea ere ez zuen pare bat urtetik gora iraun, ezta tribuno militarren aginte kontsularrak ere luzaro. Ez Zinnaren, ez Sularen nagusioa ez zen luzea izan; Ponpeoren eta Krasoren boterea laster etorri zen Zesarren eskura, eta Lepidoren eta Antonioren armak Augustorenera, zeinak, printze izenez, liskar zibilek ahituriko mundua hartu baitzuen bere inperiopian. Baina erromatar herri zaharraren onaldiak eta txarraldiak idazle argiek kondairatuak dituzte, eta Augustoren garaiari ere ez zitzaison hura kontatzeko buru ospetsurik falta izan, zuriherria handitzean, atzera egin zuten arte. Tiberioren eta Gaioren, eta Klaudioren eta Neronen historiak, eurak agintean zirela, beldurragatik gezurrezkoak izan ziren, eta, eurak hildakoan, gorroto izan berrien eraginpean idatziak izan ziren. Hortik datorkit asmoa, Augustoren berri laburki eta azken aldia bakarrik emateko eta, gero, Tiberioren eta gainerakoentzako berri, sumin eta norkeria gabe, horiekiko urrun baitaukat.

2. Bruto eta Kasio akabatuak zirela, jadanik armada errepublikarrik ez zela, Ponpeio Sizilia ondoan suntsiturik, Lepido erauzirik eta Antonio hilik, Juliotar alderdiari Zesarrez beste buruzagirik gelditu ez zitzaiorean, honek triunbio izena utzi eta bere burua kontsul izendatu zuen eta, herria babesteko tribuno-ahalarekin pozik, armada sariz eta herria jana-

*donis, populum annonam, cunctos dulcedine otii pellexit, insurge paulatim, munia senatus magistratum legum in se trahere, nullo adversante, cum ferocissimi per acies aut proscriptione cecidissent, ceteri nobilium, quanto quis servitio promptior; opibus et honoribus extollerentur ac novis ex rebus aucti tuta et praesentia quam vetera et periculosa mallingent. Neque provinciae illum rerum statum abnuebant, suspecto senatus populique imperio ob certamina potentium et avaritiam magistratum, invalido legum auxilio quae vi ambitu postremo pecunia turbabantur.*

[3] Ceterum Augustus subsidia dominationi Claudium Marcellum sororis filium admodum adolescentem pontificatu et curuli aedilitate, M. Agrippam ignobilem loco, bonum militia et victoriae socium, geminatis consulatibus extulit, mox defuncto Marcello generum sumpsit; Tiberium Neronem et Claudium Drusum privignos imperatoriis nominibus auxit, integra etiam tum domo sua. Nam genitos Agrippa Gaium ac Lucium in familiam Caesarum induxerat, necdum posita puerili praetexta principes iuventutis appellari, destinari consules specie recusantis flagrantissime cupiverat. Ut Agrippa vita concessit, Lucium Caesarem euntem ad Hispaniensis exercitus, Gaium remeantem Armenia et vulnere invalidum mors fato propera vel novercae Liviae dolus abstulit, Druso que pridem extincto Nero solus e privignis erat, illuc cuncta vergere: filius, collega imperii, consors tribuniciae potestatis adsumitur omnisque per exercitus ostentatur; non obscuris, ut antea, matris artibus, sed palam hortatu. Nam senem Augustum devinxerat adeo, uti nepotem unicum Agrippam Postumum, in insulam Planasiam proiecerit, rudem sane bonarum artium et robore corporis stolidae ferocem, nullius tamen flagitiis conpertum. At hercule Germanicum Druso ortum octo apud Rhenum legionibus inposuit adscirque per adoptionem a Tiberio iussit, quamquam esset in domo Tiberii filius iuvenis, sed quo pluribus munimentis insisteret. Bellum ea tempestate nullum nisi adversus Germanos supererat, abolendae magis infamiae ob amissum cum Quintilio Varo exercitum quam cupidine proferendi imperii aut dignum

riz, denak bakearen gozotasunez xarmatu zituenean, apurka-apurka gorantz egin zuen; senatuaren, magistratuen, legeen eskubideak bereganatu zituen, aurka egiteko inor gabe, amorratuenak gerran edo proskripzioetan akabatu baitziren, eta gainerako nobleek, zenbat eta zerbitzeko gertuago, hainbat ondasun eta ohore gehiago hartzen baitzuten, eta, egoera berrian gailendurik, orainaldi segurra nahiago baitzuten lehenaldi arriskutsua baino. Probintziek ere gauzen egoera hari ez zioten muzinik egiten, susmoti baitziren senatuaren eta herriaren gobernuaz, botertsuen haserre eta magistratuen gutiziengatik, indarrak, handikeriak eta, funtsean, diruak astinduriko legeen lagunza alferrekoa zelarik.

3. Bestalde, Augustok, bere nagusitasunaren euskarri guran, Klaudio Martzelo, bere arrebaren seme eta artean mutiko, pontifikatura eta ediltasun kurulera jaso zuen, eta Marko Agripa, jatorri apaleko baina soldadu on eta garaipen-laguna, urte biko kontsulatura, Martzelo hildakoa, bere suhi eginkik; Tiberio Neron eta Klaudio Druso semeordeak enperadore tituluz ohoratu zituen, nahiz eta oraindik bere familia oso-rik zeukan. Zeren Gaio eta Luzio, Agriparen semeak, Zesarren familian sarrarazi baitzituen, eta, oraindik haustoga utzi gabe, gaztetasunaren printze eta kontsul izendatu nahi izan zituen gartsuki, zaputz-plantak egin arren. Agripak biziari agur egin zionean, Hispaniako armadearantz zihohan Luzio eta Armeniatik larriki zaurituk zetorren Gaio herio fatalki goiztarrak edo, beharbada, Libia amaordearen jukutriak eroan zituenean, eta, Druso aspaldi hilik, semeordeetarik Neron bakarrik gelditzen baitzitzion, dena beronengan bildu zen: seme, imperioko kolega, tribuno-ahalean kide egin zuen, eta armada guztiei handiro aurkeztua izan zen, ez, lehenago bezala, amaren trikimaina ilunez, gomendio ageriz baizik. Izan ere, Libiak hainbestean goia hartu zion Augusto zaharrari, ezen honek Planasiako irlara baztertu baitzuen bere birloba bakar Postumo Agripa, erabat trebetasun gabea eta gorputzez harroki indartsua, nahiz eta bat ere zitalkeriarik gabea. Drusoren seme Germaniko, osteria, zortzi legioren buru jarri zuen Rhin inguruan, eta Tiberio hura semetzat hartzera behartu zuen, Tiberiorenean seme gazte bat bazen arren, euskarri gehiago izatearren. Garai hartan, ez zegoen germaniarren aurkakoaz beste gerrariak, eta berau Kintiliano Barorekin galduztako armadaren lotsaria garbitzeagatik areago, imperioa hedatzeko irrikagatik edo sari duinen gogoagatik baino. Barruan, gauzak lasai zeuden, magistratuek euren izenari eusten zioten; gazteenak Accioko

*ob praemium. Domi res tranquillae, eadem magistratuum vocabula; iuniores post Actiacam victoriam, etiam senes plerique inter bella civium nati: quotus quisque reliquus qui rem publicam vidisset?*

[4] *Igitur verso civitatis statu nihil usquam prisci et integri moris: omnes exuta aequalitate iussa principis aspectare, nulla in praesens formidine, dum Augustus aetate validus seque et domum in pacem sustentavit. Postquam proiecta iam senectus aegro et corpore fatigabatur; aderatque finis et spes novae, pauci bona libertatis in cassum disserere, plures bellum pavescere, alii cupere. Pars multo maxima imminentis dominos variis rumoribus differebant: trucem Agrippam et ignominia accensum non aetate neque rerum experientia tantae moli parem, Tiberium Neronem maturum annis, spectatum bello, set vetere atque insita Claudiae familiae superbia, multaque indicia saevitiae, quamquam premantur; erumpere. Hunc et prima ab infantia eductum in domo regnatrice; congestos iuveni consulatus, triumphos; ne iis quidem annis, quibus Rhodi specie secessus exul egerit, aliud quam iram et simulationem et secretas lubidines meditatum. Accedere matrem muliebri inpotentia: serviendum feminae duobusque insuper adolescentibus, qui rem publicam interim premant, quandoque distrahant.*

[5] *Haec atque talia agitantibus gravescere valetudo Augusti, et quidam scelus uxoris suspectabant. Quippe rumor incesserat, paucos ante menses Augustum, electis consciis et comite uno Fabio Maximo, Planasiam vectum ad visendum Agrippam; multas illic utrimque lacrimas et signa caritatis spemque ex eo fore ut iuvenis penatibus avi redderetur: quod Maximum uxori Marciae aperuisse, illam Liviae. Gnarum id Caesari; neque multo post extincto Maximo, dubium an quiesita morte, auditos in funere eius Marciae gemitus semet incusantis, quod causa exitii marito fuisse. Utcumque se ea res habuit, vixdum ingressus Illyricum Tiberius properis matris litteris accitur; neque satis conpertum est, spirantem adhuc Augustum apud urbem Nolam an exanimem reppere-*

garaipenaren ondoren, eta zaharrik gehienak ere gerra zibilen artean jaio ziren: zenbat gelditzen zen errepublika ikusi zuenik?

4. Hala, beraz, errepublikaren egoera iraulirik, antzinako osotasunetik ez zen ezer geratzen: denak, berdintasuna galdurik, printzearen aginduen zain zeuden, orainaren beldurrik bat ere gabe, Augusto, osasun betean, bere burua, etxea eta bakea sostengatzeko gauza zeno. Haren adin aurreratua gorputzeko minekin errenditurik, haren azkena eta itxaropen berriak bistaratzen hasi zirenean, ostera, gutxik aipatzen zuen alferrik askatasunaren ondasunik; gehienak gerraren beldur ziren, beste batzuek horixe nahi zuten. Parte batek, gehien-gehienek, hain zuzen, etortzear ziren nagusiei buruzko zurrumurrurik anitzenak zabaltzen zituen: Agripa ankerra zela, eta laidoak sumindua, eta ez adinez, ez bizitzako esperientziaz, ez zegoela hain ardura astunaren neurrira; Tiberio Neron urtez heldua eta gerran zaildua zen, baina Klaudiotorrei zegokien hantuste zaharra zeraman, eta, ezkutatzen saiatu arren, anker-usaina ere galanta kanporatzen zitzzion. Eta, gainera, erret etxearen hezia izan ei zen; gaztetarik hornitu zuten kontsulatuz eta garaipenez; eta, erretira itxuran, Rodasko erbestean igarotako urte haietan ere, ez zuen gorrotoa eta simulazioa eta nahikunde sekretuak besterik gogoan izan. Ama ere hantxe zen, gainera, emakumezkoei dagokien ezintasunez: andere bat zerbitu behar eta, gainera, bi nerabe, errepublika zanpatuko zutenak, noizbait berau deselegateko.

5. Halako eta antzoko aieruetan, Augustoren osasuna txarrerantz zohoan, eta batzuek haren emaztearen krimenen bat susmatzen zuten. Izan ere, zurrumurrua zabaldu zenez, Augusto, hil batzuk lehenago, hautatu batzuez beste inork jakin gabe, eta Fabio Maximok bakarrik lagundurik, Planasiara eramán ei zuten, Agripa bisitatzen, eta han, alde bietarik, malko eta xera erakuste ugari izan ei zen, nondik itxaropen bat bazela zirudien, mutila aititaren etxera itzul zezaten. Maximok bere emazte Martziari agertu ei zion, honek Libiari, eta Zesarrek jakin ei zuen; eta, ez luzarora, Maximo hil zenean, heriotza eragina izan ez ote zen zalantza zela, Martziaren auhenak entzun ei ziren haren hiletan, bere burua senarren galbidetzat salatuz. Zena zela, Ilirikon sartzea besterik egin ez zuen Tiberio deitua izan zen amaren gutun urgentean; ez dago argi, Augusto Nola hirian aurkitu zuenean, hau bizirik ala hilik

*rit. Acribus namque custodiis domum et vias saepserat Livia, laetique interdum nuntii vulgabantur; donec provisis quae tempus monebat simul excessisse Augustum et rerum potiri Neronem fama eadem tulit.*

[6] *Primum facinus novi principatus fuit Postumi Agrippae caedes, quem ignarum inerumumque quamvis firmatus animo centurio aegre confecit. Nihil de ea re Tiberius apud senatum disseruit: patris iussa simulabat, quibus praescripsisset tribuno custodiae adposito, ne cunctaretur Agrippam morte adficere, quandoque ipse supremum diem explevisset. Multa sine dubio saevaque Augustus de moribus adulescentis questus, ut exilium eius senatus consulto sanciretur perficerat: ceterum in nullius umquam suorum necem duravit, neque mortem nepoti pro securitate privigni inlatam credibile erat. Propius vero Tiberium ac Liviam, illum metu, hanc novercalibus odiis, suspecti et invisi iuvenis caedem festinavisse. Nuntianti centurioni, ut mos militiae, factum esse quod imperasset, neque imperasse sese et rationem facti reddendam apud senatum respondit. Quod postquam Sallustius Crispus particeps secretorum (is ad tribunum miserat codicillos) comperit, metuens ne reus subderetur; iuxta periculoso ficta seu vera promeret, monuit Liviam ne arcana domus, ne consilia amicorum, ministeria militum vulgarentur; neve Tiberius vim principatus resolveret cunta ad senatum vocando: eam condicionem esse imperandi, ut non aliter ratio constet quam si uni reddatur.*

[7] *At Romae ruere in servitium consules, patres, eques. Quanto quis inlustrior; tanto magis falsi ac festinantes, vultuque composito, ne laeti excessu principis neu tristiores primordio, lacrimas gaudium, questus adulacionem miscebant. Sex. Pompeius et Sex. Appuleius consules primi in verba Tiberii Caesaris iuravere, apudque eos Seius Strabo et C. Turranius, ille praetoriarum cohortium praefectus, hic annonae; mox senatus milesque et populus. Nam Tiberius cuncta per consules incipiebat, tamquam vetere re publica et ambiguus imperandi: ne edictum quidem, quo patres in curiam*

zeoen. Izan ere, Libiak guardia zorrotzak ipini zituen etxe eta bide ingurueta, eta agiri alaiak zabaltzen ziren tarteka, harik eta, garaiak eskatzen zuena buruturik, batera iragarri zen arte Augusto hila zela eta Neronek agintea hartu zuela.

6. Aginpide berriaren lehen ekintza Postumo Agripa hiltzea izan zen, zeina, ustekabeen eta arma gabe harrapatu arren, zenturioi batek oztaozta akabatu zuen. Tiberiok ez zuen gai hori aipatu ere egin senatuan: aitaren agindua izan zelakoa egiten zuen, zeinean Agripa zaintzeko ardura zeukan tribunoari agindu izango zion ez zezala hura hiltzeko dudarik izan, berak azken eguna burutuz batera. Egia da Augusto maiz eta zorrotz kexatu izan zela mutilaren portaera, senatuak haren erbestea onar zezan eginet; baina haren gogokeria ez zen inoiz beretarrik hiltzeraino iritsi, eta ez zen sinesteko bilobaren heriotzarik eragingo zuenik, semeordearen segurantzarako. Sinesgarriago zen Tiberiok eta Libiak, hark beldurrez, honek amaorde gorrotoz, mutil susmagarri eta txarto ikusiaren heriotza aurreratu zutela. Armadan ohi denez, agindutako egina zela iragartzen joan zen zenturioari erantzun zion berak ez zuela halakorik agindu, eta senatuaren aurrean kontu eman beharko zela. Sekretukide zen Salustio Krispok (berak bidali baitzion tribunoari agindu idatzia) hori jakin zuanean, beldur baitzen, gezurra zein egia agertu, salapen berdin arriskutsua etor zekion, Libiari adierazi zion ez zela zabaldu behar etxeko sekreturik, ez lagunen aholkurik, ez soldaduen zerbitzurik, eta Tiberiok ere ez zuela agintearen indarrik hautsi behar, dena senatura eramanez: agintearen izaera baitzen norbere buruaz besteri konturik ez ematea.

7. Erroman, osterak, kontsulak, senatoreak, zaldunak, makurpenera bizkortu ziren. Zenbat goitarrago, hainbat faltsuago eta bizkorrago, eta itxura landuagoz (printzearen heriotzaz alaiegi eta ondorengoa agatik tristeegi ez agertzearen) nahasten zuten negarra eta poza, auhenak eta zurikeria. Sexto Ponpeio eta Sexto Apuleio kontsulak izan ziren Tiberio Zesarri leialtasuna zin egiten lehenengoak, eta, euren aurrean, Seio Estrabon eta Kaio Turranio, hura pretoriar kohorteen, hau janarien prefektua; gero, senatua, armada eta herria. Izan ere, Tiberiok kontsulak denean aurretik jartzen zituen, antzinako errepublika bailitzan, eta aginterik ezarri behar ez bailuen. Senatariei kuriara deitzeko ediktuan ere, Augustoren garaian hartutako tribuno-ahalmenaz beste idazpuru-

*vocabat, nisi tribuniciae potestatis praescriptione posuit sub Augusto acceptae. Verba edicti fuere pauca et sensu permodesto: de honoribus parentis consulturum, neque abscedere a corpore, idque unum ex publicis muneribus usurpare. Sed defuncto Augusto signum praetoriis cohortibus ut imperator dederat; excubiae, arma, cetera aulae; miles in forum, miles in curiam comitabatur. Litteras ad exercitus tamquam adeptu principatu misit, nusquam cunctabundus nisi cum in senatu loqueretur. Causa praecipua ex formidine, ne Germanicus, in cuius manu tot legiones, immensa sociorum auxilia, mirus apud populum favor, habere imperium quam exspectare mallet. Dabat et famae, ut vocatus electusque potius a re publica videretur quam per uxorium ambitum et senili adoptione inrepsisse. Postea cognitum est ad introspectiendas etiam procerum voluntates inductam dubitationem: nam verba vultus in crimen detorquens recondebat.*

[8] *Nihil primo senatus die agi passus [est] nisi de supremis Augusti, cuius testamentum inlatum per virgines Vestae Tiberium et Liviam heredes habuit. Livia in familiam Iuliam nomenque Augustum adumebatur; in spem secundam nepotes prinepotesque, tertio gradu primores civitatis scripserat, plerosque invisos sibi, sed iactantia gloriaque ad posteros. Legata non ultra civilem modum, nisi quod opulo et plebi quadrigeniens triciens quinquiens, praetoriarum cohortium militibus singula numnum milia, [urbanis quingenos], legionariis aut cohortibus civium Romanorum trecenos nummos viritim dedit. Tum consultatum de honoribus; ex quis [qui] maxime insignes visi, ut porta triumphali duceretur funus, Gallus Asinius, ut legum latarum tituli, victarum ab eo gentium vocabula antefarentur; L. Arruntius censuere. Addebat Messalla Valerius renovandum per annos sacramentum in nomen Tiberii; interrogatusque a Tiberio num se mandante eam sententiam prompsisset, sponte dixisse respondit, neque in iis quae ad rem publicam pertinerent consilio nisi suo usurrum, vel cum periculo offensionis: ea sola species adulandi supererat. Conclamant patres corpus ad rogum umeris senatorum ferendum. Remisit Caesar adroganti moderatione,*

rik ez zuen ipintzen. Ediktuko hitzak ere gutxi eta erabat neurtuak ziren: aitari nolako omena egin galdetu nahi zuen; ez zuen haren gorputzetik banatu nahi eta horixe zen beretzakotzat zeukan eginkizun publiko bakarra. Augusto hildakoan, ostera, pretoriar kohorteen aurrean, enperadore agertu zen; bazituen armak, guardiak eta gorteari dagon dena; soldaduek eskoltatzten zuten forora, soldaduek kuriara. Armadetara printze bihurturik bidaltzen zituen gutunak; senatuan ez beste inon ez zen dudan mintzo. Arrazoi nagusia beldurra zen, ez ote zuen Germanikok, hainbeste legio eta indar aliatu amaigabeak eskuian zeuzkanak, eta herriaren eder izugarria zeukanak, aginteari heltzea nahiago izango, zain egotea baino. Bere ospearen onerako, errepublikak hautatua eta deitua izan zela agertu nahi zuen areago, emaztearen trikimainaz eta agure baten adopcioz sartu zela baino. Geroago jakin zen zalantza-itxura hori eman zuela, baita ahaltsuen pentsakera ezagutzeko ere: hitzak eta begiradak salapen bihurturik gordetzen baitzituen bere baitan.

8. Senatuko lehenengo egunean, Augustori zegozkion azkenkiez hitz egitea besterik ez zuen onartu, zeinaren testamentuak, birjina bestalek aurkeztuak, Tiberio eta Libia izendatzen baitzituen oinordeko. Libia Julian familiako egiten zen eta Augusta izena hartzen zuen; bigarren oinordeko, birlobak eta birbilobak inskribatzen ziren, eta, hirugarren mailan, estatuko nobleak, gehienak ikusi ere ezin zituenak, baina harrokeriagatik eta gerorako ospeagatik komeni zitzaitzakionak. Haren legatuak ez ziren herritarren artean ohi zirenetik gorakoak: herriari eta populari utzitako berrogeita hiru milioi eta bostehun mila sestertzio, pretoriar kohorteko soldaduei mila bana, (urbanoei bostehun bana), legionarioei eta erro-matar hiritarren kohorteei hirurehun bana. Gero ohoreen kontua etorri zen; entzutetsuenen bila hasirik, Galo Asiniok proposatu zuen segizioa garaipen-arku batetik igaro zedila, eta Luzio Arruntziok, berriz, hark promulgaturiko legeak eta menperaturiko herrien izenak aurrenen ager zitezela. Mesala Valeriok gehitzen zuen, gainera, zina urtero berriu zedila, Tiberioren izenean; Tiberiok galdeturik ea ekimen hura berak agindurik agertu zuen, hark erantzun zuen bere kabuz esan zuela eta, errepublikari zegozkion gauzetañ, bere ustea besterik ez zuela erabiliko, iraintzeko arrisku eta guzti ere: adulazio modu huraxe bakarrik falta zen! Gurasoek aldarrakatzen dute gorpuak senatarien sorbalda gainean joan behar duela. Zesarrek apaltasun harroz onartu zuen eta, ediktu baten bitarbez,

*populumque edicto monuit ne, ut quondam nimiis studiis funus divi Iulii turbassent, ita Augustum in foro potius quam in campo Martis, sede destinata, cremari vellent. Die funeris milites velut praesidio stetere, multum inridentibus qui ipsi vierant quique a parentibus acceperant diem illum crudi adhuc servitii et libertatis inprospere repetitae, cum occisus dictator Caesar aliis pessimum, aliis pulcherrimum facinus videretur: nunc senem principem, longa potentia, provisus etiam heredum in rem publicam opibus, auxilio scilicet militari tuendum, ut sepultura eius quieta foret.*

[9] *Multus hinc ipso de Augusto sermo, plerisque vana mirantibus, quod idem dies accepti quondam imperii princeps et vitae supremus, quod Nolae in domo et cubiculo in quo pater eius Octavius vitam finivisset. Numerus etiam consulatum celebrabatur; quo Valerium Corvum et C. Marium simul aequaverat, continuata per septem et triginta annos tribunicia potestas, nomen imperatoris semel atque viciens partum aliaque honorum multiplicata aut nova. At apud prudentes vita eius varie extollebatur arguebaturve. Hi pietate erga parentem et necessitudine rei publicae, in qua nullus tunc legibus locus ad arma civilia actum, quae neque parari possent neque haberi per bonas artes. Multa Antonio, dum interfectores patris ulcisceretur, mula Lepido concessisse. Postquam hic concordia senuerit, ille per libidines pessum datus sit, non aliud discordantis patriae remedium fuisse quam [ut] ab uno regeretur. Non regno tamen neque dictatura, sed principis nomine constitutam rem publicam; mari Oceano aut annibus longinquis saeptum imperium; legiones, provincias, classes, cuncta inter se conexa; ius apud cives, modestiam apud socios; urbem ipsam magnificio ornatu; pauca admonendum vi tractata quo ceteris quies esset.*

[10] *Dicebatur contra: pietatem erga parentem et tempora rei publicae obtentui sumpta: ceterum cupidine dominandi concitos per largitionem veteranos, paratum ab adulescente privato exercitum, corruptas consulis legiones, simulatam Pompeianarum gratiam partium; mox ubi decreto patrum*

herria ohartarazi zuen ez zedila saia, behinola Julio Jainkozkoaren hileta, berotasun gehiegizkoaren, aztoratu zuen moduan, Augusto ere foroan erretzen, leku izendatua zen Martitzan zelaian egin beharrean. Hileta egunean, soldaduak gerrarako bezala zeuden; ez zuten barre gutxi egin euren begiz edo gurasoengandik jakin zutenek nolakoa izan zen morrontza artean freskoaren eta askatasun alferrik bilatuaren egun hura, non Zesar diktadorearen heriotza batzuei ekintzarik zitalena, beste batzuei ederrena iruditu zitzaien, ziotela: «orain printze agure batek, aginte luze-koak, bere oinordekoen fortunak ere errepublikaren bizkarretik hornitu dituenak, babes militarra behar dik, bere ehorztea lasaia izan dadin».

9. Hori zela eta, Augustorenengatik beragatik ere asko hitz egin zen, gehienek huskeriak miresten zituztelarik: nola egun berdina izan zen, antzina aginteratu zen lehenengoa eta orduko bizitzako azkena; nola bizia Nolan amaitu zitzzion, bere aita Oktabioren etxe eta gela berean. Bere konsulatu kopurua ere goraipatzen zen, zeinarekin Valerio Korbo eta Gaio Mariorenak batera berdindu baitzituen, haren tribuno-boterea, hogeita hamazazpi urtean etengabe jarraitua, hogeita bat aldiiz lorturiko enperadore titulua, eta beste zenbait ohore, biderkatuak edo berriak. Jende zentzudunen artean, ostera, haren bizitza iritzi kontrajarrien gai zen, batzuek goresten, beste batzuek gaitzesten zutela. Batzuek zioten bere aitarekiko pietateak eta errepublikaren krisiak, non ez baitzen orduan legeentzako tokirik, eraman zutela gerra zibilera, zeina ez baitago prestatzek ez burutzerik moralaren arabera. Askot eman zion Antoniori, aitaren hiltzaileak zigortu alde, eta asko Lepidori ere. Hau txepeltasunagatik nondaturik, hura bere gehiegikerietan galdurik, aberri liskartsurako ez zegoen gizon bakarraren agintearaz beste biderik, eta, hala ere, ez zuen errepublika erregetzaz edo diktaduraz zurkaiztu, printze tituluz baizik. Haren imperioa Ozeano itsasoak edo ibai urrunek babesturik zegoen; legioak, probintziak, flotak, dena elkarrekin bat-bat 'zen; bazen zuzenbidea hiritarren, zintzotsuna aliatuen artean; hiria bera ere bikain edertua izan zen; gutxitan jo zen indarrera, eta bertan, besteentzat bakea izan zedin.

10. Aitarenganako pietatea eta errepublikako gorabeherak, ostera, aitzakitzat hartzen zituela zioten; bestela, agintzeko gogoak eroan ei zuen beteranoak opariz irabazterea; mutiko partikular bat izanik, armada prestatu, konsul baten legioak andeatu eta Ponpeioren alderdiarekiro begirunea simulatu ei zuen. Geroago, senatoreen dekretuz, pretore-

*fasces et ius praetoris invaserit, caesis Hirtio et Pansa, sive hostis illos, seu Pansam venenum vulneri adfusum, sui milites Hirtium et machinator doli Caesar abstulerat, utriusque copias occupavisse; extortum invito senatu consulatum, armaque quae in Antonium accepit contra rem publicam versa; proscriptionem civium, divisiones agrorum ne ipsis quidem qui fecere laudatus. Sane Cassii et Brutorum exitus paternis inimicitiis datos, quamquam fas sit privata odia publicis utilitatibus remittere: sed Pompeium imagine pacis, sed Leidum specie amicitiae deceptos; post Antonium, Tarentino Brundisinoque foedere et nuptiis sororis inlectum, subdolae adfinitatis poenas morte exsolvisse. Pacem sine dubio post haec, verum cruentam: Lollianas Varianasque clades, imperfectos Romae Varrones, Egnatios, Iullos. Nec domesticis abstinebatur: abducta Neroni uxor et consulti per ludibrium pontifices an concepto necdum edito partu rite nuberet; Q. \*Tedii\* et Vedii Pollionis luxus; postremo Livia gravis in rem publicam mater, gravis domui Caesarum noverca. Nihil deorum honoribus relictum, cum se templis et effigie numinum per flamines et sacerdotes coli vellet. Ne Tiberium quidem caritate aut rei publicae cura successorem adscitum, sed quoniam adrogantiam saevitiamque eius introsperxit, comparatione deterrima sibi gloriam quaesivisse. Etenim Augustus paucis ante annis, cum Tiberio tribuniciam potestatem a patribus rursum postularet, quamquam honora oratione quaedam de habitu cultuque et institutis eius iecerat, quae velut excusando exprobraret. Ceterum sepultura more perfecta templum et caelestes religiones decernuntur.*

[11] *Versae inde ad Tiberium preces. Et ille varie diserebat de magnitudine imperii sua modestia. Solam divi Augusti mentem tantae molis capacem: se in partem curarum ab illo vocatum experiendo didicisse quam arduum, quam subiectum fortunae regendi cuncta onus. Proinde in civitate tot inlustribus viris subnixa non ad unum omnia deferrent: plures facilius munia rei publicae sociatis laboribus executuros. Plus in oratione tali dignitatis quam fidei erat; Tiberio-*

azaoak eta eskumena usurpatu ondoren, Hirtzio eta Pansa hilak zirela, -dela etsaiek, dela Pansa zaurira isuritako pozoinak eta Hirtzio bere soldaduek eurek eta azpikeriaren atontzaile Zesarrek akabatu zitzetelako-, bien tropak bereganatu ei zituen; konsulatua indarrez kendu ei zion senatuari eta Antonioren aurka hartutako armak errepublikaren aurka bihurtu ei zituen; hiritarren proskripzioak eta lur-banaketak ez ei zitzutzen onetsi burutu zitzutenek eurek ere. Egia da Kasioren eta Brutotarren azkena aitarekiko etsaigoen ordaina izan zela, nahiz eta zilegi izan gorroto pribatuak on publikora makurtzea; baina Ponpeio bake-plantaz eta Lepido adiskidetasun-itxuraz engainatu zituen; gero, Antoniok, Tarento eta Brindisko itunez eta bere arrebarekiko ezkontzaz irabazia izan zenak, heriotzaz ordaindu behar izan zituen elkartasun maltzurraren ondorioak. Dendarik ez, horien guztien ondoren, bakea izan zela, baina bai odoltsua ere: Lolio eta Baroren hondamenak, Barrondarreren, Egnaziotarren, Julotarren hilketak Erroman. Etxeko konturik ere ez zuten apartatzen: Neroni emaztea kendu zion eta, benetan lotsagarri, pontifizeak kontsultatu zituen ea haurdun eta erditzeak zegoen emakume hark errituen arabera ezkontzerik bazuen; Q. \*\*\*\* Tedio eta Bedio Polionen larkeriak; azkenik, Libia, errepublikarentzat ama latza, Zesarren etxearentzat amaorde latza. Jainkoentzako ohorerik ere ez zuen utzi, bere burua gurrarazten baitzien flaminei eta abadeei, tenpluetan eta jainkozko irudietan. Tiberio ere ez zuen ondorengotzat onartu, xeraz edo errepublikaren arduraz; aitzitik, ostera, bere harrokerian eta ankerkerian barneratu zenez gero, konparaziorik txarrenean bilatu zuen aintza. Egia esan, Augustok, urte batzuk lehenago, senadoreengandik Tiberiorentzat tribuno-ahalmena bigarrenez eskatu zuanean, goraipuzko hitzetan bazezen ere, errietaren bat egin izan zion, haren izaera, jokaera eta ohiturak zirela eta, desenkusatze-plantan. Gainerakoan, ehorzketa ohi bezala buruturik, templa eta jainko-kultua dekretatzen zaizkio.

11. Gero, eskariak Tiberiorentzat izan ziren. Imperioaren handitasunaz eta bere txikitazunaz dibagatzen hasi zen: Augusto jainkozkoaren oroitzapena bakarrik ei zegoen hainbesteko puskaren mailan; berak, hark bere lanetan parte hartzen deitu zionak, esperientziaz ei zekien zer latza, zer zoripeko zen dena gobernatzeko zama. Horregatik, hainbeste gizon noblerengan oinarritzen zen estatuan, ez ei zuten dena bakar batengan bildu behar; askoren artean, eta ahaleginak bat eginez, aisago eroango ei zitzuten errepublikako zereginak. Mintzaldi hartan, duinta-

*que etiam in rebus quas non occuleret, seu natura sive adsuetudine, suspensa semper et obscura verba: tunc vero nitenti ut sensus suos penitus abderet, in incertum et ambiguum magis implicabantur. At patres, quibus unus metus si intelligere viderentur; in questus lacrimas vota effundi; ad deos, ad effigiem Augusti, ad genua ipsius o manus tendere, cum proferri libellum recitarique iussit. Opes publicae continebantur; quantum civium sociorumque in armis, quot classes, regna, provinciae, tributa aut vectigalia, et necessitates ac largitiones. Quae cuncta sua manu perscripserat Augustus addideratque consilium coercendi intra terminos imperii, incertum metu an per invidiam.*

[12] *Inter quae senatu ad infimas obtestationes procumbente, dixit forte Tiberius se ut non toti rei publicae parem, ita quaecumque pars sibi mandaretur eius tutelam suscepturum. Tum Asinius Gallus' interrogo ' inquit, 'Caesar; quam partem rei publicae mandari tibi velis.' percusus improvisa interrogatione paulum reticuit: dein collecto animo respondit nequaquam decorum pudori suo legere aliquid aut evitare ex eo cui in universum excusari mallet. Rursum Gallus (etenim vultu offensionem coniectaverat) non idcirco interrogatum ait, ut divideret quae separari nequirent sed ut sua confessio ne argueretur unum esse rei publicae corpus atque unius animo regendum. Addidit laudem de Augusto Tiberiumque ipsum victoriarum suarum quaeque in toga per tot annos egregie fecisset admonuit. Nec ideo iram eius lenivit, pridem invisus, tamquam ducta in matrimonium Vipsania M. Agrippae filia, quae quondam Tiberii uxor filerat, plus quam civilia agitaret Pollionisque Asinii patris foreciam retineret.*

[13] *Post quae L. Arruntius haud multum discrepans a Galli oratione perinde offendit, quamquam Tiberio nulla vetus in Arrantium ira: sed divitem, promptum, artibus egregiis et pari fama publice, suspectabat. Quippe Augustus supremis sermonibus cum tractaret quinam adipisci principem locum suffecturi abnuerent aut inpare vellent vel idem possent cuperentque, M'. Lepidum dixerat capacem sed aspernans*

sunetik gehiago zegoen egitasunetik baino; ezkutatu nahi ez zituen kontuetan ere, bai berez, bai ohituraz, Tiberioren hitzak lanbroak eta ilunak ziren beti, eta, aldi hartan, bere pentsakizunak zeharo gordetzen saiatzen zenez gero, are zehazgabe eta anbiguoagoak ziren. Ulertzen zuteela iruditzeko beldurra besterik ez zeukaten senatariak, ostera, kexuetan, malkoetan, erreguetan urtzen ziren; eskuak Jainkoengana, Augustoren irudiria, Tiberioren belaunetara luzatzen zitzuten, honek liburuxka bat ekartzeko agindu zuenean. Bertan, ondasun publikoak zetozen, zenbat hiritar eta arma-lagun ziren, zenbat flota, erreinu, probintzia, zerga edo errenta, eta beharrezko gastu eta emari. Hori guztia Augustok bere eskuz idatzi zuen, eta aholkua erantsi, inperioari bere mugetan eusteko, argi ez zegoelarik beldurrez ala bekaitzez zen.

12. Hartan, senatua erregurik apalenetara makurtzen zela, bat-batean Tiberiok jaulki zuen ezen, bere burua errepublika osoa gobernatzeko gai ez bazekusen ere, haren zati bat esleitu ziezaiotela, bere karguean har zezan. Orduan, Asinio Galok hots egin zuen: «Galdetzen dut, Zesar, zein errepublika-zati esleitzea nahi duzun». Ezusteko galderak astindurrik, une batez isildu egin zen; gero, gogoberriturik, erantzun zuen ez zitzaiola bere duintasunarentzat batere itxurazko iruditzen zerbait har-tzea edo ekiditea, denari osoan jaregitea nahiago lukeenetik. Berriz ere Galok, haren hizkeratik, mindu egin zela oharturik, esan zuen ez zuela galdezu banatu ezineko gauzak zatizgearren, baizik bere aitortzaz garbi gera zedin errepublikaren gorputza bakarra zela eta gogo bakarrak gobernatu behar zuela. Augustoren laudorio bat erantsi zuen, eta Tiberiori berari ere gogoratu zion zenbat garaipen lortu eta zenbat gauza egin zuen, toga jantzirik, hainbeste urtetan. Halaxe ere, ez zuen haren haserrerik bigundu, aspalditik zetorrena berau, iruditu baitzitzion, Marko Agriparen alaba Bipsania, behinola Tiberioren emazte izana, ezkontzaz hartzean, hiritar soilez haragoko asmoak zeuzkala, eta Polion Asiniok bere aitaren handinahia zeramala.

13. Ondoren, Luzio Arruntziok, Galorenaren hain ezberdina ez zen mintzaldian, antzera iraindu zuen, Tiberiok Arruntziorenaganako haserre zaharrik ez zeukan arren; baina errezeloa zion haren aberastasun, ausardia, gaitasun izugarri eta araberako ospeagatik. Izan ere, Augustok, azken solasetariko batean, mintzo zelarik nortzuek uko egingo zuten, nahiz eta lehen tokiaz jabetu ahal izan eta hartarako gai ere izan, esan

*tem, Gallum Asinium avidum et minorem, L. Arruntium non indignum et si casus daretur ausurum. De prioribus consentitur; pro Arruntio quidam Cn. Pisonem tradidere; omnesque praeter Lepidum variis mox criminibus struente Tiberio circumventi sunt. Etiam Q. Haterius et Mamerius Scaurus suspicacem animum perstrinxere, Haterius cum dixis set ‘quo usque patieris, Caesar; non adesse caput rei publicae?’ Scaurus quia dixerat spem esse ex eo non inritas fore senatus preces quod relationi consulum iure tribuniciae potestatis non intercessisset. In Haterium statim invectus est; Scaurum, cui in placabilius irascebatur; silentio tramisit. Fessusque clamore omnium, expostulatione singulorum flexit paulatim, non ut fateretur suscipi a se imperium, sed ut negare et rogari desineret. Constat Haterium, cum deprecandi causa Palatum introisset ambulantisque Tiberii genua advolveretur, prope a militibus imperfectum quia Tiberius casu an manibus eius inpeditus prociderat. Neque tamen periculo talis viri mitigatus est, donec Haterius Augustam oraret eiusque curatissimis precibus protegeretur.*

[14] *Multa patrum et in Augustam adulatio. Alii parentem, alii matrem patriae appellandam, plerique ut nomini Caesaris adscriberetur ‘Iuliae filius’ censebant. Ille moderando seminarum honores dictitans eademque se temperantia usurrum in iis quae sibi tribuerentur; ceterum anxius invidia et muliebre fastigium in deminutionem sui accipiens ne licetorem quidem ei decerni passus est aramque adoptionis et alia huiuscmodi prohibuit. At Germanico Caesari pro consulaire imperium petivit, missique legati qui deferrent, simul maestitiam eius ob excessum Augusti solarentur. Quo minus idem pro Druso postularetur; ea causa quod designatus consul Drusus praesensque erat. Candidatos praeturae duodecim nominavit, numerum ab Augusto traditum; et hortante senatu ut augeret, iure iurando obstrinxit se non excessurum.*

[15] *Tum primum e campo comitia ad patres translata sunt: nam ad eam diem, etsi potissima arbitrio principis, quaedam tamen studiis tribuum siebant. Neque populus ademptum ius*

zuen Marko Lepido bazela gai, baina ez zeukala gogorik; Asinio Galok nahi zuela, baina ez zeukala mailarik; eta Luzio Arruntzio ez zela ezduin eta, aukera izanik, ausartuko zela. Lehenengo biena halakotzat dago, baina batzuek, Arruntzioren lekuaren, Gneo Pison ipini dute; bada, geroago, Lepidoz beste denak galdu ziren, Tiberiok harildutako salaketenatik. Kinto Hateriok eta Mamerko Eskaurok ere mindu zuten haren gogo susmotia; Hateriok, honakoa esatean: «Noiz arte jasango duzu, Zesar, errepublika buru gabe egon dadin?»; Eskaurok, berriz, esan zuelako bazuela itxaropena senatuaren erreguak alferrik izango ez zirena, bere tribuno-ahalmenaren betorik ez baitzion jarri kontsulen mozioari. Hateriori beherela ihardetsi zion; Eskaurori, gupidagabeago gorroto zuenari, ordukoz isilik utzi zion. Astiro-astiro, denen aldarriek abaildurik, bakoitzaren erreguetara makurtuz joan zen, baina imperioa onartzen zuenik garbi agertu gabe, baizik ezetz esateari utzi eta eska ziezaioten eginez. Ziurra da Haterio, Jauregira barka eskatzera sartu eta pasioan zebilen Tiberioren belaunetara makurtzean, soldaduek ia bertan hil zutela, Tiberio, halabeharrez edo besteak heldu ziolako, jausi zenean. Halako mailako gizonaren arriskua ez zen arindu Hateriok Augustari eskatu eta honen erregu ekinkorrekk babestu zuten arte.

14. Senatarien Augustarenganako zurikeria ere handia izan zen: batzuek aberriaren erditzaile, beste batzuek aberriaren ama dei zedin proposatzen zuten; gehienek zioten Zesar izenari *Juliaren seme* erantsi behar zitzaiola. Berak behin eta berriz zioen emakumeen ohoreei muga bat ipini behar zitzaiela, eta neurritisun bera erabiliko zuela berari esleitzen zizkiotetan ere. Bestalde, bekaitzez urduri eta emakume baten goratzea bere txikitze gisan harturik, ez zuen onartu liktorerik ipini ziezaioten ere, eta adopzioaren aldarea eta antzekoak debekatu egin zituen. Germaniko Zesarrentzat, osteria, imperio prokuntsularra eskatu eta mandatariak bidali zizkion jakinaraztereta eta, aldi berean, haren tristura kontsolatzera, Augustoren heriotzagatik. Drusogatik gauza bera ez eskatzearen arrazoia zen hora konsul izendatua zela eta bertan zegoela. Hamabi pretoregai izendatu zituen, Augustok ezarritako kopuruan; eta, senatuak gehitzeko eskatu zionean, bere burua zinpetu zuen kopuru hori ez zuela inoiz gaindituko.

15. Orduan, lehenengoz, hauteskundeak Martitzen Zelaitik senatura aldatu ziren; zeren, artean, garrantzitsuenak printzearen iritzira egiten baziren ere,

*questus est nisi inani rumore, et senatus largitionibus ac pre-cibus sordidis exsolutus libens tenuit, moderante Tiberio ne plures quam quattuor candidatos commendaret sine repulsa et ambitu designandos. Inter quae tribuni plebei petivere ut proprio sumptu ederent ludos qui de nomine Augusti fastis additi Augustales vocarentur: Sed decreta pecunia ex aerario, utque per circum triumphali veste uterentur: curru vehi haud permisum. Mox celebratio annua ad praetorem translata cui inter civis et peregrinos iurisdictio evenisset.*

[16] *Hic rerum urbanarum status erat, cum Pannonicas legiones seditio incessit, nullis novis causis nisi quod mutatus princeps licentiam turbarum et ex civili bello spem prae-miorum ostendebat. Castris aestivis tres simul legiones habe-bantur; praesidente Iunio Blaeso, qui fine Augusti et inititis Tiberii auditis ob iustitium aut gaudium intermisserat solita munia. Eo principio lascivire miles, discordare, pessimi cuiusque sermonibus praebere auris, denique luxum et otium cupere, disciplinam et laborem aspernari. Erat in castris Per-cennius quidam, dux olim theatralium operarum, dein gregarius miles, procax lingua et miscere coetus histrionali studio doctus. Is imperitos animos et quaenam post Augustum mili-tiae condicio ambigentis inpellere paulatim nocturnis conlo-quiiis aut flexo in vesperam die et dilapsis melioribus deterri-mum quemque congregare.*

[17] *Postremo promptis iam et aliis seditionis ministris velut contionabundus interrogabat cur paucis centurionibus pau-cioribus tribunis in modum servorum oboedirent. Quando ausuros exposcere remedia, nisi novum et nutantem adhuc principem precibus vel armis adirent? satis per tot annos ignavia peccatum, quod tricena aut quadragena stipendia senes et plerique truncato ex vulneribus corpore tolerant. Ne dimissis quidem finem esse militiae, sed apud vexillum ten-dentis alio vocabulo eosdem labores perferre. Ac si quis tot casus vita superaverit, trahi adhuc diversas in terras ubi per nomen agrorum uligines paludum vel inculta montium acci-piant. Enimvero militiam ipsam gravem, infructuosam: denis*

batzuk oraindik tribuen gogoaren mende zeuden. Herria ez zen esamesa txikiz baizik kexatu eskubidea kentzeaz, eta senatuak pozik hartu zuen, hala, oparietarik eta erregu apalgarrietarik libratzen baitzen. Tiberiok gomendatu zuen lau hautagaitatik gora ez zitezela izan; hauek ukorik eta jokorik gabe hautatuak behar zutela. Populuaren tribunoek aurkeztutako eskarien artean, euren kontura joko batzuk antolatzea zegoen, Augustoren oroimenez, haren fastuei gehitzekoak eta Augustalak deituak. Baina, hartarako, altxor publikotik harako dirua erabaki zuten, eta tribunoek, zirkuan, garaipen-soinekoera bili behar zutela; ez zitzaien uzten gurdian joaten. Gero, urteroko ospakizuna hiritar-atzerritarren arteko eskumena zegokion pretoreari transferitu zioten.

16. Gauzak hiriburuan hala zeudela, Panoniako legioetan sedizio bat gertatu zen, ez inongo arrazoi berriengatik, baizik, areago, antza, printze aldatzeak nahasterako baimena ematen zuelako, eta sari itxaropena, gerra zibilen ondoren. Hiru legio batera zeuden uda kanpamentuetan, Junio Blesoren menpean, zeinak, Augustoren azkenaren eta Tiberioren etorreraren berri jakitean, dela saminez, dela pozez, ohiko ariketak eten baitzituen. Hortik aurrera, soldaduek lasaikeriara, liskarrera eta gaitzto-enen esanak sinestera jo zuten; gero, komenentzia eta aisia bila, diciplinari eta ahaleginari muzin eginez. Bazen kanpamenduan Pertzenio zeritzan bat, behinola antzerki klake bateko buru eta gero soldadu soila, mihi lotsagabekoa eta nahastaile trebea, eszenako trikimainen arabera. Morroi hau zenbait ezkakin eta, Augustoren ondoren, armadaren izateaz kezkati zegoen zenbait lagun xaxatzen hasi zen eta, iluntzean, onak erretiratua zirenear, okerrenak inguratzen zituen.

17. Azkenik, beste sedizio egileak ere gertu zeudela, arenga eran gal-detzen zien ea zergatik men egiten zioten, morroi gisan, zenturioi bakan batzuei eta tribuno bakanagoei. Noiz ausartuko ziren konponbideak eskatzen, printze berri eta oraindik zalanzkorrai erreguz edo armaz heltzen ez baizoten? Nahikoa bekatu eginak ziren koldarkeriaz hain-bestetan, hogeita hamar edo berrogei urtetan zerbitzatzea jasanez, zahartu arte, eta, gehienetan, gorputza zauriz ebakirik. Gainera, lizen-tziadunak ere ez ei ziren libratzen soldadutzatik, bai, ostera, beste izen batekin, neke berdinak pairatzen, estandarte azpian kanpaturik. Eta hainbeste heriotza-arriskutatik onez irteten zena oraindik urrungo lurretan arrastatzzen zen, non, soro izenez, zingira urtsuak eta mendi elkorra hartzen zituen. Eta, jakina, soldadutza bera ere ondo nekosoa eta antzua zen: gorputz eta arima, egunean hamar as baloratzen zen;

*in diem assibus animam et corpus aestimari: hinc vestem arma tentoria, hinc saevitiam centurionum et vacationes munerum redimi. At hercule verbera et vulnera, duram hiemem, exercitas aestates, bellum atrox: aut sterilem pacem sempiterna. Nec aliud levamentum quam si certis sub legibus militia iniretur; ut singulos denarios mererent, sextus decimus stipendii annus finem adferret, ne ultra sub vexillis tenearentur; sed isdem in castris praemium pecunia solveretur. An praetorias cohortis, quae binos; denarios acceperint, quae post sedecim annos penatibus suis reddantur; plus periculorum suspicere? non obtrectari a se urbanas excubias: sibi tamen apud horridas gentis e contuberniis hostem aspici.*

[18] *Adstrepebat vulgus, diversis incitamentis, hi verberum notas, illi canitiem, plurimi detrita tegmina et nudum corpus exprobrantes. Postremo eo furoris venere ut tres legiones miscere in unam agitaverint. Depulsi aemulatione, quia suae quisque legioni eum honorem quaerebant, alio vertunt atque una tres aquilas et signa cohortium locant; simul congerunt caespites, exstruunt tribunal, quo magis conspicua sedes foret. Properantibus Blaesus advenit, increpabatque ac retinebat singulos, clamitans ‘mea potius caede imbuire manus: leviore flagitio legatum interficiens quam ab imperatore desiscitis. Aut incolumis fidem legionum retinebo aut iugulatus paenitentiam adcelerabo.’*

[19] *Aggerabatur nihilo minus caespes iamque pectori usque adcreverat, cum tandem pervicacia victi inceptum omisere. Blaesus multa dicendi arte non per seditionem et turbas desideria militum ad Caesarem ferenda ait, neque veteres ab imperatoribus priscis neque ipsos a divo Augusto tam nova petivisse; et parum in tempore incipientis principis curas onerari. Si tamen tenderent in pace temptare quae ne civilium quidem bellorum victores expostulaverint cur contra morem obsequii, contra fas disciplinae vim meditentur? decernerent legatos seque coram mandata darent. Adclamavere ut filius Blaei tribunus legatione ea fungeretur peteretque militibus missionem ab sedecim annis: cetera mandaturos ubi prima*

hortik ordaindu behar zen jantzia, armak, dendak, zenturioien ankerkezia aurreikusteko ordainak eta zerbitzuen beherapenak. Baino, Herkulesaren!, kolpeak eta zauriak, negu gogorra, uda nekosoa, gerra izugarria edo bake antzua betiko ziren. Beste erremediorik ez zegoen, beraz, baldintza segurretan soldadu sartzea baino: egunean denario bat irabaztea, hamaseigarren zerbitzu urtean behin betiko lizentzia hartzea, eta ez zitzatela estandartepean luzaroago atxiki, aitzitik, ordea, kanpamentuan bertan saritu zitzatela diruz. Egunean denario bi irabazi eta, hamasei urteren buruan, etxera bidaltzen zituzten pretoriar kohortearrak arrisku handiagoetan ote zebiltzan, bada? Ez ei zituen guarnizio hiritarra laidotu gura, baina berak, herri basatiengar artean, dendaritik bertatik ikusten ei zuen etsaia.

18. Masa oihuka ari zen, haserrekin anitez, nork bere kolpe markak erakutsiz, beste batzuek buruzuriak, gehienek soineko hautsiak eta gorputz biluziak. Azkenik, hainbesteko suminera heldu ziren, ezen hiru legioak bakarrean batu nahi baitzituzten. Emulazioak atzeratzen ditu, bakoitzak ohore hora bere legioarentzat nahi baitzuen; horregatik, plana aldatu eta kohorteen hiru arranoak eta estandarteak batera ipintzen dituzte. Aldi berean, sokilak batu eta tribunal bat jasotzen dute, egoitza ikusgarriago gera dadin. Horretan zihardutela, Bleso iritsi eta agiraka hasi zitzaien, banan-banan heldu eta oihuka: «Zikin itzazue eskuok neure heriotzaz: zeuen ordezkarria hiltzeko lotsaria arinagoa izango duk, enperadorea zapuztea baino. Edo, onik, legioen leialtasunari eutsiko zioat, edo, lepamozturik, zuen damua bizkortuko diat».

19. Horregatik, ez zioten, ostera, sokil batzeari uzten eta, ordurako, paparren pareraino jasoak zituzten, azkenik, Blesoren setak menperaturik, amore eman zutenean. Blesok, trebetasun handiz, esan zien soldaduena nahiak ez zitzaitziola Zesarri aurkeztu behar sedizioz eta matxinadaz; ez antzinakoek antzinako jeneralei, ez eurek ere Zesar Jainkozkoari ez ei zioten inoiz hain ezohikie eskatu; gainera, era desegokian astuntzen ei zuten printze hasiberriaren ardura; hala ere, gerra zibilen irabazleek ere eskatu ez zutena bakean lortu nahi bazuten, zergatik jo behar zuten indarrera, menpetasun ohituraren aurka, disziplina zuzenbidearen aurka? Ordezkarriak hautatu behar zituzten eta bere aurrean mandatuak eman. Aho batez erabaki zuten Blesoren seme tribunoak burutu zezala ordezkaritza eta eska zezala soldadu lizentziamendua, hamasei urtetik aurre-

*provenissent. Profecto iuvene modi cum otium: sed superbire miles quod filius legati orator publicae cause satis ostenderet necessitate expressa quae per modestiam non obtinuerunt.*

[20] *Interea manipuli ante coeptam seditionem Nauportum missi ob itinera et pontes et alios usus, postquam turbatum in castris accepere, vexilla convellunt direptisque proximis vicis ipsoque Nauperto, quod municipii instar erat, retinentis centuriones inrisu et contumeliis, postremo verberibus insectantur; praecipua in Aufidienum Rufum praefectum castrorum ira, quem dereum vehiculo sarcinis gravant aguntque primo in agmine per ludibrium rogiantes an tam immensa onera, tam longa itinera libenter ferret. Quippe Rufus diu manipularis, dein centurio, mox castris praefectus, antiquam duramque militiam revocabat, vetus operis ac laboris et eo inimitior quia toleraverat.*

[21] *Horum adventu redintegratur seditio et vagi circumiecta populabantur: Blaesus paucos, maxime praeda onustos, ad terrorem ceterorum adjici verberibus, claudi carcere iubet; nam etiam tum legato a centurionibus et optimo quoque manipularium parebatur. Illi obniti trahentibus, prensare circumstantium genua, ciere modo nomina singulorum, modo centuriam quisque cuius manipularis erat, cohortem, legiōnem, eadem omnibus inminere clamitantes. Simul probra in legatum cumulant, caelum ac deos obtestantur; nihil reliqui faciunt quo minus invidiam misericordiam metum et iras per moverent. Adcurritur ab universis, et carcere effracto solvunt vincula desertoresque ac rerum capitalium damnatos sibi iam miscent.*

[22] *Flagrantior inde vis, plures seditioni duces. Et Vibulenus quidam gregarius miles, ante tribunal Blaesii adlevatus circumstantium umeris, apud turbatos et quid pararet intentos 'vos quidem' inquit 'his innocentibus et miserrimis lucem et spiritum reddidistis: sed quis fratri meo vitam, quis fratrem mihi reddit? quem missum ad vos a Germanico exercitu de*

ra; gainerako eskariak lehenengo lortutakoan egingo ziren. Gaztea abiatik, lasaitasun apur bat izen zen; baina soldaduak harrotu egin ziren, legatuaren semeak, kausa komunaren eramaile bihurtu zenak, garbi era-kusten zuelako menpetasunez lortu ez zutena koakzioz atera zutela.

20. Bitartean, sedizioa hasi aurretik, bide, zubi eta beste zeregin batzuetara Nauportora bidali zitzuten manipuluek, kanpamenduan geraturiko matxinadaren berri jakinik, estandarteak erauzten eta inguruko herriak sakeatzen dituzte, Nauporto bera ere bai, hiritasuna zeukana; eusten saiatzen diren zenturioiak barrez eta isekaz eta, azkenean, kolpez iraintzen dituzte, kanpamenduko buruzagi Aufidieno Ruforen aurkako haserre bereziz, zeina orgatik atera eta fardelez zamaturik, formazioburu joanarazten duten, laidoz galdetzen diotela ea hain zama handiak, hain ibilaldi luzeak pozik hartzen dituen. Rufok, izan ere, luzaroan soldadu soil, gero zenturioi, geroago kanpamentuko prefektu izanak, antzinako milizia gogorra berrezarri nahi zuen, lamean eta nekean zaildua bera, eta are bigungaitzago, bera jasana zelako.

21. Jende horren etorrerak sedizioa berritu egiten du eta, han-hemen, bazterrak arpilatzen dituzte. Blesok banaka batzuk, harrapakinez kargatuenak, jipoitzeko eta ziegarratzeko agintzen du besteen eskamentagarri, orduan, oraindik, zenturioien eta soldadurik onenen legatuari men egiten baitzieten; hieki indarrez jarkitzen zittaizkien atxilo zermatzatenei, inguruko belaunei heltzen zieten, izena oihukatzen zuten, bai nork berea, bai bakoitza hango soldadu zen zenturiarena, kohortearena, legioarena, denei horixe zetorkiela garrasika. Aldi berean, legatuari txakurrenak esaten dizkiote, zerua eta Jainkoak inbokatzen dituzte eta ez dute modurik uzten, gorrotoa, errukia, beldurra eta hase-rea eragiteko. Denak laguntzen hasirik, ziegak bortxatzen eta kateak askatzen dituzte, eta desertoreei eta heriotza-zogordunei eurekin nahastatzen uzten diete.

22. Orduan indarra areagotzen da, sedizio buruak gehitzen. Vibuleno delako soldadu soil batek, Blesoren tribunal aurrean ingurukoek bizkarrean jasoak, zer egin behar ote zuen arretaz zeuden matxinatuei diotse: «Zuek, noski, argia eta arnasa itzuli diezue errugabe eta zorigabe hauei: baina nire anaia nork itzuliko dio bizia? Nork itzuliko dit niri anaia? Hari, arazo komunez mintzatzeko, Germaniako armadak zuengana bidali zutenari, bart lepoa moztu diote, beronen gladiadoreen, solda-

*communibus commodis nocte proxima iugulavit per gladiatores suos, quos in exitium militum habet atque armat. Responde, Blaese, ubi cadaver abieceris: ne hostes quidem sepultura invident. Cum osculis, cum lacrimis dolorem meum implevero, me quoque trucidari iube, dum interfectos nullum ob scelus sed quia utilitati legionum consulebamus hi sepe- liant.'*

[23] *Incendebat haec fletu et pectus atque os manibus verberans. Mox disiectis quorum per umeros sustinebatur; praeceps et singulorum pedibus advolutus tantum consternationis invidiaeque concivit, ut pars militum gladiatores, qui e servitio Blaesii erant, pars ceteram eiusdem familiam vinci- rent, alii ad quaerendum corpus effunderentur. Ac ni prope- re neque corpus ullum reperiri, et servos adhibitis cruciati- bus abnuere caedem, neque illi fuisse umquam fratrem per- notuisset, haud multum ab exitio legati aberant. Tribunos tamen ac praefectum castrorum extrusere, sarcinae fugientium direptae, et centurio Lucilius interficitur cui militari- bus facetiis vocabulum 'cedo alteram' indiderant, quia frac- ta vite in tergo militis alteram clara voce ac rursus aliam poscebat. Ceteros latebrae texere, uno retento Clemente Iulio qui perferendis militum mandatis habebatur idoneus ob promptum ingenium. Quin ipsae inter se legiones octava et quinta decuma ferrum parabant, dum centurionem cog- nomento Sirpicum illa morti depositit, quintadecumani tue- tur; ni miles nonanus preces et adversum aspernantis minas interieciisset.*

[24] *Haec audita quamquam abstrusum et tristissima quae- que maxime occultantem Tiberium perpulere, ut Drusum filium cum primoribus civitatis duabusque praetoriis cohori- bus mitteret, nullis satis certis mandatis, ex re consulturum. Et cohortes delecto milite supra solitum firmatae. Additur magna pars praetoriani equitis et robora Germanorum, qui tum custodes imperatori aderant; simul praetorii praefectus Aelius Seianus, collega Straboni patri suo datus, magna apud Tiberium auctoritate, rector iuveni et ceteris periculorum*

duak hiltzeko dauzkan eta armatzen dituen horien bitartez. Erantzun, Bleso: nora jaurti duzu hilotza? Etsaiek ere ez dute ehorztea ukateraino gorrotatzen. Musuz eta malkoz, neure samina ordain dezadanean, agindu ni ere zatika nazatela, hauek ehortz gaitzaten, ez inolako krimenagatik, baizik legioen onaz arduratzeagatik hil gaituztenak».

23. Hitz horiek malkoz sutzen zituen, paparra eta aurpegia eskuekin joz. Gero, sorbaldetan eusten ziotenengandik apartaturik, eta bakoitzaren oinetan lurrean ahozpezi, hainbesteko harrimena eta haserrea sortu zuen, ezen soldadu multzo batek Blesoren zerbitzuan zeuden gladiadorreak kateatu baitzituen, beste multzo batek gainerako esklaboa, eta beste batzuk hilotzaren bila sakabanatu baitziren. Eta izan ez balitz laster ikusi zelako inongo hilotzik ez zegoela, eta esklabo torturatuak hilketak ukatu zutela, eta anaiarik inoiz ez zuela izan jakin zelako, ez zebiltsan legatua bertan garbitzetik urrun. Baino bai jazarri zitzuten tribunoa eta kanpamenduko prefektua eta, ihesi zihoazela, ekipajea lumatu zio- ten. Luzilio zenturioia ere hil zuten, zeinari ezizentzat –soldaduen ohiko adarjotzeak– «ekar beste bat» ipini baitzioten, mahatsezko zar- tailua soldaduen bizkarrean hautsitakoan, beste bat eta gero beste bat eskatzen baitzuen. Gainerakoak ostendu egin ziren, babesteko; soldaduek Klemente Julio bakarrik atxiki zuten, bere izaera prestagatik, mandatuak eramateko egokitzat jotzen zutena. Legio bi, gainera, zor- tzigarrena eta hamabosgarrena, elkarri erasotzear zeuden, hangoek Sir- pikoz izeneko zenturioi bat hil eta hamabosgarrenekoek babestu nahi baitzuten; eskerrak bederatzigarreneko soldaduek artean sartu ziren erreguka, baita mehatxuka ere, entzungor egin balezate.

24. Berri haien Tiberio, izaera ilunekoa eta zer larriak ezkutatzen aparta izan arren, bere seme Druso hara bidaltzen behartu zuten, hiriko gorenengandik eta pretoriar kohorte birekin, gauzak bertan ikustearaz beste agindu zehatzik gabe. Soldatu hautaz osaturiko kohortea ohiz gorako bermedunak ziren. Pretoriar soldaduen multzo handi bat gehitu zitzaien, eta germaniar talde sendo bat, orduan enperadorea zaintzen zuena. Aldi berean, bere aita Estrabonen kolega izendaturiko pretorio- ko prefektua eta Tiberioren konfiantza handikoa zen Elio Seiano izango zen gaztearen gidari eta, besteentzat, arriskuen eta sarien ikusarazle. Druso hurreratzean, legioak menpetasun eran irten zitzaizkion bidera, baina ez ohi bezain alai, ez banderak airean, zarpail eta bertan-behera-

*praemiorumque ostentator: Druso propinquanti quasi per officium obviae fuere legiones, non laetae, ut adsolet, neque insignibus fulgentes, sed inluvie deformi et vultu, quamquam maestitiam imitarentur contumaciae propiores.*

[25] *Postquam vallum introiit, portas stationibus firmant, globos armatorum certis castrorum locis opperiri iubent: ceteri tribunal ingenti agmine circumveniunt. Stabat Drusus silentium manu poscens. Illi quoties oculos ad multitudinem rettulerant, vocibus truculentis strepere, rursum viso Caesare trepidare; murmur incertum, atrox clamor et repente quies; diversis animorum motibus pavebant terrebantque. Tandem interrupto tumultu litteras patris recitat, in quis prescriptum erat, praecipuam ipsi fortissimarum legionum curam, quibuscum plurima bella toleravisset; ubi primum a luctu requiesset animus, acturum apud patres de postulatis eorum; misisse interim filium ut sine cunctatione concederet quae statim tribui possent; cetera senatui servanda quem neque gratiae neque severitatis expertem haberi par esset.*

[26] *Responsum est a contione mandata Clementi centurioni quae perferret. Is orditur de missione a sedecim annis, de praemiis finitiae militiae, ut denarius diurnum stipendum foret, ne veterani sub vexillo haberentur. Ad ea Drusus cum arbitrium senatus et patris obtenderet, clamore turbatur: Cur venisset neque augendis militum stipendiis neque adlevandis laboribus, denique nulla bene faciendi licentia? at hercule verbera et necem cunctis permitti. Tiberium olim nomine Augusti desideria legionum frustrari solitum: easdem artis Drusum rettulisse. Numquamne ad se nisi filios familiarum venturos? novum id plane quod imperator sola militis comoda ad senatum reicat. Eundem ergo senatum consulendum quotiens suppicia aut proelia indicantur: an praemia sub dominis, poenas sine arbitro esse?*

[27] *Postremo deserunt tribunal, ut quis praetorianorum militum amicorumve Caesaris occurreret, manus intentantes, causam discordiae et initium armorum, maxime infensi Cn.*

tasun itxuran baizik, tristura planta bazuten ere, errebediatik hurrago zeudela.

25. Hesitik barrura sartu zenean, ateetan guardiak eta kanpamentuko zenbait lekutan talde armatuak ezartzen dituzte; gainerakoek, formazio izugarrian, tribunala inguratzen dute. Drusok, zutik, isiltasuna eskatzen zuen. Haien jendetza begiratzean, marruka burrunbatzen ziren, Zesarri begiratzean, ostera, dardarak hartzen zituen; marmar zehazgabea, harrabots izugarria eta, bat-batean, baretasuna; gogoen mugida kontrako, behin izutzen ziren, behin izugarritzen. Iskanbila atertutakoan, aitaren gutuna dirakur, non idatzia baitzen ardura txit berezia zeukala bera haienkin hainbeste gerra jasana zen legio kementsuekin; bere gogoa dolutik arintzen zenaz batera, haien eskariez senatuan jardungo zuela; bitartean, bere semea bidali ziela, unean eskain zitekeena lehenbailehen eman ziezaien; gainerakoa senatuarri utzi behar zitzaiola, zeina ez baitzen zilegi, ez onberatsunetik, ez zorroztasunetik aparte uztea.

26. Batzarrak erantzun zuen Klemente zenturioiak hitz egingo zuela euren izenean. Honek aipatzen du hamasei urterekin lizentziatzea, soldadutza amaierako sariak, soldata egunean denario bat izatea, beteranoak estandartepean ez atxikitzea. Drusok hori senatuaren eta aitaren erabakia zela erantzutean, oihuka hasten zaizkio. Zertara etorri zen, ez bazeen soldaduen irabaziak gehitzera, ez haien nekeak arintzera, hitz batez, ezertan on egiteko baimenik gabe? Herkulesarren, jipoitzen eta hiltzen denei uzten ei zitzaien. Tiberiok, lehenago, legioen gurariak Augustoren izenean zapuzten ei zituen; Drusok trikimaina bera ei zekarren. Ez al zen, noizbait, familiako semeez besterik etorriko eurengana? Benetan berdingabea ei zen enperadoreak armada kontuak bakarrik eroatea senatura. Horren arabera, senatuarri kontsultatu behar zitzaien exekuzioak edo gerrak noiz egin ere. Sariak jaunen esku ote zeuden, ba, eta zigorrak kontrolik gabe?

50. Germaniarak pozik eta ez urrun agitatzen ziren, gureak, Augustoren heriotzaren doluz, gero matxinadengatik, geldi zeuden bitartean. Baina errromatarrek, martxa bizkorrean, Zesiako oihana eta Tiberiok jasotako hesia mozten dute; kanpamendua mugan ezartzen dute, atze-aurreak lubakiz eta alboak enborrez babesturik. Gero, baso ilunetan barrura, bide bietarik laburren eta ohikoenari ala zailen eta ohigabee-nari eta, beraz, etsaiak gutxieng jagonari jarraitu eztabaidatzent dute. Biderik luzeena hautatzen dute, baina martxa azkartzen, esploratzaleek iragarri baitzuten gau hura germaniarrentzat jaia zela eta oturuntza handiekin ospatuko zutela. Zezinari aurrerik joateko eta oihana zeharkatzeko oztopoak garbitzeko agintzen zaio; legioek atzeratxoagotik jarraitzen dute. Zeru izarratua lagun izan zuten; marsoen auzoetara iritsi eta posizioz inguratzen zituzten, haien ohean etzanik eta mahaietan zeuden bitartean, ezeren beldurrik gabe, zaintzaile aurreraturik gabe, hain bertan behera dena, arduragabekeriaz. Ez zeukanen gerra beldurrik, baina bakea ere ez zen mozkorren arteko laxotasun nagi hura.

[51] Caesar avidas legiones quo latior populatio foret quatuor in cuneos dispergit; quinquaginta milium spatum ferro flammisque pervastat. Non sexus, non aetas miseracionem attulit: profana simul et sacra et celeberrimum illis gentibus templum quod Tanfanae vocabant solo aequantur. Sine vulnera milites, qui semisomnos, inermos aut palantis ceciderant. Excivit ea caedes Bructeros, Tubantes, Vspetes, saltusque, per quos exercitui regressus, insedere. Quod gnarum duci incessitque itineri et proelio. Pars equitum et auxiliariae cohortes ducebant, mox prima legio, et mediis impedimentis sinistrum latus unetvicesimani, dextrum quintani clausere, vicesima legio terga firmavit, post ceteri sociorum. Sed hostes, donec agmen per saltus porrigeretur, immoti, dein latera et frontem modice adsultantes, tota vi novissimos incurrere. Turbabanturque densis Germanorum catervis leves cohortes, cum Caesar advectus ad vicesimanos voce magna hoc illud tempus oblitterandae seditionis clamitabat: pergerent, proprearent culpam in decus vertere. Exarsere animis unoque impetu perruptum hostem redigunt in aperta caeduntque: simul primi agminis copiae evasere silvas castraque communivere. Quietum inde iter; fidensque recentibus ac priorum oblitus miles in hibernis locatur.

[52] Nuntiata ea Tiberium laetitia curaque adfecere: gaudebat oppressam seditionem, sed quod largiendis pecuniis et missione festinata favorem militum quaesivisset, bellica quoque Germanici gloria angebatur. Rettulit tamen ad senatum de rebus gestis multaque de virtute eius memoravit, magis in speciem verbis adornata quam ut penitus sentire crederetur: Paucioribus Drusum et finem Illyrici motus laudavit, sed intentior et fida oratione. Cunctaque quae Germanicus indulserat servavit etiam apud Pannonicos exercitus.

[53] Eodem anno Iulia supremum diem obiit, ob impudicitiam olim a patre Augusto Pandateria insula, mox oppido Reginorum; qui Siculum fretum accolunt, clausa. Fuerat in matrimonio Tiberii florentibus Gaio et Lucio Caesaribus spreveratque ut inparem; nec alia tam intima Tiberio causa

51. Zesarrek legio irrikatsuak lau ziritan kokatu zituen, txikizioa zaba-lagoa izan zedin; berrogeita hamar miliako lurraldea ezpataz eta suz errausten du. Ez sexua, ez adina izan ziren erruki bide; eraikin zibilak zein sakratuak, eta, jende haien artean, txit ospetsua zen Tanfana ize-neko tenplua ere, hausturik gelditu ziren. Soldaduek ez zuten inolako zauririk izan, etsai erdilo, armagabe eta alderrai haietakoak akabatzeko. Sarraski hark brukteroak, tubanteak eta usipeteak suti zituen, armadak itzuli behar zuen haitzarteetan kokatzen zirela. Hori jakinik, jeneralak biderako eta borrokarako prestatu zen. Aurretik, zalduneria zati bat eta kohorte aliatuak zihoazen, gero lehenengo legioa, eta, ekipajeak bide erdian utzirik, hogeita batgarrenak ezker alboa eta bosgarrenak eskuin-nekoia ixten zituzten; hogeigarrenak atzea zaintzen zuen eta, ondoren, gainerako aliatuak zetozenten. Etsaiek, geldi, zutabeak haitzarteean aurrera egiten zuten bitartean, gero alboak eta aurrealdeak apur bat xaxatuz, atzealdeari indar osoz eraso zioten eta kohorte xumeak desegin egiten ziren germaniar saldo trinkoen aurrez; orduan, Zesar, hogeigarrenenkonengana iritsirik, oihuka hasi zitzaien, huraxe zela unea sedizioaren orbana garbitzeko; jotzeko aurrera, ibiltzeko azkar, errua ohore bihurtzen. Gogock su hartu zuten eta, oldarraldi bakarrean, etsaia aurrean hartu, zabalgunera eraman eta bertan akabatzen dute. Aldi berean, aurreko tropik oihanetik irten eta kanpamentua gotortzen dute. Aurreantzean, bidea lasaia da eta soldaduak, oraingoaz harro eta lehengoaz ahazturik, neguko kuarteletan kokatzen dira.

52. Gertaera haien berriak Tiberiorengan poza eta kezka sortu zuten: pozten zen sedizioa zapaldu izanaz, baina Germanikok soldaduen ederra diru sariz eta lizenziamenduak aurreratuz irabazi izanak eta haren aintza militarrak ardura ematen zioten. Dena dela, haren balentrien berri eman eta haren kemenaren gorespen handiak egin zituen senatuan, hitz apaindu eta hanpätuegiz, benetan sentitzen zuela sinesteko. Druso eta Ilirikoko altxamendua laburkiago goretsi zituen, hitz bero eta egiazkoagoz baina. Germanikok egindako emaitza guztiak mantendu zituen panoniar armadentzat ere.

53. Urte berean, Juliaren heriotza gertatu zen, zeina Augusto aitak aspaldi barruratu zuen inpushiagatik, Pandateria irlan, eta gero, Reggio hirian, Siziliako itsasartean. Gaio eta Luzio Zesarren loraldian, Tiberio-rekin ezkondurik egon zen, honek maila beheragokotzat zapuztu arte;

*cur Rhodum abscederet. Imperium adeptus extorrem, infamem et post interfectum Postumum Agrippam omnis spei egenam inopia ac tabe longa peremisit, obscuram fore necem longinquitate exili ratus. Par causa saevitiae in Sempronium Gracchum, qui familia nobili, sollers ingenio et prave facundus, eandem Iuliam in matrimonio Marci Agrippae temeraverat. Nec is libidini finis: traditam Tiberio pervicax adulter contumacia et odiis in maritum accendebat; litteraeque quas Julia patri Augusto cum insectatione Tiberii scripsit a Graccho compositae credebantur. Igitur amotus Cercinam, Africi maris insulam, quattuordecim annis exilium toleravit. Tunc milites ad caedem missi invenere in prominenti litoris nihil laetum opperientem. Quorum adventu breve tempus petivit ut suprema mandata uxori Aliariae per litteras daret, cervicemque percussoribus obtulit; constantia mortis haud in dignus Sempronio nomine vita degeneraverat. Quidam non Roma eos milites, sed ab L. Asprenate pro consule Africae missos tradidere auctore Tiberio, qui famam caedis posse in Asprenatem verti frustra speraverat.*

[54] *Idem annus novas caerimonias accepit addito sodalium Augustalium sacerdotio, ut quondam Titus Tatius retinendis Sabinorum sacris sodalis Titios instituerat. Sorte ducti e primoribus civitatis unus et viginti: Tiberius Drusus que et Claudius et Germanicus adiciuntur. Ludos Augustalis tunc primum coepitos turbavit discordia ex certamine histrionum. Indulserat ei ludicro Auaustus, dum Maecenati obtemperat effuso in amorem Bathylli; neque ipse abhorrebat talibus studiis, et civile rebatur miseri voluptatibus vulgi. Alia Tiberio morum via: sed populum per tot annos molliter habitum nondum audebat ad duriora vertere.*

[55] *Druso Caesare C. Norbano consulibus decernitur Germanico triumphus manente bello; quod quamquam in aestatem summa ope parabat, initio veris et repentina in Chattos excursu preecepit. Nam spes incesserat dissidere hostem in Arminium ac Segestem, insignem utrumque perfidia in nos aut fide. Arminius turbator Germaniae, Segestes*

hauxe izan zen Tiberio Rodasera bazter zedin arrazoirik sakonena. Inperioaz jabetu zenean, hura zokoraturik eta desohoraturik eta, Agripa Postumo hildakoan, itxaropen oroz gabeturik, lazerian eta gose luzean hiltsuen utzi zion, haren heriotza, atzerriaren urrunagatik, ilunpean geldituko zela pentsaturik. Antzeko gogorkeria egin zion Senpronio Grakori ere, goi familiakoa berau, buru argikoa eta gaiztoki etorritsua, Julia bera seduzitu zuena, Marko Agriparekin ezkondurik zegoela. Eta haren grina ez zen horretan amaitu, zeren, Tiberiori emana izan zenean ere, adultero maltzur hark Juliaren gainean muzina eta gorrotoa pizten jarraitu baitzuen. Juliak Augusto aitari Tiberioren aurkako salaketaz bidalitako gutun bat Grakok idatzia zela uste zen. Hala, Afrika itsasoko Zerzina irlara bantzurrik, hamalau urteko erbestea jasan zuen. Orduan, hura hiltzena bidalitako soldaduek itsasertzeko tontor batean aurkitu zuten; ez zuten gauza onik itxaroten. Haiek iristean, denbora apur bat eskatu zuen, gutun batez, Aliaria emazteari azken gogoa igortzeko, eta gero lepoa eskaini zien borreroi. Heriotzarekin tinkotasunean, ez zuen Senpronio izenaren ezduin jokatu, baina bizitzan endekatua izan zen. Batzuek diote soldaduok ez zirela Erromak, baizik Afrikako prokonsul Luzio Asprenatek bidaliak izan, Tiberiok xaxaturik, zeinak alferrik uste zuen heriotza haren erantzukizuna Asprenateri leporatuko ziotela.

54. Urte hark kultu berriak ere ekarri zituen, kofrade augustoarrei abadegoa erantsiz, behinola, Tito Taziok, errito sabinoei eusteko, tizioena sortu zuen moduan. Hiriko hogeita bat gizon goren zotzera hautatu zituzten, eta Tiberio eta Druso eta Klaudio eta Germaniko gehitu zituzten. Lehenengo orduantxe abiatu zituzten joko augustoarrak histrioien lehiatik harako haserreak nahasi zituen. Augustok zabalkor jokatu zuen ikuskizun mota harekin, Batilorekin xarmaturik zegoen Mezenasi atsegina emanez, eta berak ere ez zituen jarduera horiek gorroto, populuaren dibertsioetan nahastea zer politikotzat jorik. Tiberiok beste jarrera bat zeukan; baina, herria hainbeste urtetan bigunki tratatua izan ondoren, oraindik ez zen ausartzen gogorrerantz tiratzen.

55. Druso Zesarren eta Gaio Norbanoren kontsulaldian, Germanikori garaipena aitortzen zaio, gerrak iraun arren. Baliabide guziekiko kanpaina udarako prestatzen ari zela, bat-batean, udaberriaren hastapenera aurreratu zuen, katoei erasoz. Izan ere, etsaia Arminioren eta Segestesen artean zatituko zen itxaropena sortu zitzzion, biak ere nabarmenak, gureganako

*parari rebellionem saepe alias et supremo convivio, post quod in arma itum, aperuit suasitque Varo ut se et Arminium et ceteros proceres vinciret: nihil ausuram plebem principibus amotis; atque ipsi tempus fore quo crimina et innoxios discerneret. Sed Varus fato et vi Armini cecidit; Segestes quamquam consensu gentis in bellum tractus discors manebat, auctis privatum odiis, quod Arminius filiam eius alii pactam rapuerat: gener invisus inimici socii; quaeque apud concordes vincula caritatis, incitamenta irarum apud inrensum erant.*

[56] *Igitur Germanicus quattuor legiones, quinque auxiliarium milia et tumultuarias catervas Germanorum cis Rhenum colentium Caecinae tradit; totidem legiones, duplarem sociorum numerum ipse dicit, positoque castello super vestigia paterni praesidii in monte Tauno expeditum exercitum in Chattos rapit, L. Apronio ad munitiones viarum et fluminum relichto. Nam (rarum illi caelo) siccitate et amnibus modicis inoffensem iter properaverat, imbruesque et flumen auctus regredienti metuebantur: Sed Chattis adeo improvisus advenit, ut quod imbecillum aetate ac sexu statim captum aut trucidatum sit. Iuventus flumen Adranam nando tramiserat, Romanosque pontem coeptantis arcebant. Dein tormentis sagittisque pulsi, temptatis frustra condicionibus pacis, cum quidam ad Germanicum perfugissent, reliqui omissis pagis vicisque in silvas disperguntur. Caesar incenso Mattio (id genti caput) aperta populatus vertit ad Rhenum, non auso hostile terga abeuntium lassessere, quod illi moris, quotiens astu magis quam per formidinem cessit. Fuerat animus Cheruscis iuvare Chattos, sed exterruit Caeccina huc illuc ferens arma; et Marsos congredi ausos prospere proelio cohibuit.*

[57] *Neque multo post legati a Segeste venerunt auxilium orantes adversus vim popularium a quis circumsedebatur; validiore apud eos Arminio quoniam bellum suadebat: nam barbaris, quanto quis audacia promptus, tanto magis fidus rebusque motis potior habetur. Addiderat Segestes*

saldukeriaz edo leialtasunez. Arminio germaniarak nahasten ari zen beti; Segestesek, berriz, beste hainbat alditan legez, ondoren gatazka abiatuko zen azken oturunza hartan, erreboltarako prestakuntzen berri eman zion Barori, baita aholkua ere, bera eta Arminio eta beste gorenak atxilo zitzan: herria ez ei zen ezertan ausartuko, printzeak kendu arren, eta, hala, berak ere errudunak eta errugabeak bereizteko modua izango ei zuen. Baino Baro patuaren eta Arminioaren indarpean jausi zen; Segestesek, herriaren kontentsuak gerrara arrastatu arren, desakort zirauen, bere gorroto personala handiturik, Arminio bestet bat aginduta zegoen alaba bahitu baiatzion; aitaginarreba etsaiaren gorrotozko suhi, ondo konpontzen direnen artean, maitasun lokarri dena, haien artean, gorrotoaren pizgarri zen.

56. Hala, bada, Germanikok lau legio, bost mila laguntzaile eta Rhinez honantz bizi ziren germaniarren kontingente irregularrak Zezinari uzten dizkio; berak, beste hainbeste legioren eta doble aliaturen buru, eta, bere aitak Tauno mendian ezarritako postuaren hondakin gainean, gotorleku bat eraikirik, bere armada trabarik gabea katoen aurka oldartzen du, atzean Luzio Apronio bideen eta ibaibideen arduradun utzirik. Izan ere, klima hartan arraroa bazen ere, lehorteak eta ibaien mehetasunak arazo gabeko ibilaldia errazago egin zuten, baina euriteak eta ibaigorak itzultzearen beldur ziren. Hain ezustean harrapatu zituen katoak, ezen, adinez edo sexuz, gauza ez zirenak aurkitutako lekuak bertan atxilotuak edo zehatuak izan baitziren. Gazteak Adrana ibaitik igerian bestalderatu ziren eta errromatarren zubi-ahaleginak ezerezten zitzuten; gero, makinen eta gezien jaurtiketaz, atzera eragin zieten eta, bake negoziatu alferrik saiatu ondoren, batzuk Germianikorengana pasatu ziren eta gainerakoak, auzo eta herriak bertan behera utzirik, oihanetan zehar sakabanatu ziren. Zesar, Mattiori, herri haren hiriburuari, su emanik eta inguru irekia suntsitutik, Rhinerantz okertu zen; etsaia ez zen ausartu erretiran ziohan armadaren atzealderik erasotzen, beldurragatik barik maltzurkeriagatik atzera egiten denean ohi denez. Keruskoeak katoei laguntzeko gogoa izan zuten, baina Zezinak disuaditu zituen, armada hara-hona erabiliz; eta aurre egiten ausartu ziren marsoak borroka emankorrean uxatu zituen.

57. Handik laster, Segestesen partez, legatuak iritsi ziren, inguraturik zeukan herriaren indarkeriaren aurka laguntasun eske; euren artean nagusitu zen Arminio gerra aholkatzen zuen: barbaroentzat, izan ere, zenbat eta prestago eta ausartago izan, hainbat fidagarriagotzat eta erreboltan ahaltsuagotzat daukate. Segestesek legatuekin semea bidali zuen,

*legatis filium, nomine Segimundum: sed iuvenis conscientia cunctabatur. Quippe anno quo Germaniae descivere sacerdos apud aram Vbiorum creatus ruperat vittas, profugus ad rebellis. Adductus tamen in spem clementiae Romanae pertulit patris mandata benigneque exceptus cum praesidio Gallicam in ripam missus est. Germanico pretium fuit convertere agmen, pugnatumque in obsidentis, et erexitus Segestes magna cum propinquorum et clientium manu. Inerant feminae nobiles, inter quas uxor Arminii eademque filia Segestis, mariti magis quam parentis animo, neque victa in lacrimas neque voce supplex; compressis intra sinum manibus gravidum uterus intuens. Ferebantur et spolia Varianae cladis, plerisque eorum qui tum in deditiōnem veniebant praedae data: simul Segestes ipse, ingens visu et memoria bonae societatis in pavidus.*

[58] *Verba eius in hunc modum fuere: ‘non hic mihi primus erga populum Romanum fidei et constantiae dies. Ex quo a divo Augusto civitate donatus sum, amicos inimicosque ex vestris utilitatibus delegi, neque odio patriae (quippe proditores etiam iis quos anteponunt invisi sunt), verum quia Romanis Germanisque idem conducere et pacem quam bellum probabam. Ergo raptorem filiae meae, violatorem foederis vestri, Arminium apud Varum, qui tum exercitui praesidebat, reum feci. Dilatus segnitia ducis, quia parum praesidiū in legibus erat, ut me et Arminium et consicos vinciret flagitavi: testis illa nox, mihi utinam potius novissima! quae secuta sunt desleri magis quam defendi possunt: ceterum et inieci catenas Arminio et a factione eius iniectas perpessus sum. Atque ubi primum tui copia, vetera novis et quieta turbidis antehabeo, neque ob praemium, sed ut me perfidia exsolvam, simul genti Germanorum idoneus conciliator, si paenitentiam quam perniciem maluerit. Pro iuventa et errore filii veniam precor: filiam necessitate huc adductam fateor. Tuum erit consultare utrum praevaleat quod ex Arminio concepit an quod ex me genita est.’ Caesar clementi responso liberis propinquisque eius in columitatem, ipsi sedem vetere in provincia pollicetur. Exercitum*

Segismundo zeritzona, baina zalantzan zegoen, bere kontzientziagatik. Izan ere, Germaniarren altxamendu urtean, ubioen aldarean abade izendatua izanik, abade xingolak hautsi eta matxinoengana ihes egin zuen. Erromatar klementziaren itxaropenera erakarririk, ostera, aitaren aginduetara makurtu zen eta, onberaki harturik, galar ibarrera bidalia izan zen eskoztarekin. Germanikok zutabeari eurt eragitea merezi zuela pentsatu zuen eta setiatzaileen aurka borrokatu zen, Segestes eta bere adiskide eta cliente andana handi bat askatzen zuela. Tartean, baziren andere gurenak, aldi berean, Arminioen emazte eta Segestesen alaba, esaterako; senarraren izaeratik gehiago zeukan, aitarenetik baino, eta ez negarrrik, ez erregu hitzik ez zuen jaulki, eskuak soinekoaren tolespean gurutzaturik, sabel haudunera begiratzen zuela. Baroren hondameneko mozkinak ere bazekartzaten, eta orduan euren burua entregatzen zuten gehienak harrapakinean partaide egin zituzten; Segestes bera ere bai, itxura itzelekoa eta izukaitza, elkartasun zintzoaren gomutaz.

58. Segestes honela mintzatu zen: «Hau ez dut erromatar herriarekiko leialtasun segurraren lehen eguna. Augusto Jainkozkoak hiritar egin ninduenetik, lagunak eta etsaiak zeuen komenentzian hautatu ditut, eta ez neure aberriaganako gorrotoz (traidoreak higuingarri baitira ongarri zaizkienentzat ere), baizik defendatzen nuelako erromatarren eta germaniarren interesa bat bera dela, eta bakearen eta ez geraren alde nengoelako. Horregatik, Arminio, gure alabaren bahitzailea, zuen aliantzaren hauslea, orduan zuen armadaburu zen Baroren aurrean salatu nuen. Buruzagi hark luzapenak eman zizkidan utzikeriaz, eta, legeetan babes urria baineokusen, otoiaka eskatu nion neu eta Arminio eta konplizeak atxilo zitzan. Gau huraxe da lekuko, eta habe niretzat bera azkena izan balitz! Ondoren etorri zena deitoratzeko hobea da, defendatzeko baino. Gainerakoan, Arminiori neuk kateak ezarri ez ezik, haren fakzioak neuri ezarriak jasan behar izan nituen. Eta zurekin lehenengoz aurkitzen naizen honetan, lehengoa oraingoaren, bakea nahasmaren aurrean jartzen dut; eta ez sari itxaropenez, saldukeriaren salapenetik absollitua izan nadin baizik, eta, aldi berean, germaniar herriaren adiskide-tzaile egoki gisan, damua galmena baino nahiago baduzu. Barkamena eskatzen dut nire semearen okerkaria gazteagatik; alabari buruz, aitor dizut bortxaz ekarria izan dela hona. Zeure kontua izango da zein den behinago, Arminiorekin umea izana ala neure umea izana». Zesarrek, erantzun bihozberaz, seme-alaben eta ahaideen indemnitatea bermá-

*reduxit nomenque imperatoris auctore Tiberio accepit. Arminii uxor virilis sexus stirpem edidit: educatus Ravennae puer quo mox ludibrio conflictatus sit in tempore memorabo.*

[59] *Fama dediti benigneque excepti Segestis vulgata, ut quibusque bellum invitis aut cupientibus erat, spe vel dolore accipitur. Arminium super insitam violentiam rapta uxor, subiectus servitio uxoris uterus vaecordem agebant, volitabatque per Cheruscos, arma in Segestem, arma in Caesarem poscens. Neque probris temperabat: egregium patrem, magnum imperatorem, fortē exercitum, quorum tot manus unam mulierculam avexerint. Sibi tres legiones, totidem legatos procubuisse; non enim se proditione neque adversus feminas gravidas, sed palam adversus armatos bellum tractare. Cerni adhuc Germanorum in lucis signa Romana, quae dis patriis suspenderit. Coleret Segestes victimam ripam, redderet filio sacerdotium hominum: Germanos numquam satis excusaturos quod inter Albim et Rhenum virgas et securis et togam viderint. Aliis gentibus ignorantia imperi Romani inexperta esse suppicia, nescia tributa: quae quoniam exuerint inritusque discesserit ille inter numina dicatus Augustus, ille delectus Tiberius, ne inperitum adulescentulum, ne seditionum exercitum pavescerent. Si patriam parentes antiqua mallent quam domi nos et colonias novas, Arminium potius gloriae ac libertatis quam Segestem flagitosae servitutis ducem sequerentur.*

[60] *Conciti per haec non modo Cherusci, sed conterminae gentes, tractusque in partis Ingiomerus Arminii patruus, vetere apud Romanos auctoritate; unde maior Caesari metus. Et ne bellum mole una ingrueret Caecinam cum quadraginta cohortibus Romanis distrahendo hosti per Bructeros ad flumen Amisiam mittit, equitem Pedo praefectus finibus Frisiorum dicit. Ipse inpositas navibus quattuor legiones per lacus vexit; simulque pedes eques classis apud praedictum amnem convenere. Chauci cum auxilia pollicerentur, in commilitum adsciti sunt. Bructeros sua urentis expe-*

tzen dio, eta berari egoitza bat, antzinako probintzia batean. Armadaren itzuli zen eta, Tiberioren mozioz, enperadore titulua hartu zuen. Arminioren emazteak mutiltxo bat izan zuen; Ravennan hazi zuten haurra eta gero zenbateraino bihurtu zen zoriaren jostailu, aurrerago kontatuko dut.

59. Segestesen entreguaren eta egin zitzaison harrera onaren berri zabaltzean, itxaropenez edo saminez hartzen dute, bakotza gerraren aurkako ala aldeko izan. Arminio, berezko izaera gogorraz gainera, emaztearen bahiketaz, emaztearen sabel-fruitu joputzara behartuaz, zoraturik zebilen, keruskoen artean eten gabe hara-hona, Segestesen eta Zesarren aurkako gerrara harengatzu. Ez zuen irainik aurrezten: «Aita entzutetsua, jeneral handia, armada bortitzta, hainbeste esku, andre gajo bat eramateko!». Bere aurrean, hiru legio eta beste hainbeste legatu jausi ei ziren, ez baitzuen gerrarik traizioz egiten, ez emakume haurduen aurka, aurrez aurre eta gizon armatuen aurka baizik. Han zeuden oraindik bistan, germaniarren oihan santuetan, erromatarren banderak zintzilik, aberri Jainkoentzako opari. Bizi zedila Segestes ibar menperatuan, itzul ziezaiola bere semeari giza abadego hura; germaniarrek inoiz ezingo zuten behar beste barkatu makilak, aizkorak eta toga Elba eta Rhin artean ikusi izana. Beste jendeek, erromatar herria ez ezagutzearen, ez zuten haien supliziorik ezagutzen, ez zekiten zergen berri; eurek, ostera, gainetik kendu zituztenez gero, eta Jainkoen artean gurturiko Augustok, berak hautaturiko Tiberiok, ezer lortu gabe alde egin behar izan zutenez gero, ez zioten beldurrik izan behar mutiko inperitoari, ez sediziosoen armadari. Jaun haien eta kolonia berriak baino aberria, arbasoak, antzinako gauzak nahiago bazituzten, aintzaren eta askatasunaren buruzagi Arminiori jarraitu behar zioten, Segestes morrontza lotsagarriaren buruari barik.

60. Harenga haien, keruskoak ez ezik, herri mugakideak ere astindu zituzten eta, erromatarren aurrean, antzinatik errespetua zeukan osaba Ingiomero ere Arminioren alderdira igaro zen, honek Zesarren beldurra areagotzen zuela. Indar guztiak gune bakarrean baturik gerra ez hastearren, Zezina, berrogei kohorte erromatarrekin eta etsaia distractitza, brukteroien lurretik bidaltzen du, Amisia ibairantz; Pedon prefektuak zaldieria frisioen mugetara darama. Berak, berriz, lau legio eraman zituen ontziz lakuetan zeha, eta, hala, esandako ibaiaren ondoan, oinez-

*dita cum manu L Stertinius missu Germanici fudit; interque caedem et praedam repperit undevicesimae legionis aquilam cum Varo amissam. Ductum inde agmen ad ultimos Bructerorum, quantumque Amisiam et Lupiam amnis intervastatum, haud procul Teutoburgensi saltu in quo reliquiae Vari legionumque inseptulae dicebantur.*

[61] *Igitur cupidus Caesarem invadit solvendi suprema militibus ducique, permoto ad miserationem omni qui aderat exercitu ob propinquos, amicos, denique ob casus bellorum et sortem hominum. Praemissa Caecina ut occulta saltuum scrutaretur pontesque et aggeres umido paludum et fallacibus campis inponeret, incedunt maestos locos visuque ac memoria deformis. Prima Vari castra lato ambitu et dimensis principiis trium legionum manus ostentabant; dein semiruto vallo, humili fossa accisae iam reliquiae condidisse intellegebantur: medio campi albentia ossa, ut fugerant, ut restiterant, disiecta vel aggerata. Adiacebant fragmina telorum equorumque artus, simul truncis arborum antefixa ora. Lucis propinquus barbarae aerae, apud quas tribunos ac primorum ordinum centuriones mactaverant. Et cladis eius superstites, pugnam aut vincula elapsi, refreabant hic cecidisse legatos, illic raptas aquilas; primum ubi vulnus Varo adactum, ubi infelici dextera et suo ictu mortem invenerit; quo tribunal contionatus Arminius, quot patibula captivis, quae scrobes, utque signis et aquilis per superbiam inluserit.*

[62] *Igitur Romanus qui aderat exercitus sextum post cladis annum trium legionum ossa, nullo noscente alienas reliquias an suorum humo tegeret, omnis ut coniunctos, ut consanguineos, aucta in hostem ira, maesti simul et infensi condebant. Primum extruendo tumulo caespitem Caesar posuit, gratissimo munere in defunctos et praesentibus doloris socius. Quod Tiberio haud probatum, seu cuncta Germanici in deterius trahenti, sive exercitum imagine caesorum inseptorumque tardatum ad proelia et formidolosiorum hostium credebat; neque imperatorem augura-*

koak, zaldiak eta ontziak bildu ziren. Tropa aliatuak eskaini zituzten kaukoak aliatutzat hartu zituzten. Brukteroak, ondasunak erretzen zihardutela, Germanikok tropa arin batekin bidalitako Luzio Esterti-niok desegin zituen eta, sarraski eta harrapaketa betean, Barok galdu-tako hemeretzigarren legioko arranoa aurkitu zuen. Ondoren, zutabeak brukteroekin mutur mugaraino jo zuen eta Amisia eta Lupia arteko lurral-de guztia suntsitu zuten, Teutoburgotik ez urrun, non Baroren eta bere legioen gorpuzkinak ehortzirik ei zeuden.

61. Horregatik, Zesarri soldadu haiei eta buruzagiari azken ohorea eskaintzeko gogoa sortu zitzzion; hango militar guztiak bihozberatzen ziren, ahaide, lagun, hitz batez, gerraren zorigaitz eta giza zorian pen-satzean. Oihanen alde ezkutuak esploratzera eta, zingiretako zoru heze eta badezpadakoen gainean, zubiak eta lubetak eraikitza, Zezina aurretik bidali ondoren, itxura eta gomuta zantarreko leku triste haietan barnatzen dira. Baroren lehen kanpamentuak, barrutiaren handitik eta agintegunearen neurrietatik, hiru legioen lana erakusten zuen. Gero ikusten zen armadaren hondakinak erdi eraitsita zegoen gotorlekuan zokotu zirela, sakonera txikiko lubaki batekin. Lautada erdian, hezur zuriskak, sakabanaturik edo piloan, ihesean ala eusten jausi ziren kontu. Ondoan, arma zatiak eta zaldi hezurak zeutzan, baita zuhaitz enborretan jositako buruak ere. Baso hurbiletan, barbaroen aldareak zeuden, zeintzuen aurrean tribunoak eta lehen mailetako zenturioiak sakrifikatu zituzten. Eta triskantza hartatiko bizirauleek, borrokatik edo gatibutzatik ihes egin zutenek, kontatzen zuten nola hemen legatuak jausi ziren eta hor arranoak kendu zizkieten; Barok non hartu zuen lehen zauria, non eskuin kolpe zorigaitzeko batez heriotza aurkitu zuen; zein tribunatan egin zuen Arminiok harengan, zenbat ziren gatibuentzako urkabeak, zeintzuk zuloak, eta nola harropuztu ziren banderak eta arranoak laidotuz.

62. Hala, hondamenetik sei urtera iritsi zen errromatar armadak hiru legioen hezurak ehorzten zituen; inork ez zekien arrotzen ala eurenengi hondakinak ziren, baina denak hurbilak, odolekoak bailiran ari ziren, etsaiaren-ganako amorrua areagotuz eta, aldi berean, tristerik eta gorrotoz beterik. Hilobia jasotzeko lehen zohia Zesarrek ipini zuen, hilekiko esker onaren aitormenez eta inguruko saminkide. Hori ez zitzzion Tiberiori ondo begitandu, bai Germianikoren dena txartzat jotzen zue-

*tu et vetustissimis caerimoniis praeditum adtrectare feralia debuisse.*

[63] *Sed Germanicus cedentem in avia Arminium secutus, ubi primum copia fuit, evehi equites campumque quem hostis insederat eripi iubet. Arminius colligi suos et propinquare silvis monitos vertit repente: mox signum prorumpendi dedit iis quos per saltus occultaverat. Tunc nova acie turbatus eques, missaeque subsidiariae cohortes et fugientium agmine impulsae auxerant consternationem; trudebanturque in paludem gnaram vincentibus, iniquam nesciis, ni Caesar productas legiones instruxisset: inde hostibus terror, fiducia militi; et manibus aequis abscessum. Mox reducto ad Amisiā exercitu legiones classe, ut ad vexerat, reportat; pars equitum litore Oceani petere Rhenum iussa; Caecina, qui suum militem ducebat, monitus, quamquam notis itineribus regredere turpe, pontes longos quam maturrime superare. Angustus is trames vastas inter paludes et quondam a L. Domitio aggeratus, cetera limosa, tenacia gravi caeno aut ravis incerta erant; circum silvae paulatim adclives, quas tum Arminius inplevit, compendiis viarum et cito agmine onustum sarcinis armisque militem cum antevenisset. Caecinae dubitanti quoniam modo ruptos vetustate pontes reponeret simulque propulsaret hostem, castra metari in loco placuit, ut opus et alii proelium inciperent.*

[64] *Barbari perfringere stationes seque inferre munitoribus nisi laccessunt, circumgrediuntur; occurvant: miscetur operantium bellantiumque clamor. Et cuncta pariter Romanis adversa, locus uligine profunda, idem ad gradum instabilis, procedentibus lubricus, corpora gravia loricis; neque librare pila inter undas poterant. Contra Cheruscis sueta apud paludes proelia, procera membra, hastae ingentes ad vulnera facienda quamvis procul. Nox demum inclinantis iam legiones adversae pugnae exemit. Germani ob prospera indefessi, ne tum quidem sumpta quiete, quantum aquarum circum surgentibus iugis oritur vertere in subiecta, mersaque humo et obruto quod effectum operis duplicatus*

Iako, bai uste zuelako gizon hil eta ehortzigabe haien ikuspenak armandaren gogoa kikildu egingo zuela borrokarako, eta hain etsai baldurriaren aurrean, eta augurioz eta erritorik zaharrenez jantxitako jeneralak ez zuela hileta gaietan eskurik ezarri behar.

63. Baino Germanikok, leku ibilgaitzetatik sartu zen Arminio jazarrik eta, aukerarik izan zueneko, zaldieria oldartzeko eta etsaia kokaturik zegoen lautada kentzeko agindu zuen. Arminiok, bereei atzera egiteko eta oihanetara hurbiltzeko aholkatu ondoren, berehala eurt eragin zien; jarraian, sastraketen ezkutaturik utzi zituenei erasotzeko agindu zien. Multzo berri honen aurrean, zaldieria iztu zen eta harantz bidalitako kohorte laguntzaileek, ihesi zetorren uholak aurrean harturik, nahasmena gehitu zuten; garailpeak ezagun zuten eta, ezagutzen ez zutezentzat, galgarria zen zingirara zuzen arrastatuak izango ziren, Zesarrek legio hedatuei aurrera eragin ez balie. Horrek etsaiengana izua, soldaduengana konfiantza ekarri zuen; horrek banakuntza eta gatazka airean uztea ekarri zuen. Gero, armada Amisiara itzularazi zuen eta, legioak, flotan, eraman bezala ekarri zituen. Zaldieriaren zati bat, ozeanoaren ertzetik, Rhinera iristeko agindu zitzaison; bere armada zeraman Zezinari agindu zitzaison, bide ezagunetatik itzuliz bazen ere, lehenbai lehen igaro zedila zubi luzeetara. Hau zingiria arteko tarte mehar bat zen, Luzio Domiziok aspaldi eraikia. Gainerakoak lokaziak ziren, batzuk gogorrak lokatz trinkoz, beste batzuk ez segurrik errekekengatik; inguruuan malda leuneko oihanak zeuden, orduan Arminiok tropaz bete zituenak, ekipajeaz eta armaz kargaturiko armadari, lasterbideetatik eta azkar, aurrea harturik. Zezinak, nola, aldi berean, denborak apurtutako zubiak berregin eta etsaia jagon zalantzaran, kanpamentu bat bertan eraitzea erabaki zuen, batzuk lanean eta besteak borrokan has zitezen.

64. Barbaroek, defentsak hautsi eta langileen gainera oldartzeko ahaleginean, xaxatzen, inguratzen, behin eta berriz erasotzen diete. Paladunen eta armadunen harrabotsa nahasten da. Eta dena batera errromatarren aurka jartzen da: zingira sakoneko lekua, biguna, zapaltzeko, eta labaina, aurrera egiteko; soldaduek, euren lorigekin eta uretan, ezin zuten azkonik jaurti ere. Keruskoak, ostera, zingiretan borrokan ohituak zeuden, altuak ziren, eta, euren lantza luzez, urrundik ere zauri zezaketen. Azkenik, borroka galgarri hartatik gauak libratu zituen legioak, amore ematen hasita zeudenak. Germaniarrek, nekagaitz arrakastarekin, atsedenik ere ez zuten hartu, eta goietatik zetozten ur guztiak

*militi labor. Quadragesimum id stipendium Caecina parenti aut imperitandi habebat, secundarum ambiguarumque rerum sciens eoque interritus. Igitur futura volvens non aliud repperit quam ut hostem silvis coerceret, donec saucii quantumque gravioris agminis anteirent; nam medio montium et paludum porrigebatur planities, quae tenuem aciem pateretur. Deliguntur legiones quinta dextro lateri, unetivisimcesima in laevum, primani ducendum ad agmen, vicesimus adversum secuturos.*

[65] *Nox per diversa inquies, cum barbari festis epulis, laeto cantu aut truci sonore subiecta vallium ac resultantis saltus complerent, apud Romanos invalidi ignes, interruptae voces, atque ipsi passim adiacerent vallo, oberrarent tentoriis, insomnes magis quam pervigiles. Duce mque terruit dira quies: nam Quintilium Varum sanguine oblitem et paludibus emersum cernere et audire visus est velut vocantem, non tamen obsecutus et manum intendentis repulisse coepta luce missae in latera legiones, metu an contumacia, locum deseruere, capto propere campo umentia ultra. Neque tamen Arminius quamquam libero incursus statim prorupit: sed ut haesere caeno fossisque impedimenta, turbati circum milites, incertus signorum ordo, utque tali in tempore sibi quisque properus et lentae adversum imperia aures, inrumpere Germanos iubet, clamitans 'en Varus eodemque iterum fato vinctae legiones!' simul haec et cum delectis scindit agmen equisque maxime vulnera ingerit. Illi sanguine suo et lubrico paludum lapsantes excussis rectoribus disicere obvios, proterere iacentis. Plurimus circa aquilas labor, quae neque ferri adversum ingruentia tela neque figi limosa humo poterant. Caecinadum sustentat aciem, suffosso equo delapsus circumveniebatur, ni prima legio sese opposuisset. Iuvit hostium aviditas, omissa caede praedam sectantium, enisaeque legiones vesperascente die in aperta et solida. Neque is miseriarum finis. Struendum vallum, petendus agger, amissa magna ex parte per quae egeritur humus aut exciditur caespes; non*

behealde hartarantz bideratu zituzten; eginda zeuzkaten lanak honda- tzeak edo eraisteak nekea areagotu egin zuen. Zezina, bai menpeko, bai agintari, berrogei urte zerbitzuan zeramatxanez, eta aldeko eta aurkako zoriaren berri bazkienez gero, ez zen iztu. Hala, zer egingo pentsaketan, ez zuen aurkitu etsaiari oihanetan eusteaz beste biderik, zaurituek eta zutabearen parterik astunenak aurrea hartzen zuten bitartean. Izan ere, mendiaren eta zingiraren artean, bazen hedatze bizkor bat burutzeko moduko lautada bat. Eskuin hegalerako, bosgarren legioa eta, ezkerrerako, hogeita batgarrena hautaturik, lehenengokoak buru joango ziren eta hogeigarrenekoak jazarleei aurre egin.

65. Gaua urduria izan zen, motibo ezberdinez. Barbaroek, jai-otorduei emanik, kantu alaiz eta oihu basatiz betetzen zituzten harana eta mendi durundigileak; erromatarren aldean, su ahulak, abots etenak, eta eurak hara-hona hesi kontran, edo denda artean alderrai, zaintzaile baino gehiago, loa galdurik. Eta jenerala amets lazgarriak iztu zuen: Kintilio Baro, odoleztaturik, zingiratik irteten ikusi eta entzun uste zuen berari deika bezala, baina ez zion jaramonik egin eta luzatzten zion eskua ukatu egin zion. Eguna argitzean, hegaletara bidalitako legioek, beldurrez edo errebediaz, lekutik alde eta zingirez handiko zelaia azkar hartzut. Arminio, erasorako aukera garbia izan arren, ez zen berehalaka oldartu; ostera, ekipajeak basatzan eta zuloetan ataskatu zirenean, inguruan lerroak nahastu zirenean, banderak jada lekuak ez zeudenean, bakoitzak bere burua besterik ikusten ez eta aginduetarako belarri gel doak dituen une horretan, germaniarrei jotzeko agintzen die, oihuka: «Hona hemen Baro eta legioak, zori beraren mende berriz!». Aldi berean, gizon hautatuek lagundurik, zutabea mozten du, zaldiak, batez ere, zaurituz. Hauek, euren odolean eta lokatzean labainka eta zaldunak jaurtirik, bidean aurkitzen dituztenak sakabanatzan eta eroriak zapaltzen dituzte. Borrokaren latzena arranoen inguruan izan zen, jaurti- armen zaparradaren aurka eramaterik, ez lokatz-lurrean sartzerik ez baitzegoen. Zezina, formazioari eusten saiatzen zela, zaldi zauritutik jausi zen, eta bertan inguratuko zuten, lehen legioak defendatu ez balu. Etsaiaren gutizia lagun izan zuen, sarraskiari utzita, harrapakin bila jo baitzuen; iluntzerako, legioek eremu irekian eta sendoan kokatzea lortu zuten. Baina ez zen hori ezbeharren azkena izan: oholesia jaso behar zen, lubeta egin, zulatzeko eta sokilak iraultzeko tresneriarik gehien galdua zela; ez zegoen dendarik tropentzat, ez sendagairik zauritu-

*tentoria manipulis, non fomenta sauciis; insectos caeno aut  
cruore cibos dividentes funestas tenebras et tot hominum  
milibus unum iam reliquum diem lamentabantur.*

[66] *Forte equus abruptis vinculis vagus et clamore territus  
quosdam occurrientium obturbavit. Tanta inde consternatio  
inrupisse Germanos credentium ut cuncti ruerent ad portas,  
quarum decumana maxime petebatur; aversa hosti et fugientibus  
tutior. Caecina comperto vanam esse formidinem, cum  
tamen neque auctoritate neque precibus, ne manu quidem  
obsistere aut retinere militem quiret, projectus in limine por-  
tae miseratione demum, quia per corpus legati eundum erat,  
clausit viam: simul tribuni et centuriones falsum pavorem  
esse docuerunt.*

[67] *Tunc contractos in principia iussosque dicta cum silen-  
tio accipere temporis ac necessitatis monet. Unam in armis  
salutem, sed ea consilio temperanda manendumque intra  
vallum, donec expugnandi hostis spe proprius succederent;  
mox undique erumpendum: illa eruptione ad Rhenum perve-  
niri. Quod si fugerent, pluris silvas, profundas magis palu-  
des, saevitiam hostium superesse; at victoribus decus glo-  
riam. Quae domi cara, quae in castris honesta, memorat;  
reticuit de adversis. Equos dehinc, orsus a suis, legatorum  
tribunorumque nulla ambitione fortissimo cuique bellatori  
tradit, ut hi, mox pedes in hostem invaderent.*

[68] *Haud minus inquietus Cermanus spe, cupidine et diversis  
ducum sententiis agebat, Arminio sinerent egressos-  
que rursum per umida et impedita circumvenirent suadente,  
atrociora Inguiomero et laeta barbaris, ut vallum armis  
ambirent: promptam expugnationem, plures captivos, inco-  
rruptam praedam fore. Igitur orta die proruunt fossas, ini-  
ciunt cratis, summa valli prensant, raro super milite et quasi  
ob metum defixo. Postquam haesere munimentis, datur  
cohortibus signum cornuaque ac tubae concinuere. Exim clamo-  
re et impetu tergis Germanorum circumfunduntur; expro-  
brantes non hic silvas nec paludes, sed aequis locis aequos*

tzat; janari lokaztuak edo odoleztatuak banatz, deitoratzen zuten ilun-  
pe zital eta milaka gizonentzat azkena izango zela uste zuten eguna.

66. Hartan, zaldi batek, uhalak hautsirik, lasterka eroan eta oihuek izu-  
turik, bidean aurkitu zuen hainbat gizon zapaldu zuen. Horrek, germaniarren erasoa zelakoan, halako asaldua eragin zuen, ezen ateetaranitz  
oldartu baitziren, batez ere, etsaiaren aldera ematen zuen eta iheserako  
segurragoa zen dekumanora. Zezinak, alarma gezurrezkoa zela ohartu-  
rik, ez zuen lortu, ez aginduz, ez erreguz, ezta bere eskuz ere, solda-  
duak gelditzerik eta eusterik, azkanean, atalasean etzan eta errukira  
jorik, legatuaren gorputz gainetik igaro behar baitzen, bidea itxi arte.  
Orduan, tribunoek eta zenturioiek izuaren gezurra ikusarazi zieten.

67. Gero buruzagitzan batzen ditu eta, isilik entzuteko agindurik,  
uneko egoeraz eta premiaz aholkatzen ditu. Salbamen bakarra borrokan  
ei zegoen; baina ondo pentsaturiko planez egin behar zen, eta hesi  
barruan egon, etsaiia erasotzera gehiago hurreratu arte; gero, alde guz-  
tietatik, kanpora oldartu eta, abornada horrekin, Rhineraingo iritsi behar  
zen. Ihesari ematen bazioten, oihan gehiago, zingira sakonagoak eta  
etsaiaren amorrua besterik ez zegoen; irabazten bazuten, ostera, aintza  
eta ohorea. Aberriaren ondasunak eta ohore militarra gogoratzen diz-  
kie. Ezbeharrik aipatu ere ez. Gero, bereetarik hasi eta legatuen eta tri-  
bunoenara jarraituz, borrokariik indartsuenei, inolako bereizmen  
gabe, zaldiak banatzen dizkie, hauek aurretik, oinezkoak ondoren,  
etsaiaren aurka oldar daitezzen.

68. Germaniarak ez zebiltzan lasaiago, itxaropena, gutizia eta buruza-  
gien iritzi ezberdintasuna zirela bide. Arminioren aholkua irteten uzte-  
koen, gero, zoru heze eta zailean, berriro inguratzeko. Ingiomeroren  
proposamena bortitzagoa eta barbaroen begikoagoa zen: oholesia  
armaz inguratzen, erasoa erraza izango baitzen, gatibuak gehiago, eta  
harrapakina ukitu gabe. Hala, egunsentian, zuloan betetzen hasten dira,  
koltzak jaurtitzen dituzte, hesi gainera igotzen dira, soldadu bakanek  
zaindua berau, beldurrak bertan josita bezala. Gotorleku gainean koka-  
tu zirenean, kohorteei seinalea ematen zaie, korneta eta tuben hots bate-  
ratuz. Orduan, indarrez eta orroz, germaniarren ezpaten aurka oldar-  
tzen dira, oihu eginik han ez zegoela oihanik ez zingirarik, Jainko ber-  
dinak zelai berdinean baizik. Gizon bakan erdi armagabeen hilketa

*deos. Hosti facile excidium et paucos ac semermos cogitanti sonus tubarum, fulgor armorum, quanto inopina tanto maiora offunduntur, cadebantque, ut rebus secundis avidi, ita adversis incauti. Arminius integer, Inguiomerus post grave vulnus pugnam deseruere: vulgus trucidatum est, donec ira et dies permansit. Nocte demum reversae legiones, quamvis plus vulnerum, eadem ciborum egestas fatigaret, vim sanitatem copias, cuncta in victoria habuere.*

[69] *Penaserat interim circumventi exercitus fama et infesto Germanorum agmine Gallias peti, ac ni Agrippina inpositum Rheno pontem solvi prohibuisset, erant qui id fiagitium formidine auderent. Sed femina ingens animi munia ducis per eos dies induit, militibusque, ut quis inops aut saucius, vestem et fomenta dilargita est. Tradit C. Plinius Germanicorum bellorum scriptor; stetisse apud principium ponti laudes et grates reversis legionibus habentem. Id Tiberii animum altius penetravit: non enim simplicis eas curas, nec adversus extenuos [studia] militum quaeri. Nihil relictum imperatoribus, ubi femina manipulos intervisat, signa adeat, largitionem temptet, tamquam parum ambitiose filium ducis gregali habitu circumferat Caesaremque Caligulam appellari velit. Potiorum iam apud exercitus Agrippinam quam legatos, quam duces; compressam a muliere seditionem, cui nomen principis obsistere non qui verit. Accendebat haec onerabatque Seianus, peritia morum Tiberii odia in longum iaciens, quae reconderet auctaque promeret.*

[70] *At Germanicus legionum, quas navibus vexerat, secundam et quartam decimam itinere terrestri P. Vitellio ducendas tradit, quo levior classis vadoso mari innaret vel reciproco sideret. Vitellius primum iter sicca humo aut modice adlabente aestu quietum habuit: mox impulsu aquilonis, simul sidere aequinoctii, quo maxime tumescit Oceanus, rapi agique agmen. Et opplebantur terrae: eadem freto litori campis facies, neque discemi poterant incerta ab solidis, brevia a profundis. Sternuntur fluctibus, hauriuntur gurgitibus; iumenta, sarcinae, corpora exanima interfluent, occursant.*

erraiza itxaroten zuten etsaiei tuben hotsak eta armen distirak, zenbat eta ustekabeago, hainbat nahasmen handiagoa eragin zien, eta jausten zihoazen, onean gogotsu bezain txarrean inozo. Arminiok, onik, eta Ingiomerok, larriki zauriturik, borrokatik hanka egin zuten; populuak sarraskiari ekin zion, gorrotoak eta egunak ematen zueno. Azkenik, legioak itzuli ziren gauez, zauri gehiagoz eta bezperako janari falta berberaz; baina, garaipenarekin, indarra, osasuna, dena eskuratu zuten.

69. Bitartean, armada inguraturik zegoela eta germaniarren zutabe bat Galien aurka gerrara zihoala zabaldu zen, eta, Agripinak Rhin gurutzatzen zuen zubia moztea eragotzi ez balu, baziren, beldurrez, lotsagarrikeria hartara ausartuko zirenak. Baino gogo alimaleko emakume hark buruzagi ardura bere gain hartu zuen egun haietan eta, miserian eta zauripean zeuden soldaduen artean, jantziak eta erremedioak banatu zituen. Gaio Pliniok, Germaniako gerren historialariak, dio ezen, zubiaren sarrean zutik, bueltan zetozenean legioei gorespenak eta esker hitzak zuzendu zizkiela. Horrek Tiberioren gogoa sakon jo zuen: ardura hura ez zitzagon bidezkoa iruditzen, ezta soldaduen gogoak arrotzen aurka erakar zitzan ere. Jeneralek ez ei zeukaten zereginik, emakume bat soldaduak errebisatzen, banderetara hurbiltzen, eskuzalbaltasunean saiatzen ari zenez gero; eta gero, modestia itxuran, jeneral baten semea soldadu jantzia eramatzen zuen, eta Zesar bati Kaligula deitzen uzten zuen. Agripinak legatuek eta jeneralek eurek baino aginpide handiagoa izango ei zuen armaden aurrean; printzearen izenak ezer egiterik izan ez zuen sedizioa emakume batek menperatu ei zuen. Pentsakizun horiek Seianok pizten eta zorroten zizkion, zeinak, Tiberioren barruaren jakitun luzerako gorrotoak ereiten baitzituen, handiturik argitaratzeko gordeko zituenak.

70. Germanikok, ontzietan garraiatu zituen legioetarik bigarrena eta hamalaugarrena Publio Biteliori entregatu zizkion, lehorrez eramateko, flota, hala arindurik, itsaso ez hain sakonean hobeto nabiga edo urberen suabeago lehorrera zedin. Biteliok, martxaren lehen zatian, ez zuen eragozpenik izan zoru lehor edo mareagatik heze samarrean. Gero, akiloiaaren bultzadak eta, aldi berean, ekinozioaren eraginak, non ozeanoa gehien hanpatzen den, zutabea jotzen eta desegiteen zuten. Lurrik ureztatzen ziren: itsasoak, ibarrak eta zelaiak itxura bera zeukan, eta ez zegoen lur finkoa zoru mugikorretik, ur azalak sakonetatik bereizterik. Olatuek eraisten dituzte, zurrumbiloen irenenst; zaldiak,

*Permiscentur inter se manipuli, modo pectore, modo ore tenus extantes, aliquando subtracto solo disiecti aut obruti. Non vox et mutui hortatus iuvabant adversante unda; nihil strenuus ab ignavo, sapiens ab imprudenti, consilia a casu differre: cuncta pari violentia involvebantur: Tandem Vitellius in editiora enisus eodem agmen subduxit. Pernoctavere sine utensilibus, sine igni, magna pars nudo aut mulcato corpore, haud minus miserabiles quam quos hostis circumcidet: quippe illuc etiam honestae mortis usus, his inglorium exitium. Iux reddidit terram, penetratumque ad amnem [Visurgin], quo Caesar classe contenderat. In positae dein legiones, vagante fama submersas; nec fides salutis, antequam Caesarem exercitumque reducem videre.*

[71] *Iam Stertinius, ad accipiendum in ditionem Segimerum fratrem Segestis praemissus, ipsum et filium eius in civitatem Vbiorum perduxerat. Data utrique venia, facile Segimero, cunctantius filio, quia Quintilii Vari corpus insultasse dicebatur: Ceterum ad supplenda exercitus damna certavere Galliae Hispaniae Italia, quod cuique promptum, arma equos aurum offerentes. Quorum laudato studio Germanicus, armis modo et equis ad bellum sumptis, propria pecunia militem iuvit. Utque cladis memoriam etiam comitate leniret, circumire saucios, facta singulorum extollere; vulnera intuens alium spe, alium gloria, cunctos adloquio et cura sibique et proelio firmabat.*

[72] *Decreta eo anno triumphalia insignia A. Caecinae, L. Apronio, C. Silio ob res cum Germanico gestas. Nomen patris patriae Tiberius, a populo saepius ingestum, repudavit; neque in acta sua iurari quamquam censente senatu permisit, cuncta mortalium incerta, quantoque plus adeptus foret, tanto se magis in lubrico dictitans. Non tamen ideo faciebat fidem civilis animi; nam legem maiestatis reduxerat, cui nomen apud veteres idem, sed alia in iudicium veniebant, si quis proditione exercitum aut plebem seditionibus, denique male gesta re publica maiestatem populi Romani minuisset: facta arguebantur, dicta inpune erant.*

ekipajeak, hilotzak tartean flotatzen dira, bidea eragotziz. Manipuluak elkarrekin nahasten dira, behin paparraino, behin ahoraino uretan, eta, aldizka, sakabanatzen eta hondatzen dira, oina galtzean. Ez aginte hotsek, ez elkarri ematen zioten animoak egin zezaketen ezer olatuen aurrean; ez zegoen alderik suharretik koldarrera, zuhurretik zentzubera, pentsaketatik halabeharrera: biolentzia berak irensten zuen dena. Azkenean, Biteliok, goragune batera igorik, han biltzen du armada. Gaua hornidura gabe egin zuten, su gabe, gehienak biluzik edo gorputza zehaturik, ez gutxiago penagarri etsaiak inguraturik baleude baino; halakoan, izan ere, heriotza ohoragarriaren baliabidea zuketen, honela, osteria, aintza gabeko azkena zetorkien. Argiarekin, lehorra itzuli zen eta ibairaino iritsi ziren, norantz Zesar zuzendu baitzen flotarekin. Gero hondaturik gelditu zirela esan zen legio biak ontziratu ziren, eta haien salbamenik ez zen sinestu, Zesar armadarekin itzultzen ikusi arte.

71. Estertiniok, entregatua zen Segestesen anaia Segimeroren bila bidali zutenak, ordurako, hora eta haren semea ubioen hirira eramanak zituen. Segimerori aisa barkatu zitzzion, nekezago semeari, Kintilio Baroren hilotza laidotu ei baitzuen. Gainerakoan, armadak jasandako okerrak erreparatzeko, Galiak, Hispaniak eta Italia lehiatu ziren, bakoitzen ahalaren arabera, armak, zaldiak eta urrea eskaniz. Germanikok, fintasun hori goraipatu ondoren, armak eta gerra-zaldiak bakarrik hartu eta soldaduak bere diruz sorotsi zituen. Gainera, hondamenaren gomuta bihozberatasunez leundu guran, zaurituak bisitatzen eta bakoitzen balentriak goraipatzen saiatzen zen; zauriak aztertz, batzuk itxaropenez, beste batzuk aintzaz, denak bere hitzez eta arretaz, berarengana irabazten eta gerrarako sendotzen zituen.

72. Urte hartan, Aulo Zezinari, Luzio Aproniori eta Gaio Siliori garai-pen ikurrak eman zitzakien, Germanikorekin burutatako balentriengatik. Tiberiok uko egin zion herriak zenbait aldiz ezarri nahi izan zion Aberriaren Aita tituluari; gainera, senatuak hala erabaki izan arren, bere egintzengatik zin egin zedin debekatu zuen, argudiatz hilkorren dena ez-ziurra zela, eta berak, zenbat eta gehiago eskuratu, porrot arrisku handiagoa izango zuela. Ez zuen, hala ere, izaera liberaleko osperik irabazten, maiestate legea berrezarri baitzuen, zeinak antzinakoen artean izen bera zeukan baina beste kontu batzuk epaitzen zituen: norbaitek armadari traizioz kalte egin ote zion, edo populuari sedizioz, edo,

*Primus Augustus cognitionem de famosis libellis specie legis eius tractavit, commotus Cassii Severi libidine, qua viros feminasque inlustris procacibus scriptis diffamaverat; mox Tiberius, consultante Pompeio Marco praetore an iudicia maiestatis redderentur; exercendas leges esse re spondit. Hunc quoque asperavere carmina incertis auctoribus vulgarata in saevitiam superbiamque eius et discordem cum matre animum.*

[73] *Haud pigebit referre in Falanio et Rubrio, modicis equitibus Romanis, praetemptata crimina, ut quibus initis, quanta Tiberii arte gravissimum exitium inrepserit, dein represum sit, postremo arserit cunctaque corripuerit, noscatur: Falanio obiciebat accusator, quod inter cultores Augusti, qui per omnis domos in modum collegiorum habebantur; Cassum quendam mimum corpore infamem adscivisset, quodque venditis hortis statuam Augusti simul mancipasset. Rubrio criminis dabatur violatum periurio numen Augusti. Quae ubi Tiberio notuere, scripsit consulibus non ideo decreatum patri suo caelum, ut in perniciem civium is honor verteatur. Cassum histriionem solitum inter alios eiusdem artis interesse ludis, quos mater sua in me moriam Augusti sacrasset; nec contra religiones fieri quod effigies eius, ut alia numinum simulacra, venditionibus hortorum et domuum accedant. Ius iurandum perinde aestimandum quam si Iovem sefellisset: deorum iniurias dis curae.*

[74] *Nec multo post Granium Marcellum praetorem Bithyniae quaestor ipsius Caepio Crispinus maiestatis postulavit, subscribente Romano Hispone: qui formam vitae init, quam postea celebrem miseriae temporum et audacie hominum fecerunt. Nam egens, ignotus, inquies, dum occultis libellis saevitiae principis adrepit, mox clarissimo cuique periculum facessit, potentiam apud unum, odium apud omnis adeptus dedit exemplum, quod secuti ex pauperibus divites, ex contemptis metuendi perniciem alis ac postremum sibi invenerere. Sed Marcellum insimulabat sinistros de Tiberio sermones habuisse, inevitabile crimen, cum ex moribus principis fo-*

hitz batez, erromatar herriari, kargu publiko baten kudeatze txarrez; egintzak auziperatzen ziren, hitzak zigor gabe utzirik. Augusto izan zen lege horretara jo zuen lehenengoa, libelo iraingarriak epaitzeko, Kasio Seberoren lotsagabekeriaz haserreturik, zeinak jaun eta andere gurenak desfamatu baitzituen idazki lizunetan. Geroago Tiberiok, Ponperio Marko pretoreak galdetu zionean ea maiestate auziak bideratu behar ziren, erantzun zuen legeak erabili egin behar zirela. Bera ere sumindu zuten egile dudazkoek argitaraturiko kopla batzuek, bere ankerkeriari eta harrokeriari eta amarekiko haserrei buruzkoek.

73. Ez da kontatzea gaizki etorriko nolako salaketak onetsi ziren Falanio eta Rubrioren kasuetan, erromatar jaun apalak eurok, jakin dadin nolako printzipioz, nolako trikimaina estudiatz Joan zen Tiberio gaitz larri horri bidea irekitzen; nola gero atzera egin zuen, azkenean, dena inbadituz lehertzeko. Falaniori salatzen zioten, Augustoren gurtzaileen artean, etxe guztietaan kolegio gisan zeudenaren artean, Kasio delako bat onartu zuela, gorputz itsusiko pailazoa, eta, villa bat saltzean, Augustoren estatua bat saldu zuela. Rubriori salatzen zioten Augustoren izena laidotu zuela zin faltsuz. Hori guztia Tiberiok jakin zuenean, kontsulei idatzi zien ezen, bere aitaren jainkotzea erabaki bazea, ohore horrek ez zuela hiritarrak hondatzeko balio behar; Kasio histrioiak, sarritan arte bereko beste batzuekin batera, bere amak Augustoren oroimenari eskainitako antzezpenetan parte hartu zuela; bestalde, ez zela sakrilegioa haren irudia, jainkoen beste irudi batzuk bezala, villos eta etxeen salmentan sartzea. Zinari zegokionez, berriz, Jupiter engainatu balu bezala epaitu behar zela: jainkoen irainak jainkoen kontuak zirela.

74. Gerotxoago, Bitiniako pretore Granio Martzelo bere kuestore Zepion Krispinok berak, salatu zuen maiestatez, Romano Hispon lagun zuela. Hispon honek gero garaiko miseriek eta gizakien lotsagabekeriak modan jarriko zuten bizierari eman zion. Izan ere, txiroa, ezezaguna, ipurtarina, isil libeloekin, printzearen ankerkeria irabazirik, gero gizonik ospetsuenak arriskupetzen ekin zion; bakarraren aurrean bote-rea, denen aurrean gorrotoa erdietsi ondoren, etsenplua eman zuen, zeinari jarraituz, batzuek txirok aberats, arbuiagarritik beldurgarri bilatatu baitziren, besteen hondamena eta, azken batez, euren buruena bilatuz. Martzeloren kasuan, Tiberiorengatik gaizki esatea salatzen zion, nahitaezko krimena berau, salatzaileak printzearen alderdirik makurre-

*dissima quaeque deligeret accusator obiectaretque reo. Nam quia vera erant, etiam dicta credebantur. Addidit Hispo statuam Marcelli altius quam Caesarum sitam, et alia in statua amputato capite Augusti effigiem Tiberii inditam. Ad quod exarsit adeo, ut rupta taciturnitate proclamaret se quoque in ea causa laturum sententiam palam et iuratum, quo ceteris eadem necessitas fieret. Manebant etiam tum vestigia morientis libertatis. Igitur Cn. Piso 'quo' inquit 'loco censibus, Caesar? si primus, habebo quod sequar: si post omnis, vereor ne imprudens dissentiam.' permotus his, quantoque incautius esrvererat, paenitentia patiens tulit absolvi reum criminibus maiestatis: de pecuniis repetundis ad reciperatores itum est.*

[75] *Nec patrum cognitionibus satiatus iudiciis asidebat in cornu tribunalis, ne praetorem curuli depelleret; multaque eo coram adversus ambitum et potentium preces constituta. Sed dum veritili consultitur, libertas corrumpebatur. Inter quae Pius Aurelius senator questus mole publicae viae ductuque aquarum labefactas aedis suas, auxilium patrum invocabat. Resistentibus aerarii praetoribus subvenit Caesar pretiumque aedium Aurelio tribuit, ergandae per honesta pecuniae cupiens, quam virtutem diu retinuit, cum ceteras exueret. Propertio Celery praetorio, veniam ordinis ob paupertatem petenti, decies sestertium largitus est, satis conperito paternas ei angustias esse. Temptantis eadem alios probare causam senatui iussit, cupidine severitatis in iis etiam quae rite faceret acerbis. Unde ceteri silentium et paupertatem confessioni et beneficio praeposuere.*

[76] *Eodem anno continuis imbris auctus Tiberis plana urbis stagnaverat; relabentem secuta est aedificiorum et hominum strages. Igitur censuit Asinius Gallus ut libri Sibyllini adirentur: Renuit Tiberius, perinde divina humanaque obtegens; sed remedium coercendi fluminis Ateio Calpitoni et L. Arruntio mandatum. Achiam ac Macedoniam onera deprecantis levari in praesens proconsulari imperio tradique Caesari placuit. Edendis gladiatoribus,*

nak hautatzen eta errudungaari leporatzen baitzizkion; izana esantza ere hartzen baitzen. Hisponek gaineratzen zuen Martzeloren estatua bat Zesarrena baino altuago zegoela, eta beste irudi bat Augostoren burua kendu eta Tiberiorena ipini ziola. Horrekin hainbeste berotu zen, ezen, bere ohiko isiltasuna utzirik, berak ere auzi hartan publikoki eta zinpean deklaratuko zuela aldarrikatu baitzuen, besteak ere premia berean aurki zitezzen. Orduan ere baziren oraindik askatasun hil-hurrenaren hondakinak. Hala, Gneo Pisonek galdu zuen: «Zenbatgarren lekuak deklaratu gura duzu, Zesar? Lehenengoa bazara, jarraibidea duket; denen atzetik bada, beldur naiz oharkabeen disentitzeko». Hitz horiekin noraezean, eta kontrol gabe berotu zenez, atzera egin eta errudungaia maiestate salaketatik absolbitua izan zedin jasan zuen. Diruak bidegabekি erabiltzeari buruz, auzia errekuperatzaleei bildali zioten.

75. Senatarien aurkako auziak nahikoa ez zituela, epaiketetan esertzen zen, auzitegiaren muturrean, pretorea kurul-aulkikitik ez mugiarazteko, eta bera aurrean egoteak eragin handia izan zuen, ahaltseen presio eta azpikerien aurka. Baino egia faboratzen zen bitartean, askatasuna andetzen zen. Behin, Aurelio Pio senatariak, bide publiko eta ur-hodi baten eraikuntzak bere etxearen oinarriak azpian zituelako kexu, senatuaren laguntza eskatu zuen. Altxor publikoko pretoreek kontra egitean, Zesarrek berak Aureliori lagundi eta etxearen prezioa ordaindu zion, gauza ohoragarrieta dirua xahutu nahirik; bertute horri luzaro eutsi zion, besteez gabetzen zihoan bitartean. Propertzio Zeler pretore ohiari, pobretasunagatik libratzeko eskatzen zuenari, hamar milioi sestertzio eman zizkion, haren etxe ondasunak urriak zirela egiaztu ondoren. Beste batzuk gauza bera egiten saiatzen zirenean, senatuak arrazoia onar zitzala agintzen zuen, bere zorroztasun grina bide, ondo egiten zituen gauzeta ere garratz agertuz. Ondorioz, besteek isiltasuna eta txirotasuna lehenetsi zieten aitortzari eta irabaziari.

76. Urte hartan bertan, euri etengabeek handituriko Tiberrek hiri barrenak hondatu zituen. Urak erretiratzean, etxe eta hilozt honakin arrastatu zituzten. Horregatik, Asinio Galok Sibila liburuak kontsultatzea egokitza jo zuen. Tiberiok ezetz esan zuen, Jainko zein giza gaiak iluntzen errimea; ostera, Ateio Kapitoni eta Luzio Arruntziori ibaiaren kontrolbidea ezartzeko agindu zitzaien. Akaia eta Mazedoniako probintziek desgrabazioa eskatu zuten; oraingoz, haiak aginte prokonsularretik askatu

*quos Germanici fratriis ac suo nomine obtulerat, Drusus prae-  
sesedit, quamquam vili sanguine nimis gaudens; quod fin-  
vulgus formidolosum et pater arguisse dicebatur. Cur absti-  
nuerit spectaculo ipse, varie trahebant; alii taedio coetus,  
quidam tristitia ingenii et metu conparationis, quia Augustus  
comiter interfuisset. Non crediderim ad ostentandam saevi-  
tiam movendasque populi offendiones concessam filio mate-  
riem, quamquam id quoque dictum est.*

[77] *At theatri licentia, proximo priore anno copta, gravius  
erupit, occisis non modo e plebe set militibus et centu-  
rione, vulnerato tribuno praetoriae cohortis, dum probra in  
magistratus et dissensionem vulgi prohibent. Actum de ea  
seditione apud patres dicebanturque sententiae, ut praetori-  
bus ius virgarum in histriones esset. Intercessit Haterius  
Agrippa tribunus plebei increpitusque est Asinii Galli oratio-  
ne, silente Tiberio, qui ea simulacra libertatis senatui pre-  
bebat. Valuit tamen intercessio, quia divus Augustus immunis  
verberum histriones quondam responderat, neque fas Tiberio  
infringere dicta eius. De modo lucaris et adversus lasciviam  
fautorum multa decernuntur; ex quis maxime insignia, ne  
domos pantomimorum senator introiret, ne egredientis in  
publicum equites Romani cingerent aut alibi quam in theatro  
spectarentur; et spectantium immodestiam exilio multandi  
potestas praetoribus fieret.*

[78] *Templum ut in colonia Tarragonensi strueretur Augusto  
petentibus Hispanis permissum, datumque in omnis provin-  
cias exemplum. Centesimam rerum venalium post bella civili-  
lia institutam deprecante populo edixit Tiberius militare  
aerarium eo subsidio niti; simul imparem oneri rem publi-  
cam, nisi vicesimo militiae anno veterani dimitterentur. Ita  
proximae seditionis male consulta, quibus sedecim stipendio-  
rum finem expresserant, abolita in posterum.*

[79] *Actum deinde in senatu ab Arruntio et Ateio an ob mode-  
randas Tiberis exundationes verterentur flumina et lacus, per  
quos augescit; auditaeque municipiorum et coloniarum lega-*

eta Zesarrenera pasatzea erabaki zen. Bere buruaren eta anaia Germanikoren izenean eskaini zituen gladiadore jokoetan, Druso zen buru, zeina odol isurtzeaz, odol makurra bazen ere, gehiegi gozatu zen; horrek populuia iztu zuen, eta aitak agiraka egin ziola esaten zen. Tiberiok ikuskizunean parte ez hartzearen zergatia ezberdinki azaltzen zen: batzuek masarenaganako gogaitari esleitzten zioten, beste batzuek izaeraren iluntasunari eta konparazio beldurrari, Augusto onberaki egoten baitzen. Ez dut uste semeari ankerkeria erakusteko aukera eman eta herriaren gorrotoa haren aurka eragitearren egin zuenik, hori ere esan zen baina.

77. Bitartean, aurreko urtean abiatutako antzerkiko lasaikeria larriki lehertu zen orduan, eta, populutarrak ez ezik, soldaduak eta zenturioi bat ere hil ziren, eta pretoriar kohorteko tribuno bat zauritu, magistratuak aurkako laidoak eta populu arteko haserrea eragotzi nahian. Sedizioaz senatuan jardun zuten eta proposamenak izan ziren, pretoreek, histrioien aurka, zigorkatzeko eskubidea izan zezaten. Haterio Agripa populuaren tribunoak bere betoa jarri zuen, honi Asinio Galoak ahakar egin zion bere mintzaldian, eta Tiberio isilik, senatuarri askatasun itxura haiiek utzi nahirik. Betoak aurrera egin zuen, ordea, behinola Augustok gorputz zigorretatik libre izendatu baitzituen histrioia, eta, Tiberiorentzat, haren erabakiak haustea sakrilegioa izango zen. Hainbat erabakia hartzen dute haien soldatez eta jarraitzaileen larkerien aurka; nabarmenenak izan ziren ezen pantomimagineen etxearen ez zedila senataririk sar, errromatar zaldunak ez zitezela kalean haiiek ibil, antzokian baizik ez zezatela ikuskizunik egin, eta pretoreek ikusleen neurrigabekaria erbestearekin zigortzeko ahalmena izan zezatela.

78. Tarragonako kolonian Augustori tenplu bat eraikitzeko hispaniarraren eskaria onartu zen, eta, horrela, probintzia guztiei etsenplua eman zitzaien. Gerra zibilen ondoreñ ezarritako salgaien ehungarrenaren zerzagaz, herria deskontent bazen ere, Tiberiok adierazi zuen horixe zela gerrako aurrekontuaren euskaria, eta errepublikarentzat zama jasan-gaitza litzatekeela beteranoak hogeい urteko zerbitzu gabe lizentziatzea. Hala, oraintsuko sedizioan, hamasei urtera lizentziatza indarrez hartutako erabaki txarrak aurrerantzean aboliturik gelditu ziren.

79. Gero senatuan jardun zuten, Arruntzio eta Ateioren mozioz, ea Tiberren emaria handitzen zuten ibai eta lakuak desbideratzerik kome-

*tiones, orantibus Florentinis ne Clanis solito alveo demotus in amnem Arnum transferretur idque ipsis perniciem adserret. Congruentia his Interamnates disseruere: pessum ituros secundissimos Italiae campos, si amnis Nar (id enim parabatur) in rivos diductus supersta gnavisset. Nec Reatini silebant, Velinum lacum, qua in Narem effunditur; obstrui recusantes, quippe in adiacentia erupturum; optume rebus mortaliū consuluisse naturam, quae sua ora fluminibus, suos cursus utque originem, ita finis dederit; spectandas etiam religiones sociorum, qui sacra et lucos et aras patriis amnis dicaverint: quin ipsum Tiberim nolle prorsus accolis fluviis orbatum minore gloria fluere. Seu preces coloniarum seu difficultas operum sive supersticio valuit, ut in sententiam Pisonis concederetur; qui nil mutandum censuerat.*

[80] *Prorogatur Poppaeo Sabino provincia Moesia, additis Achaia ac Macedonia. Id quoque morum Tiberii fuit, continuare imperia ac plerosque ad finem vitae in isdem exercitibus aut iurisdictionibus habere. Causae variae traduntur: alii taedio novae curae semel placita pro aeternis servavisse, quidam invidia, ne plures fruerentur; sunt qui existiment, ut callidum eius ingenium, ita anxium iudicium; neque enim eminentis virtutes sectabantur; et rursum vitia oderat: ex optimis periculum sibi, a pessimis dedecus publicum metuebat. Qua haesitatione postremo eo provectus est ut mandaverit quibusdam provincias, quos egredi urbe non erat passurus.*

[81] *De comitiis consularibus, quae tum primum illo principe ac deinceps fuere, vix quicquam firmare ausim: adeo diversa non modo apud auctores, sed in ipsius orationibus reperiuntur: Modo subtractis candidatorum nominibus originem cuiusque et vitam et stipendia descripsit ut qui forent intellegeretur; aliquando ea quoque significatione sub tracta candidatos hortatus ne ambitu comitia turbarent, suam ad id curam pollicitus est. Plerumque eos tantum apud se professos disseruit, quorum nomina consulibus edidisset; posse et alias profiteri, si gratiae aut meritis confiderent: speciosa verbis,*

niko zen, uholdeak zaintzeko. Kolonia eta udalerrietako ordezkariei entzun zitzaien florentinoek eskatuz Kianaren ibilbide naturala ez zeza-tela Arnora eraman, horrek hondamena ekarriko baitzen. Interamnako-ek antzera hitz egin zuten: Italiako lurrik emankorrenak hondatuko ziren, Nera ibaia, aurreikusita zegoenez, gelditzen bazeen, erreketan banaturik. Reatetarrak ere ez zeuden isilik; Belino lakua, Nerara husten zen aldetik, butxatzearen alde zeuden, inguruak hondatuko baitztuen: naturak giza zerak ondo eratu ei zituen, ibaiei ertzak eta ibilbideak emanez, baita uburua eta azkena ere; gainera, aliatuen tradizio erlijiosoak ere aintzat hartu behar ziren, zeintzuek aberri ibaiei tenpluak, basoak eta aldareak eskaini baitzizkieten; areago, Tiberrek berak ere ez zuen aintza txikiagoz korritu nahiko, ibaiadarrez gabeturik. Bai kolonien erreguak, bai lanen eragozpenak, bai superstizioa nagusitu ziren eta, azkenean, ezer ez aldatzea proposatu zuen Pisonen iritzia onartu zen.

80. Popeo Sabinori Mesiako gobernuia luzatzen zaio, Akaia eta Macedonia gehituriak. Tiberioren ohikoa zen, halaber, aginteek jarraitzea eta ia beti lagun berak bizien azkeneraino mantentzea armada eta erakundeetan. Arrazoi ezberdinak ematen dira: batzuek diote ardura berriak saihestearren eusten ziela erabakieei behin betiko; beste batzuek uste dute bekaitzagatik egiten zuela, gozataile asko izan ez zedin; beste batzuek diote, buruz argia izanik, epaian zalantzatia zela. Iizan ere, ez zen bertute bikainen bilatzaile, baina bizioak gorroto zituen; onenengandik, beretzako arriskuaren, txarrenengandik, estatuaarentzako desohorearen beldur zen. Zalantza haietan, probintziak eskaintzeraino iritsi zen Erromatik irteten utzi nahi ez zienei.

81. Lehenengoaz bere printzealdian eta aurrerantzean izan ziren komizio kontsularrei buruz, ez naiz ausartzen ezer ziurrik esaten: hain ezberdintasun handia aurkitzen baita, ez historialarien artean bakarrik, baizik Tiberioren beraren hitzaldietan. Batzueta, kandidatuen izenik aipatu gabe, bakoitzaren jatorri, bizimodu eta zerbitzu militarrak deskribatzen zituen, nortzuk ziren ulertzeko moduan; beste batzueta, argibide horiek gorderik, kandidatuak aholkatu ondoren komizioak trikimainekin ez nahasteko, bere laguntasuna agintzen zien hartarako. Gehiendetan, adierazten zuen berak haien izenak kontsulei emandako kandidatuak bakarrik aurkezten zirela, baina beste batzuk ere aurkez ei zitezkeen, euren ospean edo merituetan fidatzen baziren. Hitz ederrak,

*re inania aut subdola, quantoque maiore libertatis imagine  
tegebantur; tanto eruptura ad infensius servitium.*

baina, izatez, hutsak edo gezurrezkoak; zenbat eta askatasun itxura handiagoz jantzi, hainbat morrontza zorrotzagoan jausiko ziren.

[1] Sisenna Statilio [Tauro] L. Libone consulibus mota Orientis regna provinciaque Romanae, initio apud Parthos orto, qui petitum Roma acceptumque regem, quamvis gentis Arsacidarum, ut externum aspernabantur. Is fuit Vonones, obses Augusto datus a Phraate. Nam Phraates quamquam depulisset exercitus ducesque Romanos, cuncta venerantium officia ad Augustum verterat partemque prolis firmandae amicitiae miserat, haud perinde nostri metu quam fidei popularium diffusus.

[2] Post finem Phraatis et sequentium regum ob internas caedis venere in urbem legati a primoribus Parthis, qui Vononem vetustissimum liberorum eius accirent. Magnificum id sibi credidit Caesar auxitque opibus. Et accepere barbari laetantes, ut ferme ad nova imperia. Mox subiit pudor degeneravisse Parthos: petitum alio ex orbe regem, hostium artibus infecatum; iam inter provincias Romanas solium Arsacidarum haberi darique. Ubi illam gloriam trucidantum Crassum, exturbantium Antonium, si mancipium Caesaris, tot per annos servitutem perpessum, Parthis imperitet? accendebat deditianantis et ipse versus a maiorum institutis, raro vena-  
tu, segni equorum cura; quotiens per urbes incederet, lecti-

1. Sisenna Estatilio Tauro eta Luzio Libonen konsulaldian, Ekialdeko erreinu eta erromatar probintziak astindu ziren. Lehenik, partoen artean, Erromari erregea eskatu eta hartu ondoren, arsazidoen jatorrikoia izanik ere, arroztat arbuiatu baitzuten. Bonones zen, Fraatesek Augustori bahitzat emana. Fraatesek, izan ere, erromatar armadak eta buruzagiak arbuiatua izan arren, Augustori begirune-erakutsi guztiak egin zizkion, adiskidetasun bermetzat, seme-alaba batzuk bidaltzeraino, ez hainbeste gure beldurrez, herkideen mesfidantzaz baizik.

2. Barruko hilketen ondorioz, Fraates eta ondorengo erregeak amaiturik, ordezkarri batzuk iritsi ziren hirira parto gorenene partez, Bonones, haren semerik zaharrena, itzularazteko eginkizunez. Zesarrek beretzat ohorea zela pentsatu eta ondasunez bete zuen. Barbaroek ere pozik hartu zuten, agintari berriekin gertatu ohi denez. Baino gero lotsatu egin ziren: partoak endakatu egin ziren; atzerrira jo zuten, etsaien ohiturek kutsaturiko erregea bila; jadanik, arsazidoen tronua erromatar probintziatzat hartzen eta ematen zen. Non zen Kraso hil eta Antoniori ihes eragin ziotenen aintza hura, Zesarren esklaboa, hainbeste urtean morrontza jasan zuenak, partoiei agindu behar bazien? Bononesek berak ere arbuioa areagotzen zuen, asaben ohituretatik urrunduz; apeñas zen ehiztaria ere, zaldiekin gutxi arduratzen zen; hirietan zehar zihoaean, literan eramatzen zuten, eta aberri erako oturuntzak arbui

*cae gestamine fastuque erga patrias epulas. Inridebantur et Graeci comites ac vilissima utensilium anulo clausa. Sed prompti aditus, obvia comitas, ignotae Parthis virtutes, nova vitia; et quia ipsorum moribus aliena perinde odium pravis et honestis.*

[3] *Igitur Artabanus Arsacidarum e sanguine apud Dahas adultus excitur, primoque congressu fusus reparat viris regnoque potitur. Victo Vononi perfugium Armenia fuit, vacua tunc interque Parthorum et Romanas opes infida ob scelus Antonii, qui Artavasden regem Armeniorum specie amicitiae inlectum, dein catenis oneratum, postremo interfeceras. Eius filius Artaxias, memoria patris nobis infensus, Arsacidarum vi seque regnumque tutatus est. Occiso Artaxia per dolum propinquorum datus a Caesare Armeniis Tigranes deductusque in regnum a Tiberio Nerone. Nec Tigrani diuturnum imperium fuit neque liberis eius, quamquam sociatis more externo in matrimonium regnumque.*

[4] *Dein iussu Augusti inpositus Artavasdes et non sine clade nostra deiectus. Tum Gaius Caesar componendae Armeniae deligitur. Is Ariobarzanen, origine Medium, ob insignem corporis formam et praecellarum animum volentibus Armeniis praefecit. Ariobantane morte fortuita absunto stirpem eius haud toleravere; temptatoque feminae imperio, cui nomen Erato, eaque brevi pulsa, incerti solutique et magis sine domino quam in libertate profugum Vononen in regnum accipiunt. Sed ubi minitari Artabanus et parum subsidi in Armeniis, vel, si nostra vi defenderetur, bellum adversus Parthos sumendum erat, rector Syriae Creticus Silanus excitum custodia circumdat, manente luxu et regio nomine. Quod ludi-brium ut effugere agitaverit Vonones in loco reddemus.*

[5] *Ceterum Tiberio haud ingratum accidit turbari res Orientis, ut ea specie Germanicum suetis legionibus abstraheret novisque provinciis impositum dolo simul et casibus obiectaret. At ille, quanto acriora in eum studia militum et aversa patrui voluntas, celerandae victoriae intentior, tractare proe-*

zituen. Laguntzaile zerabiltzan greziarrak eta tresnarik ziztrinenetan irarritako eraztunaren zigilua ere barregarriak ziren. Ostera, hurbilgarria eta adeitasun errazekoa zen, partoentzat bertute ezezagunak; beraz, bizio berriak; euren ohituretatik aldentzen nahikoa zuen, txarra zein ona higun zezaten.

3. Hala, bada, arsaziden leinuko eta dahatarren artean hazitako Artabanori deitzen diote, zeina, lehen inkontruau menperaturik, indarberritzen eta erreinuaz jabetzen den. Bonones galtzaileak Armenian aurkitu zuen babes, orduan inorena ez zen lurra, zalantzhan bera, botere partoaren eta erromatarraren artean, Antonioren krimenagatik, zeinak, armeniarren errege Artabasdes adiskide itxuran erakarririk, gero katez zamatu eta, azkenik, hil baitzuen. Haren seme Artaxiasek, aita-ren gomutagatik gure etsai, bere burua eta erreinua arsaziden indarrez babestu zituen. Artaxias ingurukoen traizioak hilik, Zesarrek armeniarrei Tigranes eman zien erregetzat, erregetzara Tiberio Neronek eraman zuena. Baina Tigranesen agintea ez zuen luze iraun, ezta seme-alabenak ere, ohitura arrotzean ezkontzaz eta erreinuz elkartu baziren ere.

4. Geroago, Augustoren aginduz ezarritako Artabasdes tronutik ken-dua izan zen, ez guretzat kalte gabe. Orduan, Gaio Zesar delegatu zuten, Armeniako gorabeherak konpontzeko. Hark Ariobarzanes ipini zuen armeniarren buru, jatorriz medoa eta bere gorpuzkera bikain eta nortasun distiratsuagatik ondo hartua bera. Heriotza ezusteko batek Ariobarzanes eramanik, haren ondorengorik ez zuten onartu; Erato ize-neko emakume baten agintea probatu eta laster kendurik, zalantzhan eta noraezean, jabe gabe areago, libre baino, Bonones iheslaria hartzen dute erregetzat. Baina, Artabanoren mehatxuz eta armeniarren babes urriz, edo, gure indarrek defendatzten bazuten, partoen aurkako gerra izango zenez, Siriako gobernadore Kretiko Silanok etorrarazi eta zaintzapean jartzen du, errege ospe eta izenari eutsiz. Bonones lotsagarrikeria hartatik ihes egiten nola saiatu zen, geroago azalduko dugu.

5. Bestela, Tiberiori ez zitzaison hain desatsegin izan Ekialdean gau-zak nahastea, aitzakia ematen baitzion Germaniko ohiko legioetatik apartatzeko eta, probintzia berrien buru jarririk, era batera engainuaren eta halabeharraren pentzudan ipintzeko. Hark, berriz, zenbat eta solda-

*liorum vias et quae sibi tertium iam annum belligeranti saeva vel prospera evenissent. Fundi Germanos acie et iustis locis, iuvari silvis, paludibus, brevi aestate et praematura hieme; suum militem haud perinde vulneribus quam spatiis itinerum, damno armorum adfici; fessas Gallias ministrandis equis; longum impedimentorum agmen opportunum ad insidiis, defensantibus iniquum. At si mare intretur; promptam ipsis possessionem et hostibus ignotam, simul bellum maturius incipi legionesque et commeatus pariter vehi; integrum equitem equosque per ora et alveos fluminum media in Germania fore.*

[6] *Igitur huc intendit, missis ad census Galliarum P. Viteilio et C. Antio. Silius et Anteius et Caecina fabricandae classi preponuntur. Mille naves sufficere visae properataeque, aliae breves, angusta puppi proraque et lato utero, quo facilius fluctus tolerarent; quaedam planae carinis, ut sine noxa siderent; plures adpositis utrimque gubernaculis, converso ut repente remigio hinc vel illinc adpellerent; multae pontibus stratae, super quas tormenta veherentur; simul aptae ferendis equis aut commeatui; velis habiles, citae remis augebantur alacritate militum in speciem ac terrorem. Insula Batavorum in quam convenienter praedicta, ob facilis adpulsus accipiendisque copiis et transmittendum ad bellum opportuna. Nam Rhenus uno alveo continuus aut modicas insulas circumveniens apud principium agri Batavi velut in duos amnis dividitur, servatque nomen et violentiam cursus, qua Germaniam praevehitur, donec Oceano misceatur: ad Gallicam ripam latior et placidior adfluens (verso cognomento Vahalem accolae dicunt), mox id quoque vocabulum mutat Mosa flumine eiusque inmenso ore eundem in Oceanum effunditur.*

[7] *Sed Caesar, dum adiguntur naves, Silium legatum cum expedita manu inruptionem in Chattos facere iubet: ipse auditio castellum Lupiae flumini adpositionum obsideri, sex legiones eo duxit. Neque Silio ob subitos imbris aliud actum quam ut modicam praedam et Arpi principis Chattorum*

duen estimua eta osabaren begioa handiagoak izan, garaipena azkar-tzen hainbat setatiago, pentsaketan ziharduen gerra planez eta, iragoko hiru borroka urteetan, zer oker eta zer on gertatu zitzaison. Germaniarrok suntsigarri ziren formaziozko borrokan eta lur lauan; eta oihanek, zingirek, udaren laburrak eta neguaren goiztarrak laguntzen zieten; haien soldaduei ez zien hainbeste eragiten zauniek, nola ibilaldiek eta armen galtzeak; Galiak zaldi eskaintzen nekaturik zeuden; trabazko zutabe luzea enboskagai eta defendagaitz zen. Itsasoz sarturik, ostera, nagusigoa eskuan zeukaten eta etsaia ezustean atzemango zuten; lehenago hasi eta legioak eta hornidurak batera garraia zitezkeen; zaldi eta zaldun, osorik eraman ahal izango ziren Germaniaren bihotzera, ibaia-hoetatik sartu eta urez gora jarraituz.

6. Lanari heldu zion, beraz, Publio Bitelio eta Gaio Antzio Galietako zentsora bidalita. Silio, Anteio eta Zezinari flota baten eraikuntza agindu zitzaien. Mila ontzi nahikotzat jo zituzten eta egitea bizkortu: batzuk txikiak, branka-popo estu eta sabel zabalekoak, olatuei hobeto eusteko; batzuk karea laukoak ziren, errazago lehorratzeko; gehienek lema branka-popetan zéukaten, arraun kolpea aldatzean, norabide baterantz zein besterantz jo ahal izateko. Asko gerra makinak gainean eramateko Zubiz estalirik zeuden, zaldi zein lanabesen garraiorako balio izanik; belentzat on, arraumentzat azkar, soldaduen berotasunak haien itxura beldurgarria areagotzen zuen. Bataboen irlan bil zitezen erabaki zen, hango sarbideak errazak eta tropak hartu eta handik gerrara bidaltzeko egokiak zirelako. Zeren Rhin, ubide bakarra etengabe edo irlatxoak utziz joan ondoren, bataboen lurralte hasieran, ibai bitan bezala erdibitzen da eta, Germania osoan zehar, izenari eta ibilbide indartsuari eus-ten dio, ozeanoan galdu arte. Galiarren hegala aldera, zabalago eta bareago doa; izena aldaturik, bertakoek Vahal deitzen diote, baina gero, Mosarekin batzean, izen hori ere galdurik, ozeano berean isurtzen da, bokale eskergatik.

7. Zesarrek, ontziak bildu bitartean, Silio legatuari tropa arin batekin katoen aurka sarraldi bat egiteko agintzen dio; berak, berriz, Lippe ibai ondoko gotorleku bat inguraturik dagoela jakitean, sei legio haraxe eraman zituen. Siliok, ustekabeko euriteagatik, harrapakin urriaz eta katoen printze Arporen emazte eta alabaz jabetzea besterik ezin izan zuen egin; setiatzaileek ere ez zioten Zesarri borroka-

*coniagem filiamque raperet, neque Caesari copiam pugnae opsessores fecere, ad famam adventus eius dilapsi: tumulum tamen nuper Varianis legionibus structum et veterem aram Druso sitam disiecerant. Restituit aram honorique patris princeps ipse cum legionibus decucurrit; tumulum iterare haud visum. Et cuncta inter castellum Alisonem ac Rhenum novis limitibus aggeribusque permunita.*

[8] *Iamque classis advenerat, cum praemisso commeatu et distributis in legiones ac socios navibus fossam, cui Drusiana nomen, ingressus precatusque Drusum patrem ut se eadem ausum libens placatusque exemplo ac memoria consiliorum atque operum iuvaret, lacus inde et Oceanum usque ad Amisiam flumen secunda navigatione pervehitur. Classis Amisiae ore relicta laevo amne, erratumque in eo quod non subvexit aut transposuit militem dextras in terras iturum; ita plures dies efficiendis pontibus abssumti. Et eques quidem ac legiones prima aestuaria, nondum ad crescente unda, intrepidi transiere: postremum auxiliorum agmen Batavique in parte ea, dom insultant aquis artemque nandi ostentant, turbati et quidam hausti sunt. Metanti castra Caesari Angrivariorum defectio a tergo nuntiatur: missus ilico Stertinius cum equite et armatura levi igne et caedibus perfidiam ultus est.*

[9] *Flumen Visurgis Romanos Cheruscosque interfluebat. Eius in ripa cum ceteris primoribus Arminius adstitit, quae-sitoque an Caesar venisset, postquam adesse responsum est, ut liceret cum fratre conloqui oravit. Erat is in exercitu cognomento Flavus, insignis fide et amissio per vulnus oculo paucis ante annis duce Tiberio. Tum permissu \* \* progressusque salutatur ab Arminio; qui amotis stipatoribus, ut sagittarii nostra pro ripa dispositi abscederent postulat, et postquam digressi, unde ea deformitas oris interrogat fratrem. Illo locum et proelium referente, quodnam praemium receperisset exquirit. Flavus aucta stipendia, torquem et coronam aliaque militaria dona memorat, inridente Arminio vilia servitii pretia.*

rako aukerarik eman, haren etorreraren berri entzutean, sakabanatu egin baitziren; baina bai suntsitu zuten Baroren legioen ohorez erai-ki berri zen tumulua eta Drusori eskainitako aldarea. Aldarea berriz-tatu zuen eta, aitaren omenez, haren aurrean, legioen buru desfilatu zen; tumulua berregitea ez zitzaison egoki iruditu. Eta Alisongo gotorlekua eta Rhinen arteko eremu guztia oholesi eta lubeta berriz gotorturik gelditu zen.

8. Flota iritsia zen ordurako, eta, aurretik janariak bidali eta legio-en eta aliatuen artean ontziak banatu ondoren, Druso izeneko kana-letik sartu zen, aitari erregutuz lagun ziezaiola, onbera eta bareturik, haren ekintza errepikatzena zihoanari, haren plan eta lanen etsenpluz eta gomutaz; handik, lakuetan eta ozeanoan zehar, Amisia ibaira iritsi zen, nabigazio arrakastatsuan. Ontziak ibaiaren ezkerraldean utzi zitzuzten eta oker egin zuten, eskuinaldeko lurretara joan beharreko tropak ibaiaz gora ez eramanda; hala, egunak behar izan zitzuzten Zubigintzan. Zaldiek eta legioek lehen aintzirak traba gabe gurutzatu zitzuzten, oraindik urak ez baitziren handitzen; baina, zutabearen azkena osatzen zuten aliatuen artean, alde hartan zihoazen bataboak uretara jauzi egin eta, igerian trebeak zirela erakustearren, urak arrastatu eta batzuk ito egin ziren. Zesar kanpamentua egiten ari zela, angribarioen defekzioa iragartzen da atzealdean; berbertan, Estertinio zaldi eta tropa arinekin bidali eta desleialkeria sutan eta odoletan zigortu zuen.

9. Bisurgi ibaia erromatarren eta keruskoen artean zihoan. Ibaier-tean, Arminio eta beste jaun gorenak aurkeztu ziren eta, ea Zesar etorria zen galdeturik, hantxe zegoela erantzun ziotenean, anaiarekin hitz egiten uzteko eskatu zuen. Hau Flabo ezizenez zegoen armadan; leialtasunagatik ezaguna zen éta, zauri bat bide, urte gutxi lehenago, begia galdu zuen, Tiberioren agindupean. Orduan, baimenarekin aurreratzean, Arminio agurtzen du, zeinak, eskolta urrundurik, gure ibaiertzean kokaturiko arkulariak erretiratzeko eskatzen duen; hauek apartaturik, aurpegiko akatsa nondik zetorkion galdetzen dio anaia-ri. Hark tokiaren eta gatazkaren berri emanik, zer sari jaso zuen gal-detzen dio. Flabok soldata igoera, torkea eta koroa eta beste zenbait sari militar aipatzen dio. Arminio barre egiten du esklabotza-prezio ziztrin horretaz.

[10] Exim diversi ordiantur; hic magnitudinem Romanam, opes Caesaris et victis gravis poenas, in deditio nem venienti paratam clementiam; neque coniugem et filium eius hostili ter haberi: ille fas patriae, libertatem avitam, penetralis Germaniae deos, matrem precum sociam; ne propinquorum et ad finium, denique gentis suae desertor et proditor quam imperator esse mallet. Paulatim inde ad iurgia prolapsi quo minus pugnam consererent ne flumine quidem interiecto cohiebantur; ni Stertinus ad currrens plenum irae arma que et equum poscentem Flavum attinuisse t. Cernebatur contra minitabundus Arminius proeliumque denuntians; nam plera que Latino sermone interiacebat, ut qui Romanis in castris ductor popularium meruisse t.

[11] Postero die Germanorum acies trans Visurgim stetit. Caesar nisi pontibus praesidiisque inpositis dare in discri men legiones haud imperotorium ratus, equitem vado trami ttit. Praefuere Stertinus et e numero primipilarium Aemilius, distantibus locis inventi, ut hostem diducerent. Qua celerrimus amnis, Chariovalda dux Batavorum erupit. Eum Che rusci fugam simulantes in planitiem saltibus circumiectam traxere: dein coorti et undique effusi trudunt adversos, instant cedentibus collectosque in orbem pars congressi, quidam eminus proturbant. Chariovalda diu sustentata hostium saevitia, hortatus suos ut ingruentis catervas globo perfringerent, atque ipse densissimos inrumpens, congestis telis et suffosso equo labitur; ac multi nobilium circa: ceteros vis sua aut equites cum Stertinio Aemilioque subvenientes periculo exemere.

[12] Caesar transgressus Visurgim indicio per fugae cognoscit delectum ab Arminio locum pugnae; convenisse et alias nationes in sylvam Herculi sacram ausurosque nocturnam castrorum oppugnationem. Habita indici fides et cernebantur ignes, suggestaque propius speculatores audiri fremitum equorum immensique et inconditi agminis murmur attulere. Igitur propinquum summae rei discrimine explorandos militum animos ratus, quoniam id modo incorruptum foret secum agi-

10. Orduan, eztabaidan hasten dira. Batak goratu errromatarren handitasuna, Zesarren ahala eta galtzaileei zetozkien zigor latzak, eta borondatez entregatzen zenarentzat gertu zegoen errukitasuna; haren emazte eta semeak ere ez ei dute etsai traturik hartzen. Besteak aberriarekiko eginkizun sakratua aipatzen dio, behinolako askatasuna, Germaniako betiko Jainkoak, euren ama, zeina bere erregukide duen, inguruko eta ahaideen, hitz batez, bere herriaren, desertore eta traidore izatea buruzagi izatea baino nahiago izan ez dezan. Astiro-astiro, hortik irainetara pasaturik, erditik ziholan ibaiak ere ez zuen haiet borrokan trabatzerik eragotzik, Estertiniok iritsi eta armak eta zaldia eskatzen zuen Flaboren haserea baretu ez balu. Aurrean Arminio mehatxuka eta borroka nahian ageri zen, bere gaizki-esanetan, latinezko hitz asko nahasten zuela, errromatar kanpamentuetan haien buru ibilia baitzen.

11. Biaramunean, germaniar armada Bisurgiren beste aldean hedatu zen. Zesarrek, ez zubi, ez babes, legioak arriskuratzea ez zela buruza giari zegokiona pentsaturik, zaldiak ibi batetik pasarazi zituen. Agintea Estertiniiori eta Emilio izeneko primipilar bat eman zioten, eta hauek elkarrengandik urrun bestalderatu ziren, etsaia zatitzeko. Bataboen buruzagi Kariobalda ibaia bizkorrago ziholan aldetik oldartu zen. Keruskoeak, ihes plantan, sastrakaz beteriko lautadara erakarri zuten; gero, irten eta alde guztietatik hedaturik, eustaileak atzera botatzen dituzte, erretiran doazenak jazartzen, eta biribilean batu zirenei gorputzez gorputz erasotzen, beste batzuek urrundik esesten dieten bitartean. Kariobaldak, etsaiaren eraso gogorrari Iuzaro eutsi ondoren, bereak adoretu zituen, masan erasoz, gainera zetozken formazioak puska zitzaten; bera trinkoenei jarkirik, azkon zaparradan erortzen da, zaldi zauri tuarekin, eta inguruau hainbat batabo goren; besteak euren kemenak edo Estertinio eta Emilioren zaldien laguntzak salbatu zituen arriskutik.

12. Zesarrek, Bisurgi gurutzaturik, iheslari baten bitartez jakin zuen Arminio non hautatua zuen borroka zelaia; jakin zuen, halaber, beste herri batzuk ere Herkulesi eskaintako oihanean bildu zirela eta kanpamenduari gaez erasotzen saiatuko zirela. Berriemaileari sinestu egin zioten: izan ere, suak ikusten ziren eta, aurreko esploratzaleek ziotenez, zaldi irrintziak eta armada eskerga eta gaizki antolatu haren marmarra entzuten ziren. Beraz, gainean zen ekintza erabakigarri baten aurrean, soldaduak adoretu nahirik, pentsaketan ari zen nola era segurorean egin. Ohiki, tribu-

*tabat. Tribunos et centuriones laeta saepius quam comperta nuntiare, libertorum servilia ingenia, amicis inesse adulacionem; si contio vocetur; illic quoque quae pauci incipient reliquos adstrepere. Penitus noscendas mentes, cum secreti et incustoditi inter militaris cibos aut metum proferrent.*

[13] *Nocte copta egressus augurali per occulta et vigilibus ignara, comite uno, contextus umeros ferina pelle, adit castrorum vias, adsistit tabernaculis fruiturque fama sui, cum hic nobilitatem ducis, decorem altius, plurimi patientiam, comitatem, per seria per iocos eundem animum laudibus ferrent reddendamque gratiam in acie faterentur, simul perfidos et ruptores pacis ultioni et gloriae mactandos. Inter quae unus hostium, Latinae linguae sciens, acto ad vallum equo voce magna coniuges et agros et stipendiis in dies, donec bellaretur, sestertios centenos, si quis transfugisset, Arminii nomine pollicetur. Intendit ea contumelia legionum iras: veniret dies, daretur pugna; sumpturum militem Germanorum agros, tracturum coniuges; accipere omen et matrimonia ac pecunias hostium praedae destinare. Tertia ferme vigilia adsultatum est castris sine coniectu teli, postquam crebras pro munimentis cohortes et nihil remissum sensere.*

[14] *Nox eadem laetam Germanico quietem tulit, viditque se operatum et sanguine sacri respersa praetexta pulchriorem aliam manibus aviae Augustae accepisse. Auctus omne, addicentibus auspiciis, vocat contionem et quae sapientia provisa aptaque inimimenti pugnae disserit. Non campos modo militi Romano ad proelium bonos, sed si ratio adsit, silvas et saltus; nec enim inmensa barbarorum scuta, enormous hastas inter truncos arborum et enata humo virgulta perinde haberi quam pila et gladios et haerentia corpori tegmina. Denserent ictus, ora mucronibus quaererent: non loricam Germano, non galeam, ne scuta quidem ferro nervove firmata, sed viminum textus vel tenuis et fucatas colore tabulas; primam utcumque aciem hastatam, ceteris praeusta aut brevia tela. Iam corpus ut visu torvom et ad bre-*

noek eta zenturioiek, egiaztatu zutena barik, gauza atseginen berri ematen zioten; libertoek zurikeriara eta lagunek adulaziora jotzen zuten; bilera deitzen bazuen, han ere bakan batzuek esaten hasitako txalotzen zuten gainerakoek. Benetan zer pentsatzen zuten otorduetan jakin zitekeen, bakarrean eta zaintza gabe, itxaropena edo beldurra adierazten zutenean.

13. Gaututakoan, alde ezkutu eta zaintzaleentzat ezezagunetik, gizon bakarrak lagundurik eta bizkarra piztia larruz estalirik, auguraletik irten, kanpamentuko kaleetan zehar abiatu, denda ondoetan kokatu eta bere ospeaz gozatu zen: batzuek jeneralaren nobletasuna goraipatzen zuten, beste batzuek jasa, gehienek eroapena, adeia, aldarte bera gauza serioetan zein jolasean; borrokan duinki erantzun behar ei zitzaison eta, aldi berean, bakearen bortxatzaile gaizto haietan mendekura eta aintzara sakrifikatu. Hartan, latinez zekien etsaietariko batek, zaldian hesiraino hurreraturik, Arminioren izenean, euren aldera pasatzen direnei emakumeak eta lurruk eta, gerrak diraueno, egunean ehun sestertzioko soldatua agintzen dizkie. Laido hark legioen haserrea sumindu egin zuen: iritsiko zen eguna, borrokatuko ziren; soldaduak germaniarren lurrez jabetuko ziren, eta emazteak kenduko zizkieten; onartzen zuten augurioa, germaniarren emazte eta diruak harrapakintzat jorik. Hirugarren gauan-edo, germaniarak kanpamentuaren aurka oldartzen dira, baina azkonik tiratu gabe, gotorlekuak kohorte ugariz babesturik zeudela eta ezer ez zegoela ahazturik ohartutakoan.

14. Gau hark berak Germanikori onezko ametsa ekarri zion: bere burua sakrifizioa eskaintzen ikusi zuen eta, toga pretestoa odolez lohitu zitzaiolarik, beste bat ederragoa hartzen zuen amama Augustarengandik. Presagioak kemendurik eta auspicioak bat etorririk, bilerara deitu eta bere jakinduriak borroka hurbilaz aholkatu ziona azaltzen du: erro-matar soldaduentzat ez zirela lautadak bakarrik gudu-zelai onak, baizik baita, taktikaz jokatzen bazen, oihanak eta txarakak ere; barbaroen ezkututzarrak eta lantza handiegia ezin zirela zuhaitz artean eta baso txikian maneiatu, gorputzera itsatsitako gezi eta ezpata eta armadurak bezala. Kolpeak ugaldu behar zituzten, puntarekin aurpegiak bilatu; germaniarrek ez zeramatzen lorigarik, ez kaskorik, burdinaz eta larruz sendoturiko ezkuturik, baizik zumitzezko txirikordak edo kolorezko ohol arinak; bazen ere, lehen lerroak bakarrik zeukan lantzarik; besteek utan zorrozturiko pikak edo azkon laburrrak. Gainera, haien gorputza beldurgarria

*vem impetum validum, sic nulla vulnerum patientia: sine pudore flagiti, sine cura ducum abire, fugere, pavidos adversis, inter secunda non divini, non humani iuris memorares. Si taedio viarum ac maris finem cupiant, hac acie parari: propiorem iam Albim quam Rhenum neque bellum ultra, modo se patris patruique vestigia prementem isdem in terris victorem sisterent.*

[15] *Orationem ducis secutus militum ardor; signumque s pugnae datum. Nec Arminius aut ceteri Germanorum proceres omittebant suos quisque testari, hos esse Romanos Varianni exercitus fugacissimos qui ne bellum tolerarent, seditionem induerint; quorum pars onustavulneribus terga, pars fluctibus et procellis fractos artus infensis rursum hostibus, adversis dis obiciant, nulla boni spe. Classem quippe et avia Oceani quaesita ne quis venientibus occurreret, ne pulsos premeret: sed ubi miscuerint manus, inane victis ventum remorumve subsidium. Meminissent modo avaritiae, crudelitatis, superbiae: aliud sibi reliquum quam tenere libertatem aut mori ante servitium?*

[16] *Sic accensos et proelium poscentis in campum, cui Idistaviso nomen, deducunt. Is medius inter Visurgim et collis, ut ripae fluminis cedunt aut prominentia montium resistunt, inaequaliter sinuatur. Pone tergum insurgebat silva editis in altum ramis et pura humo inter arborum truncos. Campum et prima silvarum barbara acies tenuit: soli Cherusci iuga insedere ut proeliantibus Romanis desuper incurserent. Noster exercitus sic incessit: auxiliares Galli Germanique in fronte, post quos pedites sagittati; dein quattuor legiones et cum duabus praetoriis cohortibus ac delecto equite Caesar; exim totidem aliae legiones et levis armatura cum equite sagittario ceteraque sociorum cohortes. Intentus paratusque miles ut ordo agminis in aciem adsisteret.*

[17] *Visis Cheruscorum catervis, quae per ferociam proruprant, validissimos equitum ineurrere latus, Stertinum cum*

eta, borroka laburrerako, sendoa bazen ere, ez zeukaten zauriekiko baterre euspenik; doilorkeriaz lotsatu gabe, buruzagiekiko ardura gabe ihes egiten zuten, txarrean lurjorik, eta onean, ez Jainko, ez giza legerik begiratu gabe. Ibileraz eta itsasoz nekaturik, amaia nahi bazuten, borroka honetantxe lor zezaketen: Elba Rhin baino hurrago zegoen, eta harago ez zen gerrarik izango; besterik ez zien eskatzen bera, aitaren eta osabaren oinatzetan zohoana, lur beretan garaile ezar zezaten baino.

15. Buruzagiaren mintzaldiari soldaduen berotasunak jarraitu zion eta eraso agindua eman zen. Arminiok eta gainerako germaniar gorenek ez zuten bakoitzak bereen artean argitu gabe uzten erromatar haiek Baroren armadako desertorerik bizkorrenak zirela, gerrarik ez jasatearren, sediziora jo zutenak; batzuek bizkarrauk zauriz josita ei zeuzkaten, beste batzuk olatuek eta ekaitzek haustutako gorputz-adarrak jarkitzera ei zetozen, inolako arrakasta itxaropen gabe, gorrotoz beteriko etsaiei eta Jainko aurkakoei; flota garraiora jo behar izan ei zuten, ozeanoko bakardadeetan zehar, inor bidean ez aurkitzearen eta ihesean erasoak izatea ekiditearren; baina gorputzez gorputzera iritsitakoan, bentzuturik, alferrik izango ei ziren haizea eta arraunak. Gogora zezatela, soilik, haien gutizia, ankerkeria, harrokeria: ba al zuten askatasunari atxikitzeaz edo esklabo izan aurretik hiltzeaz beste biderik?

16. Halaxe suturik eta borroka eske, Idistabiso izeneko zelaira daramatzate. Bisurgi eta muino batzuen artean dago bera; ibaiertzak erretiratzen edo tontorrekin mugatzen duten arabera, desberdinki malkartzen da. Bizkarrean, zuhaitz luzezko oihana eta tartean lur soila dago, eta hedatze barbaroak zelaia eta oihan ertza hartu zuen; goietan keruskoak bakarrik jarri ziren, erromatarren gainera oldartzeko, hauek borrokan zihardutela. Gure armadak honela aurrera egin zuen: aurretik, galar eta germaniar laguntzaileak; hauen atzetik, oinezko arkulariak; jarraian, lau legio eta Zesar, pretoriar kohorte birekin eta zaldi hautatuekin; ondoren, beste hainbat legio eta tropa arinak, zaldizko arkulari eta gainerako aliatuen kohorteekin. Soldaduak adi eta gertu zeuden, martxazutabetik eraso-ordenara igarotzeko.

17. Kerusko aldrak suharrenetan suharrez oldartuak zirela ikusirik, zaldizko indartsuenei hegaletik erasotzeko agintzen die, eta Estertiniori, gainerako eskuadroiekin inguratzen eta atzetik erasotzeko, bera une ego-

63. Denek bertan behera utzitako Maroboduori Zesarren errukiaz beste babesik ez zitzaison gelditu. Norikoko probintziarekin muga egiten duen Danubio bestalderatu zuen eta Tiberiori idatzi zion, ez erbeste rato edo erregutzaile gisan, aurreko fortunaren burueratik baizik: nazio asko ei zegoen, errege behinola txit ospetsuaren zain, baina Erromaren adiskidantzera nahiago izan ei zuen. Zesarrek erantzun zion Italian egoitza segurra eta ohoretsua izango zuela, bertan irautekotan; baina, beste era batera komeni bazitziona, etorritako lasaitasun berean joan zitekeela. Bestalde, senatuaren aurrean baieztu zuen, ez Filipo atenastarrentzat, ez Pirro edo Antioko erromatarrentzat, ez zirela izan hain beldurgariak. Diskurtsoa kontserbatzen da, non nabarmendu zuen gizon haren handitasuna, haren menpeko jendearen izaera bortitza, halako etsaia Italiatik hain hur edukitzearen arriskua, eta nolako planak zeuzkan berak, hora desegiteko. Dena dela, Maroboduo Ravennan kokatu zuten eta sueboei erakusten zieten, lotsagabetzen baziren, berriro huraxe ezartzeko mehatxuz; baina ez zen Italiatik irten, gainerako hamazortzi urteetan, eta bere aintzan oso urriturik zahartu zen, gehiegizko bizi-gogoz. Katualdak azken bera izan zuen, eta babeslekurik inon ere ez. Ez asko geroago, Bibilioren agindupeko hermundoen eraginez egotzia eta guitarrek abegitua izanik, Frejusera bidali zuten, narbonar Galiako koloniara. Biei lagundi zieten barbaroak, bertan nahasturik, probintzieta bakea astin ez zezaten, Danubioz harago kokatu zituzten, Maro eta Kuso ibaien artean, kuadoen herriko Bannio erregetzat emanik.

64. Aldi berean, Germanikok armeniarrei Artaxias erregetzat eman ziela iragarritakoan, senadoreek erabaki zuten Germaniko eta Druso, hirian sartzean, txaloz hartuak izan zitezela. Zesar guztien irudiak zeuden Martitz Mendekatzalearen tenpluaren alboetan, arkua ere egin zituzten, eta dena Tiberioren poztasun handiagoz, bakea zuhurtziatik segurtatu zelako, gerra gudu bidez amaitu izan balitz baino. Beraz, Traziako errege Reskuporide ere zuhurtasun berarekin tratatu zuen. Nazio hora guztia Remetalzesena izan zen; hau hildakoan, Augustok traziarren zati bata haren anaia Reskuporideri eskuratu zion, bestea, Kotis semeari. Banaketa har tan, alde laboratua, hiriak eta Greziatik hurreko inguruak Kotisi egokitu zitzaizkion, eta Reskuporideri alde landugabe, basati eta etsaien mugakि

*hostibus, Rhescuporidi cessit: ipsorumque regum ingenia, illi mite et amoenum, huic atrox avidum et societatis impatiens erat. Sed primo subdola concordia egere: mox Rhescuporis egredi finis, vertere in se Cotyi data et resistenti vim facere, cunctanter sub Augusto, quem auctorem utriusque regni, si sperneretur, vindicem metuebat. Enimvero audita mutatione principis immittere latronum globos, excindere castella, causas bello.*

[65] *Nihil aequa Tiberium anxium habebat quam ne composta turbarentur. Deligit centurionem qui nuntiaret regibus ne armis disceptarent; statimque a Cotye dimissa sunt quae paraverat auxilia. Rhescuporis ficta modestia postulat eundem in locum coiretur: posse de controversiis conloquio transigi. Nec diu dubitatum de tempore, loco, dein condicionibus, cum alter facilitate, alter fraude cuncta inter se concederent acciperentque. Rhescuporis sanciendo, ut dictabat, foederi convivium adicit, tractaque in multam noctem laetitia per epulas ac vinolentiam incautum Cotyn postquam dolum intellecerat, sacra regni, eiusdem familiae deos et hospitalis mensas obtestantem catenis onerat. Thraeciaque omni potitus scripsit ad Tiberium structas sibi insidias, praevenitum insidiatorem; simul bellum adversus Bastarnas Scythasque praetendens novis peditum et equitum copiis sese firmabat. Molliter rescriptum, si fraud abesset, posse eum innocentiae fidere; ceterum neque se neque senatum nisi cognita causa ius et iniuriam discreturos: proinde tradito Cotye veniret transferretque invidiam criminis.*

[66] *Eas litteras Latinius Pandusa pro praetore Moesiae cum militibus quis Cotys traderetur in Thraeciam misit. Rhescuporis inter metum et iram cunctatus maluit patrati quam incepti facinoris reus esse: occidi Cotyn inbet mortemque sponte sumptam ementitur. Nec tamen Caesar placitas semel artes mutavit, sed defuncto Pandusa quem sibi infensem Rhescuporis arguebat, Pomponium Flaccum, veterem stipendiis et arta cum rege amicitia eoque accommodatiorem ad fallendum, ob id maxime Moesiae praefecit.*

dea; errege bien jenioak ere halakoxea ziren: harena, adeikorra eta bihozkorra; honena, zakarra, dena gurakoa eta gizartearekiko muzintia. Bainan, lehenengotan, elkartasun itxurazkoan bizi izan ziren; gero, Reskuporide mugaz bestalderatzen eta Kotisi egokitu zitzzionaz jabetzen hasi zen, aurre egiten zionean indar eginez; hori dena zalantzaz oraindik Augustoren garaian, honi, erreinu bien banatziale gisa ez ezik, mendekatzaile gisa ere beldurra baitzion, arbuiaturik aurkitzen bazen. Bainan, prinze aldakuntzaren berri jakin zueneko, bidelapurren tropak bidaltzen, gotorlekuak hondatzen eta gerra xaxatzen hasi zen.

65. Tiberio ezerk ez zuen larritzen, bakea nahasteko beldurrak beste. Zenturio bat bidali zuen, erregeak ez gudukatzen ekar zitzan; Kotisek berehalala utzi zituen prestaturiko indar laguntzaileak. Reskuporidek, itxurazko zintzotasunez, elkarrizketa bat izatea eskatzen du: hala, euren demak hizketaz konponduko ei zitzuten. Ez zen zalantza luzerik izan noiz, non eta, azken batez, nola egingo zuten, batak gogo onez, besteak iruzurrez, kontrako aldeak proposatzen zuen dena onartzen baitzuten. Reskuporidek, ituna berreste ko, berak zioenez, oturuntza bat ere gehitu zuen, eta, jan-edanean, alaitasuna gaueko ordu txikieta arte luzatu zenean, Kotis inkautoa kateaz kargatu zuen, honek, iruzurraz jabeturik, erregearen izate sakratua, familia bien Jainkoak eta mahaiaren abegia inbokatzen zituela. Hala, Trazia osoa bereganaturik, Tiberiori idatzi zion ezen, bere aurka azpikeriak eratu zirenez, azpijaleari aurrea hartu ziola; aldi berean, bastarnen eta eszitien aurkako erasoaren aitzakian, oinezko eta zaldizko tropa berriz sendotzen zihola jakinaztzen zion. Tiberiok hitz bigunez erantzun zion ezen, iruzurrik ez bazen, haren inozentzian fida zitekeela; bestela, ez senatualk ez berak ez zutela zuzenik eta zuzengaberik bereiziko, zergatia jakinda baizik; beraz, Kotis entregatu eta etor zedila, salaketaren izen txarra beste batir transferitutik.

66. Gutun hori Mesiako propretore Latinio Pandusak helarazi zuen Traziara, Kotis entregatu behar zitzaien soldaduekin batera. Reskuporidek, beldurretik suminera zalantzan egon ondoren, krimen abiatuaren baino burutuaren errudungai izatea nahiago izan zuen: Kotis erahiltzeko agintzen du, bere burua hil duela esanez. Bainan Zesarrek ez zituen horregatik bere gogoko metodoak aldatu, aitzitik, ordea, Reskuporidek etsaigo pertsonala ziola salatzen zuen Pandusa hildakoan, Ponponio Flako, zerbitzuan aspaldikoa eta erregearen lagun handia eta, beraz, engainatzeko egokiagoa, horrexegatik batez ere, Traziako buru ipini zuen.

[67] *Flaccus in Thraeciam transgressus per ingentia promissa quamvis ambiguum et scelera sua reputantem perpulit ut praesidia Romana intraret. Circumdata hinc regi specie honoris valida manus, tribunique et centuriones monendo, suadendo, et quanto longius abscedebarunt; apertiore custodia, postremo gnarum necessitatis in urbem traxere. Accusatus in senatu ab uxore Cotyis damnatur; ut procul regno teneatur: Thraecia in Rhoemetalcen filium, quem paternis consiliis adversatum constabat, inque liberos Cotyis dividitur; iisque nondum adultis Trebellenus Rufus praetura functus datur qui regnum interim tractaret, exemplo quo maiores M. Lepidum Ptolemaei liberis tutorem in Aegyptum miserant. Rhescuporis Alexandriam devectus atque illic fugam temptans a ficto crimine interficitur.*

[68] *Per idem tempus Vonones, quem amotum in Ciliciam memoravi, corruptis custodibus effugere ad Armenios, inde Albanos Heniochosque et consanguineum sibi regem Scytharum conatus est. Specie venandi omissis maritimis locis avia saltuum petuit, mox perniciitate equi ad amnem Pyramum contendit, cuius pontes accolae ruperant audita regis fuga, neque vado penetrari poterat. Igitur in ripa fluminis a Vibio Frontone praefecto equitum vincitur; mox Remmius evocatus, priori custodiae regis adpositus, quasi per iram gladio cum transigit. Unde maior fides conscientia sceleris et metu indicii mortem Vononi inlatam.*

[69] *At Germanicus Aegypto remeans cuncta quae apud legiones aut urbes iusserat abolita vel in contrarium versa cognoscit. Hinc graves in Pisone contumeliae, nec minus acerba quae ab illo in Caesarem intentabantur: Dein Piso abire Syria statuit. Mox adversa Germanici valetudine detentus, ubi recreatum accepit votaque pro incolumitate solvabantur, admotas hostias, sacrificalem apparatum, festam Antiochenium plebem per lictores proturbat. Tum Seleuciam degreditur; opperiens aegritudinem, quae rursum Germanico acciderat. Saevam vim morbi augebat persuasio veneni a Pisone accepti; et reperiebantur solo ac parietibus erutae*

67. Flako Traziara iritsi zen eta, promesa handiekin, zalantzaran eta bere krimenen kontua egiten ari zen Reskuporide erromatar guarnizioaren erdian sarrarazi zuen. Gero, ohore egiten zion plantan, erregea tropa sendoz inguratuzen; tribunoak eta zenturioiak aholku ematen eta persuaditzentzien zihoa zuten, eta urrunago eta argiago zegoen atxilo zeramatela, harik eta, derrigorren ohartun, Erromara arrastatu zuten arte. Kotisen emazteak senatuan akusaturik, erreinutik kanporatua izan zen. Trazia banatu egin zuten, aitaren asmoen aurka egon zela ziur zen seme Remetalzesen eta Kotisen semeen artean; eta, hauek oraindik txikiak izanik, Trebelieno Rufo pretore ohia izendatu zuten, erreinua bitartean goberna zezan, aurrekoek Marko Lepido Ptolomeoren semeen tutoretzat Egiptora bidali zuten moduan. Reskuporide Alexandriara eraman zuten, eta hantxe hil zuten ihes ahaleginean, edo gezurrezko salaketan.

68. Aldi hartan berean, Ziliziara baztertua izan zela esana dudan Bonones, zaintzaileak usteltzea lortu ondoren, Armenian babesten saiatzen, gero albaniarren eta henikoen artean, eta, azkenik, eszitzen errege bere odolekoaren ondoan. Ehiza plantan, itsas ingurutik urrundu eta oihan ibilgaitzetan barnatu zen; gero, zaldiaren egina halean, Piramo ibairantz hartu zuen, zeinaren zubiak bertakoek apurtu zituzten, erregearen ihesaren berri entzutean, eta ez zegoen bestalderatzeko ibirik. Beraz, zaldieriaren prefektu Bibio Frontonek ibaiertzean harrapatu zuen. Eta bertan, Remmio berregaiatuak, erregearen zaintza-buru egonak, suminak harturik bezala, ezpataz zulatu zuen. Hortik susmoa zabaldu zen bera ez ote zen haren konplizea, eta ez ote zuen Bonones hil haren salaketa beldurrez.

69. Baina Germanikok, Egiptotik itzuleran, hor jakiten du berak legioei eta hiriei buruz agindutako guztia ezeptatua edo alderantxitua izan zela. Hortik Pisonen aurkako errieta latzak sortu ziren eta honen Zesarren aurkako asmoak ez ziren bigunagoak. Gero, Pisonek Siriara alde egitea era-baki zuen, baina Germanikoren osasun txarrak geldiarazi zuen; osatu zela eta haren susperkuntzarako botuak betetzen ari zirela jakitean, prest zeuden biktimak, aparatu sakrifikala eta jaia ospatzen ari zen Antiokiako popula sakabanatu egin zituen, liktoreen bitartez. Gero, Seleuziara jo zuen, berriro Germanikoz jabetu zen gaixotasunaren zain. Gaitzaren indar zitala areagotu egiten zuen Pisonek pozotua izan zen konbentzi-menduak; gainera, lurrean eta hormetan zeuden giza gorpuen hondakin

*humanorum corporum reliquiae, carmina et devotiones et nomen Germanici plumbeis tabulis insculptum, semusti cineres ac tabo obliti aliaque malefica quis creditur animas numinibus infernis sacrari. Simul missi a Pisone incusabantur ut valetudinis adversa rimantes.*

[70] *Ea Germanico haud minus ira quam per metum accepta. Si limen obsideretur; si effundendus spiritus sub oculis inimicorum foret, quid deinde miserrimae coningi, quid infantibus liberis eventurum? lenta videri beneficia: festinare et urgere, ut provinciam, ut legiones solus habeat. Sed non usque eo defectum Germanicum, neque praemia caedis apud interfectorum mansura. Componit epistulas quis amicitiam ei renuntiabat: addunt plerique iussum provincia decedere. Nec Piso moratus ultra navis solvit moderabaturque cursui quo propius regrederetur si mors Germanici Syriam aperuisset.*

[71] *Caesar paulisper ad spem erectus, dein fesso corpore ubi finis aderat, adsistentis amicos in hunc modum adloquitur: 'si fato concederem, iustus mihi dolor etiam adversus deos esset, quod me parentibus liberis patriae intra inventam praematu- ro exitu raperent: nunc scelere Pisonis et Plancinae intercep- tus ultimas preces pectoribus vestris relinquo: referatis patri ac fratri, quibus acerbitatibus dilaceratus, quibus insidiis cir- cumventus miserrimam vitam pessima morte finierim. Si quos spes meae, si quos propinquus sanguis, etiam quos invidia erga viventem movebat, inlacrimabunt quondam florentem et tot bellorum superstitem muliebri fraude cecidisse. Erit vobis locus querendi apud senatum, invocandi leges. Non hoc prae- cipuum amicorum munus est, prosequi defunctum ignavo questu, sed quae voluerit meminisse, quae mandaverit exequi. Flebunt Germanicum etiam ignoti: vindicabitis vos, si me potius quam fortunam meam fovebatis. Ostendite populo Romano divi Augusti neptem eandemque coniugem meam, numerate sex liberos. Misericordia cum accusantibus erit fin- gentibusque scelestia mandata aut non credent homines aut non ignoscent.' iuravere amici dextram morientis contingentes spiritum ante quam ultionem amissuros.*

desehortziak, sorginkeriaik eta madarikazioak, eta Germanikoren izena, berunezko xafletan irarria, hauts erdi-erreak eta odol beztuz estaliak, eta beste parte txarreko zer batzuk, zeintzuekin arimak infernuko numenei sagaratzen zaizkiela sinesten den. Aldi berean, Pisonen bidaliak salatzen zitzutzen, gaitzaren azken txarraren zain baleude bezala.

70. Horrek guztiak, Germanikorengan, beldur adina sumin eragin zuen. Etxe ataria setiatutik bazuen, gogoa etsaien begi aurrean utzi behar bazuen, zer izango zen gero emazte dohakabeaz, zer seme-alaba oraindik infanteez? Pozoiak astiro zirudien; Pison azkartzen eta sakatzen ari zitzaison, probintzia eta legioak bereak bakarrik izateko. Baina Germaniko oraindik ez zegoen hain hondaturik, eta krimenaren sariak ez zion hil-tzaileari iraungo. Gutun bat idazten dio, haren adiskidantza arbuiatzan duela esanez; gehienek diote probintziatik alde egiteko ere agindu ziola. Pisonen, berbertan, ontziak itsasoratu zituen, baina abioa mantsortuz, lehenbailehen itzultzeko, Germanikoren heriotzak Siria irekitzen bazion.

71. Zesarrek, une batez itxaropentsu, gero gorputza gainbehera, azkena hur ikusi zuenean, inguruko lagunei honela hitz egin zien: «Patuaren aginduz hil banendi, bidezko nuke Jainkoen aurrean ere mintzea, aita-amak, seme-alabak, aberria kendu didatelako, honen gazterik, honen heriotza goiztarrez. Orain, Pisonen eta Plantzinaren krimenak mozturik, azken erreguak zuen bularrei uzten dizkiet: esaiezue gure aitari eta anaiai nolako ankerkeriek urraturik, nolako amarruz inguraturik amaitu dudan bizitza zoritzarreko hau, heriotzari gaiztoenaz. Norbait nire itxaropenak, norbait odolekotasunak, norbait bekaitza berak bizi nendin desiarazten bazion, negar egingo du, nola ni, behinola lorean eta hain-bestet gerratatik biziraunik, emakume baten amarrupean jausi nintzen jakitean. Izango duzue senatuan kexatzeko, legeak inbokatzeko aukera. Lagunen egiteko nagusia ez da hilari alferreko erostaz laguntzea, haren nahia gogoratu eta aginduak betetzea baizik. Ezezagunek ere negar egingo diote Germanikori, zuek mendekatuko duzue, baldin ni gehiago estimatzen baninduzuen, nire zoria baino. Erakuts erromatar herriari Augusto Jainkozkoaren biloba eta nire emaztea, zenbatu sei seme-alabak. Errukia salatzaileen alde jarriko da eta agindu kriminalak itxuratzent ditutzenei, edo gizakiek ez diete sinestuko, edo ez diete barkatuko». Lagunek zin egiten zuten, hil-hurrenaren eskuina estuturik, bizia lehenago galduko zutela, mendekua baino.

[72] Tum ad uxorem versus per memoriam sui, per communis liberos oravit exueret ferociam, saevienti fortunae summitteret animum, neu regressa in urbem aemulatione potentiae validiores inritaret. Haec palam et alia secreto per quae ostendisse credebatur metum ex Tiberio. Neque multo post extinguitur; ingenti luctu provinciae et circumiacentium populorum. Indoluere externe nationes regesque: tanta illi comitas in socios, mansuetudo in hostis; visuque et auditu iuxta venerabilis, cum magnitudinem et gravitatem summae fortunae retineret, invidiam et adrogantiam esflugerat.

[73] Funus sine imaginibus et pompa per laudes ac memoriam virtutum eius celebre fuit. Et erant qui formam, aetatem, genus mortis ob propinquitatem etiam locorum in quibus interiit, magni Alexandri satis adacquarent. Nam utrumque corpore decoro, genere insigni, haud multum triginta annos egressum, suorum insidiis externas inter gentis occidisse: sed hunc mitem erga amicos, modicum voluptatum, uno matrimonio, certis liberis egisse, neque minus proeliatorem, etiam si temeritas afuerit praepeditusque sit percussas tot victoriis Germanias servitio premere. Quod si solus arbiter rerum, si lure et nomine regio fuisset, tanto promptius adsecuturum gloriam militiae quantum clementia, temperantia, ceteris bonis artibus praestitisset. Corpus antequam cremaretur nudatum in foro Antiochenium, qui locus sepulturae destinabatur; praetuleritne beneficij signa parum constitit; nam ut quis misericordia in Germanicum et prae sumpta suspicione aut favore in Pisonem pronior; diversi interpretabantur.

[74] Consultatum inde inter legatos quique alii senatorum aderant quisnam Syriae praeficeretur. Et ceteris modice nisis, inter Vibium Marsum et Cn. Sentium diu quaesitum: dein Marsus seniori et acrius tendenti Sentio concessit. Isque infamem beneficiis ea in provincia et Plancinae percaram nomine Martinam in urbem misit, postulantibus Vitellio ac Veranio ceterisque qui crimina et accusationem tamquam adversus receptos iam reos instruebant.

72. Orduan, emaztearengana bihurturik, bere gomutarren, bien seme-alabakarren, erregutu zion bazter zezala amorrua, utz zezala gogoa zori ankerraren mende eta, hirira itzultzean, ez zitzala, bere boterea emulatuz, indartsuagoak suminaraz. Hitz horiek ozenki esan zizkion, eta beste batzuk isilean, Tiberiorengandik zeren beldur izan behar zuen agertzen ziola, nonbait. Handik laster iraungi zen, probintzian eta inguruko herrietan samin handia eraginez. Nazio eta errege atzerritarrek negar egin zioten: halakoxea izan zen haren onberatasuna aliatuekin, haren barkaberatasuna etsaiekin; hura ikustea zein entzutea berdin gur garri zen, zeren, goren zoriaren handitasun eta sendotasunari eutsirik, bekaitzetik eta harrokeriatik ihes egiten baitzuen.

73. Hileta, irudi eta arrandia gabe, gogoangarria izan zen, haren goraberen eta bertuteen gomutagatik. Eta baziren haren figura, adina, heriotza modua, baita hil zen lekuena hurbiltasuna ere, Alexandro Handiaren zoriarekin bat egin zutenak. Zeren ez bata, ez bestea, gorputz lerdeneko eta jatorri gureneko, ez baitzen hogeita hamar urtetik askorik goratu, eta euretarren amarruz hil baitziren, jende arrotzen artean. Baino hau, lagunekin adeikor, atseginetan neurriko, ezkontza bakarreko, seme-alaba legitimo hutsez, ez zen gutxiago gerlari izan, haren ausarkeriarik izan ez bazuen ere, eta hainbeste garaipenetan eraitsitako Germaniak menperatzea eragotzi baizioten ere. Eta estatuko arbitro bakarra izan balitz, errege eskumena eta titulua izan balu, Alexandrok baino hainbat lehenago erdietsiko zuen aintza militarra, nola barkakortasun, neurritasun eta gainerako dohain onetan gehiago zen. Hilota, erre aurretik, biluztu egin zuten, haren ehorzgunetzat destinatu zen Antiokiako foroan, eta ez zen argi gelditu pozoi seinalerik bazeatz, zeren, bakoitza Germanikorengana bihozberago eta susmoa egiazat ematenago ala Pisonen alderago zegoen neurrian, ezberdinki interpretatzen baitzuten.

74. Gero, legatuen eta han ziren senatarien artean hitz egin zuten nor ipini Siriako buru. Gainerakoek gogo handirik ez baitzuten erakutsi, eztabaida luzean izan zen, Bibio Marso ala Gneo Sentzio; azkenean, Marsok amore eman zuen, zaharragoa zen eta gogorkiago tematu zen Sentzioren alde. Honek probintzian, pozoidurengatik, entzute txarrekoa zen eta Plantzinak oso maite zuen Martina izeneko emakumea hirira atxilo bida li zuen, Bitilio eta Beranioren, eta gaizkintza eta salaketak, errudunak jada halakotzat hartuak izan balira bezala prestatzen ari ziren eskaeraez.

[75] At Agrippina, quamquam defessa luctu et corpore aegro, omnium tamen quae ultionem morarentur intolerans ascendit classem cum cineribus Germanici et liberis, miserantibus cunctis quod femina nobilitate princeps, pulcherrimo modo matrimonio inter venerantis gratantisque aspici solita, tunc ferialis reliquias sinu ferret, incerta ultionis, anxia sui et infelici fecunditate fortunae totiens obnoxia. Pisonem interim apud Coum insulatn nuntius adsequitur excessisse Germanicum. Quo intemperanter accepto caedit victimas, adit templo, neque ipse gaudium moderans et magis insolecente Plancina, quae luctum amissae sororis tum primum laeto cultu mutavit.

[76] Adfluebant centuriones monebantque prompta illi legiōnum studia: repeteret provinciam non iure ablatam et vacuam. Igitur quid agendum consultanti M. Piso filius propterandum in urbem censebat: nihil adhuc inexpiable admisum neque suspicione imbecillas aut inania famae pertimescenda. Discordiam erga Germanicum odio fortasse dignam, non poena; et ademptione provinciae satis factum immicis. Quod si regredetur, obsidente Sentio civile bellum incipi; nec duratueros in partibus centuriones militesque apud quos recens imperatoris sui memoria et penitus infixus in Caesares amor praevaleret.

[77] Contra Domitius Celer, ex intima eius amicitia, disseruit utendum eventu: Pisonem, non Sentium Syriae praepositum; huic fascis et ius praetoris, huic legiones datas. Si quid hostile ingruat, quem iustius arma oppositum quam qui legati auctoritatem et propria mandata acceperit? relinquendum etiam rumoribus tempus quo senescant: plerumque innocentis recenti invidiae imparis. At si teneat exercitum, augeat viris, multa quae provideri non possint fortuito in melius casura. 'An festinamus cum Germanici cineribus adpellere, ut te inauditum et indefensum planctus Agrippinae ac vulgus impeditum primo rumore rapiant? est tibi Augustae conscientia, est Caesaris favor; sed in occulto, et perisse Germanicum nulli iactantius maerent quam qui maxime laetantur.'

75. Agripina, saminak joa eta gorputza gaixo izan arren, mendekua atzerantzakeen edozeragatik ezinegomez, flotan ontziratu zen, Germanikoren errautsekin eta seme-alabekin. Denak errukitzten ziren emakume hartaz, leinuz lehenengoa, oraintxe arte zoragarriro ezkondua eta begirunez eta esker onez inguratua izanik, nola zihoan bat-batean, gorpuzkinak bularrean zeramatza, mendekuaren ziurtasun gabe, bere buruaz larri, eta zoriak hainbeste aldiz zigortua, ernalkortasun dohakabea bide. Bitartean, Pison Kos irlan harrapatu zuen Germanikoren heriotzaren albisteak. Berria neu-rrigabek harturik, sakrifizioak egin zituen, tenpluetara jo zuen eta ez zuen poztasunik disimulatu, eta Plantzinak lotsagabeago jokatu zuen, ahizpatik zeraman lutua orduantxe kendu baitzuen, jaiko janzteko.

76. Zenturioiak etortzen zitzatzkion, legioak bere agindura zeudela esanez: itzul zedila bidegabeki kendu zioten eta hutsik zegoen probintziara. Zer egin kontsultatu zionean, Marko Pison semeak lehenbailehen Errormara joan behar zuela iritzi zion: oraindik ez ei zuen ezer barkaezinik egin eta ez zegoen susmo funsgabe eta zurrumurru hutsalen beldur izan beharrak. Germanikorekin konponezinak gorrota ekarri zion, baina ez zigorrik; eta probintzia kentzea etsaientzat nahikoa sari zen. Hara itzultzen bazen, Sentzioren erresistentziak gerra zibila eragin ei zezakeen, eta ez zenturioiek, ez soldaduek ez ei zioten luzaro alde egingo, haiengan nagusi baitzen euren buruzagiaren oroitzapena eta Zesarrenganako maitasun sakon errrotua.

77. Domizio Zelerrek, ostera, bere adiskide minetariko batek, gertaezraz baliatu egin behar zuela ziotsan: Pison ei zen, ez Sentzio, Siriako buru zegoena; berari eman ei zizkioten azaoak eta pretore eskubideak, berari legioak. Etsaigoak sortzen baziren, nork erakutsi behar zizkien armak zuzenago, ordezkarri agintea eta mandatu pertsonalak hartu zituenak baino? Gainera, zurrumurru zahartzeko astia eman behar zitzaien: errugabeak ia beti babesgabe daude gorroto berri samarren aurrean. Baina armadari heltzen bazion, indarra handitzen bazuen, berez aurreikusi ezineko gauza asko alde jarriko ei ziren. «Presaka ibili behar al dugu, Germanikoren errautsekin batera iristeko, inork entzuten eta babesten ez zaituela, Agripinaren negarrak eta populu ezjakinak arrasta zaitzan, lehen zurrumurrua jasotzean? Baduzu Augustaren kidetasuna eta Zesarren faborea, baina isilean; eta Germaniko hil izanaz, inor ez da nabarmenago penatuko, gehien pozten direnak baino».

[78] *Haud magna mole Piso promptus ferocibos in sententiam trahitur missisque ad Tiberium epistulis incusat Germanicum luxus et superbiae; seque pulsum, ut locus rebus novis patefieret, curam exercitus eadem fide qua tenuerit repetivisse. Simul Domitium impositum triremi vitare litorum oram praeterque insulas lato mari pergere in Syriam iubet. Concurrentis desertores per manipulo componit, armat lixas traectisque in continentem navibus vexillum tironum in Syriam euntium intercipit, regulis Cilicum ut se auxiliis iuvarent scribit, haud ignavo ad ministeria belli iuvene Pisone, quamquam suscipiendum bellum abnuisset.*

[79] *Igitur oram Lyciae ac Pamphyiae praelegentes, obviis navibus quae Agrippinam vehebant, utrumque infensi arma primo expediere: dein mutua formidine non ultra iurgium processum est, Marsusque Vibius nuntiavit Pisoni Romam ad dicendam causam veniret. Ille eludens respondit ad futurum ubi praetor qui de beneficiis quaereret reo atque accusatoribus diem prodixisset. Interim Domitius Laodiciam urbem Syriae ad pulsus, cum hiberna sextae legionis peteret, quod eam maxime novis consiliis idoneam rebatur; a Pacuvio legato praevenitur. Id Sentius Pisoni per litteras aperit monetque ne castra corruptoribus, ne provinciam bello temptet. Quosque Germanici memores aut inimicis eius adversos cognoverat, contrahit, magnitudinem imperatoris identidem ingerens et rem publicam armis peti; dicitque validam manum et proelio paratam.*

[80] *Nec Piso, quamquam coepita secus cadebant, omisit tutissima e praesentibus, sed castellum Ciliciae munitum admodum, cui nomen Celenderis, occupat; nam admixtis desertoribus et tirone nuper intercepto suisque et Plancinae servitiis auxilia Cilicum quae reguli miserane in numerum legionis composuerat. Caesarsque se legatum testabatur provincia quam is dedisset arceri, non a legionibus (earum quippe accitu venire), sed a Sentio privatum odium falsis criminibus tegente. Consisterent in acie, non pugnaturis militibus ubi Pisonem ab ipsis parentem quondam appellatum, si*

78. Bortizkeria zale zen Pison ahalegin handi gabe makurtu zen iritzi horretara eta, Tiberiori bidalitako gutunean, Germaniko luxuaz eta harrokeriaz salatzen du; bera, nahasbidea zabal zedin egotzia izan zena, berriro armadaz kargutu zen, lehenago agindu zuen zintzotasun berarekin. Aldi berean, Domiziori trirreman itsasoratzeko agintzen dio eta, itsasertzak eta irlak saihestuz, Siriara jotzeko, itsaso zabalez. Batzen zihoazen desertoreak manipuluka antolatzen ditu, kantinariak armatzen, eta, ontziekin kontinentera pasaturik, Siriara zihoan errekluta bandera bat gelditzen du; Ziziliako erregetxoek tropa laguntzaileekin laguntzeko idazten die, eta Pison gazteak eginahalean laguntzen dio gerra egitura prestatzen, nahiz eta aurretik gerrara jozearren aurka agertu.

79. Lizia eta Panfiliako itsasertzean zehar zihoazela, Agripina zeramaten ontziekin topo egin zuten eta, lehenengotan, alde biek armak erasotako prestatu zitzuten; gero, elkarren beldurrez, ez ziren biraoetatik haragotu, eta Marso Bibiok Pisoni Erromara etortzeko dei egin zion, bere auzia defendatzen. Hark, isekaz, erantzun zion pozoitzeek ardura-tzen zen pretoreak errudunari eta salatzaileei eguna ipintzen zienean joango zela. Bitartean, Domizio Siriako hiri Laodizeara iritsi zen, eta, nahaskeriarako egokitzaletan zuen seigarren legioaren kanpamenturantz zihoala, Pakubio legatuak aurrea hartua zion. Sentziok horren berri gutunetan idazten dio Pisoni eta ohartarazten kanpamendurik ez endredatzeko eta probintziaren aurkako gerrarik ez ateratzeko. Germaniko gogoan zeukatela edo haren etsaien aurkakoak zirela bazekien denak biltzen ditu, enperadorearen handitasuna behin eta berriro gomutatuz eta armekin errepublikari erasotzen zaiola esanez; eta gerrarako prestaturiko tropa sendoaren buru abiatzen da.

80. Pisonen, lehen ekintzak oker bazetozkion ere, ez zituen unerako neurrik segurrenak baztertu, eta Zelenderis izeneko Ziliitako gaztelu gotor samarra okupatzen du; zeren, desertoreak, berriki harrapaturiko erreklutak eta hauen eta Plantzinaren esklaboak erregetxoek bidalitako errefortzuekin nahasirik, legio baten kopurua osatu baitzuen. Kexu zen bera, Zesarren legatua, esleitu zioten probintziatik apartatzen zutelako, eta ez legioen eraginez, eurok deituta baitzetorren, Sentzioren baizik, zeinak gorroto pertsonala gezurrezko salaketaz estaltzen zuen. Gudurako jartzen bazituen, soldaduak ez ei ziren borrokatuko, lehenago aita deitua zioten Pison ikustean, eta, eskubide kontua bazen, berak handia-

*iure ageretur; potiorem, si armis, non invalidum vidissent tum pro munimentis castelli manipulos explicat colle arduo et derupto; nam cetera mari cinguntur. Contra veterani ordinibus ac subsidiis instructi: hinc militum, inde locorum asperitas, sed non animus, non spes, ne tela quidem nisi agrestia aut subitum in usum properata. Ut venere in manus, non ultra dubitatum quam dum Romanae cohortes in aequum entendentur: vertunt terga Cilices seque castello claudunt.*

[81] Interim Piso classem haud procul opperientem adpugnare frustra temptavit; regressusque et pro muris, modo semet afflictando, modo singulos nomine ciens, praemiis vocans, seditionem coepatabat, adeoque commoverat ut signifer legionis sextae signum ad eum transtulerit. Tum Sentius occanere cornua tubasque et peti aggerem, erigi scalas iussit ac promptissimum quemque succedere, alios tormentis hastas saxa et faces ingerere. Tandem victa pertinacia Piso oravit ut traditis armis maneret in castello, dum Caesar cui Syriam permitteret consultitur. Non receptae condiciones nec aliud quam naves et tutum in urbem iter concessum est.

[82] At Romae, postquam Germanici valetudo percrebuit cunctaque ut ex longinquu aucta in deterius adferebantur; dolor ira, et erumpebant questus. Ideo nimirum in extremas terras relegatum, ideo Pisoni permissam provinciam; hoc egisse secretos Augustae cum Plancina sermones. Vera prorsus de Druso seniores locutos: displicere regnantibus civilia filiorum ingenia, neque ob aliud interceptos quam quia populum Romanum aequo iure complecti reddita libertate agitaverint. Hos vulgi sermones audita mors adeo incendit ut ante edictum magistratum, ante senatus consultum sumpto iustitio desererentur fora, clauderentur domus. Passim silentia et gemitus, nihil compositum in ostentationem; et quamquam neque insignibus lugentium abstinerent, altius animis maerebant. Forte negotiatores vivente adhuc Germanico Syria egressi laetiora de valetudine eius attulere. Statim credita, statim vulgata sunt: ut quisque obvius, quamvis leviter audita in alios atque illi in plures cumulata gaudio transfe-

goa izanik, indarrik ere ez ei zuen falta, armetara jo behar bazen. Orduan, manipuluak hedatu zituen gazteluaren defentsen aurrean, ton tor garai eta malkar batean, gainerakoa itsasoak inguratzen baitu. Aurrean, beteranoak jarri ziren, ordena itxian eta errefortzuekin: batezik, soldaduen gogortasuna, bestetik, lekuarena zen, baina gogo gabe, itxaropen gabe, armarik ere gabe, baserriko lanabesak edo premia larrian asmaturiko tresnak izan ezik. Elkar joka hasirik, jada ez zegoen dudarik, erromatar kohorteark tontorrera igo zirenean, lautada harrapatz: ziliziarrak bizkar eman eta gazteluan itxi ziren.

81. Bitartean, Pison alferrik saiatu zen handik ez urrun ainguraturik zegoen flotari erasotzen; itzuli eta murru gainetik, behin samina agertuz, behin bakoitzari izenetik deituz, eta sariak aginduz, sedizioa xaxatu nahi zuen; eta hainbestean hunkitu zituen, ezen seigarren legioko zutohialduna berarengana pasatu baitzen, zutoihal eta guzti. Orduan, Sentziok adarrak eta tubak jotzeko, lubetari eraso eta eskailerak jasotzeko agindu zuen; gertuenak igo zitezela eta besteek pikak, harriak eta zuziak bota zitzatela. Azkenik, seta menderaturik, Pisonek eskatu zuen ezen, armak entregatutakoan, utz zekiola gazteluan egoten, Zesarri Siria noren esku uzten zuen kontsultatu arte. Ez zen baldintzarik onartu eta ontziak eta Erromarako ibil-baimena bakarrik eman zizkioten.

82. Baina Erroman, Germanikoren gaitzaren berriak ugaldu eta, urruntasuna bide, dena okerrerantz handitzen zenetik, samina eta haserrean nagusitzen eta auhenak lehertzen ziren. Horretarako Baztertu ei zuten munduaren azkenera; horretarako gomendatu ei zioten probintzia Pisoni; horrexetaz izan ei ziren Augusta eta Plantzinaren arteko isil hitzak. Zaharrek egia esan ei zuten Drusoz: agintariei gaitzi zaie seme-en izaera irekia. Druso eta Germaniko moztuak izan ei ziren euren ibilibidean, erromatar herria, askatasuna itzulirik, eskubideen berdintasunean antolatu nahi zutelako bakarrik. Populuaren solas giro hori, heriotzaren berriarekin, hain suzu zen, ezen, magistratuen ediktu eta senatuaren aginduaren aurretik, foroak hustu eta etxeak itxi egin baitziren. Nonahi isiltasuna eta negarra, inolako arrandia plantoso gabe; eta, dolu erakutsiei uzten ez bazien ere, gogoen samina sakonagoa zen. Germaniko bizi zela, Siriak abiaturiko merkatari batzuek haren osasunaren berri onak eman zituzten. Bertan sinestu, bertan zabaldu zituzten; batak bestea aurkitu ahala, entzundakoa bereizmen gabe kontatzen zion, eta

runt. Cursant per urbem, molinutur templorum foris; iuvat credulitatem nox et promptior inter tenebras adfirmatio. Nec obstitit falsis Tiberius donec tempore ac spatio vanescerent: et populus quasi rursum ereptum acrius doluit.

[83] Honores ut quis amore in Germanicum aut ingenio validus reperti decretique: ut nomen eius Saliari carmine caneretur; sedes curules sacerdotum Augustalium locis superque eas querceae coronae statuerentur; ludos circensis eburna effigies praeiret neve quis flamen aut augur in locum Germanici nisi gentis Iuliae crearetur. Arcus additi Romae et apud ripam Rheni et in monte Syriae Amano cum inscriptione rerum gestarum ac mortem ob rem publicam obisse. Sepulchrum Antiochiae ubi crematus, tribunal Epidaphnae quo in loco vitam finierat. Statuarum locorumve in quis coleretur haud facile quis numerum inierit. Cum censeretur clipeus auro et magnitudine insignis inter auctores eloquentiae, adseveravit Tiberius solitum paremque ceteris dicaturum: neque enim eloquentiam fortuna discerni et satis inlustre si veteres interscriptores haberetur. Equester ordo cuneum Germanici appellavit qui iuniorum dicebatur; instituitque uti turmae idibus Iuliis imaginem eius sequerentur. Pleraque manent: quaedam statim omissa sunt aut vetustas obliteravit.

[84] Ceterum recenti adhuc maestitia soror Germanici Livia, nupta Druso, duos virilis sexus simul enixa est. Quod rarum laetumque etiam modicis penatibus tanto gaudio principem adfecit ut non temperaverit quin iactaret apud patres nulli ante Romanorum eiusdem fastigii viro geminam stirpem editam: nam cuncta, etiam fortuita, ad gloriam vertebat. Sed populo tali in tempore id quoque dolorem tulit, tamquam auctus liberis Drusus domum Germanici magis urgeret.

[85] Eodem anno gravibus senatus decretis libido seminarum coercita cautumque ne quaestum corpore faceret cui avus aut pater aut maritus eques Romanus fuisse. Nam Vistilia praetoria familia genita licentiam stupri apud aedilis vulgaverat, more inter veteres recepto, qui satis poenarum adversum

honek hurrengoei, pozet handiturik. Hirian zehar lasterka, tenplu ateak bortxatzen dituzte; gauak sineskortasuna areagotzen du eta, ilunetan, baiespenak biribilagoak dira. Tiberiok ez zuen gezurrezko berririk moztu, denborak eta distantziak ezaba zitzan utzirik; eta herria, bigarrenez kendurik bezala, garrazkiago samindu zen.

83. Germanikorenganako maitasuna eta bakoitzaren asmamena nolakoak izan, halako ohoreak bilatu eta agindu ziren: haren izena salioen kantuak kanta zedila; abade augustalen lekuak, aulkia kurulak jar zitezela eta, hauen gainean, artezko koroak; haren bolizko irudia aurretik joan zedila, zirku jokoetan, eta inor ez zezatela, Germanikoren lekuak, flamen edo augure izenda, Julia sendikoa ez bazen. Arkua gehitu ziren Erroman, Rhin ertzean eta Siriako Amano mendian, haren balentriak kontatzentzuak zituen inskripzio batekin, eta nola errepublikaren zerbitzuan hil zen; hilobi bat ere bai, erreza izan zen Antiokian, eta tribunal bat Epidafnen, bizia amaitu zitzaiotzak lekuak. Zenbat estatua eta zenbat tokitan gurtzen zuten kalkulatzea ez litzateke erraza. Elokuentziaren maisuen artean ipintzeko, urezko ezkutu izugarri handi bat egin nahi izan zutenean, Tiberiok erabaki zuen berak eskainiko ziola bat, ohikoa eta besteen berdina, eloquentzia ez ei baitzen zoritik epaitzen, eta nahikoa ospe ei baitzen antzinako idazleen artean sartzea. Zaldun ordenak gazteen mailadia izenekoari Germanikoren izena ipini zion, eta, uztailaren hamabosteko kabalkadan, haren irudia aurrelari joan zedila erabaki zuen. Ohore gehienok badiraute; batzuk berehala utzi edo denborak ezabatu zituen.

84. Bestela, oraindik tristura gertaberrian, Germanikoren arreba Libiak, Drusorekin ezkondua, biki mutilak izan zituen. Gertaera ezo hiko eta etxe apalentzat ere alai honek hainbesteko poza eman zion printzeari, ezen ez baitzuen senatuaren harrotasuna ezkutatua, maila hartako ezein erromatar gizonezko lehenago inoiz ez zuelako ondorengo bikoitzik izan; dena, zer kasualak ere, bere aintzara moldatzten baitzituen. Baino, aldi hartan, horrexek ere herriaren samina eragin zuen, ematen baitzuen Druso, seme ugariz, Germanikoren etxeari gailentzen zitzaiola.

85. Urte berean, senatuaren agindu zorrotzekin, emakumeen lizunkeria moztu zen eta erabaki zen gorputz komertziorik ezin zutela egin aitita, aita edo senarra zaldun erromatarra zutenek. Zeren Bistiliak, pretore sendian jaioak, edilen aurrean, prostituzio baimena aldarrikatu baitzuen,

*impudicas in ipsa professione flagitii credebant. Exactum et a Titidio Labeone Vistiliae marito cur in uxore delicti manifesta ultiōnem legis omisisset. Atque illo praetendente sexaginta dies ad consultandum datos necdum praeterisse, satis visum de Vistilia statuere; eaque in insulam Seriphon abdita est. Actum et de sacris Aegyptiis Iudaicisque pellendis factumque patrum consultum ut quattuor milia libertini generis ea superstitione infecta quis idonea aetas in insulam Sardiniam veherentur; coercendis illic latrociniis et, si ob gravitatem caeli interissent, vile damnum; ceteri cederent Italia nisi certam ante diem profanos ritus exuissent.*

[86] *Post quae rettulit Caesar capiendam virginem in locum Occiae, quae septem et quinquaginta per annos summa santicimonia Vestalibus sacris praesederat; egitque grates Fonteio Agrippae et Domitio Polioni quod offerendo filias de officio in rem publicam certarent. Praelata est Pollionis filia, non ob aliud quam quod mater eius in eodem coniugio manebat; nam Agrippa discidio domum imminuerat. Et Caesar quamvis posthabitam decies sestertii dote solatus est.*

[87] *Saevitiam annonae incusante plebe statuit frumento premium quod emptor penderet, binosque nummos se additum negotiatoribus in singulos modios. Neque tamen ob ea parentis patriae delatum et antea vocabulum adsumpsit, acerbeque increpuit eos qui divinas occupationes ipsumque dominum dixerant. Unde angusta et lubrica oratio sub principe qui libertatem metuebat adulacionemoderat.*

[88] *Reperio apud scriptores senatoresque eorundem temporum Adgandestrii principis Chattorum lectas in senatu litteras, quibus mortem Arminii promittebat si patranda neci venenum mitteretur, responsumque esse non fraude neque occultis, sed palam et armatum populum Romanum hostis suos ulcisci. Qua gloria aequabat se Tiberius priscis imperatoribus qui venenum in Pyrrum regem vetuerant prodiderantque. Ceterum Arminius abscedentibus Romanis et pulso Maroboduo regnum adfectans libertatem popularium adver-*

antzinakoen artean onarturiko ohitura baten arabera, non irizten baitzioen lizunek bazutela aski zigor euren lotsagarrikeriaren aitortzan. Bistiliaren senar Titidio Labeoni ere kargu hartu zioten ea zergatik omititu zuen legearen mendekua, emazte ageriki hobendunaren aurka. Hark aitzakia eman zuenez kontsultarako emaniko hirurogei egunak oraindik ez zirela igaro, Bistiliari buruzko neurriak bakarrik hartza nahiko iruditu zitzaien, eta Serifo irlara baztertu zuten. Egiptoar eta juduen kultuak ere debekatzea onartu zen, eta senatuaren dekretu bat idatzi zen, halako sineskeriaz kutsaturiko lau mila liberto, adin egokian zeudenak, Sardinia irlara eramateko aginduz, han lapurreria zanpatzeko; klimaren gogorrez hiltzen baziren, gaitz txikia; gainerakoek Italiatik hanka egin behar zuten, egun jakin baten aurretik errito profanoei jaregiten ez bazieten.

86. Gero, Zesarrek birjina bat izendatzea proposatu zuen Okziaren ordez, zeina, berrogeita hamazazpi urtean, Bestaren kultuen buru izan baitzen, santutasun gorenez. Fonteio Agripari eta Domizio Polioni eskerrak eman zizkien, alabak eskainiz, errepublikaren zerbitzuan leihatzen zirelako. Polionen alaba hobetsi zuten, ez beste ezergatik, amak ezkontza berean jarraitzen zuelako baino; zeren Agripak, dibortzioa bide, etxea apaldu baitzuen. Zesarrek milioi bat sestertioko dotez kontsolatu zuen baztertutako neska.

87. Herria janarien urriaz kexu zenez, gariarentzat, erostunak ordaintzeko prezioa ezarri zuen, eta saltzaileei modioko sertertzio biko laguntza agindu zien. Bainaz ez zuen, horregatik, lehenago eskaini zitzaison Aberriaren Aita titulua onartu, eta agiraka gogorra egin zien bere ardurak Jainkozkoak zirela esan zutenei eta jauna deitu zietenei. Hortik zetorren oratoria zaila eta labaina izatea, askatasunaren beldur zen eta adulazioa gorroto zuen printze haren menpean.

88. Garai bereko historialarien eta senatarien artean ikusten dut katoen printze Adgandestrioren gutuna irakurri zela senatuan, non Arminioren heriotza promesten zuen, egintza burutzeko edena bidaltzen bazioten, eta erantzun zitzaiola erromatar herriak etsaiak zigortzen zituela, ez iruzurrez eta azpika, agerian eta armak eskuan zituela baizik. Honela, Tiberiok antzinako buruzagien aintza berdintzen zuen, zeintzuek Pirro edendu nahi izan zuenari debekatu eta salatu egin baitzuten. Gainera-koan, Arminioi, erromatarrak erretiraturik eta Maroboduo kanporatu-

*sam habuit, petitusque armis cum varia fortuna certaret, dolo propinquorum cecidit: liberator haud dubie Germaniae et qui non primordia populi Romani, sicut alii reges ducesque, sed florentissimum imperium lacescierit, proeliis ambiguus, bello non victus. Septem et triginta annos vitae, duodecim potentiae explevit, caniturque adhuc barbaras apud gentis, Graecorum annalibus ignotus, qui sua tantum mirantur; Romanis haud perinde celebris, dum vetera extollimus recentium incuriosi.*

rik, agindu egin nahi zuen, baina herriaren askatasun gogoa trabes jarri zitzaison; armaz erasoa izanik, zori ezberdinez borrokatu zen, azkenean, ingurukoen traizioz jausteko. Dendarik gabe, Germaniaren askatzalea izan zen, eta, beste errege eta buruzagi batzuek bezala, ez zion erromatar herriari lehenengoan eraso, bere agintearen gorenean baizik; guduetan zorte anbiguo, gerran ez zuten menperatu. Hogeita hamazazpi urteko bizia eta zazpiko agintea izanik, oraindik kantatua da barbaroen artean, eureka bakarrik miresten duten grekoen analetan ezezagun, eta ez lar ospetsu ere, antzinakoa goratzearren, oraintsuko gertaerez axolagabetzen garen erromatarren artean.

P. CORNELI TACITI ANNALIVM  
LIBER TERTIVS

ANALAK  
HIRUGARREN LIBURUA

[1] Nihil intermissa navigatione hiberni maris Agrippina Corcyram insulam advehitur; litora Calabriae contra sitam. Ilic paucos dies componendo animo insumit, violenta luctu et nescia tolerandi. Interim adventu eius audito intimus quisque amicorum et plerique militares, ut quique sub Germanico stipendia fecerant, multique etiam ignoti vicinis e municipiis, pars officium in principem rati, plures illos secuti, ruere ad oppidum Brundisium, quod naviganti celerrimum fidissimumque adpulsu erat. Atque ubi primum ex alto visa classis, complentur non modo portus et proxima maris sed moenia ac tecta, quaque longissime prospectari poterat, maerentium turba et rogitantium inter se silentione an voce aliqua egredientem exciperent. Neque satis constabat quid pro tempore foret, cum classis paulatim successit, non alaci, ut adsolet, remigio sed cunctis ad tristitiam compositis. Postquam duobus cum liberis, feralem urnam tenens, egressa navi defixit oculos, idem omnium gemitus; neque discerneres proximos alienos, virorum seminarumve planctus, nisi quod comitatum Agrippinae longo maerore fessum obvii et recentes in dolore antibant.

[2] Miserat duas pmetorias cohortis Caesar; addito ut magistratus Calabriae Apulique et Campani suprema erga

1. Neguko itsasoak behin ere eten ez zuen nabigazioaren ondoren, Agripina Kalabriako itsasertz aurreko Kortzira irlara iristen da. Han, egun batzuk hartzen ditu, gogoberritzeko, dolu bortitza eta jasangaitza izan baitzuen. Bitartean, haren etorreraren berri entzunik, lagun min guztiak eta Germanikoren agindupean zerbitzatutako militar ugari, baina baita alboherrietako ezezagun asko ere, batzuk printzearekiko eginbeharra bete ustez, gehienak besteei jarraitzearen, Brundisio hirira lasterkatu ziren, zeina, nabigatzailentzat lekurik hurbilena eta lehorreratzeko segurrena baitzen. Eta, ostertzean untziak begiztatu zitzateneko, portua eta itsasaldea ez ezik, hormak eta teilituak eta urrunera ikusteko moduko leku guztiak jendez eta jendez bete ziren doluan, elkarri galdezka ea Agripina, lehorratzean, isilean ala aldarriren batez hartu behar zuten. Zer zen egokiago oraindik nahikoa argi ez zegoela, untziak portuan sartu ziren astiro-astiro; arraunak ez ziren ohi bezain alai ari, dena dolura egokituz baizik. Bere seme biek lagundurik, errauts kutxa eskuetan zekarrela, lehorreratu eta begiak lurrean josita geratu zenean, bakarra izan zen denen auhena, eta ez zegoen ahaideak eta arrotzak bereizterik, gizonen eta emakumeen negar artean, ez bazen Agripinaren jarraigokoak, dolu luzean nekatuak, errezibitzera irten zirenek eta samina berriago zutenek gainditzen zituztelako.
2. Zesarrek kohorte pretoriar bi bidali zituen, baita aginduz ere Kalabria, Apulia eta Kanpaniako magistratuek ohorerik gorenak eskain

*memoriam filii sui munera fungerentur. Igitur tribunorum centurionumque umeris cineres portabantur; praecedebant incompta signa, versi fasces; atque ubi colonias transgredentur, atrata plebes, trabeati equites pro opibus loci vestem odores aliaque funerum sollemnia cremabant. Etiam quorum diversa oppida, tamen obvii et victimas atque aras dis Manibus statuentes lacrimis et conclamationibus dolorem testabantur. Drusus Tarracinam progressus est cum Claudio fratre liberisque Germanici, qui in urbe fuerant. Consules M. Valerius et M. Aurelius (iam enim magistratum occuperant; et senatus ac magna pars populi viam complevere, dislecti et ut cuique libitum flentes; aberat quippe adulatio, gnaris omnibus laetam Tiberio Germanici mortem male dissimulari.*

[3] *Tiberius atque Augusta publico abstinuere, inferius maiestate sua rati si palam lamentarentur; an ne omnium oculis vultum eorum scrutantibus falsi intellegerentur. Matrem Antoniam non apud auctores rerum, non diurna actorum scriptura reperio ullo insigni officio functam, cum super Agrippinam et Drusum et Claudium ceteri quoque consanguinei nominatim perscripti sint, seu valetudine praediebatur seu victus luctu animus magnitudinem mali perferre visu non toleravit. Facilius crediderim Tiberio et Augusta, qui domo non excedebant, cohibitam, ut par maeror et matris exemplo avia quoque et patruus attineri viderentur:*

[4] *Dies quo reliquiae tumulo Augusti inferebantur modo per silentium vastus, modo ploratibus inquieres; plena urbis itinerare conluentes per campum Martis faces. Illic miles cum armis, sine insignibus magistratus, populus per tribus concidisse rem publicam, nihil spei reliquum clamitabant, promptius apertiusque quam ut meminisse imperitantium crederes. Nihil tamen Tiberium magis penetravit quam studia hominum accensa in Agrippinam, cum decus patriae, solum Augusti sanguinem, unicum antiquitatis specimen appellarent versique ad caelum ac deos integrum illi subolem ac superstitem iniquorum precarentur.*

zitzaten, bere semearen gomutan. Hala, haren errautsak tribunoen eta zenturioien bizkarrean zihoazen, apainduria gabeko banderak eta azao irauliak aurrean zirela. Kolonietan zehar zihoazenean, lutudun herriak eta trabeaz jantxitako zaldunek oihal aberatsak, lurrinak eta beste hil opari batzuk erretzen zitzuten, lekuko ahalaren arabera. Bidetik urrungo hirietakoak ere bidera irten, aldareak jaso eta Jainko maneei biktimak eskaintzen zizkieten, samina malkoz eta erostaz adieraziz. Druso Terrazinara aurreratu zen, Germanikoren anaia Klaudiorekin eta Erromen zeuden honen semeekin. Euren karguak hartuak zitzuten Mario Balerio eta Marko Aurelio kontsulek, senadoreek eta herri zati handi batek bidea betetzen zuten, nahasian eta bakoitza bere bihotzaren araberak negarrez; han ez zen, ez, zurikeriarik, nahiz denek jakin Tiberiok gaizki disimulatzen zuela Germanikoren heriotzaren poza.

3. Tiberiok eta Augustak ez zuten publikoan agertu gura izan, pentsatzuz, beharbada, denen aurrean dolo egitea ez zegokiola euren maiestateari, edo, beharbada, euren aurpegiatara zeudekeen denen begietan, faltsutzat ez agertzeagatik. Germanikoren ama Antoniari buruz, ez dut historialariengan, ez egunkari ofizialean, esku-hartze garrantzitsurik izan zuen berrikirik aurkitzen, nahiz eta Agripinaz, Drusoz eta Klaudioz gainera, gainerako odolkideak ere izen eta guzti aipatzen diren. Edo osasunak galarazi zion, edo ltuak menperaturiko gogoak ez zion utzi zorigaitzaren handia begiz ikusten. Lehenago sinistuko nuke etxetik irteten ez ziren Tiberiok eta Augustak behartu zutela horretara, euren samina ere berdina zela eta amama eta osaba ere amaren etsenpluak atxikirik gelditu zirela eman zezan.

4. Errautsak Augustoren tumuluan ezarri zitzuten egunean, bai isiltasunaren bakartasuna, bai erosten larritasuna erakusten zuen. Hiriko kaleak beterik, zuziak Martitzen zelaian dizdiz zeuden. Han, soldadu armadunek, magistratu banderagabeek, herriak, tribuka sailkaturik, errepublika hil zela, ez zela itxaropenik gelditzen oihu egiten zuten, hain ausarki eta agerian, ezen menperatzaileez ahaztua zirela baitzirudien. Baino Tiberiori ezer ez zitzaison gehiago barneratu, jendearen Agripinarekiko elkartasun sutsua baimo, zeinari aberriaren ohore, Augustoren odol bakar, antzinaroaren etsenplu bakar deitzen baitzionten; eta, zerura eta Jainkoengana zuzenduz, haren ondorengoeik osorik iraun eta gaiztakerietatik biziraun zezatela erregutzen zuten.

[5] *Fuere qui publici funeris pompam requirerent compararentque quae in Drusum patrem Germanici honora et magnifica Augustus fecisset. Ipsum quippe asperrimo hiemis Ticinum usque progressum neque abscedentem a corpore simul urbem intravisse; circumfusas lecto Claudiorum Iuliorumque imagines; defletum in foro, laudatum pro rostris, cuncta a maioribus reperta aut quae posteri invenerint cumulata: at Germanico ne solitos quidem et cuicunque nobili debitos honores contigisse. Sane corpus ob longinquitatem itinerum externis terris quoquo modo crematum: sed tanto plura decora mox tribui par fuisse quanto prima fors negavisset. Non fratrem nisi unius diei via, non patruum saltem porta tenus obvium. Ubi illa veterum instituta, propositam toro effigiem, meditata ad memoriam virtutis carmina et laudationes et lacrimas vel doloris imitamenta?*

[6] *Gnarum id Tiberio fuit; utque premeret vulgi sermones, monuit edicto multos inlustrium Romanorum ob rem publicam obisse, neminem tam flagranti desiderio celebratum. Idque et sibi et cunctis egregium si modus adiceretur: Non enim eadem decora principibus viris et imperatori populo quae modicis domibus aut civitatibus. Convenisse recenti dolori luctum et ex maerore solacia; sed referendum iam animum ad firmitudinem, ut quondam divus Iulus amissa unica filia, ut divus Augustus ereptis nepotibus abstruserint tristitiam. Nil opus vetustioribus exemplis, quotiens populus Romanus cladis exercituum, interitum ducum, funditus amissas nobilis familias constanter tulerit. Principes mortalis, rem publicam aeternam esse. Proin repeterent sollemnia, et quia ludorum Megalesium spectaculum suberat, etiam voluptates resumerent.*

[7] *Tum exuto iustitio redditum ad munia, et Drusus Illyricos ad exercitus profectus est, erectis omnium animis petendae e Pisone ultiōnis et crebro questu, quod vagus interim per amoena Asiae atque Achaiae adroganti et subdola mora scelerum probationes subverteret. Nam vulgatum erat missam, ut dixi, a Cn. Sentio famosam beneficiis*

5. Izan ziren hileta publikoen handitasun falta hartu zutenak, eta Augustok Drusori, Germanikoren aitari, eskainitako ohore bikainak konparatu zitzuztenak. Izan ere, gogoratzan zuten hora bera aurreratu zela, neguaren gogorrenean, Tizinoraino eta, hilozarengandik aldendu gabe, berarekin sartu zela hirian; hil-ohean, Klaudiotarren eta Juliota-ren irudiak ipini zitzuzten; foroan erostatua, rostretan goraldua izan zen; asabek ezarri eta geroak hautaturiko ohore guztiak pilatu ziren. Germanikori, ostera, ohikorik eta edozein jaun goreni zor zaionik ere ez zitzzion eskaini. Ulertzekoai ei zen haren gorputza, bidaiaren luzeagatik, lur arrotzean eta edonola erraustua izana; baina bidezko izango ei zen hainbat ohore gehiago eskaintza, zenbat eta zoriak aurretik ukatua zion. Anaia ere ez zitzzion irten, egun bateko bidera baino, ezta osaba ere, atera heldu arte. Non zeuden antzinako erakunde haien, katafalkoan kokaturiko irudia, kemenaren oriomenezko kantak eta goralbenak eta malkoak, edo, gutxienez, dolu plantak?

6. Hura dena Teberiok jakin zuen eta, herriaren esamesak mozteko, ediktuz ohartarazi zuen erromatar goragarri asko hil zela errepublikagatik, eta inor ez zela hainbeste sentimenduz ohoratua izan; hori, beretzat eta denentzat, ohorea zela, baina, beti ere, neurri sena nagusi zela. Izan ere, printzeei eta herri imperialari ez ei zegokion etxe edo nazio apalei bezalako jarrerarik. Lutua oraintsuko saminaren araberakoa izan ei zen, eta ondo ei zegoen atsekabeen asaskua bilatzea; baina bazela gogoa irmotasunera itzultzeko sasoia, behinola, Julio jainkozkoak, alaba bakarra galtzean, edo Augusto jainkozkoak, bilobak erauzi zizkiotenean, tristura irentsi zuten moduan. Ez ei zegoen etsenplu zaharragoetara jo beharrik ikusteko erromatar herriak zenbat aldiz eraman zituen sendoki armaden hondamenak, buruzagien heriotzak, sendi gurenen desagerpen osoa. Printzeak hilkorrak ziren, errepublika betikoa. Itzul zitezela, beraz, ohiko arduretarra, baita, Joku Megalentseak gainean zirenez gero, dibertsiora ere.

7. Orduan, dolua utzi eta zereginetara itzuli ziren. Druso Ilirikoko armadara abiatu zen, denen gogoa Pisonen mendekua eskatzeko gertu zegoela, eta protestak berretuz zihoazen, nola hora, bien bitartean, Asiako eta Akaiako jolasetan hara-hona, bere krimenen frogak apurtzen ari zen, atzerapen harro eta engainakorrez. Berria zabaldu baitzen, Martina, Gneo Sentziok Erromara bidalitako pozoitzaile ezaguna,

*Martinam subita morte Brundisii extinctam, venenumque nodo crinium eius occultatum nec ulla in corpore signa sumpti exitii reperta.*

[8] *At Piso praemisso in urbem filio datisque mandatis per quae principem molliret ad Drusum pergit, quem haud fratris interitu trucem quam remoto aemulo acquiorem sibi sperabat. Tiberius quo integrum iudicium ostentaret, exceptum comiter iuvenem sueta erga filios familiarum nobilis liberalitate auget. Drusus Pisoni, si vera forent quae iacerentur, praeципuum in dolore suum locum respondit: sed malle falsa et inania nec cuiquam mortem Germanici exitiosam esse. Haec palam et vitato omni secreto; neque dubitabantur praescripta ei a Tiberio, cum incallidus alioqui et facilis iuventa senibus tum artibus uteretur.*

[9] *Piso Delmatico mari tramisso relictisque apud Anconam navibus per Picenum ac mox Flaminiam viam adsequitur legionem, quae e Pannonia in urbem, dein praesidio Africæ ducebatur: eaque res agitata rumoribus ut in agmine atque itinere crebro se militibus ostentavisset. Ab Narnia, vitandae suspicionis an quia pavidis consilia in incerto sunt, Nare ac mox Tiberi devectus auxit vulgi iras, quia navem tumulo Caesarum adpulerat dieque et ripa frequenti, magno clientium agmine ipse, seminarum comitatu Plancina et vultu alacres incessere. Fuit inter inritamenta invidiae domus foro immens festa ornata conviviumque et epulae et celebritate loci nihil occultum.*

[10] *Postera die Fuleinius Trio Pisonem apud consules postulavit. Contra Vitellius ac Veranius ceterique Germanicum comitati tendebant, nullas esse partis Trioni; neque se accusatores sed rerum indices et testis mandata Germanici perlatus. Ille dimissa eius causae delatione, ut priorem vitam accusaret obtinuit, petitumque est a principe cognitionem exciperet. Quod ne reus quidem abnuebat, studia populi et patrum metuens: contra Tiberium spernendis rumoribus validum et conscientiae matris innexum esse; veraque aut in*

esana dudanez, bat-batean Brundision hil zela, eta bere ile-txirikorda batean pozoi ezkutua zegoela, gorputzean inolako suizidio lorraztik aurkitu gabe.

8. Baina Pisonek, semea printzea biguntzeko aginduz Erromara bidalirik, Drusorengana jo zuen, zeina ez zuen uste berarekin hala zorrotz aurkitzerik, anaiaren heriotzagatik, nola gertu, lehiakide batez libratu izanagatik. Tiberiok, zentzu zuzena agertzearen, Pison gaztea adeikor hartzen du, goi sendietako semeekin ohi zuen oparotasunez lausengaturik. Drusok Pisoni erantzun zion ezen, jaulkitzten zirenak egiak baziren, berak hartu behar zuela minik handiena, baina nahiago zuela gezurrezkoak eta hutsalak izan zitezen, eta Germanikoren heriotzak inoren galerarik ekar ez zezan. Hori agerian eta inolako sekretu gabe esan zion; eta ez zegoen dudarik hori Tiberiok agindu ziona, zeren, Druso, berez, maleziagabea eta gaztetasun irekikoa izanik, orduan zahar senez jokatu baitzuen.

9. Pisonek, dalmaziar itsasoa gurutzatu eta untziak Ankonan utzirik, Pizenon eta, gero, flaminiar bidean zehar, Panoniatik Erromara zihohan legioa harrapatu zuen, handik Afrikako guarniziora jarraitzeko; eta zeresan handia izan zen, bidean eta joanean, soldadu artean maiz agertu zelako. Narniatik, beharbada, susmoak ekiditearren, edo, beharbada, beldurrak erabakiak zalantzatzen zizkiolako, Naren eta, gero, Tiberon zehar jaitsi zen; populuaren amorrua gehitu egin zen, untzia Zesarren tumuluan atrakatu eta, egun argiz eta kaia jendez beterik, bera otsein aldra handiz eta Plantzina emakume segizioz, aurpegi alaiz lehorreratu zirenean. Gorrotoak areagotu egin zituen Foro gainean zeukan etxeko jai apainduriak, eta bertan eman zuen oturuntza itzelak, tokiaren ageritasunak ezer ezkutatzan ez zuela.

10. Biharamunean, Fultzinio Trionek Pisoni kontsulen aurrera deitu zion. Viteliok, Beraniok eta Germanikoren segizioko gainerakoek aurka egin zioten, esanez Trionek ez zeukala horretan parterik, eta eurak ez zetozela salatzaile moduan, gertakarien aurkezle eta leku moduan bai-zik, eta Germanikoren aginduak burutzeko. Trionek, auzi haren salaketa utzirik, hora aurreko bizimoduagatik salatzen utz ziezaioten lortu zuen, eta printzeari ikerketaz arduratzeko eskatu zioten. Hori salatuak ere ez zuen ezeztu, herriaren eta senatarien begizkoaren beldur baitzen; Tiberiok, ostera, bazuen zurrumurruak arbuiatzeko beste indar, eta bere

*deterius credita indice ab uno facilius discerni, odium et invidiā apud multos valere. Haud fallebat Tiberium moles cognitionis quaque ipse fama distraheretur. Igitur paucis familiarium adhibitis minas accusantium et hinc preces audit integrumque causam ad senatum remittit.*

[11] *Atque interim Drusus rediens Illyrico, quamquam patres censuerunt ob receptum Marobodium et res priore aestate gestas ut ovans iniret, prolato honore urbem intravit. Post quae reo L. Arruntium, P. Vinicium, Asinium Gallum, Aeserninum Marcellum, Sex. Pompeium patronos petenti iisque diversa excusantibus M'. Lepidus et L. Piso et Livineius Regulus adfuere, arrecta omni civitate, quanta fides amicis Germanici, quae fiducia reo; satin cohiberet ac premeret sensus suos Tiberius. Haud alias intentior populus plus sibi in principem occultae vocis aut suspicacis silentii permisit.*

[12] *Die senatus Caesar orationem habuit meditato temperamento. Patris sui legatum atque amicum Pisonem fuisse adiutoremque Germanico datum a se auctore senatu rebus apud Orientem administrandis. Illic contumacia et certaminibus asperasset iuvenem exituque eius laetus esset an scelere extinxisset, integris animis diiudicandum. 'Nam si legatus officii terminos, obsequium erga imperatorem exuit eiusdemque morte et luctu meo laetus est, otero seponamque a domo mea et privatas inimicitias non vi principis ulciscaris facinus in cuiuscumque mortalium nece vindicandum detegitur; vos vero et liberos Germanici et nos parentes iustis solaciis adficate. Simulque illud reputate, turbide et seditiose tractaverit exercitus Piso, quaesita sint per ambitionem studia militum, armis repetita provincia, an falsa haec in maius vulgaverint accusatores, quorum ego nimiis studiis iure suscenseo. Nam quo pertinuit nudare corpus et contrectandum vulgi oculis permettere differrique etiam per externos tamquam veneno interceptus esset, si incerta adhuc ista et scrutanda sunt? defleo equidem filium meum semperque deflebo: sed neque reum prohibeo quo minus cuncta proferat, quibus innocentia eius sublevari aut, si qua fuit iniquitas Germani-*

amaren konplizitateak harrapaturik zegoen; eta egia, edo, okerrena pentsatzearen, egiazat hartzen zena, epaile bakarrak hobeto bereitzuko zuen; multzoan, ostera, gorrota eta erremina gailenduko ziren. Tiberio ohartzen zen auzia zer handia zen eta beragatik zer fama zebilen. Eta, hala, etxeko banaka batzuen aurrean, salatzaileen mehatxuak eta beste aldearen erreguak entzun zituen, gero auzi osoa senatura bidaltzeko.

11. Bitartean, Drusok, Ilirikotik bueltan, Maroboduoren entreguagatik eta aurreko udako arma ekintzengatik txaloak har zitzan senatuak agindu bazuen ere, ohorea atzeratu zuen eta hirian sartu zen. Gero, erruztuak Luzio Arruntzio, Publio Bizinio, Asinio Galo, Esernino Martzelo eta Sesto Ponpeio eskatu zituen defendatziale; hauek, zenbait aitzakiaz, desenkusatu ziren, eta Marko Lepido, Luzio Pison eta Libineio Regulok lagundu zioten, hiri guztia arretaz zegoela, Germanikoren lagunen leialtasuna eta salatuaren segurtasuna noraino iritsiko ote ziren, Tiberio bere sentimendua menperatzeko eta zapaltzeko gauza izango ote zen. Herriak, bereziki kezkaturik, inoiz baino gehiago eman zion printzeari buruzko berriketa ezkutuari edo isiltasun susmotiari.

12. Senatu egunean, Zesarrek mintzaldi pentsatuki neurtua jaulkiz zuen. Pison bere aitaren legatu eta lagun izan zela gogoratu zuen, eta berak eman ziola Germanikori laguntzailetzat, senatuak proposaturik. Han, makurgaitz eta lehiati, mutila mingostu eta haren heriotzaz poztu bazen, edo, gainera, krimenez eragin bazuen, gogo zuzenez epaitu behar zen. «Zeren, legatu batek egitekoaren mugak eta buruzagiari zor dion menpekotasuna harainditu baditu, eta haren heriotzaz eta nire lutuaz poztu bada, gorrotatu eta etxetik urrunduko dut, baina ez dut, printzearen indarrez, etsaigo pribaturik mendekatuko; orain, edozein hilkor akabatzeko krimen zigorgarririk aurki baledi, zeuek eman behar dizkiezue Germanikoren semeei, eta guri ahaideoi, behar diren kontsolamenduak. Azter honakoak ere: ea Pisonek armadarekin nahastaile eta matxino jokatu zuen, soldauen begiona anbizioz bilatu zuen, probintzian berriro sartzen armekin saiatu zen, edo ea horiek denak salatzaileek zabalduriko gehiegikeriak diren. Nik neuk, egia esan, ezin dut horien irrika gehiegizkoa salatu besterik. Zeren zertarako zen Germanikoren hilotza biluztea, eta populuaren begi-igurtzirako erakustea, eta, atzerritarren artean ere, pozoitua izan zelako esamesak zabaltzea, gauza oraindik zalantzazkoak eta ikertzeko daudenak badira? Negar dagiot, bai, eta dagioket beti neure semeari,

*ci, coargui possit, vosque oro ne, quia dolori meo causa conexa est, obiecta crimina pro adprobatis accipiatis. Si quos propinquus sanguis aut fides sua patronos dedit, quantum quisque eloquentia et cura valet, iuvate periclitantem: ad eundem laborem, eandem constantiam accusatores hortor. Id solum Germanico super leges praestiterimus, quod in curia potius quam in foro, apud senatum quam apud iudices de morte eius anquiritur: cetera pari modestia tractentur. Nemo Drusi lacrimas, nemo maestitiam meam spectet, nec si qua in nos adversa finguntur.'*

[I3] *Exim biduum criminibus obiciendis statuitur utque sex dierum spatio interiecto reus per triduum defenderetur. Tum Fulcinius vetera et inania orditur; ambitiose avareque habita Hispaniam; quod neque convictum noxae reo si recentia purgaret, neque defensum absolutioni erat si teneretur maioribus flagitiis. Post quem Servaeus et Veranius et Vitellius consimili studio et multa eloquentia Vitellius obiecere odio Germanici et rerum novarum studio Pisonem vulgus militum per licentiam et sociorum iniurias eo usque conrupisse ut parens legionum a deterrimis appellaretur; contra in optimum quemque, maxime in comites et amicos Germanici saevisse; postremo ipsum devotionibus et veneno pereuisse; sacra hinc et immolationes nefandas ipsius atque Plancinae, peritam armis rem publicam, utque reus agi posset, acie victim.*

[I4] *Defensio in ceteris trepidavit; nam neque ambitionem militarem neque provinciam pessimo cuique obnoxiam, ne contumelias quidem adversum imperatorem infitari poterat: solum veneni crimen visus est diluisse, quod ne accusatores quidem satis firmabant, in convivio Germanici, cum super eum Piso discumberet, infectos manibus eius cibos argentes. Quippe absurdum videbatur inter aliena servitia et tot adstantium visu, ipso Germanico coram, id ausum; offerebatque familiam reus et ministros in tormenta flagitabat. Sed iudices per diversa implacabiles erant, Caesar ob bellum provinciae inlatum, senatus numquam satis credito sine frau-*

baina salatuari ez diot eragozten bere errugabetasunaren aldeko zernahi agertzea, ezta, Germanikoren aldetik irainik izan bazen, berau errudun egitea ere; eta zuei erregutzen dizuet ez ditzazuela egozten zaizkion salaketak frogatutzat eman, auzia nire saminari lotuta dagoelako. Odol edo konfiantzazko lokarriek Pisoni defendatzailaak eman badizkiote, zeuen etoriaren eta fintasunaren arabera, lagundu arriskuan dagoenari. Lan berdinera, sendotasun berdinera deitzen diet salatzaleei. Pribilegio hauxe bakarrik emango diogu Germanikori: haren heriotzaren ikerketa kurian egin dadila, ez foroan; senatuaren aurrean, ez epaileen aurrean. Gainera-koan, neurritasun berak behar du. Ez begiratu inork Drusoren malkoei, inork nire tristurari, ez gutaz asma dezaketenari».

13. Egun bi ezartzen dira salaketak aurkezteko, eta, sei eguneko tartearen ondoren, erruztatuak beste hiru izan ditzala defentsarako. Orduan, Fultzino salapen zahar eta alferretan hasi zen: Hispainerian, anbizioz eta gutiziaz jokatu zuela; horrek, frogaturik ere, ez zuen erruztatuaren kondenarik ekarriko, bere burua oraintsuko salaketetatik justifikatzen bazuen, ez absolu-ziorik ekarriko, defendatza lortzen bazuen, baldin krimen handiagoak frogatzen bazitzaizkion. Gero, Serbeok, Beraniok eta Biteliok, antzeko garrez, eta Biteliok, etorri handiz, salatu zuten ezen, Germanikorenganako gorrotoz eta asmo nahastalez, soldadu multzoa, lasaikeria eta aliatuen irainak permitituz, hainbestean usteldu zuela, non txarrenek ‘legioen aita’ deitzen baitzieten; onenekin eta, batez ere, Germanikoren kide eta lagunekin, ostera, zitaldu egin zela; azkenean, malefizioz eta pozoiz akabatu zuela; gero, Pisonek eta Plantzinak errito eta sakrifizio higuingarriak egin zituztela; armekin errepublikari eraso ziola eta, justiziaren aurrera ekarriko bazuten, guduan menperatu behar izan zutela.

14. Gainerakoetan, defentsa loka ibili zen, ezin baitzuten haren soldaduekiko lazokeriarik, ez probintzia jenderik txarrenaren esku egon izanik ukatu, ezta buruzagiaren aukako laidorik ere. Pozoitze kargutik bakarrik eskulpatu zela zirudien, salatzaleek ere ezin izan baitzuten hori ganoraz oinarritu, argudiatur ezen, Pison aurrez zeukan Germanikoren oturuntza batean, janariak bere eskuz pozoitu zituela. Zentzugabea zirudien, izan ere, zerbitzari arrotzen artean eta hainbeste jenderen bistan, Germanikoren beraren aurpegian, hartara ausartu izana. Gainera, erruztatuak sendia eta zerbitzari haiiek eskaintzen zituen torturazko ikerketarako. Baino epai-leek errukigaitz jokatu zuten, zenbait arrazoiz: Zesarrek, probintzia bat

*de Germanicum interisse. \* \* scripsissent expostulantes, quod haud minus Tiberius quam Piso abnuere. Simul populi ante curiam voces audiebantur: non temperaturos manibus si patrum sententias evasisset. Effigiesque Pisonis traxerant in Gemonias ac divellebant, ni iussu principis protectae reposetaeque forent. Igitur inditus lecticae et a tribuno praetoriae cohortis deductus est vario rumore custos saluti an mortis exactor sequeretur.*

[15] *Eadem Plancinae invidia, maior gratia; eoque ambiguum habebatur quantum Caesari in eam liceret. Atque ipsa, donec mediae Pisoni spes, sociam se cuiuscumque fortunae et si ita ferret comitem exitii promittebat: ut secretis Augustae precibus veniam obtinuit, paulatim segregari a marito, dividere defensionem coepit. Quod reus postquam sibi exitiable intellegit, an adhuc experiretur dubitans, hortantibus filiis durat mentem senatumque rursum ingreditur; redintegrataque accusationem, infensas patrum voces, adversa et saeva cuncta perpessus, nullo magis exterritus est quam quod Tiberium sine miseratione, sine ira, obstinatum clausumque vidit, ne quo adfectu perrumperetur. Relatus domum, tamquam defensionem in posterum meditaretur; pauca conscribit obsignatque et liberto tradit; tum solita curando corpori exequitur. Dein multam post noctem, egressa cubiculo uxore, operiri foris iussit; et copta luce perfosso iugulo, iacente humi gladio, repertus est.*

[16] *Audire me memini ex senioribus visum saepius inter manus Pisonis libellum quem ipse non vulgaverit; sed amicos eius dictitavisse, litteras Tiberii et mandata in Germanicum contineri, ac destinatum promere apud patres principemque arguere, ni elusus a Seiano per vana promissa foret; nec illum sponte extinctum verum immisso percussore. Quorum neutrum adseveraverim: neque tamen occulere debui narratum ab iis qui nostram ad iuuentam duraverunt. Caesar flexo in maestitiam ore suam invidiam tali morte quaesitam apud senatum . . . Crebrisque interrogationibus exquirit qualem Piso diem supremum noctemque exegisset. Atque illo plera-*

gerrara eraman zutelako; senatuak, inoiz ez zuelako behar bestean sinistu Germaniko krimenik gabe hil zenik. (...) eskatuz idatziko zuten, baina hori Tiberiok ez zuen Pisonek baino gutxiago ukatu. Aldi berean, kuria aurrean, herriaren oihuak entzuten ziren, ez zirela esku-uzkur geldituko, senatuaren epaitik libratzen bazen. Ipsonen irudiak Gemonietara arrastatu zitzuten eta hantxe apurtuko zitzuten, printzearen aginduz babestuak eta birlekutuak izan ez balira. Beraz, literan ezarririk, pretoriar kohorteko tribuno batek eraman zuen, zurrumurru ezberdinez, hots, ea segurtzazain gisan ala heriotzaren erantzule gisan laguntzen ote zion.

15. Plantzinari gorroto berdina hartu zioten, nahiz eta grazia handiagoz; horregatik, dudazkoa zen Zesarrek noraino erasoko zion hari, Pisonek erdi-itxaropenik zeukan bitartean, edozein zoritan, haren lagun izatea eta, gauzak hala bazetozen, heriotzaino laguntza agintzen zuenari; baina, Augustaren isil erregeuekin, barkamena jadetsi zuenean, senarrarengandik astiro-astiro apartatzen eta defentsa bereizten hasi zen. Erruztua, hori bere hilbidetzat ulertu zuenean, eta ahaleginean jarraitu ala ez zalantzan, seme-alabek aholkaturik, gogoberritzen eta senatuan berriro aurkeztu zen, eta, salaketa berhastean, senatarien kontrako hitzak eta nondinahi zetorkion etsaigo zitala ikusirik, ezer ez zitzaison ikaragarriago egin, Tiberio, erruki gabe, sumin gabe, bere kautan setaturik ikustea baino, ezein emoziok eragiten ez ziola. Etxera berreramana izanik, defentsaren jarrai-pena pentsatzu bezala, zenbait lerro idatzi, zigilatu eta libertoari eman zion; orduan, ohi bezala, bere gorputza garbitu zuen. Gero, oso gau beranduan, emaztea logelatik irtenik, atea ixteko agindu zuen; eta, egunsentian, lepoa alderik alde ebakirik, ezpata lurrean zetzala aurkitu zuten.

16. Gogoan dut zaharrenei entzun izana, Pisonen eskuetan maiz ikusi zutela libelo bat, berak argitaratu ez zuena, baina, bere lagunek behin eta berriro ziotenez, Tiberioren gutuna eta Germanikoren aurkako aginduak ei zeuzkana, eta senatariei aurkeztekotan eta printzea inkulpatzekotan egon zela, Seianok gezurrezko promesaz engainatu ez balu. Halaber, zioten ez zuela bere burua hil, hiltzailea bidali ziotela baizik. Ez nuke ez bata ez bestea ziurtatuko, baina ez nuke izkutatu behar gure gaztarora arte bizi izan zirenek zer kontatu zidaten ere. Zesar, tristura aurpegiz, senatuan [kexatu zen] heriotza harekin beraganako hegigoa bilatu zutela; [Marko Pison deiarazten du] eta, galdeketa zorrotzean, Pisonen azken eguna eta gaua nolakoak izan ziren ikertzen du. Hark, zuhurtzia

*que sapienter quaedam inconsultius respondente, recitat codicillos a Pisone in hunc ferme modum compositos: ‘conspiratione inimicorum et invidia falsi criminis oppressus, quatenus veritati et innocentiae meae nusquam locus est, deos inmortalis testor vixisse me, Caesar; cum fide adversum te neque alia in matrem tuam pietate; vosque oro liberis meis consulatis, ex quibus Cn. Piso qualicumque fortunae meae non est adiunctus, cum omne hoc tempus in urbe egerit, M. Piso repetere Syriam dehortatus est. Atque utinam ego potius filio iuveni quam ille patri seni cessisset. Eo impensius precor ne meae pravitatis poenas innoxius luat. Per quinque et quadraginta annorum obsequium, per collegium consulatus quondam divo Augusto parenti tuo probatus et tibi amicus nec quicquam post haec rogaturus salutem infelcis filii rogo.’ de Plancina nihil addidit.*

[17] Post quae Tiberius adolescentem crimine civilis belli purgavit, patris quippe iussa nec potuisse filium detrectare, simul nobilitatem domus, etiam ipsius quoquo modo meriti gravem cacum miseratus. Pro Plancina cum pudore et flagitio disseruit, matris preces obtendens, in quam optimi cuiusque secreti questus magis ardescebant. Id ergo fas aviae interfectricem nepotis adspicere, adloqui, eripere senatui. Quod pro omnibus civibus leges obtineant uni Germanico non contigisse. Vitellii et Veranii voce defletum Caesarem, ab imperatore et Augusta defensam Plancinam. Proinde venena et artes tam feliciter expertas verteret in Agrippinam, in liberos eius, egregiamque aviam ac patrum sanguine miserrimae domus exsatiaret. Biduum super hac imagine cognitionis absumptum urgente Tiberio liberos Pisonis matrem uti tuerentur. Et cum accusatores ac testes certatim perorarent respondentे nullo, miseratio quam invidia augebatur. Primus sententiam rogatus Aurelius Cotta consul (nam referente Caesare magistratus eo etiam munere fungebantur) nomen Pisonis radendum fastis censuit, partem bonorum publicandam, pars ut Cn. Pisoni filio concederetur isque praenomen mutaret; M. Piso exuta dignitate et accepto quinquagies sestertio in decem annos relegaretur, concessa Plancinae incolumitate ob preces Augustae.

orokorrez, zenbait gauza gordinki azaldu ondoren, Pisonen memoria irakurtzen dio, gutxi gorabehera, honakoak jartzen zituen: «Neure etsaien konspirazioak eta salaketa faltsutik harako gorrotoak zanpaturik, nire egiak eta errugabetasunak zereginik ez daukatenez gero, jainko hilezkorra lekuko jartzen ditut bizi guztian, Zesar, leial izan natzaizula, eta zure amaganako pietatea ere halakoxea izan dela; eta nire semeak zaintzeko erregutzen dizut, zeintuetarik Gneo Pison ez den ezertan ere nire zorira bildu, aldi honetan guztian hirian egon izan baita, eta Marko Pisonenek Siriara itzultzea desaholkuat baitzidan. Hobe seme gazteari jaramon egin banio, hark aita zaharrari barik! Horregatik, zinkago eskatzen dut ez dezala nire okerraren zigorrik ordain, errugabea baita. Neure berrogeita bost urteko mentasunagatik, kontsulkidetasunagatik, behinola zure aita Augusto jainkozkoaren kutun eta zure adiskide izan naizen aldetik, eta honez besterik gehiago eskatuko ez dizudanez, neure seme dohakabearen salbamena eskatzen dizut». Plantzinaz ez zuen ezer gaineratu.

17. Horren ondoren, Tiberiok mutila gerra zibila eragitearen salaketatik libratu zuen: aitaren aginduak izan ziren, semeak entzungor ezin egitekoak; aldi berean, pietatez mintzatu zen etxe haren nobletasunaz eta Pisonen zori dohakabeaz, merezia bazuen ere. Plantzinaren alde lotsaz eta lotsarazteko moduan hitz egin zuen, amaren erreguak agertuz, zeinaren aurka gizonik onenen kexa sekretuak indartsuen pizten ziren: amamak zilegi zuen, beraz, senatuari aurrez aurre begiratu, hitz egin eta bilobaren hiltzalea eskuetatik kentzea. Legeek hiritar guztiei segurtatzen ziena Germanikori bakarrik falta izan zitzaison. Biteriok eta Beraniok garraisika negar egin zioten buruzagiari, enperadoreak eta Augustak, ostera, Plantzina defendatu zuten. Orain besterik ez zuen behar bere pozoitzaile-arte hain arrakastaz probatua Agripina eta seme-alabengana berdin bihurtzea baino, eta amama eta osaba hain etxe dohakabe haren odolez asetzea. Oraindik beste pare bat egun joan ziren epaketa itxura honetan, Tiberiok Pisonen semeei ama zaintzeko ekiten zien bitartean. Eta, salatzaleak eta lekuoko inork erantzuteke mintzo ziren bitartean, errukia gorrotoa baino gehiago handitzen zen. Aurrenen boza eskatu zitzaison Aurelio Kota kontsulak (Zesar mintzo zenean ere, magistratuak bozkatzen baitziren) proposatu zuen Pisonen izena fastuetatik ezabatzea, ondasunen parte bat konfiskatu eta beste bat Gneo Pison semeari ematea, eta honek izena aldatzea; Marko Pisoni dignitatea kentzea eta, bost milioi sestertzio harturik, hamar urtean, baztertua izan zedila; Plantzina Augustaren erreguengatik salba zedila.

[18] *Multa ex ea sententia mitigata sunt a principe: ne nomen Pisonis fastis eximeretur, quando M. Antonii quid bellum patriae fecisset, Iulli Antonii qui domum Augusti vio-  
lasset, manerent. Et M. Pisonem ignominiae exemit conces-  
sitque ei paterna bona, satis firmus, ut saepe memoravi,  
adversum pecuniam et tum pudore absolutae Plancinae pla-  
cabilior. Atque idem, cum Valerius Messalinus signum  
aureum in aede Martis Vtoris, Caecina Severus aram ultio-  
ni statuendam censuissent, prohibuit, ob externas ea victo-  
rias sacrari dictitans, domestica mala tristitia operienda.  
Addiderat Messalinus Tiberio et Augustae et Antoniae et  
Agrippinae Drusoque ob vindictam Germanici gratis agen-  
das omiseratque Claudii mentionem. Et Messalinum quidem  
L. Asprenas senatu coram ercontatus est an prudens praete-  
risset; ac tum demum nomen Claudii adscriptum est. Mihi  
quanto plura recentium seu veterum revollo tanto magis  
ludibria rerum mortalium cunctis in negotiis obversantur:  
Quippe fama spe veneratione potius omnes destinabantur  
imperio quam quem futurum principem fortuna in occulto  
tenebat.*

[19] *Paucis post diebus Caesar auctor senati fuit Vitellio  
atque Veranio et Servaeo sacerdotia tribuendi: Fulcinio suf-  
fragium ad honores pollicitus monuit ne facundiam violentia  
praecipitaret. Is finis fuit ulciscenda Germanici morte, non  
modo apud illos homines qui tum agebant etiam securis tem-  
poribus vario rumore iactata. Adeo maxima quaeque ambi-  
guia sunt, dum alii quoquo modo audita pro compertis  
habent, alii vera in contrarium vertunt, et gliscit utrumque  
posteritate. At Drusus urbe egressus repetendis auspiciis mox  
ovans introiit. Paucosque post dies Vipsania mater eius  
excessit, una omnium Agrippae liberorum miti obitu: nam  
ceteros manifestum ferro vel creditum est veneno aut fame  
extinctos.*

[20] *Eodem anno Tacfarinas, quem priore aestate pulsum a  
Camillo memoravi, bellum in Africa renovat, vagis primum  
populationibus et ob pernicitatem in multis, dein vicis excinde-*

18. Printzeak hauetariko asko bigundu egin zituen: Pisonen izenik ez zen fastuetatik ezabatu behar, zeren aberriaren aurka gerra egin zuen Marko Antoniorenak eta Augustoren etxea desohoratu zuen Julio Antoniorenak ere hantxe baitzirauten. Eta Pison ignominiatik libratu eta aitaren ondasunak eman zizkion, diru kontuan, maiz esan dudanez, soraio samarra baitzen eta, hartan, bihozkorrago ageri baitzen, Plantzianari barkatzearen lotsagatik. Areago, Balerio Mesalinok Martitz Mendekatzailearen tenpluan urrezko estatua, eta Zezina Seberok Mende-kuari aldarea eraikitza proposatu zutenean, aurka egin zuen, behin eta berriro esanez halako eskaintzak kanpoan lortutako garaipenengatik egiten zirela eta etxeko ezbeharrak tristuraz estali behar zirela. Mesalinok Tiberio, Augusta, Antonia, Agripinia eta Drusori esker-ematea gehitu zuen, Klaudioren aipua omitituz. Orduan, Luzio Asprenatek, senatu guztiaren aurrean, Mesalinori galdezu zion ea omisioa nahita izan zen; orduantxe bakarrik erantsi zen Klaudioren izena. Zenbat eta oraintsuko eta antzinako kontuei gehiago eragin, hainbat argiago aurkitzen dut nahikeria giza gorabehera guztieta dabilela. Izan ere, ospez, itxaropenez, begirunez, edonork zirudien aginterako egokiago, zoriak geroko printzetzat isilean zeukan hora baino.

19. Handik egun gutxitara, Zesarrek senatuari proposatu zion Vitelio, Beranio eta Serbeori abadetzak ematea; Fultziniroi, ohoretarako hau-teskundeak babesak agindurik, ohar egin zion ez zezala elokuentzia gogokeriaz honda. Halaxe amaitu zen Germanikoren heriotzaren mendekua, orduan bizi ziren gizonen artean ez ezik, ondorengo garaietan ere, aurkako berbagai izan zena. Izan ere, gertaerarik handienak berdin anbiguo bilakatzen dira, batzuek nolanahi entzuna gauza egiaztatutzat ematen, eta beste batzuek egia gezur bihurtzen dutelako; eta, denborarekin, jokaera biak indartzen dira. Horretan, Druso hiritik irten zen, auspicioak berriko hartzeko, eta txalo artean sartu zen berehala. Handik egun gutxitara, ama Bipsania hil zitzzion, bakez hil zen Agriparen ume bakarra, besteak nabariki ezpataz edo, ustez, pozoiz edo gosez hil baitziren.

20. Urte berean, Takfarinatek, aurreko udan Kamilok hautsi zuela konstatua dudanak, gerra berritzen du Afrikan, lehenik, ustekabeagatik zigor gabe gelditu ziren noizean behingo arpilaketen, gero herriak suntsituz eta harrapakin ugari jasoz; azkenik, Pagida ibaitik ez urrun,

*re, trahere gravis praedas; postremo haud procul Pagyda flumine cohortem Romanam circumsedit. Praeerat castello Decrius impiger manu, exercitus militia et illam obsidionem flagitiis ratus. Is cohortatus milites, ut copiam pugnae in aper-to faceret aciem pro castris instruit. Primoque impetu pulsa cohorte promptus inter tela occursat fugientibus, increpat signiferos quod inconditis aut desertoribus miles Romanus terga daret; simul exceptat vulnera et quamquam transfosso oculo adversum os in hostem intendit neque proelium omisit donec desertus suis caderet.*

[21] *Quae postquam L. Apronio (nam Camillo successerat) comperta, magis dedecore suorum quam gloria hostis anxius, raro ea tempestate et e vetere memoria facinore decumum quemque ignominiosae cohortis sorte ductos fusti necat. Tantumque severitate profectum ut vexillum veterano-rum, non amplius quingenti numero, easdem Tacfarinatis copias praesidium cui Thala nomen adgressas fuderint. Quo proelio Rufus Helvius gregarius miles servati civis decus rettulit donatusque est ab Apronio torquibus et hasta. Caesar addidit civicam coronam, quod non eam quoque Apronius iure proconsulis tribuisset questus magis quam offensus. Sed Tacfarinas perculsis Numidis et obsidia aspernantibus spar-git bellum, ubi instaretur cedens ac rursum in terga remeans. Et dum ea ratio barbaro fuit, inritum fessumque Romanum impune ludificabatur: postquam deflexit ad maritimos locos, inligatus praeda stativis castris adhaerebat, missu patris Apronius Caesianus cum equite et cohortibus auxiliariis, quis velocissimos legionum addiderat, prosperam adversum Numidas pugnam facit pellitque in deserta.*

[22] *At Romae Lepida, cui super Aemiliorum decus L. Sulla et Cn. Pompeius proavi erant, desertur simulavisse partum ex P. Quirinio divite atque orbo. Adiciebantur adulteria venena quae situmque per Chaldaeos in domum Caesaris, defendente ream Manio Lepido fratre. Quirinius post dictum repudium ad huc infensus quamvis infami ac nocenti miserationem addiderat. Haud facile quis dispicerit illa in cognitione men-*

erromatar kohorte bat inguratuzuen. Gotorlekua Dekrioren menpean zegoen, gudulari nekagaitza eta milizian zaildua bera, setio hura lotsagarritzat jotzen zuena. Soldaduak harengaturik, tropa gotorleku aurrean hedatzentzu, leku irekian gudukatzeko. Kohortea lehen erasoan hautsia izan zen; berak, jaurtigaien artean, ihestulariei bidea mozten die, banderadunei agiraka eginez, erromatar soldaduek desertore desantolatu batzuei bizkar emateagatik. Bitartean, zauriak hartu zituen eta, begi bat husturik ere, etsaiari aurpegi ematen jarraitu zien eta ez zion borrotzeari utzi, bereek abandonaturik jausi arte.

21. Kamiloren ondorengo izan zen Luzio Aproniok, horren berri jakin zuenean, etsaiaren aintzaz baino, bereen desohoreaz penatuago, garai hartan arraroa zen eta antzinatea gogoratzen zuen praktikara jo zuen: kohorte lotsagarriko hamarretik bat, zotzaren arabera, makilaka hiltzen du. Zorroztasunak hain ondorio handia eragin zuen, ezen bostehundik gora ez ziren beteranoen bandera batek suntsitu baitzituen Tala izeneko gotorleku bati eraso zioten Takfarinateren tropak. Gudu hartan, Rufo Helbio izeneko soldadu soil batek hiritar bat salbatzeko ohorea izan zuen eta Aproniok besokoz eta lantzaz saritu zuen; Zesarrek koroa zibikoa gehitu zuen, kexaz, nahiz eta ez haserrez, Aproniok hura eman ez ziolako, prokonsul eskubidearen arabera. Bainan Takfarinate, numidak puskaturik eta setioei ekiteko gogo gabe zeudenez, dispersio gerran hasten da, estutzen zutenean, atzeraka, eta berriro atzealdeei erasoz. Eta, barbaroak taktika hari eutsi zion bitartean, erromatar ahalgabe eta nekatuaz inpuneki isekatzen zen; baina, itsas inguruetara jorik eta harrapakinari loturik, kanpamendu egonkorretan kokatu zenean, Apronio Zesianok, aitak zaldiekin eta kohorte laguntzaileekin bidali zuenak, zeintzuei legiorik bizkorrenak gehitu behar zitzaiakien, gudu emankorra egin zuen numiden aurka, eta mortuetarantz uxatu zituen.

22. Bainan, Erroman, Lepida, Emiliotarren aintza beragan eramateaz gainera, Luzio Sila eta Gneo Ponpeio birraifita zituena, salatua izan zen, Publio Kirinio gizon aberats eta ondorengabearen umea izatea simulatzearen; adulterio, pozoitze eta espekulazio karguak ere baziren, azti kaldearen bitarte, Zesarren etxearen aurka; erruztatua neba Manimo Lepidok defendatzen zuen. Kiriniok, zapuztu ondoren, gogorki jazartzen zuen, horrek, zenik doilorren eta errudunen zela ere, errukia eragiten zuela. Ez da erraza auzi hartan printzeak zer pentsatzen

*tem principis: adeo vertit ac miscuit irae et clementiae signa. Deprecatus primo senatum ne maiestatis crimina tractarentur; mox M. Servilium e consularibus aliosque testis inlexit ad proferenda quae velut reicere voluerat. Idemque servos Lepidae, cum militari custodia haberentur, transtulit ad consules neque per tormenta interrogari passus est de iis quae ad domum suam pertinherent. Exemit etiam Drusum consulem designatum dicendae primo loco sententiae; quod alii civile rebantur, ne ceteris adsentiendi necessitas fieret, quidam ad saevitiam trahebant: neque enim cessurum nisi damnandi officio.*

[23] *Lepida ludorum diebus qui cognitionem intervenerant theatrum cum claris feminis ingressa, lamentatione flebili maiores suos ciens ipsumque Pompeium, cuius ea monimenta et adstantes imagines visebantur, tantum misericordiae permovit ut effusi in lacrimas saeva et detestanda Quirinio clamitarent, cuius senectae atque orbitati et obscurissimae domui destinata quondam uxor L. Caesari ac divo Augusto nurus dederetur. Dein tormentis servorum patefacta sunt flagitia itumque in sententiam Rubelli Blandi a quo aqua atque igni arcebatur. Huic Drusus adsensit quamquam alii mitius censuissent. Mox Scauro, qui filiam ex ea genuerat, datum ne bona publicarentur: Tum demum aperuit Tiberius compertum sibi etiam ex P. Quirinii servis veneno eum a Lepida petitum.*

[24] *Inlustrium domuum adversa (etenim haud multum distanti tempore Calpurnii Pisonem, Aemilii Lepidam amiserant) solacio adfecit D. Silanus Iuniae familiae redditus. Casum eius paucis repetam. Ut valida divo Augusto in rem publicam fortuna ita domi improspera fuit ob impudicitiam filiae ac neptis quas urbe depulit, adulterosque earum morte aut fuga punivit. Nam culpam inter viros ac feminas vulgatam gravi nomine laesarum religionum ac violatae maiestatis appellando clementiam maiorum suasque ipse leges egrediebatur. Sed aliorum exitus simul cetera illius aetatis memorabo si effectis in quae tetendi plures ad curas vitam produxero. D. Silanus in nepti Augusti adulter; quamquam non*

zuen igartza: hainbesteraino aldatu eta nahastu baitzituen haserre eta onberatasun seinaleak. Lehenik, senatuari eskatu zion ez aztertzeko maiestate salaketak, baina, gero, Marko Serbilio, konsularretariko bat, eta beste lekuko batzuk, berak ukatzeko planta egin zuena bistaratzen bultzatu zituen. Gainera, zaintza militarpean zeuden Tepidaren esklaboak konsulei transferitu zizkien, eta ez zuen utzi tormentupean galdeituak izan zitezen bere etxeari zegozkion kontuetan. Areago, konsul izendatua zen Druso boza aurrenen ematetik libratu zuen; hau batzuek zer zibiltzat jotzen zuten, gainerakoak harena baieztu beharrean aurki ez zitezen, baina beste batzuek ankerkeriatzat hartzen zuten: ez baitzuen eskubide hura utzi izango, kondenatzeko ez bazeen.

23. Lepida, epaijeta eten zuten joko egunetan, andere gurenez inguratik agertu zen antzokian; auhen erdiragarriz, bere aurrekoetan eta Ponpeiori berari erreguka hasi zen, hark eraikitako monumentua eta inguruiko haren irudien aurrean, eta halako gupida eragin zuen, ezen jendeak negarrari ematen baitzion, Kirinioren aukako gorroto eta biraozko oihuekin, zeinaren zahartzaro umegabe eta etxe txit ilunera destinatua izan baitzen, behinola, Luzio Zesarren emazte eta Augusto Jainkozkoaren erraintzat emateko ei zegoena. Gero, esklaboen tormentuz, krimenak bistaratzen ziren, eta Rubelio Blandoren proposamena onartu zen, ur eta su gabe uztea, alegia. Druso bat etorri zitzaitz, beste batzuek proposamen bigunagoak jaulki zitzuzten baina. Gero, harekin alaba bat izan zuen Eskauroren begirunez, ondasunik ez konfiskatzera makurtu ziren. Tibériok orduantxe bakarrik agertu zuen nola egiaztatu zuen, hau ere Publio Kirinioren esklaboen bitartez, Lepida senarra pozoitzen sainatu zela.

24. Etxe ospetsuen ezbeharrek (denbora ez luzean, Kalpurniotarrek Pison eta Emiliotarrek Lepida galdu baitzuten) ordaina jaso zuten, Dezimo Silano Junia sendira bihurtzeaz. Hona kasua, laburki kontatua. Augusto Jainkozkoak errepublika kontuetan zori oparoa izan bazuen ere, etxekoa aldrebesa izan zuen, alabaren eta alabatxiaren lotsagaberria bide, zeintzuak hiritik egotzi zituen, maitaleak heriotzaz edo erbestez zigorturik; zeren, gizon eta emakume arteko erru hain ohikoari sakrilegio eta maiestate-haustearen izen larria emanik, aurrekoen bihozberatasun mugetatik eta bere legeetatik ere irteten baitzen. Baino bestean azkena aldi hartako gertaerekin batera kontatuko dut, baldin, pentsatutako lana amaiturik, beste asmo batzuetarako bizirik geratzen

*ultra foret saevitum quam ut amicitia Caesaris Tiberio imperitante deprecari senatum ac principem ausus est M. Silani fratriis potentia, qui per insignem nobilitatem et eloquentiam praecellebat. Sed Tiberius gratis agenti Silano patribus coram respondit se quoque laetari quod frater eius e peregrinatione longinqua revertisset, idque iure licitum quia non senatus consulto non lege pulsus foret: sibi tamen adversus eum integras parentis sui offensiones neque reditu Silani dissoluta quae Augustus voluissest. Fuit posthac in urbe eque honores adeptus est.*

[25] *Relatum dein de moderanda Papia Poppaea, quam senior Augustus post Iulias rogationes incitandis caelibum poenis et augendo aerario sanxerat. Nec ideo coniugia et educationes liberum frequentabantur praevalida orbitate: ceterum multitudo periclitantium gliscebat, cum omnis domus delatorum interpretationibus subverteretur; utque antehac flagitiis ita tunc legibus laborabatur. Ea res admonet ut de principiis iuris et quibus modis ad hanc multitudinem infinitam ac varietatem legum perventum sit altius disseram.*

[26] *Vetustissimi mortalium, nulla adhuc mala libidine, sine probro, scelere eoque sine poena aut coercitionibus agebant. Neque praemiis opus erat cum honesta suopte ingenio peterentur; et ubi nihil contra morem cuperent, nihil per metum vetabantur. At postquam exui aequalitas et pro modestia ac pudore ambitio et vis incedebat, provenere dominationes multosque apud populos aeternum mansere. Quidam statim aut postquam regum pertaesum leges maluerunt. Hae primo rudibus hominum animis simplices erant; maximeque fama celebravit Cretensium, quas Minos, Spartanorum, quas Lycurgus, ac mox Atheniensibus quaesitiones iam et plures Solo perscripsit. Nobis Romulus ut libitum imperitaverat: dein Numa religionibus et divino iure populum devinxit, repertaque quaedam a Tullo et Anco. Sed praecepius Servius Tullius sanctor legum fuit quis etiam reges obtemperarent.*

bazait. Augustoren alabatxiarekin adulterioa burutu zuen Dezimo Silanok, Zesarren adiskidantzatik apartatua izateaz beste jazarpenik izan ez bazuen ere, atzerri bidea erakusten zitzaiola ulertu zuen, eta Tiberioren agintean bakarrik ausartu zen senatuari eta printzeari barkakortasuna eskatzen, bere anaia Marko Silanoren babespean, zeina noblezia gurenez eta etorriz nabarmenzen zen. Silanok eskerrak eman zizkionean, Tiberiok, senatuaren aurrean, erantzun zuen bera ere pozten zela haren anaia bidaia luzetik itzuli zelako, eta hori, legez, guztiz zilegia zela, ez baitzen ez senatuaren aginduz, ez inolako legez egotzia izan; baina, Silanorekiko, bere aitaren errezero berean jarraitzen zuela eta ez zela, Silano itzulita, Augustok nahi izan zuena ezerezan gelditzen. Aurreantzean, hirian egon zen, baina ohorerik eskuratu gabe.

25. Gero, Papia Poppea legea biguntzeko mozioa aurkezu zen, Augustok zahartzaroan berretsi zuena bera, juliar legeen ondoren, ezkongabeen isunak handitu eta erarioa gehitzeko. Baina horrek ez zuen ezkontzak, ez hazten zen haur kopurua gehitzerik ekarri, ondorengorik ezak jarraituz; bai gehitzen zen arriskuan zeuden kopurua, etxe guztiak baitzeuden salatzailen trikimainek astindurik, eta, lehen eskandaluentzatik bezala, orain legeengatik sufritzen zen. Gai honek zuzenbide principioak apur bat xehekiago jorratzera narama, eta nola iritsi ziren legeen kopuru infinitu eta aniztasun honetara.

26. Hilkorrik antzinakoak, artean inolako grina gaiztorik ez zela, desohore gabe, krimen gabe, eta, beraz, zigorrik eta hertsapenik gabe bizi ziren. Saririk ere ez zen behar, ongia berezko joeraz bilatzen baitzuten; eta, ohituraz kontrakorik desiratzen ez zutenez, ez zitzaien beldurrez ezer debekatu behar. Baina, berdintasuna arroztu eta, neurriaren eta lotsaren ordez, azpikeria eta indarra piztu zirenean, menperakuntzak sortu ziren, herri askotan betiko bihurtu zirenak. Batzuek, berehalaxe edo erregeei muzin egin ondoren, legeak hobetsi zituzten. Hauek, lehenengotan, xumeak ziren, gizaki haien izate koekorren araberakoak. Entzuteak bereziki ospetsu egin ditu Kretako legeak, Minosek idatziak, Espartakoak, Likurgok idatziak, eta gero Atenaskoak, landuagoak eta ugariagoak, Solonek idatziak. Gure herrian, Romulok libreki agindu zuen; gero, Numak erlijioz eta Jainko zuzenbidez lotu zuen herria, horiei Tulok eta Ankok pentsuak erantsirik. Baina legeen egile nagusia Serbio Tulio izan zen, haietara erregeek ere makurtu behar zutela.

gorderiko oinazeak ere ez lituzke nahikoa. Bainan, eskandaluek eta hobenek mugarik ez badute, oinazeak eta erremedioak printzearen moderazioak eta aurrekoen eta zeuen etsenpluak biguntzen ditu; hutsalikeriak krimenen ezberdin dira, hitzak gaiztakerien, eta izan liteke epai bat, ez hobena zigor gabe ez gelditzekoa, ez gu aldi bereko bihozberatasun eta zorroztasunaz ez damutzekoa. Gure printza maiz entzun dut kexatzen, norbaitek, heriotza bere esku harturik, haren errukiari aurrea hartu ziola-ko. Klutorioren bizia oraindik osorik dago; ez barkaturik arrisku izango da errepublikarentzat, ez hilik balioko du esenplutzat. Haren lanak zen-tzungabekeriaz adina banitatez eta hutsalkeriaz beterik daude, baina ez dago ezer larri ez serioren beldurrik, bere krimenak berak salatzen eta, ez gizonen gogoak, baizik andretxo batzuk bereganatu nahi dituenarengan-dik. Alden bedi, bai, hiritik eta, ondasunak galdurik, ken bekizkio ur-suak. Hauxe proposatzen dut, maiestate legearen errudun bailitzan».

51. Rubelio Blando kontsul ohiak bakarrik alde egin zion Lepidori; besteek Agriparen proposamenari jarraitu zioten eta Prisko espoxera eraman eta berehala hil zuten. Tiberiok hori bere ohiko anbiguotasunez gaitzetsi zuen senatuan. Printzearenaganako irainak, txikiak izan arren, gogor zigortzen dituztenen pietatea goraldu zuen, baina deitoratu zuen hitz batzuen zigor hain presazkoa; Lepido goretsi zuen, baina Agripari eraso gabe. Beraz, senatuaren dekretu bat eman zen, gurasoen erabakiak ez zitezen erariora eraman hamar egun geroago arte, eta kondena-tuen bizia hainbestean luza zedin. Bainan ez senatuak zeukan damutze-ko askatasunik, ez Tiberio biguntzen zen, epea igaro ahala.

52. Gaio Sulpizio eta Dezimo Haterioren kontsulaldiak jarraitzen du. Kanpo-arazoetan urte ez nahasia izanik, etxeak neurri zorrotzen beldurra ekarri zuen, era guztiak diru-eralketek puzturiko luxuaren aurka. Beste gastu handiagoak, ostera, ezkutatu egiten ziren, gezur-prezioen azpian; baina etengabeko solasetan zabaltzen ziren jan eta jai kontu handiek beldurra eragin zuten, printzeak, lehengo doitasunaren zaleak, gogorragora joko ez ote zuen. Izan ere, Gaio Bibulo hasita, beste edil guztiekin ere aitortu zuten luxu legeari albo egiten zitzaiola eta, debeku eta guzti ere, jangaien prezioak egunetik egunera gora zihozuela, eta hori ez zegoela erremedio txapelekin gelditzerik. Gurasoei kontsultatu-rik, hauek auzia printzeari bidali zioten osorik. Bainan Tiberiok, baka-rean behin eta berriz gogoeta egin ondoren, hain grina zabalduak estu-

*coercitio plus damni in rem publicam ferret, quam indecorum adtrectare quod non obtineret vel retentum ignominiam et infamiam virorum inlustrium posceret, postremo litteras ad senatum composuit quarum sententia in hunc modum fuit.*

[53] ‘Ceteris forsitan in rebus, patres conscripti, magis expedit me coram interrogari et dicere quid e re publica censem: in hac relatione subtrahi oculos meos melius fuit, ne, denotantibus vobis ora ac metum singulorum qui pudendi luxus arguerentur, ipse etiam viderem eos ac velut deprendarem. Quod si mecum ante viri strenui, aediles, consilium habuissent, nescio an suasurus fuerim omittere potius praevalida et adulta vitia quam hoc adsequi, ut palam fieret quibus flagitiis impares essemus. Sed illi quidem officio functi sunt, ut ceteros quoque magistratus sua munia implere velim: mihi autem neque honestum silere neque proloqui expeditum, quia non aedilis aut praetoris aut consulis partis sustineo. Maius aliquid et excelsius a principe postulatur; et cum recte factorum sibi quisque gratiam trahant, unius invidia ab omnibus peccatur. Quid enim primum prohibere et priscum ad morem recidere adgrediar? villarumne infinita spatia? familiarum numerum et nationes? argenti et auri pondus? aeris tabularumque miracula? promiscas viris et feminis vestis atque illa seminarum propria, quis lapidum causa pecuniae nostrae ad externas aut hostilis gentis transferuntur?’

[54] ‘Nec ignoro in conviviis et circulis incusari ista et modum posci: set si quis legem sanciat, poenas indicat, idem illi civitatem verti, splendidissimo cuique exitium parari, neminem criminis expertem clamitabunt. Atqui ne corporis quidem morbos veteres et diu auctos nisi per dura et aspera coerceas: corruptus simul et corruptor, aeger et flagrans animus haud levioribus remediis restinguendus est quam libidinibus ardescit. Tot a maioribus repertae leges, tot quas divus Augustus tulit, illae oblivione, hae, quod flagitosius est, contemptu abolitae securiorem luxum fecere. Nam si velis quod nondum vetitum est, timeas ne vetere: at si prohibita impune transcenderis, neque metus ultra neque pudor est. Cur ergo

terik izango ote zen, estutzeak errepublikari oker handiagoa ekarriko ez ote zion, zer lotsagarri izango zen lortuko ez zena intentatzea edo, lorturik ere, gizon ospetsuen laidoa eta desohorea eragitea, azkenean, senatuari gutun bat idatzi zion, honela zioena:

53. «Beharbada, gainerako gauzetan, guraso konskriptuok, egokiago litzateke neuri agerian galdetzea eta neuk esatea errepublikaren onera-ko zer uste dudan, baina, auzi honetan, hobe izan dut begiak alboratzea, gerta ez zedin ezen, luxu lotsagarriaz salaturiko bakoitzaren aurpegiko beldurra zuek nabarmenzean, neuk ere ikus eta, nolabait, atzeman nitzan. Eta edilek, gizon sendo horiek, aurretiaz aholkua eskatu balida-te, ez dakit bizio indartsu eta errotuok ahanztea ez ote nien iradokiko, eskandalu hauentzat indargabeak garela agerian utzi aurretik. Haien, ostera, euren egitekoa egin dute, beste magistratu guztiak euren zeregina-nak betetzea nahi nukeen moduan. Bainan nire ez zait, ez isiltzea jator, ez iriztea bidezko iruditzen, ez baitaukat ez edil, ez pretore, ez kontsul zereginik. Printzeari zer handiagoa eta bikainagoa eskatu behar zaio, eta, bakoitzak, ondo eginetik, bere aintza ateratzen badu, denek oker egin dezakete, baina gorrota harentzat bakarrik da. Zer da, bada, lehenen debekatu eta lehengo ohiturara itzularazi behar dudana? Villen zabalera amaigabeak? Esklaboen kopurua eta nazioak? Zilar eta urre kopuruak? Brontze eta koadro miragarriak? Gizonen eta emakumeen soineko komunak, eta emakumeen bereziak, zeintzuen bitartez, harribitxitan, gure diruak herri arrotz edo etsaiengana doazen?

54. Ez nago ezjakinean, oturuntza eta bileretan, gehiegikeriok salatzen direna eta neurria eskatzen dena; baina, norbaitek legea ateratzen eta zigorak ezartzen baditu, haien eurek hots egingo dute hiria nahasten dela, hiritarrik distiratsuenen galera prestatzen dela, inor ez dagoela errutik guztiz libre. Eta, hala ere, gorputzeko gaixotasun zahar eta kroniko bihurtuak ere gelditzerik ez dago, gogorrez eta latzez besterik; gogo era batera ustel eta usteltzaile, gori eta goritzalea ezin da sendatu hura kiskaltzen duten baino erremedio bigunagoz. Aurrekoek asma-tu zuten hainbeste legetarik, Augusto Jainkozkoak egin zuen hainbeste-tarik, haien ahanzturak eta hauek, are doilorrago, arbuaioak abolitu ditu, luxua segurrago bihurturik. Zeren, oraindik debekatzeko dagoena nahi baduzu, debeka dezaten beldur zara; baina debekuak inpuneki hausten baditzu, ez zaizu beldurrik, ez lotsarik gelditzen. Zergatik zen, bada,

*olim parsimonia pollebat? quia sibi quisque moderabatur; quia unius urbis cives eramus; ne inritamenta quidem eadem intra Italianam dominantibus. Externis victoriis aliena, civili bus etiam nostra consumere didicimus. Quantulum istud est de quo aediles admonent! quam, si cetera respicias, in levi habendum! at hercule nemo refert quod Italia externae opis indiget, quod vita populi Romani per incerta maris et tempestatum cotidie volvitur. Ac nisi provinciarum copiae et dominis et servitiis et agris subvenerint, nostra nos scilicet nemora nostraeque villae tuebuntur. Hanc, patres conscripti, curam sustinet princeps; haec omissa funditus rem publicam trahet. Reliquis intra animum medendum est: nos pudor, pauperes necessitas, divites satias in melius mutet. Aut si quis ex magistratibus tantam industriam ac severitatem pollicetur ut ire obviam queat, hunc ego et laudo et exonerari laborum meorum partem fateor: sin accusare vitia volunt, dein, cum gloriam eius rei adepti sunt, simultates faciunt ac mihi relinquunt, credite, patres conscripti, me quoque non esse offenditionum avidum; quas cum gravis et plerumque iniquas pro re publica suscipiam, inanis et inritis neque mihi aut vobis usui futuras iure deprecor.'*

[55] *Auditis Caesaris litteris remissa aedilibus talis cura; luxusque mensae a fine Actiaci belli ad ea arma quis Servius Galba rerum adeptus est per annos centum profusis sumptibus exerciti paulatim exolevere. Causas eius mutationis querere libet. Dites olim familiae nobilium aut claritudine insignes studio magnificentiae prolabeantur. Nam etiam tum plebem socios regna colere et coli licitum; ut quisque opibus domo paratu speciosus per nomen et clientelas inlustrior habebatur. Postquam caedibus saevitum et magnitudo famae exitio erat, ceteri ad sapientiora convertere. Simul novi homines e municipiis et coloniis atque etiam provinciis in senatum crebro adsumpti domesticam parsimoniam intulerunt, et quamquam fortuna vel industria plerique pecuniosam ad senectam pervenirent, mansit tamen prior animus. Sed praecipuus adstricti moris auctor Vespasianus fuit, antiquo ipse cultu victuque. Obsequium inde in principem et*

doitasuna nagusi lehenago? Bakoitza bere burua neurten zuelako, hiri bakarreko hiritarrak ginelako; Italia bakarrik menperatzen genuen ere, ez geneukan honelako tentaziorik. Kampoko garaipenetan, inoren ondasunak kontsumitzen ikasi genuen, eta geureak ere bai, zibilan. Bai dela gauza txikia edilek ohartarazten duten hori! Bai huske-riatzat jo behar dela, gainerakoei begiratzen bazaie! Zeren, Herkulesaren, inork ez digu esaten Italiak kanpo-laguntza behar duenik, erro-matar herriaren bizimodu itsasoena eta ekaitzen zalantzapean dagoenik egunero; eta, probintzietako ondasunek jaunei, morroiei eta lurrei lagunduko ez baligute, geure zelaiek eta geure villek babestu beharko gintuzkete, noski. Hauxe da, gurasook, printzearen ardura: gauza hauek aintzat hartu ezik, errepublika hondamenera doake. Gainerakoak gogo barruan konpondu behar dira: gu ohoreak, pobreak beharrizanak, aberatsak aseak hobe egin gaitzala. Bestela, magistraturen batek, arazoa mozteko, halako ekina eta zorroztasuna agintzen baditu, hura goraltzen dut, eta aitor dut nire nekeen zati on bat kentzen didala. Baino, bizioak salatu eta gero, auziak aintza eskuratu dienean, gorrotoak abian uzten baditzte, nire esku uzteko, sinets, gurasook, neu ere ez naizela erresuminen gose; eta erresuminok, larriak eta sarritan bideagabeak, errepublikagatik jasotzen baditut, zilegi bekit arinak eta funtsgabeak, eta ez niri ez zuei onik ekarriko ez digutenak, ezeztatzea».

55. Zesarren gutuna entzunik, gaika edilei bidali zitzaien. Mahaiko luxua, Akzioko batailatik Serbio Galba aginteratu zen gerrara arte, ehun urtean iraun zuena, astiro-astiro bertan behera geratu zen. Aldakuntzaren arrazoia aztertu nahi nituzke. Antzina, nobleziako sendi aberatsak eta ospez gailen zirenak handitasun zaleak ziren. Izan ere, orduan, orain-dik zilegi zen herriari, aliatuei, erregeei eder egitea eta ederra hartzea. Norbait ondasunez, etxez, bizikeraz nabarmendu ahala, gurenago egiten zen, izena eta klienteriak irabaziz. Sarraskien ankerkeria iritsi eta ospearen handitasuna heriotzabide bikalatu zenean, bizirauleek jarrera zuhurragara jo zuten. Aldi berean, udalerri eta kolonietatik, baita probintzietatik harako gizon berrien senaturatzeak ugaldu egin ziren, eta hauek doitasun domestikoa ekarri zuten, eta gehienek, zortez edo trebetasunez, zahartzaro erdietsi zuten arren, haiengan lehengo espirituak zirauen. Baino doitasunaren eragile nagusia Bespasiano izan zen, gizon antigualekoa jantzian eta janean. Horrela, printzearenaganako begirunea eta antzekoa izan nahia indartsuagoak izan ziren, legearen zigorra edo

*aemulandi amor validior quam poena ex legibus et metus. Nisi forte rebus cunctis inest quidam velut orbis, ut quem ad modum temporum vices ita morum vertantur; nec omnia apud priores meliora, sed nostra quoque aetas multa laudis et artium imitanda posteris tulit. Verum haec nobis [in] maiores certamina ex honesto maneant.*

[56] *Tiberius, fama moderationis parta quod ingruentis accusatores represserat, mittit litteras ad senatum quis potestatem tribuniciam Druso petebat. Id summi fastigii vocabulum Augustus repperit, ne regis aut dictatoris nomen adsumeret ac tamen appellatione aliqua cetera imperia praemineret. Marcum deinde Agrippam socum eius potestatis, quo defuncto Tiberium Neronem delegit ne successor in incerto foret. Sic cohiberi pravas aliorum spes rebatur; simul modestiae Nero-nis et suae magnitudini fidebat. Quo tunc exemplo Tiberius Drusum summae rei admovit, cum incolumi Germanico integrum inter duos iudicium tenuisset. Sed principio litterarum veneratus deos ut consilia sua rei publicae prosperarent, modica de moribus adulescentis neque in falsum aucta rettulit. Esse illi coniugem et tres liberos eamque aetatem qua ipse quondam a divo Augusto ad capessendum hoc munus vocatus sit. Neque nunc propere sed per octo annos capto experimen-to, compressis seditionibus, compositis bellis, triumphalem et bis consulem noti laboris participem sumi.*

[57] *Praecepérant animis orationem patres quo quaeſitior adulatio fuit. Nec tamen repertum nisi ut effigies principum, aras deum, templa et arcus aliaque solita censerent, nisi quod M. Silanus ex contumelia consulatus honorem principibus petivit dixitque pro sententia ut publicis privatisve monimentis ad memoriam temporum non consulum nomina praeciperentur; sed eorum qui tribuniciam potestatem gererent. At Q. Haterius cum eius diei senatus consulta aureis litteris figenda in curia censuisset deridiculo fuit senex foedissimae adulacionis tantum infamia usurpus.*

[58] *Inter quae provincia Africa Junio Blaeso prorogata, Servius Maluginensis flamen Dialis ut Asiam sorte haberet pos-*

beldurra baino. Edo, beharbada, zer guzietan, ziklo bat dagoelako izango da, urtaroak bezala, ohiturak ere txandatuz joateko; baina, antzina, dena hobea izan zela esaterik ez dago, baizik geure aroak ere hainbat moral eta zentzun adibide utzi diola geroari. Iraungo ahal digu aurreko-ekiko lehia horrek gauza onen alde!

56. Tiberiok, salaztaileen erasoa itotzeagatik, moderazio ospea erditsitakoan, senatura gutuna bidali zuen, Drusorentzat tribunotasuna eskatz. Horixe izan zen Augustok goren boterearentzat aurkitu zuen izena, errege edo diktadore titulurik ez onartzearren eta, hala ere, nabarmentzearren, beste aginteen gaineko izen bereziren batekin. Gero, botere horren kide Marko Agripa egin zuen eta, bera hildakoan, Tiberio Neron, ondorengoaz zalantzariak izan ez zedin. Horrela, besteen itxaropen bihurriak mozten zirela uste zuen; gainera, Neronen moderazioaz eta bere handitasunaz fidatzen zen. Orduan, etsenplu horri jarrai, Tiberiok Druso goren boterera jaso zuen, nahiz eta, Germaniko bizi zela, bien arteko hautua gorde zuen. Gutunaren hasieran, Jainkoei erre-gutzen zien bere asmoak errepublikaren onerako izan zitezen, gero, mutilaren izaeraren alderdi batzuk aipatzeko, ezer gezurrez handitu gabe: emaztea eta hiru ume zituela, eta, behinola, Augusto Jainkozko-ak halako magistraturaz jabetzera, berari deitu zion adin bera; eta orain, arrapalada gabe, zortzi urteko esperientziarekin, sedizioak ito eta gerrak amaitu ondoren, garaile eta birritan kontsul, ezagun zituen lanen partaidetzat hartzen zuela.

57. Senatariek, euren golkoan, eskaera hor aurreikusia zuten, eta, horregatik, adulazioa eztigozoagoa izan zen. Baino ez zitzaien bururatutu printzeen irudiak, Jainkoen aldareak, tenpluak eta arkuak eta beste ohiko zerak erabakitzea besterik. Marko Silano bai saiatu zen, kontsulatua apalduz, printzeak ohoratzet, eta proposatu zuela ezen, oroitarr publiko eta pribatuetan, denboren gomutarako, ez kontsulen baizik tribunotasuna zeramatzen izenak idatz zitezela. Baino, Kinto Hateriok senatuaren egun hartako aginduak urrezko hizkietan irarriak izan zitezela proposatu zuenean, barregarri gelditu zen, eta agure hark, bere zurikera nazkagarritik, izen txarra besterik ez zuen atera.

58. Junio Blesori ere orduantxe luzatu zitzaien Afrikako agintea, eta Servio Maluginentsek, Jupiterren flamenak, Asia esleitu ziezaioten eskatu

*tulavit, frustra vulgatum dictitans non licere Dialibus egredi Italia neque aliud ius suum quam Martialis Quirinaliumque flaminum: porro, si hi duxissent provincias, cur Dialibus id vetitum? nulla de eo populi scita, non in libris caerimoniistarum reperiri. Saepe pontifices Dialia sacra fecisse si flamen valetudine aut munere publico impediretur. Quinque et septuaginta annis post Cornelii Merulae caedem neminem suffectum neque tamen cessavisse religiones. Quod si per tot annos possit non creari nullo sacerorum damno, quanto facilius afuturum ad unius anni proconsulare imperium? privatis olim simultatibus effectum ut a pontificibus maximis ire in provincias prohiberentur: nunc deum munere summum pontificum etiam summum hominum esse, non aemulationi, non odio aut privatis affectionibus obnoxium.*

[59] *Adversus quae cum augur Lentulus aliique varie disserent, eo decursum est ut pontificis maximi sententiam opperrarentur. Tiberius dilata notione de iure flaminis decretas otribuniciam Drusi potestatem caerimonias temperavit, nominatim arguens insolentiam sententiae aureasque litteras contra patrum morem. Recitatae et Drusi epistulae quamquam ad modestiam flexae pro superbissimis accipiuntur. Huc decidisse cuncta ut ne iuvenis quidem tanto honore accepto adiret urbis deos, ingredetur senatum, auspicia saltem gentile apud solum inciperet. Bellum scilicet aut diverso terrarum distineri, litora et lacus Campaniae cum maxime pergrantem. Sic imbui rectorem generis humani, id primum e paternis consiliis discere. Sane gravaretur aspectum civium senex imperator fessamque aetatem et actos labores praetenderet: Druso quod nisi ex adrogantia impedimentum?*

[60] *Sed Tiberius, vim principatus sibi firmans, imaginem antiquitatis senatui praebebat postulata provinciarum ad disquisitionem patrum mittendo. Crebrescebat enim Graecas per urbes licentia atque impunitas asyla statuendi; complebantur tempora pessimis servitorum; eodem subsidio obaerati adversum credidores suspectique capitalium criminum receptabantur; nec ullum satis validum imperium erat coercendis sedition-*

*zuen, esan eta esanez Jupiterren flamenek Italiatik irtetea debekaturik ei zutelakoa gezurra zela eta bere eskubidea ez zela Martitz eta Kirinoren flamenen ezberdina. Hauei probintziak eman bazitzaizkien, zergatik debekatu Jupiterren? Horretaz, ez plebiszitrik ei zegoen, ez zeremonia liburuetai ei zetorren ezer; sarritan, pontificeek burutu ei zituzten Jupiterren erritoak, baldin flamenak, gaixoz edo eginkizun publikoz, ezin izan bazuen. Hirurogeita hamabost urtetan zehar, Kornelio Merularen hilketa ondoren, inor ez zen ordezko izendatu, eta, hala ere, kulturarik ez ei zen eten. Beraz, ordezkorik gabe eta kultuaren okerrik gabe, hainbeste urte igaro baizitekeen, zenbat onargarriago ez ote zen urte bateko hutsa, aginte prokontsular batengatik? Behinola, etsaigoen eraginez, gertatu ei zen, bai, goren pontificeek probintzietara joatea debekatzea; baina orain, jainkoen graziaz, goren pontificea goren gizona ere ba ei zen, eta, emulazio, gorroto eta gutizia partikularren gainetik ei zegoen.*

59. Hitz hauek, era ezberdinean, Lentulo augurearen eta beste batzuen kontratasuna ekarri zutenez, goren pontificearen iritziaren zain gelditzea erabaki zen. Tiberiok, flamenaren eskubideari buruzko epaia atzerratik, Drusoren tribunotasunak eragindako zeremoniak bigundu zituen, beren beregi gaitzetsiz sorterriko ohituren aurkakourre-hizki proposamenaren ezohikeria. Drusoren gutun bat ere irakurri zen, apalera jo arren, harrokeria handitzat ulertu zena. Dena hain gainbehera ei zegoen, ezen gazte bat, hain goi ohorea harturik, ez baitzen aurkeztu ere egin Erromako jainkoen eta senatuaren aurrean, eta ez baitzuen auspi-ziorik hartzere sorterrian. Gerran edo atzerrian atxikirik egongo zen, jakina, Kanpaniako itsasertz eta lakuetan zebilenean, hain zuzen! Horrelaxe hezi behar gizateriaren gidaria, horixe ikasi behar lehenen, aitaren aholkuetatik! Enperadore zahartuak hiritarrak ikustea gaitzi iza-tea eta adinaren nekeak eta lan iraganak aitzakia ematea barka zitekeen, baina Drusok zer zuen eragozpenik, harrokeriaz besterik?

60. Tiberiok, ostera, printzegoaren indarra beretzat segurtaturik, senatuari antzinako irudia emateko egiten zuen, probintzietako eskaerak gurasoen eztabaidara bidaliz. Kontua zen, hiri grekoetan, asiloguneak inpuneki ezartzeko lizentzia gorantz zihoala. Hala, tenpluak esklaborik gaiztoenez beterik zeuden; babespe berera jotzen zuten zordunek, har-tzedunen aurrean, eta hilketen susmopekoek; eta ezein botere ez zen gauza, gizakien hobenak jainkoen kultuak balira bezala babesten zituen

*nibus populi flagitia hominum ut caerimonias deum protegentis. Igitur placitum ut mitterent civitates iura atque legatos. Et quaedam quod falso usurpaverant sponte omisere; multae vetustis superstitionibus aut meritis in populum Romanum fidebant. Magnaque eius diei species fuit quo senatus maiorum beneficia, sociorum pacta, regum etiam qui ante vim Romanam valuerant decreta ipsorumque numinum religiones introspexit, libero, ut quondam, quid firmaret mutaretve.*

[61] *Primi omnium Ephesii adiere, memorantes non, ut vulgus crederet, Dianam atque Apollinem Delo genitos: esse apud se Cenchreum amnem, lucum Ortygiam, ubi Latonam partu gravidam et oleae, quae tum etiam maneat, adnisam edidisse ea numina, deorumque monitu sacratum nemus, atque ipsum illic Apollinem post imperfectos Cyclopas Iovis iram vitavisse. Mox Liberum patrem, bello victorem, supplicibus Amazonum quae aram insiderant ignovisse. Auctam hinc concessu Herculis, cum Lydia poteretur, caerimoniam templo neque Persarum dictione deminutum ius; post Macedonas, dein nos servavisse.*

[62] *Proximi hos Magnetes L. Scipionis et L. Sullae constitutis nitebantur; quorum ille Antiocho, hic Mithridate pulsis fidem atque virtutem Magnetum decoravere, uti Dianae Leucophrynae perfugium inviolabile foret. Aphrodisienses post-hac et Stratonicenses dictatoris Caesaris ob vetusta in partis merita et recens divi Augusti decretum adulere, laudati quod Parthorum inruptionem nihil mutata in populum Romanum constantia pertulissent. Sed Aphrodisiensium civitas Veneris, Stratonicensium Iovis et Triviae religionem tuebantur: Altius Hierocaesienses exposuere, Persicam apud se Dianam, delubrum rege Cyro dicatum; et memorabantur Perpennae, Isaurici multaque alia imperatorum nomina qui non modo templo sed duobus milibus passuum eandem sanctitatem tribuerant. Exim Cyprii tribus [de] delubris, quorum vetustissimum Paphiae Veneri auctor Aesrias, post filius eius Amathus Veneri Amathusiae et Iovi Salaminio Teucer, Telamonis patris ira profugus, posuissent.*

herri bateko sedizioak itotzeko. Beraz, hiri bakotzak bere eskumenak eta legatuak bidal zitzala erabaki zen. Batzuek onez utzi zuten gehiegizko praktikaren ondorio zena; askok euren antzinako sineskeriei eta erromatar herriarekiko merituei heltzen zieten. Egun handia izan zen hura, non senatuak aztertu zituen asaben pribilegioak, aliatuekiko itunak, baita, erromatarren agintea iritsi aurretik, agintedun izan ziren erregeen dekretuak eta jainkoen kultuak eurak ere; eta hori dena, lehenago bezala, berresteko edo aldatzeko askatasunez.

61. Lehenik, Efesokoak azaldu ziren, gogoratz Diana eta Apolo ez zirela Delon jaio, populuak uste bezala; bazela euren herrian ibai bat, Zenkreo, eta oihan bat, Ortigia, non Latona, haundunaldiaren azkanean, jainko haietaz erditu zen, oraindik tente zegoen olibondoaren kontra; jainkoen aholkuz, oihana sakratu izendatu zutela eta Apolo bera ere hantxe babestu zela, ziklopeak akabatu ondoren, Jupiterren sumina ekititeko. Gero, Liber aitak, gerraren irabazleak, barkatu egin ziela aldaera erregugile hartu zuten Amazonen. Gero, tenpluaren santutasuna areagotu egin zela, Herkulesen ematez, Lidian agintzen zuenean; pertsiaren menpealdian, euren eskubideak ez zirela murriztuak izan; ondoren, mazedoniarrek eta, gero, geuk ere errespetatu genituela.

62. Hurrengo, magnesiarrak Luzio Eszipioneek eta Luzio Silak ezarrian oinarritzen ziren, zeintzuek, hark Antioko eta Honek Mitridates menperatua ondoren, magnesiaren leialtasuna eta kemena ohoratu zuten, Diana Leukofrineren babeslekua bortzaezina izan zedila aginduz. Gero, Afrodisiadekoek eta Estratonicadekoek Zesar diktadorearen dekretu bat erautzia zuten, haren aldeko antzinako merituekin, eta Augusto jainkozkoaren oraintsuko bat, non partoen inbasioa jasan izana laudatzen zen, erromatar herriarekiko leialtasuna batere aldatu gabe; afrodisiadarren hiriak Benusen kultuari eusten zion, eta estratonicarenak, Jupiter eta Tribiarenari. Hierozesarearrek atzeragoko kontuak azaldu zituzten: euren lurrean, Diana pertsiar bat zegoela, Ziro erregeak eskainitako tenpluarekin; gero, Perpenna, Isauriko eta beste hainbat buruzagiren izenak gogoratu zituzten, tenpluari, santutasuna ez ezik, inguruan bi milia esparrua ere aitorri ziotenak. Jarraian, Ziprekoek hiru tenplu aipatu zituzten, zaharrena Aeriasen Venus Pafiori eraikia; gero, haren seme Amatok Venus Amatusiari, eta Teukrok, azkenik, Telamonen semeak, aitaren haserreiari iheska zilhoanak, Jupiter Salaminiori.

[63] Auditae aliarum quoque civitatum legationem. Quorum copia fessi patres, et quia studiis certabatur, consulibus permisere ut perspecto iure, et si qua iniquitas involveretur, rem integrum rursum ad senatum referrent. Consules super eas civitates quas memoravi apud Pergamum Aesculapii compertum asylum rettulerunt: ceteros obscuris ob vetustatem initis niti. Nam Zmyrnaeos oraculum Apollinis, cuius imperio Stratonici Veneri templum dicaverint, Tenios eiusdem carmen referre, quo sacrare Neptuni effigiem aedemque iussi sint. Propiora Sardianos: Alexandi victoris id donum. Neque minus Milesios Dareo rege niti; set cultus numinum utrisque Dianam aut Apollinem venerandi. Petere et Cretenses simulacro divi Augusti. Factaque senatus consulta quis multo cum honore modus tamen praescribebat: Iussique ipsis in templis figere aera sacrandam ad memoriam, neu specie religiosis in ambitionem delaberentur.

[64] Sub idem tempus Iuliae Augustae valetudo atrox necessitudinem principi fecit festinati in urbem redditus, sincera adhuc inter matrem filiumque concordia sive occultis odiis. Neque enim multo ante, cum haud procul theatro Marcelli effigiem divo Augusto Iulia dicaret, Tiberi nomen suo postscripserat, idque ille credebatur ut inferius maiestate principis gravi et dissimulata offensione abdidisse. Set tum suppicia dis ludique magni ab senatu decernuntur; quos pontifices et augures et quindecimviri septemviris simul et sodalibus Augustalibus ederent. Censuerat L. Apronius ut fetiales quoque iis ludis praesiderent. Contra dixit Caesar, distincto sacerdotiorum iure et repetitis exemplis: neque enim umquam fetialibus hoc maiestatis fuisse. Ideo Augustalis adiectos quia proprium eius domus sacerdotium esset pro qua vota persolverentur.

[65] Exequi sententias haud institui nisi insignis per honestum aut notabili dedecore, quod praecipuum munus annualium reor ne virtutes sileantur utque pravis dictis factisque ex posteritate et infamia metus sit. Ceterum tempora illa adeo infesta et adulacione sordida fuere ut non modo primores civitatis,

63. Beste hiri batzuetako ordezkariei ere entzun zitzaien. Hainbesterenkin nekaturik, eta kontrako lehiak sortzen zirenez gero, senatariek kontsulen esku utzi zuten eskubideak aztertzea, eta, okerrik bazegoen, auzia berriro osoan senatura itzultzea. Kontsulek jakinarazi zuten, aipatu ditudan hiriez gainera, Pergamoko Eskulapioren tenpluan babeslekua zegoela, eta besteak oinarri zaharraren zaharrez ilunetan finkatzen zirela. Hala, esaterako, esmirnarrak Apoloren orakuluan, zeinak agindurik, Venus Estratonicideren tenplua eskainia izango zuten, eta tenoarrak Jainko beraren erantzun bertsozkoan, non agindua izango zitzaien Neptunoren irudia eta tenplua eskain zitzatela. Sardestarren kontuak berriagoak ziren: Alejandro garailearen emaitza zeukaten; miletuarrek ere Dario erregea aipatzen zuten. Bitzuek Diana edo Apolo gurtzen zuten. Kretarrek ere eske ziharduten, Augusto jainkozkoaren estatua bat zela eta. Azkenean, senatuaren dekretu batzuk landu ziren, begirune handiz bazen ere, mugak ezartzen zituztenak; dekretuok brontzean grabatzeko eta tenpluetan bertan itsasteko agindu zen, oroimenaren finkagarri, eta, erlijio itxuran, ez zedila larkeriarik onar.

64. Aldi hartan berean, Julia Augustaren osasun-txartzeak printzea ziztuaren Errromaratzera behartu zuen, ama-semeen artean oraindik egiazko sentimendua bazeleko, edo gorrotoak ezkutuan egon zitezen. Zeren, ez aspaldi, Juliak Augusto jainkozkoaren estatua Martzeloren antzoki ondoan eskaini zuenean, Tiberioren izena berearen atzean ipini baitzuen, honek printzearen maiestatearen aurkako iraintzat hartu zuela eta erremint handia eta disimulatua gorde zuela uste zen. Baina, oraingoan, senatuak jainkoentzako otoitzak eta joko handiak agindu zituen, pontificeen, augureen eta kindezinbioren ardurapean gelditzen zirenak, dezenbiro eta anaikide augustalekin batera. Luzio Aproniok proposatu zuen fezialak ere izan zitezela jokoan buru. Zesarrek ezetz esan zuen, abadeen eskumenak bereiztuz eta adibideaz jarriz, fezialek inoiz ez baitzuten halako ohorerik izan. Augustalak gehitzen ei ziren, botuak bete ohi ziren etxeari zegokion abadetza zelako.

65. Proposamen ospetsuki zintzoak edo nabarmenki lotsagarriak baizik ez jasotzea erabaki dut, horixe dela uste baitut analista baten zeregina nagusia, bertuteak isilpean ez gelditzeko, eta geroko izen txarraren beldurrak hitz eta egite gaiztoak galga ditzan. Gainerakoan, kontatzen ari naizen garaia adulazio doillorak hain kutsaturik zegoen, ezen, ez

*quibus claritudo sua obsequiis protegenda erat, sed omnes consulares, magna pars eorum qui praetura functi multique etiam pedarii senatores certatim exsurerent foedaque et nimia censerent. Memoriae proditur Tiberium, quoties curia egrederetur; Graecis verbis in hunc modum eloqui solitum ‘o homines ad servitatem paratos!’ scilicet etiam illum qui libertatem publicam nolle tam projectae servientium patientiae taedebat.*

[66] *Paulatim dehinc ab indecoris ad infesta transgrediebantur. C. Silanum pro consule Asiae repetundarum a sociis postulatum Mamercus Scaurus e consularibus, Iunius Otho praetor, Bruttedius Niger aedilis simul corripiunt obiectantque violatum Augusti numen, spretam Tiberii maiestatem, Mamercus antiqua exempla iaciens, L. Cottam a Scipione Africano, Servium Galbam a Catone censorio, P. Rutilium a M. Scauro accusatos. Videlicet Scipio et Cato talia ulciscebantur aut ille Scaurus, quem proavum suum obprobrium maiorum Mamercus infami opera dehonestabat. Iunio Othoni litterarium ludum exercere vetus ars fuit: mox Seiani potentia senator obscura initia impudentibus ausis propelluebat. Bruttedium artibus honestis copiosum et, si rectum iter pergeret, ad clarissima quaeque iturum festinatio extimulabat, dum aequalis, dein superiores, postremo suasmet ipse spes antire parat: quod multos etiam bonos pessum dedit, qui spretis quae tarda cum securitate praematura vel cum exitio properant.*

[67] *Auxere numerum accusatorum Gellius Publicola et Paconius, ille quaestor Silani, hic legatus. Nec dubium habebatur saevitiae captarumque pecuniarum teneri reum: sed multa adgerebantur etiam insontibus periculosa, cum super tot senatores adversos facundissimis totius Asiae eoque ad accusandum delectis responderet solus et orandi nescius, proprio in metu qui exercitam quoque eloquentiam debilitat, non temperante Tiberio quin premeret voce vultu, eo quod ipse creberrime interrogabat, neque refellere aut eludere dabatur; ac saepe etiam confitendum erat ne frustra quae-*

hiriko gizon handiek bakarrik, euren distira saldukeriaz jagotera beharturik zeudenek, baizik kontsular guztiak ere, zeintzuetaik asko pretore eta senatari oinezko ere izan ziren, lehian baitziarduten, jaiki eta nork makurkeria eta astakeria handiagoak proposatuko. Kuriatik irtetean, Tiberiok, grekoz, honelako zerbaits egiten ei zuen: «O, gizon morrokiok!». Alegia, askatasun publikorik nahi ez zuen haresek ere higgin zuela hain morroikeria makur eta zuri hora.

66. Gero, astiro-astiro, lotsagabekeria jo zen. Gaio Silanori, aliatuek konkusioagatik salaturiko Asiako prokonsulari, Mamerko Eskauro kontsul ohia, Junio Oto pretorea eta Brutedio Nigro edila batera oldartu zitzazkion, Augustoren santutasuna profanatu eta Tiberioren maiestatea arbuiatu izana leporatuz. Mamerkok adibide zaharrak ipintzen zituen: Ezipion Afrikarrera, Luzio Kotaren aurka, Katon Zentsorearena, Serbio Galbaren aurka, eta Marko Eskaurorena, Publio Rutilioren aurka. Halako mendekuak onartuko balitzte bezala Ezipion Afrikarrak eta Katonek, edo bere birraitita Eskauro hark, zeina Mamerkok, asaben lotsagarriak, ekintza doilorrez desohoratzten zuen! Junio Oton, lehenago, eskola maisua izan zen; gero, Seianoren boterez, senatari bilakaturik, bere jatorri berez iluna ausardia lotsagabez zirkintzen ekin zion. Brutedio, dohain on ugarikoa eta, bide zuzenetik jarraitzen, gailurrik distiratsuenetara iritsiko zena, prezipitazioak xaxatzen zuen, kideak, goragokoak eta, azkenik, bere itxaropenak ere gainditzera bultzatz; honek gizon prestuak ere asko hondatu izan ditu, aurreratze mantsoa eta segurra arbuiatuz, azkarretik hondamenera oldartzen direla.

67. Salatzaile kopurua Gelio Publikolak eta Marko Pakoniok handitu zuten, hora kuestorea eta hau Marko Silanoren legatua. Ez zegoen dudarik Silano ankerkeriaren eta diru batzearen errudun bihurtu zela; baina errugabeentzat ere arriskutsu izateko moduko kontu asko pilatu zen. Izan ere, kontrako hainbeste senatarioz gainera, Asia guztiko oradorerik etorritsuenei, bera salatzeko bereziki hautatuei, berak bakarrik erantzun behar zien, erretorikan ejakin eta biziaren beldurrez, honek etorri aritua ere makaltzen duela; gainera, Tiberiok ere ahotsez eta begiradaz estutzen zuen, etengabe galdetuz, ezeztatzeko edo saihesteko modurik gabe; eta, batzuetan, erantzun beharrean aurkitzen zen, galdera alferrik ez izatearren. Silanoren esklaboak ere, tormentuean galde-

*visset. Servos quoque Silani ut tormentis interrogarentur actor publicus mancipio acceperat. Et ne quis necessariorum iuvaret periclitantem maiestatis crimina subdebantur; vinculum et necessitas silendi. Igitur petito paucorum dierum interiectu defensionem sui deseruit, ausis ad Caesarem codicillis quibus invidiam et preces miscuerat.*

[68] *Tiberius quae in Silanum parabat quo excusatiis sub exemplo acciperentur; libellos divi Augusti de Voleso Messala eiusdem Asiae pro consule factumque in eum senatus consultum recitari iubet. Tum L. Pisonem sententiam roget. Ille multum de clementia principis praeferatus aqua atque igni Silano interdicendum censuit ipsumque in insulam Gyarum relegandum. Eadem ceteri, nisi quod Cn. Lentulus separanda Silani materna bona, quippe Atia parente geniti, reddenda que filio dixit, adnuente Tiberio.*

[69] *At Cornelius Dolabella dum adulacionem longius sequitur increpitis C. Silani moribus addidit ne quis vita probrosus et opertus infamia provinciam sortiretur, idque princeps diuidicaret. Nam a legibus delicta puniri: quanto fore mitius in ipsos, melius in socios, provideri ne peccaretur? adversum quae disseruit Caesar: non quidem sibi ignare quae de Silano vulgabantur, sed non ex rumore statuendum. Multos in provinciis contra quam spes aut metus de illis fuerit egisse: excitari quosdam ad meliora magnitudine rerum, hebescere alios. Neque posse principem sua scientia cuncta complecti neque expedire ut ambitione aliena trahatur. Ideo leges in facta constitui quia futura in incerto sint. Sic a maioribus institutum ut, si antissent delicta, poenae sequerentur. Ne verte rent sapienter reperta et semper placita: satis onerum principibus, satis etiam potentiae. Minui iura quotiens gliscat potestas, nec utendum imperio ubi legibus agi possit. Quanto rarior apud Tiberium popularitas tanto laetioribus animis accepta. Atque ille prudens moderandi, si propria ira non impelleretur, addidit insulam Gyarum immitem et sine cultu hominum esse: darent Iuniae familiae et viro quondam ordinis eiusdem ut Cythnum potius concederet. Id sororem quo-*

tuak izan zitezen, agente publiko bati salmentan emanak izan ziren; eta, ezein ahaidek arriskuan lagundu ez ziezaion, maiestate salaketak erantzen zizkioten, kate horrek isildu beharra zekarrela. Hala, bada, egun gutxi batzuen luzapena eskaturik, bere defentsari utzi egin zion, Zesari txosten bat bidaltzen ausartuz, non errietak eta erreguak nahasten ziren.

68. Tiberiok, Silanoren aurka prestatzen ari zena etsenplu batekin aisago onar zedin, Augusto Jainkozkoak Boleso Mesalari buruz, Asiako prokonsula hau ere, egindako txostena eta haren aurka agertu zen senatuaren dekretua irakurtzeko agindu zuen. Orduan, Luzio Pisoni iritzia eskatzen dio, eta honek, printzearen onberatasunari buruzko hainbat gogoetaren ondoren, Silano ur eta suaren debekura kondenatzea eta Giaroko irlara baztertzea proposatu zuen. Berdin besteek ere, Gneo Lentulok izan ezik; honek Silanori amagandik jarauntsitako ondasunak kentzea, Aziaren semea baitzen, eta semeari ematea proposatu zuen, eta Tiberiok baietz.

69. Baina Kornelio Dolabelak, adulazioa urrunago eroanez, Gaio Silanoren ohitura gaitzetsi ondoren, gaineratu zuen bizimodu lardats eta lotsagarriko ezein gizon ez zedila probintzien zozketan sar, eta printzea izan zedila epaitzeko arduraduna. Hobena legeek zigortzen ei zuten; baina zenbat eurentzat bigunago eta aliatuentzat hobea ez zen izango urratzeari aurrea hartzea? Zesar horri jarki zitzaiion: berak ba ei zekien ondo ere Silanogatik zer zioten, baina ez zuela ezer erabakiko zurrumurruan oinarriturik; eta, probintzietan, askok jokatu zuela haienkiko zegoen itxaropen edo beldurraz beste era batera; batzuk, euren karguaren garraitzagiak, hobetu eta beste batzuk usteldu egiten zirela. Printzeak ere ezin ei zuen bere jakinduriaz dena atxiki, eta ez zela komeni inoren intrigek arrasta zezaten uzterik; legeak zerbaitegatik jartzen zirela egintzen aurrez, etorkizuna ez-ziurra delako. Asabek horixe erabaki ei zuten: aurretik hobenik bazen, zigorrak jarrai ziezaiola. Ez zezatela hain erabaki jakintsurik eta beti egokitza jo zenik alda. Printzeek ba ei zuten euren gan aski zama, eta aski botere ere; eskumenak handituz, eskubideak txikituko ei ziren, eta ez zegoen agintera jo beharrik, legeekin joka zitekeean. Tiberiorengan, ospea gehiarazteko keinuak zenbat eta bakanagoak izan, hainbat pozago hartu zituzten haren hitzak. Eta, erresuminak eragiten ez bazion, neurritsu agertzen trebea zenez, Giaroko irla babesgabea

*que Silani Torquatam, priscae sanctimoniae virginem, expetere. In hanc sententiam facta discessio.*

[70] *Post auditum Cyrenenses et accusante Anchario Prisco Caesius Cordus repetundarum damnatur. L. Ennium equitem Romanum, maiestatis postulatum quod effigiem principis promiscum ad usum argenti vertisset, recipi Caesar inter reos vetuit, palam aspernante Ateio Capitone quasi per libertatem. Non enim debere eripi patribus vim statuendi neque tantum maleficium impune habendum. Sane lentus in suo dolore esset: rei publicae iniurias ne largiretur. Intellexit haec Tiberius, ut erant magis quam ut dicebantur, perstititque intercedere. Capito insignitior infamia fuit quod humani divinitus iuris sciens egregium publicum et bonas domi artes dehonestavisset.*

[71] *Incessit dein religio quoniam in templo locandum foret donum quod pro valetudine Augustae equites Romani voverant equestri Fortunae: nam etsi delubra eius deae multa in urbe, nullum tamen tali cognomento erat. Repertum est aedem esse apud Antium quae sic nuncuparetur; cunctasque caerimonias Italicis in oppidis templaque et numinum effigies iuris atque imperii Romani esse. Ita donum apud Antium statuitur. Et quoniam de religionibus tractabatur; dilatum nuper responsum adversus Servium Maluginensem flaminem Dialem prompsit Caesar recitavitque decretum pontificum, quotiens valetudo adversa flaminem Dialem incessisset, ut pontificis maximi arbitrio plus quam binoctium abesset, dum ne diebus publici sacrificii neu saepius quam bis eundem in annum; quae principe Augusto constituta satis ostendebant annuam absentiam et provinciarum administrationem dialibus non concedi. Memorabaturque L. Metelli pontificis maxi exemplum qui Aulum Postumium flaminem attinuisset. Ita sors Asiae in eum qui consularium Maluginensi proximus erat conlata.*

[72] *Isdem diebus Lepidus ab senatu petivit ut basilicam Pauli, Aemilia monumenta, propria pecunia firmaret ornaret-*

eta inorgabea zela gaineratu zuen; onar zezatela Juniar sendiari eta lehenago bere mailakoa izaniko gizonari Zitno ematea erbestetzat. Horixe eskatu ei zuen Silanoren arreba Torkuatak, santutasun antigoaleko birjinak ere. Proposamen horrek onarpen osoa izan zuen.

70. Gero Zirenekoei entzun zitzaien, eta, Ankario Priskok salaturik, Zesio Kordo konkusioagatik kondenatu zuten. Luzio Ennio zaldun erro-matarra maiestatzet auziperatu nahi izan zuten, printzearen estatua batekin zilarrezko tresnak egin zituelako. Zesar salapena onartzearen aurka agertu zen, Ateio Capitonen muzin nabariz, askatasun itxuran. Honek zioen gurasoei ez zitzaiela erabakiak hartzeko ahalmenik kendu behar, eta hainbesteko txarkeriak ezin zuela zigor gabe gelditu. Izan zedila Tiberio bere suminean bigun, baina ez errepublikaren aukako irainetan eskuzabal. Tiberiok hitz horien izaera gehiago ulertu zuen esaera baino, eta betoan amore eman zuen. Kapitonen doilorkeria nabarmenagoa zen, zuzenbide zibilean eta erlijiosoan aditua izanik, bere goi maila publikoa eta dohai on partikularrak zikindu zituelako.

71. Gero erlijioa aipatu zen, ea zein tenplutan ipini behar zen, zaldun erro-matarrek, Augustaren osasunaren alde, Fortuna Zaldizkorri egin zioten eskaintzaria, hirian Jainkosaren hainbat tenplu egon arren, batek ere ez zeukan izen hori eta. Antzion bazela izen horretako tenplua egiazatu zen, eta kultu, tenplu eta Italiako hirietako jainkoen irudi guztiak Erromako zuzenbide eta agintean zeudela. Beraz, eskaintzaria Antzion ipintzen dute. Eta, erlijioaz ari zirenez gero, Zesarrek lehen atzeratutako erantzun kontrakoa eman zuen, Jupiterren flamen Serbio Maluginentseri buruz, eta pontificeen dekretua irakurri zuen, zioena ezen, Jupiterren flamena gaixotzen zen guztian, goren pontificearen agindupean, gau bitatik gora ere alden zitekeela, sakrifizio publikoko egunetan eta urtean birritan baino gehiagotan ez izatekotan; Augusto printze zela hartutako erabakiok argi erakusten zuten Jupiterren flame-nei ez zitzaiela urtebeteko ausentziari, ez probintzien administratziorik onartzen. Luzio Metelo goren pontificearen adibidea ere gogoan zeukan, zeinak Aulo Postumio flamena Erroman atxiki zuen. Asiako zortea, beraz, Maluginentseren hurrengo zegoen kontsul ohiari egokitu zitzaion.

72. Egun beretan, Lepidok senatuaren baimena eskatu zuen Pauloren basilika, Emiliotarren monumentua, bere kontura berriztatzeko eta

*que. Erat etiam tum in more publica munificentia; nec Augustus arcuerat Taurum, Philippum, Balbum hostilis ex vias aut exundantis opes ornatum ad urbis et posterum gloriam conferre. Quo tum exemplo Lepidus, quamquam pecuniae modicus, avitum decus recoluit. At Pompei theatrum igne fortuito haustum Caesar extructurum pollicitus est eo quod nemo e familia restaurando sufficeret, manente tamen nomine Pompei. Simul laudibus Seianum extulit tamquam labore vigilantiaque eius tanta vis unum intra damnum stetisset; et censuere patres effigiem Seiano quae apud theatrum Pompei locaretur. Neque multo post Caesar, cum Iunium Blaesum pro consule Africae triumphi insignibus attolleret, dare id se dixit honori Seiani, cuius ille avunculus erat. Ac tamen res Blaesi dignae decore tali fuere.*

[73] *Nam Tacfarinas, quamquam saepius depulsus, reparatis per intima Africæ auxiliis huc adrogantiae venerat ut legatos ad Tiberium mitteret sedemque ultro sibi atque exercitui suo postularet aut bellum inexplicabile minitaretur. Non alias magis sua populique Romani contumelia indoluisse Caesarem ferunt quam quod desertor et praedo hostium more age ret. Ne Spartaco quidem post tot consularium exercituum clavis inultam Italiam urenti, quamquam Sertorii atque Mithridatis ingentibus bellis labaret res publica, datum ut pacto in fidem acciperetur; nedum pulcherrimo populi Romani fastigio latro Tacfarinas pace et concessione agrorum redimeretur: Dat negotium Blaeso ceteros quidem ad spem proliceret arma sine noxa ponendi, ipsius autem ducis quoquo modo poteretur. Et recepti ea venia plerique. Mox adversum artes Tacfarinatis haud dissimili modo belligeratum.*

[74] *Nam quia ille robore exercitus impar, furandi melior pluris per globos incursaret eluderetque et insidias simul temptaret, tres incessus, totidem agmina parantur. Ex quis Cornelius Scipio legatus praefuit qua praedatio in Leptitanos et suffugia Garamantum; alio latere, ne Cirtensium pagi impune traherentur; propriam manum Blaesus filius duxit: medio cum delectis, castella et munitiones idoneis locis*

apaintzeko. Izan ere, eskuzabaltasun publikoa oraindik ohikoa zen, eta Augustok ere ez zien Tauro, Filipo eta Balbori eragotzi euren garaipenen hondakinak edo ondasunen soberakinak hiriaren apainketa eta geroaren aintzarako eskaintzerik. Etsenplu horren arabera, Lepidok, ondasun neurrukoa bazen ere, bere asaben aintza berriztatu zuen. Zesarrek, bestalde, sute kasual batek irentsitako Ponpeioren antzokia bererraikitza agindu zuen, haren familiako inork ezin zuelako berregin, Ponpeioren izenak jarraitzen bazuen ere. Seiano ere goralbenez hornitu zuen, aipatuz ezen, haren ahalegin eta arretari eskerrak, hain hondamen handia eraikin bakarrera mugatu zela. Senatariek Seianoren estatua Ponpeio antzokian jasotzea erabaki zuten. Handik laster, Zesarrek, Junio Bleso Afrikako prokontsula garaipen ohorez gorestean, haren osaba zen Seianoren begirunez egiten zuela hori aitortu zuen; dena dela, Blesoren jokaera bazen halako ohorearen duin.

73. Zeren Takfarinate, maiz desegina izan arren, indarrak Afrikaren barnealdean berreginik, halako harrokeriara heldu zen, ezen Tiberiori legatuak bidali baitzizkion, beretzat eta bere armadarentzat kokapena eskatuz eta, bestela, gerra amaigabearen mehatxua eginez. Zesar behin ere ez ei zen berari eta erromatar herriari eginiko irain batez gehiago mindu, desertore eta bidelapur batek etsai gisan jokatzen zuen hartan baino. Espartakori berari ere, hainbeste armada kontsular menperatu ondoren, Italiari su inpunea jartzen zionari, eta errepublika Sertorio eta Mitridatesen gerra lazgarriek arraildurik egon arren, ez zitzaison armistizio itundurik eman. Zenbat gutxiago erosiko zuten, bakez eta lur ematez, Errromaren distira unerik gorenean, Takfarinate bidelapur hura! Kontua da ezen Blesoren esku utzi zuela besteak, barkamen ordez, armak uzteria erakartzea, eta buruzagia bera nola edo hala atzematea. Adiskide eskaintza hori askok onartua izan zen. Gero, Takfarinateren maltzurkerien aurka, haren arma berdinakin gerra egin zen.

74. Izan ere, haren armadaren indarra gurea baino txikiagoa, baina ezusteko asaltorako hobea zenez, eta, gero enboskada berriak ezartzeko, aurrez aurrea saihestuz, zenbait bandarekin erasotzen zuenez gero, hiru sarbide eta beste hainbeste zutabe eratu ziren. Baten buru, Kornelio Eszipion zegoen, Leptisen kontrako harrapaketak egiten ziren eta garamanteen gordelekua zegoen lekuan. Beste aldetik, zirtentseen herriak arpilatoki inpune bilaka ez zitezen, Blesoren semeak bere tropa

*imponens, dux ipse arta et infensa hostibus cuncta fecerat, quia, quoquo inclinarent, pars aliqua militis Romani in ore, in latere et saepe a tergo erat; multique eo modo caesi aut circumventi. Tunc tripartitum exercitum pluris in manus dispergit praeponitque centuriones virtutis expertae. Nec, ut mos fuerat, acta aestate retrahit copias aut in hibernaculis veteris provinciae componit, sed ut in limine belli dispositis castellis per expeditos et solitudinum gnavos mutantem mapalia Tacfarinatem proturbabat, donec fratre eius capto regressus est, properantius tamen quam ex utilitate sociorum, relictis per quos resurgeret bellum. Sed Tiberius pro confecto interpretatus id quoque Blaeso tribuit ut imperator a legionibus salutaretur; prisco erga duces honore qui bene gesta re publica gaudio et impetu victoris exercitus conclamabantur; erantque plures simul imperatores nec super ceterorum aequalitatem. Concessit quibusdam et Augustus id vocabulum ac tunc Tiberius Blaeso postremum.*

[75] *Obiere eo anno viri inlustres Asinius Saloni nus, Marco Agrippa et Pollione Asinio avis, fratre Druso insignis Caesarique progener destinatus, et Capito Ateius, de quo memoravi, principem in civitate locum studiis civilibus adsecutus, sed avo centurione Sullano, patre praetorio. Consulatum ei adceleraverat Augustus ut Labeonem Antistium isdem artibus praecellentem dignatione eius magistratus antiret. Namque illa aetas duo pacis decora simul tulit: sed Labeo incorrupta libertate et ob id fama celebratior, Capitonis obsequium dominantibus magis probabatur. Illi quod praeturam intra stetit commendatio ex iniuria, huic quod consulatum adeptus est odium ex invidia oriebatur:*

[76] *Et Iunia sexagesimo quarto post Philippensem aciem anno supremum diem explevit, Catone avunculo genita, C. Cassii uxor, M. Bruti soror. Testamentum eius multo apud vulgum rumore fuit, quia in magnis opibus cum ferme cunctos proceres cum honore nominavisset Caesarem omisit. Quod civiliter acceptum neque prohibuit quo minus laudatione pro rostris ceterisque sollemnibus funus cohonestare-*

propioa eraman zuen; erdi aldetik, tropa hautekin, buruzagi nagusia gotorlekuak eta gordeguneak leku egokietan ezarriz zihoa, eta inguru guztia etsaiarentzat deseroso eta zakar bihurtu zuen, jotzen zuen lekurrantz jotzen zuela, aurrez, alboz eta, batzuetan, atzez ere, erromatar armadaren zati bat aurkitzen baitzen. Hala, asko izan ziren hilak edo inguratuak. Orduan, bere armadaren hiru zutabeak zenbait destakamentutan zatitu zituen, antze jakineko zenturioien agindupean. Eta ez zuen, ohitura zenez, uda igarotakoan, troparik erretiratu, antzinako probintziako negu kanpalekuetan biltzeko; aitzitik, ordea, gerra atarian bezala, gotorlekuak ezarri zituen, eta, tropa arin eta mortu haien eza-gutzaile ziren bitartez, Takfarinate jazartzen zuten, dendak mugiaraziz, harik eta, bere anaia harrapatua izanik, itzuli zen arte, aliatuei komeni baino bizkorrago, atzean gerra berpizteko moduko jendea uzten baitzen. Baino Tiberiok, amaitutzat emanik, Blesori ere legioek enperadoretzat agurtzea eman zion, antzinako ohorea berau, egiteko arrakastaz burutu ondoren, armada garaileak pozez eta oldarrez txalotzen zituen buruzagientzat. Baziren zenbait enperadore batera, besteen berdintasunetik goratzen ez zirenak. Titulu hori Augustok ere emana zion zenbaiti, eta Tiberiok orduantxe eman zion Blesori, azkenengoz.

75. Urte hartan, bi goi gizon hil ziren: Asinio Salonino, Marko Agripa eta Asinio Polion aititengatik, eta Zesarren ilobarekin ezkontzekoa zen Druso anaiarengatik ospetsua; eta aipatua dudan Ateio Kapiton, lege ikasketengatik hirian goi maila zeukana, baina Silaren zenturioi bat aitita eta pretore ohi bat aita zuena. Augustok haren konsulatua azkartu egin zuen, ikasketa beretan gailentzen zen Labeon Antistiori gaina harziezaion, bere magistraturaren mailagatik. Izan ere, belaunaldi hark bakearen gailur biok batera eman zituen; baina Labeonek askatasunari usteltzeke eutsi zion eta, horregatik, entzutetsuago izan zen, Kapitonen morroikeria agintariei atseginago zitzaien bitartean. Hari, pretoretzan gelditurik, irainak ospea gehitu zion; honi, konsulgoa atzmanik, bekaitzak gorrotoa ekarri zion.

76. Junia ere, Katonen iloba, Gaio Kasioren emazte eta Marko Brutoren arreba, orduantxe hil zen, Filiposko batailatik hirurogeita lau urterra. Haren testamentuak zeresan handia eman zuen, zeren, oso aberatsa izanik eta ia gizon handi guztiak ohorez izendaturik, Zesar omititu baitzuen. Honek nasaiki hartu zuen eta ez zuen galarazi haren hiletak

*tur. Viginti clarissimarum familiarum imagines antelatae sunt, Manlii, Quinctii aliaque eiusdem nobilitatis nomina. Sed praefulgebant Cassius atque Brutus eo ipso quod effigies eorum non visebantur.*

goralben publikoz eta gainerako zeremoniaz edertzerik. Aurrelari, hogei familia ospetsuren irudiak zihoaZen; Manlio, Kintzio eta noblezia bereko beste izen batzuk. Baino distiratsuenak Kasio eta Bruto ziren, haien irudirik ikusten ez zelako, hain zuzen.

[1] C. Asinio C. Antistio consulibus nonus Tiberio annus erat compositae rei publicae, florentis domus (nam Germanici mortem inter prospera ducebant), cum repente turbare fortuna coepit, saevire ipse aut saevientibus viris praebere. Initium et causa penes Aelium Seianum cohortibus praetoriis praefectum cuius de potentia supra memoravi: nunc originem, mores, et quo facinore dominationem raptum ierit expediam. Genitus Vulsiniis patre Seio Strabone equite Romano, et prima iuventa Gaium Caesarem divi Augusti nepotem sectatus, non sine rumore Apicio diviti et prodigo stuprum veno dedisse, mox Tiberium variis artibus devinxit: adeo ut obscurum adversum alios sibi uni incautum intectumque efficeret, non tam sollertia (quippe isdem artibus vinctus est) quam deum ira in rem Romanam, cuius pari exitio viguit ceciditque. Corpus illi laborum tolerans, animus audax; sui obtegens, in alios criminator; iuxta adulatio et superbia; palam compositus pudor; intus summa apiscendi libido, eiusque causa modo largitio et luxus, saepius industria ac vigilantia, haud minus noxiae quotiens parando regno finguntur.

[2] Vim praefectureae modicam antea intendit, dispersas per urbem cohortis una in castra conducendo, ut simul imperia

1. Gaio Asinio eta Gaio Antistioen konsulaldian, baziren bederatzi urte Tiberiok errepublika ordenan gorbenatzen zuena, etxea loretan –Germanikoren heriotza onezkoen artean jotzen baitzuen–, eta, bat-batean, zoria dena hondatzen hasi zen, eta bera ere ankertzen edo anker jokatzen zutenei indarra ematen. Hasiera eta arrazoia Elio Seiano izan zen, kohorte pretoriarren prefektua, zeinaren boterea gorago aipatua dudan. Orain haren jatorriaz eta izaeraz mintzatuko naiz, eta zer makurki jo zuen botere osoaren harrapaketara. Bultsinian jaio eta Seio Estrabon zaldun erramatarraren seme, lehen gaztaroa Augusto jainkozkoaren biloba Gaio Zesarren inguruan eman zuen, ez zurrumurru gabe, Apizio aberats xahutzaileari mesede zikinak egin ez ote zizkion. Gero, zenbait trikimainaz, Tiberio bereganatu zuen, halako eran, non besteentzat hain iluna zenaren konfiantza osoa irabazi baitzuen; ez hainbeste antzez –triminaina berdinek menperatu baitzuten bera–, jainkoak erromatar estatuaren aurka hase-retzeagatik baizik, zeinari halako galmena ekarri zion haren gaingorak, zein gainbeherak. Gorputz nekagaitza eta gogo ausarta zeukan; trebea bere burua izkutatzen eta besteak salatzen; neurri bera adulaziorako, zein harrokeriarako; kanporantz, begirasun itxura, barrutik, botererik handienaren irritsa; eta, berau lortzeko, behin eskuzabalaz eta luxuaz baliatuko zen, behin trebetasunaz eta zaintzaz, ez gutxiago kaltegarri eurok, aginte grinaz fingitzen direnean.
2. Artean txikia zen prefekturaren boterea handitu egin zuen, hiriko kohorte sakabanatuak kuartel berean baturik, aginduak batera har zitzaten

*acciperent numeroque et robore et visu inter se fiducia ipsis, in ceteros metus oreretur. Praetendebat lascivire militem diductum; si quid subitum ingruat, maiore auxilio pariter subveniri; et severius acturos si vallum statuatur procul urbis inlecebris. Ut perfecta sunt castra, inrepere paulatim militaris animos adeundo, appellando; simul centuriones ac tribunos ipse diligere. Neque senatorio ambitu abstinebat clientes suos honoribus aut provinciis ornandi, facili Tiberio atque ita prono ut socium laborum non modo in sermonibus, sed apud patres et populum celebraret colique per theatra et fora effigies eius interque principia legionum sineret.*

[3] Ceterum plena Caesarum domus, iuvenis filius, nepotes adulti moram cupitis adferebant; et quia vi tot simul corriperi intutum dolus intervalla scelerum poscebait. Placuit tamen occultior via et a Druso incipere, in quem recenti ira ferebatur. Nam Drusus impatiens aemuli et animo commotior orto forte iurgio intenderat Seiano manus et contra tendentis os verberaverat. Igitur cuncta temptanti promptissimum visum ad uxorem eius Liviām convertere, quae soror Germanici, formae initio aetatis indecorae, mox pulchritudine praecellebat. Hanc ut amore incensus adulterio pellexit, et postquam primi flagitii potitus est (neque femina amissa pudicitia alia abnuerit), ad coniugii spem, consortium regni et necem marii impulit. Atque illa, cui avunculus Augustus, sacer Tiberius, ex Druso liberi, seque ac maiores et posteros municipali adultero foedabat ut pro honestis et praesentibus flagitiosa et incerta expectaret. Sumitur in conscientiam Eudemus, amicus ac medicus Liviae, specie artis frequens secretis. Pellit domo Seianus uxorem Apicatam, ex qua tres liberos genuerat, ne paelici suspectaretur. Sed magnitudo facinoris metum, prolationes, diversa interdum consilia adferebat.

[4] Interim anni principio Drusus ex Germanici liberis togam virilem sumpsit quaeque fratri eius Neroni decreverat senatus repetita. Addidit orationem Caesar multa cum laude filii sui quod patria benevolentia in fratribus liberos foret. Nam Drusus, quamquam arduum sit eodem loci potentiam et con-

eta, halako kopurua eta indarra ikusiz, euren buruaren konfiantzadun eta besteek beldurgarri bihur zitezen. Aitzakia ematen zuen soldadu sakabanaatuak laxotu egiten zirela; ustekaberik sortzekotan, denek batera laguntza handiagoa emango zutela; eta zorrotzago jokatuko zutela, hiriko tentazioetatik urrun kokatuz gero. Kuartela amaitutakoan, soldaduen gogoa irabazten hasi zen apurka-apurka, izenetik deituz; aldi berean, zenturioiak eta tribunoak berak hautatzen zituen. Senatuko azpijkokoari ere ekiten zion, bere kienteak ohore eta gobernuekin sarituz, Tiberio etorkor eta hain alde zuela, ezen ez baitzuen hura, nekelaguntzat, solasetan bakarrik goratzen, gurasoen eta herriaren aurrean baizik, eta haren irudiak, antzoki eta foroetan eta legioen agintelekuetan, ohoratuak izaten uzten zuen.

3. Bestalde, Tiberioren etxe Zesarrez betea, haren seme gazte eta biloba jadanik haziak, Seianoren gutiziaren oztopo ziren; eta hainbeste lagun batera indarrez bistatik kentzea hain segurra ez zenez, atzipeak krimen tarteak behar zituen. Hala ere, bide ezkutuagotik hastea pentsatu zuen, Drusorengandik hain zuzen, zeinaren aurka orauntsuko gorroto bat zeukan. Zeren Drusok, arerioa ezin jasanik eta oldartsua izanik, behin, eztabaidea kasual batean, Seianori eskua czarri baitzion eta, honek erantzun nahi izatean, aurpegikoa eman. Hala, bada, zernahirako gertu, egokiena haren emazte eta Germanikoren arreba Libiarengana inguratzea iruditu zitzaison, zeina, lehen urteetan itsusi samarra, gero edertasunean nabarmendu zen. Maitemindurik bezala, adulteriora era man zuen eta, lehen hobenarekin, hartaz jabetu zenean –pudorea galten duen emakumeak ezin baitio ezeri uko egin–, ezkontzeko itxaropenera, aginte konpartitura eta senarraren hilketara xaxatzen hasi zen. Eta berak, Augustoren biloba, Tiberioren errain eta Drusoren umeen amak, bere burua eta aurretikoak eta ondorengoak desohoratzent zituen, adulterio arrunt bat burutuz eta, orainaldi prestuaren ordez, etorkizun kriminala eta zalantzazkoa irrikatuz. Eudemo, Libiaren lagun eta mediku, sozio egin zuten, lanbidez, haien intimitatean maiz zibilena. Seianok emazte Apikata, zeinarenengandik hiru ume izan zituen, etxetik bida li zuen, maitaleak errezelorik izan ez zezan. Baino krimenaren handiak beldurra, atzerapenak eta, inoiz, erabaki aurkakoak eragiten zituen.

4. Bitartean, urte hasieran, Drusok, Germanikoren semeetariko batek, gizon toga jantzi zuen eta senatuk haren anaia Neronen aldeko dekrekuak errepikatu zituen. Zesarrek bere semearen gorespen handiko min-

*cordiam esse, aequus adolescentibus aut certe non adversus habebatur. Exim vetus et saepe simulatum proficisciendi in provincias consilium refertur. Multitudinem veteranorum praetexebat imperator et dilectibus supplendos exercitus: nam voluntarium militem deesse, ac si suppeditet, non eadem virtute ac modestia agere, quia plerumque inopes ac vagi sponte militiam sumant. Percensuitque cursim numerum legionum et quas provincias tutarentur. Quod mihi quoque exequendum reor, quae tunc Romana copia in armis, qui socii reges, quanto sit angustius imperitatum.*

[5] *Italiam utroque mari duae classes, Misenum apud et Ravennam, proximumque Galliae litus rostratae naves praesidebant, quas Actiaca victoria captas Augustus in oppidum Foroiuliense miserat valido cum remige. Sed praecipuum robur Rhenum iuxta, commune in Germanos Gallosque sub-sidium, octo legiones erant. Hispaniae recens perdomitae tribus habebantur: Mauros Iuba rex accepérat donum populi Romani. Cetera Africae per duas legiones parique numero Aegyptus, dehinc initio ab Syriae usque ad flumen Euphraten, quantum ingenti terrarum sinu ambitur; quattuor legionibus coercita, accolis Hibero Albanoque et aliis regibus qui magnitudine nostra proteguntur adversum extema imperia et Thraeciam Rhoemetalces ac liberi Cotyis, ripamque Danuvii legionum duae in Pannonia, duae in Moesia attinebant, totidem apud Delmatiam locatis, quae positu regionis a tergo illis, ac si repentinum auxilium Italia posceret, haud procul accirentur; quamquam insideret urbem proprius miles, tres urbanae, novem praetoriae cohortes, Etruria ferme Vmbriaque delectae aut vetere Latio et coloniis antiquitus Romanis. At apud idonea provinciarum sociae triremes alaeque et auxilia cohortium, neque multo secus in iis virium: sed persequi incertum fuit, cum ex usu temporis huc illuc mearent, gliscerent numero et aliquando minuerentur.*

[6] *Congruens crediderim recensere ceteras quoque rei publicae partis, quibus modis ad eam diem habitae sint, quoniam Tiberio mutati in deterius principatus initium ille annus*

*tzaldia egin zuen, anaaren semeekin onberatasun aitakorra erabili zuelako. Zeren Druso, agintea eta konkordia toki berean egotea zaila bada ere, mutil haienkiko onberatzat eta ez etsaitzat, noski, baitzeukaten. Gero, berriro mintzatu zen probintziak bisitatzeko asmo zahar eta maiz itxuratiaz. Enperadorearen aitzakia zen beteranoen kopuru izugarria eta armadak erreklutekin osatu beharra; soldadu boluntarioak falta baitziren eta, egonik ere, ez zuten kemen eta diziplina berdinez jokatzen, milizian sartzen ziren gehienak behartsuak eta eskaleak baitziren. Legioen kopurua eta eurok zaintzen zituzten probintziak azkar ikusku-tu zituen. Merezi duela uste dut kontatzea Erromak orduan zenbat indar armatu zeukan, zenbat errege aliatu, eta imperioa zenbat txikiagoa zen.*

5. Italia itsaso bietako flotek babesten zuten, Misenon eta Ravenan, eta Galia ondoko itsaserta Akzioko garaipenean harrapaturiko gerra ontziek, Augustok Frejusera arraunlari sorta indartsuarekin bidaliek, zaintzen zuten. Baino indar nagusia Rhin ondoan zegoen, germaniarren eta galarren aurkako guarnizio moduan; zortzi legio ziren. Berriki menperaturiko Hispaniak hirurekin zaintzen ziren. Mairuak Juba erre-gearri emanak izan ziren, erromatar herriaren opari legez. Gainerako Afrika bi legioren mende zegoen eta Egipto ere berdin. Hortik harantz, Siriaren hasieratik Eufrates ibairaino, golko izugarriaren barru guztia lau legiok menperatzen zuten, mugakide izanik hiberoak, albanok eta beste errege batzuk, imperio arrotzen aurka, gure handitasunean babes-ten direnak. Trazia Remetalzesek eta Kotisen semeek zeukaten, eta Danubio ingurua, bi legiok Panonian, eta bik Mesian; eta beste hain-bestek zeuden Dalmazian. Hauen posizioa haien bizkarra zen eta, Italiak berehalako laguntzarik behar izanez gero, ez zeuden urrun, etorrarako, nahiz eta Erroma bere soldaduek zaintzen zuten: hiru hiri kohorte eta hamar pretoriar ziren, gehienak Etrurian eta Unbrian erreklutatuak, edo Lazio zaharrean eta antzinako erromatar kolonietan. Gainera, hala eskatzen zuten probintzietai, aliatuen trirremeak eta zaldieria eta kohorte laguntzaileak ipini zituzten, besteak baino ez indar askoz makalagoak eurok; baina zehazten ez dago erraz, denborarekin, batetik bestera igaro, kopuruz handitu eta, inoiz, txikitu egin baitziren.

6. Errepublikaren beste arloak ere, eta hauek ordura arte nola joan ziren ikuskatzeari egoki deritzot, urte hura Tiberioren agintaldiaren okerrerranzko aldakuntzaren hasiera izan baitzen. Lehenik, arazo publi-

*attulit. Iam primum publica negotia et privatorum maxima apud patres tractabantur; dabaturque primoribus dissenseret et in adulationem lapsos cohiebat ipse; mandabatque honores, nobilitatem maiorum, claritudinem militiae, iniustris domi artes spectando, ut satis constaret non alios potiores fuisse. Sua consulibus, sua praetoribus species; minorum quoque magistratum exercita potestas; legesque, si maiestatis quaestio eximeretur, bono in usu. At frumenta et pecuniae vectigales, cetera publicorum fructuum societatibus equitum Romanorum agitabantur. Res suas Caesar spectatissimo cuique, quibusdam ignotis ex fama mandabat, semelque adsumpti tenebantur prorsus sine modo, cum plerique isdem negotiis insenescere. Plebes acri quidem annona fatigabatur; sed nulla in eo culpa ex principe: quin infecunditati terrarum aut asperis maris obviam iit, quantum impendio diligentiaque poterat. Et ne provinciae novis oneribus turbarentur utque vetera sine avaritia aut crudelitate magistratum tolerarent providebat: corporum verbera, ademptiones bonorum aberant. Rari per Italiam Caesaris agri, modesta servitia, intra paucos libertos domus; ac si quando cum privatis disceptaret, forum et ius.*

[7] *Quae cuncta non quidem comi via sed horridus ac plerumque formidatus retinebat tamen, donec morte Drusi veterentur: nam dum superfuit mansere, quia Seianus incipiente adhuc potentia bonis consiliis notescere volebat, et ulti metuebatur non occultus odii set crebro querens ro incolumi filio adiutorem imperii alium vocari. Et quantum superesse ut collega dicatur? primas dominandi spes in arduo: ubi sis ingressus, adesse studia et ministros. Extracta iam sponte praefecti castra, datos in manum milites; cerni effgiem eius in monumentis Cn. Pompei; communis is illi cum familia Druorum fore nepotes: precandam post haec modestiam ut contentus esset. Neque raro neque apud paucos talia iaciebat, et secreta quoque eius corrupta uxore probebantur.*

[8] *Igitur Seianus maturandum ratus deligit venenum quo paulatim inrepente fortuitus morbus adsimularetur. Id*

koak eta pribaturik handienak senatuan tratatzen ziren; gorenek bazu- ten eztabaidegunea, eta Tiberiok berak mozten zituen zurikeriara lerra- tzen zirenak. Karguak banatzen zituen, begiratuz arbasoen nobleziari, meritu militarrei eta bertute zibil nabariei, gehiago merezi zuenik ez zegoela nahikoa argi gelditzeko moduan. Kontsulek eta pretoreek euren itxurari eusten zioten; magistratura txikiagoen agintea ere abian zen, eta legeak, maiestate kontua kenduz gero, ondo erabili ziren. Ostera, gari eta diru zergen eta gainerako errenta publikoen ardura zaldun erro- matarren sozietateek zeramatzen. Zesarrek bere ondasunak ondoen ikusi- en, baina baita izen oneko ezezagunen esku ere uzten zituen, eta, behin hautaturik, denbora mugagabeen edukitzen zituen, asko eginkiziun berberetan zahartzeraino. Herria nekaturik zegoen, bai, gari faltaz, baina printzeak ez zeukan inolako errurik; areago, lurren antzutasuna eta itsasoaren laztasuna erremediatu nahi izan zituen, ahal adinako gas- tuz eta arretaz. Probintziak zama gehiagorekin ez asaldatzea eta lehen- goari eustea, magistratuengutxiarik eta ankerkeriarik gabe, horixe zuen arduretariko bat; ez zegoen gorputz zigorrik, ez ondasunen bahi- ketarik. Zesarren Italiako lurrik urriak ziren, esklabo kopurua ere urria, eta etxeen liberto bakanak zeuzkan; eta partikularrekin auziren bat zeu- kanean, auzitegira eta zuzenbidera jotzen zuen.

7. Hori guztia, ez era adeikorrean, baizik zakar eta, gehienean, bel- durgarrian egiten zuen, Drusoren heriotzak dena aldatu arte. Izan ere, hura bizi zeno hala izan zen, zeren, Seianoren boterea oraindik hasie- ran egonik, aholku onengatik gailendu nahi zuen, eta Drusoren mende- kuaren beldur zen, zeinak ez zion gorrotorik ezkutatzen, bai ostera etengabe kexatzen, Tiberiok, seme bat bizirik edukirik, beste bati dei- tzen ziolako agintean laguntzaile. Zenbat falta zuen, kide izendatzeko? Ohartzen zen aginte itxaropena, lehenengotan, aldasgoran joaten dela, baina, abiatutakoan, babes eta zerbitzari ugari agertzen dela; kuartela eraikia zela, prefektuaren gogora, eta soldaduak eskuan jarri zitzakiola; haren estatua Gneo Ponpeioren monumentuetan ageri zela, eta Drusotarren familiarekin biloba komunak izatera zihuala; eta, horien denen ondoren, doitasuna eskatu behar zitzaiola, pozik egon zedin. Gaitzespen horiek ez gutxitan eta ez jende gutxiren aurrean jaurtitzen zizkion, eta, gainera, haren sekretuak emazte ustelak bistaratzen zituen.

8. Beraz, Seianok, bizkortu egin behar zela pentsaturik, pozoi bat hautatu zuen, astiro eraginez, berezko gaixotasuna emango zuena.

*Druso datum per Lygdum spadonem, ut octo post annos cognitum est. Ceterum Tiberius per omnis valetudinis eius dies, nullo metu an ut firmitudinem animi ostentaret, etiam defuncto necdum sepulto, curiam ingressus est. Consulesque sede vulgari per speciem maestitiae sedentis honoris locique admonuit, et effusum in lacrimas senatum victo gemitu simul oratione continua erexit: non quidem sibi ignarum posse argui quod tam recenti dolore subierit oculos senatus: vix propinquorum adloquia tolerari, vix diem aspici a plerisque lugentium. Neque illos imbecillitatis damnandos: se tamen fortiora solacia e complexu rei publicae petivisse. Miseratusque Augustae extremam senectam, rudem adhuc nepotum et vergentem aetatem suam, ut Germanici liberi, unica praesentium malorum levatnenta, inducerentur petivit. Egressi consules firmatos adloquio adulescentulos deductos que ante Caesarem statuunt. Quibus adprensis ‘patres conscripti, hos’ inquit ‘orbatus parente tradidi patrno ipsorum precatusque sum, quamquam esset illi propria suboles, ne secus quam snum sanguinem foveret attolleret, sibique et posteris coniormaret. Erepto Druso preces ad vos converto disque et patria coram obtestor: Augusti pro nepotes, clarissimis maioribus genitos, suscipite regite, vestram meamque vicem explete. Hi vobis, Nero et Druse, parentum loco. Ita nati estis ut bona malaque vestra ad rem publicam pertineant.*

[9] *Magno ea fletu et mox precationibus faustis audita; ac si modum orationi posuisset, misericordia sui gloriaque animoi audientium impleverat: ad vana et totiens inrisa revolutus, de reddenda re publica utque consules seu quis alius regimen susciperent, vero quoque et honesto fidem dempsit. Memoriae Drusi eadem quae in Germanicum decernuntur, plerisque additis, ut ferme amat posterior adulatio. Funus imaginum pompa maxime inlustre fuit, cum origo luliae gentis Aeneas omnesque Albanorum reges et conditor urbis Romulus, post Sabina nobilitas, Attus Clausus ceteraque Claudiorum effigies longo ordine spectarentur.*

Ligdo eunukoak eradan zion, handik zortzi urtera jakin zenez. Beste-la, Tiberiok, Drusoren gaixoaldi guztian, beldurrik ezaurren edo gogoz sendo agertzearen, baita hila eta oraindik ehortzi gabea zela ere, ez zuen senatura huts egin. Konsulak, dolu erakutsian, aulkia arruntetan eseri zirenean, euren dignitatea eta tokia gogoratu zien; eta, senatuak negarrari eman zionean, berak malkoei eutsi eta gogoak altxatu zituen, mintzaldirik eten gabe: ez ei zegoen ezjakinean, hain samin berrian, senatura aurkeztea aurpegitatzen ahal ziotela, doluan dauden gehienek ozta jasaten baitute etxekoekin hitz egitea, ozta eguna ikus-tea bera; ez ei zituen ahulagatik ere gaitzetsiko, baina kontsolamen-du sendoagoa aurkitu ei zuen, errepublika besarkatuz. Samindu zen Augustaren zahartasun aurreratuaz, biloben adin oraindik samurraz eta berearen erortunaz, eta Germanikoren semeak sarraratzeko agin-du zuen, gaitz presenteen leungarri bakkarrak. Konsulek, irten eta mutilei animo hitza esan ondoren, eraman eta Zesarren aurrean eza-rriz zituzten. Tiberiok, haiei eskutik heldurik, esan zuen: «Guraso koniskriptuok, haurrok aita gabe gelditu zirenean, euron osabari eman eta eskatu nion, bere umeak zituen arren, odoleko bezala zain eta lagun zitzala, eta bere antzeko egin zitzala, geroaren onerako. Druso joan zaigunez gero, zueri erregutzen dizuet, eta sorterriaren eta Jainkoen aurrean lekuko egiten: Augustoren biribiloba hauek, arbaskorik ospetsuenengandik sortuak, hartu eta gida itzazue; bete zeuen eta neure egitekoa. Hauexek, Neronek eta Drusok, beteko dute gurasoen tokia. Hala jaioak zarete, ezen zuen on-txarrak errepublikarenak bai-tira».

9. Hitz hauek negar handiz eta, gero, oparatason erreguz entzun ziren; eta, mintzaldiari amaia ipini balio, entzuleen gogoak errukiz eta beraganako aintzaz beteko zituen; baina gai hutsal eta maiz barregari izaniko hartara itzuli zen, hots, errepublika berrezartzea eta konsulak edo beste norbait hartaz arduratzea, horrekin egiaz eta zintzo esana zezakeenari sinesgarritasuna kentzen ziola. Drusoren gomutan, Germanikorenean bezalako ohoreak dekretatu ziren, beste hainbat gehituriak, adulazio aski ezagunaren apetaren arabera. Hiletak txit arranditsuak izan ziren irudien segidaz, desfile luzean ageri baitziren Julia sendiaren jatorria, Eneas eta errege albano guztiak eta Romulo, hiria-ren sortzailea, gero sabinar noblezia, Atto Klauso eta Klaudioen gainerako irudiak.

[10] In tradenda morte Drusi quae plurimis maximaequa fidei auctoribus memorata sunt rettuli: set non omiserim eorundem temporum rumorem validum adeo ut nouidum exolescat. Corrupta ad scelus Livia Seianum Lygdi quoque spadonis animum stupro vinxisse, quod is [Lygdus] aetate atque forma carus domino interque primores ministros erat; deinde inter conscos ubi locus beneficii tempusque composita sint, eo audaciae provectum ut verteret et occulto indicio Drusum veneni in patrem arguens moneret Tiberium vitandam potionem quae prima ei apud filium epulanti offerretur. Ea fraude captum senem, postquam convivium inierat, exceptum poculum Druso tradidisse; atque illo ignaro et inveniliter hauriente auctam suspicionem, tamquam metu et pudore sibimet inrogaret mortem quam patri struxerat.

[11] Haec vulgo iactata super id quod nullo auctore certo firmantur prompte refutaveris. Quis enim mediocri prudentia, nedum Tiberius tantis rebus exercitus, inaudito filio exitium offerret, idque sua manu et nullo ad pacnitendum regressu? quin potius ministrum veneni excruciaret, auctorem exquireret, insita denique etiam in extraneos cunctatione et mora adversum unicum et nullius ante flagitii compertum uteretur? sed quia Seianus facinorum omnium repertor habebatur; ex nimia caritate in eum Caesaris et ceterorum in utrumque odio quamvis fabulosa et immania credebantur; atrociore semper fama erga dominantium exitus. Ordo alioqui sceleris per Apicatam Seiani proditus tormentis Eudem ac Lygdi patefactus est. Neque quisquam scriptor tam infensus extitit ut Tiberio obiectaret, cum omnia alia conquirerent intenderentque. Mihi tradendi arguendique rumoris causa fuit ut claro sub exemplo falsas auditiones depellerem peteremque ab iis quorum in manus cura nostra venerit ne divulgata atque incredibilia avide accepta veris neque in miraculum corruptis antehabeant.

[12] Ceterum laudante filium pro rostris Tiberio senatus populusque habitum ac voces dolentum simulatione magis quam libens in duebat, domumque Germanici revirescere

10. Drusoren heriotza kontatzean, ahalik autorerik gehienetan fidalgoen lekukotzak erabili ditut; baina ez nuke ahaztu nahi garai hartan zabaldu zen zurrumurru bat, hain indartsua, ezen oraindik ez baita ezabatu: Libia krimenerako usteldu ondoren, Seianok Ligdo eunukoaren gogoa ere lizunkeriaz kateatu zuela, zeren, haren adin eta edertasunagatik, ugazabaren oso maitea baitzen eta, zerbitzarien artean, toki gorena baitzeukan; gero, konplizeen artean, non-noiz pozoi finkatua zutenean, halako ausardiara iritsi ei zen, ezen gauzei buelta eman baitzien eta, Druso aita pozoi nahi izateaz ezkutuan salatu ondoren, Tiberio ohartarazi baitzuen, semearen etxearen otordurik izatean, eskainitzen zioten lehen kopa edatea ekidin zezala. Agurea atzipean jausi ei zen eta, otordua abiaturik, hartutako kopakada Drusori pasatu ei zion, eta honek, ezkakinean eta gazte eran, gluk edatean, Tiberioren susmoak gehitu ei zituen, lotsaz eta beldurrez, aitarentzat prestaturiko heriotza beretzat hartu balu bezala.

11. Jendearen esamesa hauek, ezein autore ziurrengan oinarririk ez izateaz gainera, evezta-errazak dira. Zeren zentzu laurdenik duen nork –eta hain gutxi hainbesteko esperientzia zeukan Tiberiok– semeari heriotza eskainiko lioke entzun gabe, bere eskutik eta inolako damubide gabe? Ez al zuen, areago, pozoi emailea torturatuko, eragilea bilatuko, hitz batez, ez al zuen arrotzen aurrean ere ohiko zuen jarrera zalantzati eta mantsora joko, seme bakar eta sekula doilorkeriarik agertu ez zuenaren aurrean? Baino Seiano edozein gaiztakeriaren asmatzailetzat jotzen zutenez gero, Zesarren harenganako maitasun handiegiagatik eta besteen bienganako gorrotoagatik, dena sinesten zen, alegiazkoak zein astakeriak izan, beti ere, gainera, printzeen heriotzari buruzko esamesak bereziki lazgarriak izaten baitira. Bestalde, krimenaren garapena Seianoren emazte Apikatak agertu zuen, eta Eudemori eta Ligdori ezarritako torturengatik bistaratzen zen. Ez da izan idazle hain kontrakorik Tiberiori esleitu dionik, beste kontu guztietan miatua eta hanpatua izan bada ere. Zurrumurrua jaso eta kritikatzeko arrazoi bakarra izan dut gezurrezko esamesak adibide argi batekin deuseztea, eta gure lana eskura heltzen zaienei eskatzea zurrumurruak eta gutiziaz entzuten diren zer sinestezinak ez ipintzeko egiaren eta harrigarriaren arabera itxurgatu ez diren gertaeren aurretik.

12. Bestela, Tiberiok, Aurpegien aurrean, semea goresten zuen bitartean, senatuak eta herriak doluetan ohi diren jarrera eta erostoi gehiago

*occulti laetabantur: Quod principium favoris et mater Agrippina spem male tegens perniciem adceleravere. Nam Seianus ubi videt mortem Drusi inultam interfectoribus, sine maerore publico esse, ferox scelerum et, quia prima provenerant, voluntare secum quonam modo Germanici liberos perverteret, quorum non dubia successio. Neque spargi venenum in tres poterat, egregia custodum fide et pudicitia Agrippinae impenetrabili. Igitur contumaciam eius insectari, vetus Augustae odium, recentem Liviae conscientiam exagitare, ut superbam secunditate, subnixam popularibus studiis inhiare dominatio ni apud Caesarem arguerent. Atque haec callidis criminibus, inter quos delegerat Iulium Postumum, per adulterium Mutiliae Priscae inter intimos aviae et consiliis suis perdoneum, quia Prisca in animo Augustae valida anum suapte natura potentiae anxiam insociabilem nurui efficiebat. Agrippinae quoque proximi inliciebantur pravis sermonibus tumidos spiritus perstimulare.*

[13] *At Tiberius nihil intermissa rerum cura, negotia pro solaciis accipiens, ius civium, preces sociorum tractabat; factaque auctore eo senatus consulta ut civitati Cibyraticae apud Asiam, Aegensi apud Achiam, motu terrae labefactis, subveniretur remissione tributi in triennium. Et Vibius Sernus pro consule ulterioris Hispaniae de vi publica damnatus ob atrocitatem morum in insulam Amorgum deportatur. Carcidius Sacerdos, reus tamquam frumento hostem Tacfarinatem iuvisset, absolvitur; eiusdemque criminis C. Gracchus. Hunc comitem exilio admodum infantem pater Sempronius in insulam Cercinam tulerat. Illic adultus inter extorris et liberalium artium nescios, mox per Africam ac Siciliam mutando sordidas merces sustentabatur; neque tamen effugit magnae fortunae pericula. Ac ni Aelius Lamia et L. Apronius qui Africam obtinuerant insontem protexissent, claritudine infausti generis et paternis s adversis foret abstractus.*

[14] *Is quoque annus legationes Graecarum civitatum habuit, Samis Iunonis, Cois Aesculapii delubro vetustum asyli ius ut firmaretur petentibus. Samii decreto Amphictyo-*

ekin zieten itxuraz, egiaz baino, eta, euren baitan, Germanikoren etxearen berdatzeaz pozten ziren. Ospe hau abiatzeak eta amaren, bere asmoak gaizki ezkutatzen zituen Agripinaren jarrerak, hondamena azkartu zuten. Zeren Seiano, Drusoren heriotza mendeku gabe gelditzen zela eta samin publikorik ez zuela sortzen ikustean, krimenean sendotu egin zen, eta, lehenengoak ondo irten zitzakizionez, bere kau tan pentaketa hasi zen nola gal zitzakeen Germanikoren semeak, zeintzuen ondorengotzan ez zegoen dudarik. Bestetik, hirurak ezin zituen pozoitu, zaintzaileen leialtasun osoa eta Agripinaren onestasun sargaitza tartean zirela. Beraz, emakume haren ohiltasuna tentatzea eta, haren aurka, Augustaren erremin zaharra eta Libiaren konplizitate berria xaxatzea pentatu zuen, Zesarren aurrean sala zezaten hark, ugalkortasunaren harroz eta herriaren gogoa alde zuela, aginteaz jabetu nahi zuela. Asmoa salatari maltzurrekin aurrera eraman zuen, zeintzuen artean Julio Postumo hautatu zuen, amamaren intimoen arteko berau, Mutilia Priskarekiko adulterioa bide zela, eta, horregatik, bere asmoetarako txit egokia, zeren Priskak, Augustaren gogoan eragin handikoak, berezko aginte gosea birlobaren emaztearen aukako gorroto bihurtzen baitzuen. Agripinaren ingurukoak ere bereganatzetan zituen, hitz bihurriz, haien harrokeria astintzeko.

13. Tiberiok, berri, aginte lanei batere utzi gabe, eta gobernua kontsolamendutzat harturik, hiritarren justizian eta aliatuen eskariak konpontzen ziharduen. Berak proposaturik, senatuaren dekretuak burtu ziren, Asiako Zibira hiriari eta Akaiko Egiori laguntzeko, hiru urteko zergen barkamenez. Gainera, Hispania Ulteriorgo prokonsula, Bibio Sereno, indarkeria publikoz kondenatua, bere ohilkeriagatik, Amorgo irlara deportatu zuten. Karsidio Sazerdos, Takfarinate etsaiari gariz laguntzeagatik salatua, absolbitu egin zuten, baita Gaio Grako ere, hoben berdinagatik. Hau, oraindik txit haurra zela, Senpronio aitak erbestelagun eraman zuen Zerzinako irlara. Han inolako eskolarik gabeko gaizkile artean hazi zen eta, gero, Afrikan eta Sizilian zehar, jenero zantarren salerositik bizi zen; baina goi mailaren arriskuei ezin izan zien ihes egin. Afrika gobernatu zuten Elio Lamiak eta Luzio Aproniok haren errugabetasunik babestu ez balute, bere leinu dohakabearen ospeak eta aitaren ezbeharrek akabatuko zuten.

14. Urte harten, hiri grekoetatiko legazioak ere izan ziren, Junoren tenuarentzat Samosen, eta Eskulapiorenarentzat Kosen, asilo eskubide

*num nitebantur, quis praecipuum fuit rerum omnium iudicium, qua tempestate Graeci conditis per Asiam urbibus ora maris potiebantur. Neque dispar apud Coos antiquitas, et accedebat meritum ex loco: nam civis Romanos templo Aesculapii induxerant, cum iussu regis Mithridatis apud cunctas Asiae insulas et urbes trucidarentur. Variis dehinc et saepius in ritis praetorum questibus, postremo Caesar de immodestia histriorum rettulit: multa ab iis in publicum seditiose, foeda per domos temptari; Oscum quondam ludicum, levissimae apud vulgum oblectationis, eo flagitorum et virium venisse ut auctoritate patrum coercendum sit. Pulsi tum histriones Italia.*

[15] *Idem annus alio quoque luctu Caesarem adficit alterum ex geminis Drusi liberis extinguendo, neque minus morte amici. Is fuit Lucilius Longus, omnium illi tristium laetorumque socius unusque e senatoribus Rhodii secessus comes. Ita quamquam novo homini censorium funus, effigiem apud forum Augusti publica pecunia patres decrevere, apud quos etiam tum cuncta tractabantur; adeo ut procurator Asiae Lucilius Capito accusante provincia causam dixerit, magna cum adseveratione principis non se ius nisi in servitia et pecunias familiares dedisse: quod si vim praetoris usurpasset manibusque militum usus foret, spreta in eo mandata sua: audirent socios. Ita reus cognito negotio damnatur: Ob quam ultionem et quia priore anno in C. Silanum vindicatum erat, decrevere Asiae urbes templum Tiberio matrique eius ac senatui. Et permissum statuere; egitque Nero grates ea causa patribus atque avo, laetas inter audientium affectiones qui recenti memoria Germanici illum aspici, illum audiri rebanuntur. Aderantque iuveni modestia ac forma principe viro digna, notis in eum Seiani odiis ob periculum gratiora.*

[16] *Sub idem tempus de flamme Diali in locum Servi Maluginensis defuncti legendi, simul roganda nova lege disseruit Caesar. Nam patricios confarre atis parentibus genitos tres simul nominari, ex quis unus legeretur, vetusto more; neque adesse, ut olim, eam copiam, omissa confarreandi adsuetudi-*

zaharra berresteko eskatuz. Samoskoak Anfikcioien dekretuan oinarritzen ziren, zeintzuek jurisdikzio orokorra zeukaten, grekoak, Asian fundaturiko hirien bitartez, itsasertz hartan nagusi ziren garaian. Kosekoen antzinatasuna ez zen txikiagoa, eta lekuaren meritua gehitzentzitzaion: izan ere, Eskulapioren tenpluan, erromatar hiritarrak babestu baititzutzen, Mitridates erregearen aginduz, Asiako irla eta hiri guztietan erahilak zirenean. Gero, pretoreen hainbat kexu hainbatetan desentzun ondoren, Zesarrek, noizbait, histrioien lotsagabekeriari heldu zion. Gogoratu zuen haien ausarkeriak, sarritan, sedizio keinuak publikoan egitera eta etxe pribatuak desohoratzera zeramatza; behinolako fartsa oskoa, populuan txitx arrakasta urriko, hain eskandalu eta indarkeria zorrotzera heldu zela, ezen senatuaren agintea moztu behar zuela. Histrioak, beraz, Italiatik bidali egin zituzten.

15. Urte berak beste lutu bat ekarri zion Zesarri, Drusoren seme bikietariko bat eramanik. Eta ez zion gutxiago eragin lagun baten heriotzak. Luzilio Longo zen, haren lagun beti, txarrean zein pozean, eta Rodasko erretirora jarraitu zion senatari bakarra. Eta hala, leinu gabeko gizona izan arren, senatuak hileta handia dekretatu zion, eta estatua bat Augustoren Foroan, diru publikotik, zeren senatua gai guztiez aritzen baitzen oraindik; hala, Luzio Kapiton, Asiako prokuradorea, probintziaren salakatik defendatu zenean, printzeak borobilki jaulki zuen berak ez ziola esklaboez eta etxe ondareaz beste eskubiderik eman; pretorearen esku menak beragandu eta soldaduen indarraz baliatu bazen, bere aginduei desmen egin ziela; beraz, entzuteko aliatuei. Hala, auzia ikerturik, erruduna kondenatua izan zen. Zigor honengatik eta, aurreko urtean, Gaio Silanori ezarriagatik, Asiako hiriek Tiberiori eta haren amari, eta senatuari, tenplu bat eraikitza erabaki zuten. Proposamena onartu zen eta, motibo harekin, Neronek senadore eta aititarenganako esker onezko mintzaldia egin zuen, entzuleriaren xera atseginez, zeinak, Germanikoren gomuta oraindik berri, huraxe ikusi eta entzun uste baitzuen. Mutilik, gainera, itxura apala eta printzeari dagokion lerduntasuna zeukan, maitagarriago egiten zuena, Seianok nola gorroto zuen jakinik.

16. Garai berean, Serbio Maluginentse zenu berriaren ordezko Jupiterren flamena hautatzeaz eta hartarako lege berezia diktatzearen komenentziaz mintzatu zen Zesar. Hala, gogoratu zuen, ohitura zaharrean, gurasoak gari-opilaren arabera ezkondu zitzaizkien hiru patrizio

*ne aut inter paucos retenta (pluresque eius rei causas adferebat, potissimum penes incuriam virorum feminarumque; accedere ipsius caerimoniae difficultates quae consulto vitarentur) et quoniam exiret e iure patrio qui id flamonium apiceretur quaeque in manum flaminis conveniret. Ita medendum senatus decreto aut lege, sicut Augustus quaedam ex horrida illa antiquitate ad praesentem usum flexisset. Igitur tractatis religionibus placitum instituto flaminum nihil demutari: sed lata lex qua flaminica Dialis sacrorum causa in potestate viri, cetera promisco feminarum iure ageret. Et filius Maluginensis patri suffectus. Utque gliseret dignatio sacerdotum atque ipsis promptior animus foret ad capessendas caerimonias decretum Corneliae virginis, quae in locum Scantiae capiebatur; sestertium viciens, et quotiens Augusta theatrum introisset ut sedes inter Vestalium consideret.*

[17] *Cornelio Cethego Visellio Varrone consulibus pontifices eorumque exemplo ceteri sacerdotes, cum pro incolumitate principis vota susciperent, Neronem quoque et Drusum isdem dis commendavere, non tam caritate iuvenum quam adulacione, quae moribus corruptis perinde anceps, si nulla et ubi nimia est. Nam Tiberius haud umquam domui Germanici mitis, tum vero aequari adulescentes senectae suaem impatienser indoluit accitosque pontifices percontatus est num id precibus Agrippinae aut minis tribuissent. Et illi quidem, quamquam abnuerent, modice perstricti; etenim pars magna e propinquis ipsius aut primores civitatis erant: ceterum in senatu oratione monuit in posterum ne quis mobilis adulescentium animos praematuris honoribus ad superbiam extolleret. Instabat quippe Seianus incusabatque diductam civitatem ut civili bello: esse qui se partium Agrippinae vocent, ac ni resistatur; fore pluris; neque aliud gliscantis discordiae remedium quam si unus alterve maxime prompti subverterentur.*

[18] *Qua causa C. Silius et Titium Sabinum adgreditur. Amicitia Germanici perniciosa utriusque, Silio et quod ingentis exercitus septem per annos moderator partisque apud Ger-*

*izendatzen zirela, zeintuetarik bat hautatzen zen; baina orain ez zegoela lehen adina hautagai, halako gari-opil ezteia galtzen ari edo oso gutxik eusten ziolako; horren zenbait arrazoi ematen zuen, batez ere gizonen eta emakumeen axolagabekeria, eta saihestu nahi ziren erritoraren beraren zaitasunak; baita flamen egiten zenak eta harekin ezkontzen zen emakumeak gurasoen eskumenetik alde egiten zuela ere; bidezko zen, beraz, senatuak dekreto edo lege batekin erremedia zezan, Augustok antzinate zakar hartako zenbait ohitura oraingo premietara egokituzituen moduan. Hala, kultuez aritu ondoren, flamenen estatu-tuan ezer ez aldatzea onartu zen; baina lege bat eman zuten, zeinaren arabera, Jupiterren flamenandrea erlijio kontuan bakarrik egongo zen senarraren eskumenean, eta gainerakoan, emakumeei dagokien esku-menean. Maluginentsearen semea aitaren ondorengo izendatu zuten. Abadeen dignitatea handitzeko eta gogoa kultu lanerako zerbitzalago izan zezaten, Eskantziaren tokia hartzen zuen Kornelia birjinarentzat milioi bi sestertziko bozkatu ziren, eta Augusta, antzerkira zihoan guz-tian, bestalen artean eser zedila.*

17. Kornelio Zetego eta Bisilio Barronen kontsulaldian, pontificeek eta, haien etsenplura, beste abadeek, printzearen osotasunaren aldeko eskariak egitean, Neron eta Druso ere sartu zituzten otoi-zean, ez hain-bestea mutileganako xeraz, adulazioz baizik, zeina, ohituren ustelaroen, berdin arriskutsua den, hutsa zein gehiegizkoa denean. Zeren Germanikoren etxea inoiz maite izan ez zuen Tiberio erremindu egin baitzen orduan, mutikoak bere zahartasunarekin berdindu zituztelako, eta, pontifizeei deiturik, ea Agripinaren erregu edo mehatxueta makurtu ziren galdetu zien. Haien, ezetz esan arren, agiraka neurria jaso zuten, gehienak enperadorearen ahaideak edo hiriko handiak baitziren; gainera, senatuan mintzaldi bat egin zuen, ohartaraziz, aurrerantzean, inork ez zezala nerabeen gogo mugikorrik harrokeriara bultza ohore goiztiarrez. Izatez, Seianok sakatzen zion hiria gerra zibilean bezala erdibituriak zegoela esanez; bazirela Agripinaren alderdikoak zirela ziotenak eta, mozten ez bazuen, gehiago izango zirela; ez zegoela sedizio haz-korraren beste erremediorik, bat edo bi ausartenak eraistea baino.

18. Aitzakia horrekin, Gaio Silio eta Tizio Sabinori erasotzen die. Germanikoren lagun izatea bientzat kaltegarri izan zen, eta, Siliorentzat, baita Germanian izaniko garaipena ere Sakrobioren kontrako gerran,

*maniam triumphalibus Sacroviriani belli victor; quanto maiore mole procideret, plus formidinis in alios dispergebatur: Credebat plerique auctam offensionem ipsius intemperantia, immodice iactantis snum militem in obsequio duravisse cum alii ad seditiones prolaberentur; neque mansurum Tiberio imperium si iis quoque legionibus cupido novandi fuisse. Destruji per haec fortunam suam Caesar imparemque tanto merito rebatur: Nam beneficia eo usque laeta sunt dum videntur exolvi posse: ubi multum antevenere pro gratia odium redditur.*

[19] Erat uxor Silio Sosia Galla, caritate Agrippinae invisa principi. Hos corripi dilato ad tempus Sabino placitum, immissusque Varro consul qui patennas inimicitias obtendens odiis Seiani per dedecus suum gratiscabatur. Precante reo brevem moram, dum accusator consulatu abiret, adversatus est Caesar: solitum quippe magistratibus diem privatis dicere: nec infringendum consulis ius, cuius vigiliis niteretur ne quod res publica detrimentum caperet. Proprium id Tiberio fuit scelera nuper reperta priscis verbis obtegere. Igitur multa adseveratione, quasi aut legibus cum Silio ageretur aut Varro consul aut illud res publica esset, coguntur patres, silentio reo, vel si defensionem cooptaret, non occultante cuius ira premeretur: Conscientia belli Sacrovir diu dissimilatus, Victoria per avaritiam foedata et uxor socia arguebantur. Nec dubie repetundarum criminibus haerebant, sed cuncta quaestione maiestatis exercita, et Silius imminentem damnationem voluntario fine praevertit.

[20] Saevitum tamen in bona, non ut stipendiariis pecuniae redderentur; quorum nemo repetebat, sed liberalitas Augusti avulsa, computatis singillatim quae fisco petebantur: Ea prima Tiberio erga pecuniam alienam diligentia fuit. Sosia in exilium pellitur Asinii Galli sententia, qui partem bonorum publicandam, pars ut liberis relinquetur censuerat. Contra M'. Lepidus quartam accusatoribus secundum necessitudinem legis, cetera liberis concessit. Hunc ego Lepidum temporibus illis gravem et sapientem virum fuisse comperior:

zazpi urtean armada handien buruzagi izan ondoren; zenbat eta jauskerria handiagoa izan, hainbat beldugarriago izango zen besteentzat. Askoren ustez, haren intenperantzak kontrako gorrota ekarri zion, neurri gabe harrotzen baitzen bere soldaduek diziplinari eutsiko ziota, besteak matxinadara lerratu bitartean, esanez Tiberiori labur iraungo ziola imperioak, legio haiet ere nahaste gogoz ibili balira. Zesarrek uste zuen honek bere ondasunak suntsitzen zituela eta ez zegoela hain meritu handiak ordaintzeko moduan; zeren mesedeak eskertzeakoak dira, erantzun garri direla diruditenean, baina, gehiegizkoak direnean, esker onez barik, gorrotoz ordaintzen dira.

19. Silioren emaztea Sosia Gala zen, printzeak gorroto zuena, Agripina maite zuelako. Hauei biei heltzea pentsatu zuen, Sabino beste baterako utzirik, eta haien aurka Barron kontsula jaurti zuten, zeinak, aiten aldetiko etsaigoak aitzaki harturik, Seianoren gorrotoa asetzan zuen, bere burua desohoratuz. Salatuak atzerapen labur bat eskatu zuenean, salatzailea kontsulgotik irten arte, Zesar kontra agertu zen. Magistratuek partikularrei deitza ohikoa zela zioen, eta errepublikak kalterik ez izatea haren logalduei zor zaien kontsularen eskubiderik ezin zela borotxatu. Tiberioren jenioa zen: gaizkintza asmaberriak hitz zaharrekin estali. Hala, bada, seriotasun osoz, Silioren kasuan, legea aplikatzea bailitzan, Barron benetako kontsula eta hora benetako errepublika bailitzan, senatua batu zen, salatua isilik egotekotan, defentsan hasten bazeen, ez zuelako ezkutatzeten noren gorrotoa zetorkion gainera. Gerraren jakitun izanik, Sakroviroz ez-jakin egin ei zuen luzaro, garaipena gutiziaz zikindu, eta emaztea ere kide izan ei zen. Ezin zuten, noski, konkusio salaketetatik libratu, baina dena maiestate kontutik eraman zuten, eta Siliok kondena hurbilari azken boluntarioz aurrea hartu zion.

hala ere, egia da Augustok alaba zaldun bati ematea pentsatu zuena. Herkulesaren, harrigarri al da, deneriko ardurak zeuzkalarik, eta besteengai jasotzen zuena neurri gabe gailendua izango zela jakinik, bere solasetan Gaio Prokuleioz eta bizitza nabariki lasaia eta ezein gorabehera politikotan nahasi gabea zeramatzen beste batzuez mintza zedin? Baino, Augustoren zalantzak hunkitzen bagaitu, zenbat indartsuago ez da izango hark hura Marko Agriparekin eta gero nirekin ezkontzea? Gauza hauek ez ditut adiskidetasunagatik ezkutatu gura izan; gainerakoan, ez natzaie zure asmo-ei, ez Libiarenei jarkiko. Neure kautan zer pentsatzen dudan, nolako loturaz oraindik areago neureganatu gura zaitudan, oraingoz ez dut agertu gura. Hauxe bakarrik esango dizut: ez dago ezer hain bikainik, zure bertuteek eta zure nireganako gogoak merezi ez dutenik, eta, behar den garaian, ez dut isilduko, dela senatuan, dela herriaren aurrean».

41. Seianok ekinean jarraitu zuen, ez ezkontzaz aritzeko, baizik, beldur sakonagoetan, susmo tazitoak, populuaren esamesak eta bekaitz mehatxatia ekiditeko. Eta, jendetza maizkoa etxetik urrunduz, botererik ez haustearren, eta, etengabe errezibituz ere, salatzaleei erraztasunik ez ematearen, Tiberio, Erromatik urrun, leku atseginetan bizitzera joan zedin bultzatzea pentsatu zuen. Horrela zer irabazi handia zeukan: jauzegiko sar-irtena bere eskuan egongo zen, eta korrespondentziarik gehiena berak kontrolatuko zuen, soldaduek eramana baitzen; geroago, Zesarrek, adinean aurrera eta erretira bizitzak bigundurik, gobernu lanak aisago transmitituko zizkion; bestalde, errespetua erakustera zetozkion audientziak mozturik, beraganako bekaitza leunduko zuen, eta, zer hutsalak bazterturi, benetako boterea handituko zitzaison. Beraz, astiro-astiro, hiriko negozioez, herriaren pilakuntzez eta gortesauen andanaz, Zesarri txarto esaten hasi zitzaison, lasaitasuna eta bakardadea laudatzen zizkiola, asperduratik eta ezinikusitik libratu eta arazo nagusiak hobeto bideratzen lagunduko ziotenak.

42. Egun haietan, halabeharrez, Bozieno Montanoren, talentuz ospe-tsua zen gizonaren aurkako epaiaketa izan zen; honek Tiberio jada zalanzkorri erabakiarazi zion senatuaren bilerak eta, gehienetan, egia gogorrak aurpegiratzen zizkioten ahotsak debekagarritzat jotzea. Bozienori, izan ere, Zesarren aurkako irainak jaulkiztutako salatzen zioten; Emilio lekuoa, militar petoak, frogak emateko ahaleginean, dena kontatu zuen eta, hoska isilarazi nahi izan zutenean, hark bere hitzak indartu besterik ez zuen egin. Tiberiok entzun behar izan zuen nolako

*audivit Tiberius probra quis per occutum lacerabatur; adeo que percusus est ut se vel statim vel in cognitione purgaturum clamitaret precibusque proximorum, adulatio ne omnium aegre componeret animum. Et Votienus quidem maiestatis poenis adfectus est: Caesar obiectam sibi adversus reos inclemantium eo pervicacious amplexus, Aquilam adulterii delatam cum Vario Ligure, quamquam Lentulus Gaetulicus consul designatus lege Iulia damnasset, exilio punivit Apidiumque Merulam quod in acta divi Augusti non iuraverat albo senatorio erasit.*

[43] *Auditae dehinc Lacedaemoniorum et Messeniorum legationes de iure templi Diana Limnatidis, quod suis a maioribus suaque in terra dicatum Lacedaemonii firmabant annalium memoria vatumque carminibus, sed Macedonis Philippi cum quo bellassent armis ademptum ac post C. Caesaris et M. Antonii sententia redditum. Contra Messenii veterem inter Herculis posteros divisionem Peloponnesi protulere, suoque regi Denthaliatem agrum in quo id delubrum cessisse; monumentaque eius rei sculpta saxis et aere prisco manere. Quod si vatum, annalium ad testimonia vocentur; pluris sibi ac locupletiores esse; neque Philippum potentia sed ex vero statuisse: idem regis Antigoni, idem imperatoris Mummi iudicium; sic Milesios permisso publice arbitrio, postremo Atidum Geminum praetorem Achaiae decrevisse. Ita secundum Messenios datum. Et Segestani aedem Veneris montem apud Erycum, vetustate dilapsam, restaurari postulavere, nota memorantes de origine eius et laeta Tiberio. Suscepit curam libens ut consanguineus. Tunc tractatae Massiliensium preces probatumque P. Rutilii exemplum; namque eum legibus pulsum civem sibi Zmyrnaei addiderant. Quo iure Vulcarius Moschus exul in Massiliensis receptus bona sua rei publicae eorum et patriae reliquerat.*

[44] *Obiere eo anno viri nobiles Cn. Lentulus et L. Domitius. Lentulo super consulatum et triumphalia de Getis gloriae fuerat bene tolerata paupertas, dein magnae opes innocenter partae et modeste habitae. Domitium decoravit pater civili*

irainez larrutzen zuten isilean, eta hainbeste aztoratu zen, ezen oihu egin baitzuen, bai unean bertan, bai epaiketan, bere izena garbituko zuela, harik eta ingurukoen erreguek eta denen adulazioek haren sumina baretza ozta lortu zuten arte. Bozieno, jakina, maiestate hobenarentzat aurreikusitako zigorretara kondenatu zuten. Zesarrek, egozten zitzaison salatuenganako bihozagabekeriari setatiago heldurik, erbestearrekin zigortu zuen Akilia, Bario Ligurrek adulterioz salatua, nahiz eta Lentulo Getuliko kontsul izendatuak, Julia legez, lehendik kondenatua zuen; eta Apidio Merula senatuko zerrendatik ezabatu zuen, Augustoren egintzengatik zin ez egitearren.

43. Gero, lazedemoniar eta meseniarren ordezkaritzei entzun zitzaien, Diana Limnatideren tenpluaren eskubideaz. Lazedemoniarrek euren arbasoek eta euren lurrean eraiki zutela zioten, analen lekukotzan eta poeten bertsoetan oinarriturik, baina harekin gerran ibili ziren Maze doniako Filiporen armadak kendu ziela eta, gero, Gaio Zesarren eta Marko Antonioren dekretuz bihurtu zitzaiela. Meseniarrek, ostera, aipatu zuten Peloponeso antzina banatua izan zela Herkulesen ondorengoen artean, eta euren erregearei egokitu zitzaiola santutegia zegoen Dentalios; argudiatzen zuten gertaera haren gomuta harrian zizelkatutrik eta antzinako brontzeetan gordetzen zela; poeten eta analen lekukotzara jotzekotan, eurek gehiago eta osoagoak zeuzkatela; Filiporen erabakia, indarrean barik, egian oinarritzen zela; berbera izan ei zen Antigono erregearen eta Mummo jeneralaren iritzia; horixe erabaki ei zuten milesiar arbitro izendatuek eta, azken aldian, Akaiako pretore Atidio Geminok. Hala, arrazoia meseniarrei eman zitzaien. Segestakoek, bestalde, Erize mendiko Venusen tenplua, denborak andeautua, berriztatzeko eskatu zuten, bere jatorriari buruzko xehetasun aski eza gun eta atseginak gogoratuz Tiberiori, zeinak, jainkosaren odolkide gisan, lana pozik hartu zuen bere gain. Gero, masiliarren eskariak tratatu ziren, eta Publio Rutilioren kasua onartu zen, legeek proskribaturik, esmirnarrek euren hiritorgoa eman baitzieten. Masiliarrek eskubide berarekin hartua izanik, Bulkazio Mosko erbesteratuak bere ondasunak haien errepublikari utzi zizkion, bere sorterriari bezala.

44. Urte hartan, bi gizon handi hil ziren, Geno Lentulo eta Luzio Domizio. Lentulorentzat, kontsulatuaz eta geten gaineko garaipenaz gainera, aintzagarri izan ziren ondo eroandako txirotasuna eta, geroago, zintzoki irabazi eta doitasunez gozatu zituen ondasun handiak. Domi-

*bello maris potens, donec Antonii partibus, mox Caesaris misceretur. Avus Pharsalica acie pro optimatibus ceciderat. Ipse delectus cui minor Antonia, Octavia genita, in matrimonium daretur; post exercitu flumen Albim transcendit, longius penetrata Germania quam quisquam priorum, easque ob res insignia triumphi adeptus est. Obiit et L. Antonius, multa claritudine generis sed improspera. Nam patre eius Iullo Antonio ob adulterium Iuliae morte punito hunc admodum adolescentulum, sororis nepotem, seposuit Augustus in civitatem Massiliensem ubi specie studiorum nomen exilii tegeretur. Habitus tamen supremis honor ossaque tumulo Octaviorum inlata per decretum senatus.*

[45] *Isdem consulibus facinus atrox in citeriore Hispania admissum a quodam agresti nationis Termestinae. Is praetorem provinciae L. Pisonem, pace incuriosum, ex improviso in itinere abortus uno vulnere in mortem adfecit; ac pernicitate equi profugus, postquam saltuosos locos attigerat, dimisso equo per derupta et avia sequentis frustratus est. Neque diu sefellit: nam prenso ductoque per proximos pagos equo cuius foret cognitum. Et repertus cum tormentis edere consicos adigeretur, voce magna sermones patrio frustra se interrogari clamitavit: adsisterent socii ac spectarent; nullam vim tantam doloris fore ut veritatem eliceret. Idemque cum postero ad quaestionem retraheretur; eo nisu proripuit se custodibus saxoque caput adfluxit ut statim examinaretur. Sed Piso Termestinorum dolo caesus habetur; quippe pecunias e publico interceptas acrius quam ut tolerarent barbari cogebat.*

[46] *Lentulo Gaetulico C. Calvisio consulibus decreta triumphi insignia Poppaeo Sabino contusis Thraecum gentibus, qui montium editis incultu atque eo ferocius agitabant. Causa motus super hominum ingenium, quod pati dilectus et validissimum quemque militiae nostrae dare aspernabantur; ne regibus quidem parere nisi ex libidine soliti, aut si mitterent auxilia, suos ductores praeficere nec nisi adversum accolas belligerare. Ac tum rumor incesserat fore ut disiecti aliisque nationibus permixti diversas in terras traherentur.*

zioren distira aitagandik zetorren, itsas jauna berau gerra zibilean, Antonioren alderdira bildu arte, gero Zesarrenera pasatzeko. Aitita Far-saloko guduan jausi zen, nobleen alde borrokan. Berak, beriz, Antonia gazteena, Oktabiaren alaba, ezkontzan hartzeko hautatua izan zenak, gero Albi ibaia armadarekin bestalderatuko zuen, aurreko inor baino barrurago sarturik Germanian, eta, ekintza horiengatik, garaipenaren ikurrak eskuratu zituen. Luzio Antonio ere hil zen, oso goi jatorriko, baina dohakabea; zeren, haren aita Julio Antonio Juliarekiko adulterio-agatik zigortu zutenean, bera, artean mutiko, arrebaren birloba, Augustok Masiliako hirira baztertu baitzuen, non, ikasketa itxuran, erbeste izena disimulatuko baitzen. Hala ere, hileta ohoragarriak izan zituen eta hezurrak oktabiotarren tumuluan ipini zituzten, senatuaren dekretuz.

45. Konsulaldi berean, Hispania Ziteriorean, Termes herriko baserritar batek krimen lazgarria burutu zuen. Luzio Pisoni, bakeagatik desarratzaz zebilen probintziako pretoreari, ustekabean bidera irten zitzaison eta, sastada bakarrean, hilgai utzi zuen. Zaldian bizkor ihes egunik, sakosta oihantsuetara heldu zenean, zaldia abandonatu eta, leku malkar eta sargaitzetan sarturik, jazarleak saihestu zituen. Ez zen luzaro izkutatu. Zaldia harrapatu eta inguruko baserriean zehar eroanik, norena zen atera zuten. Aurkitu eta, konplizeak salatzeko, tormentuan ipini zutenean, oihuka eta bere jatorrizko hizkuntzan, alferrik galdekatzen zutela aldarrikatzen zuen; etortzea eta begiratzea zeukatela lagunek, oinazearen indarra inoiz ez baitzen egia ateratzeko lain izango. Biharamunean, berriro galdeketara eraman zutenean, zaintzaileengandik halako indarrez askatu eta harriarekin burua jo zuen, ezen bertan akabatu baitzen. Baina Pison termestarren enboskadak hil zuela uste da, altxor publikoari kendutako diruak barbaroek jasateko baino gogorkiago biltzen zituelako.

46. Lentulo Getuliko eta Gaio Kalbisioren konsulaldian, Popeo Sabinori garaipen ikurrak eman zizkioten, mendi goietan bizimodu basatia eta, beraz, ohilagoa zeramaten traziar herriak zapatzearagatik. Matxinadaren arrazoia zen, gizajende haren berezkoaz gainera, uko egiten ziotela erreklutatzeari eta gizonik sendoenak gure armadarako emateari, euren erregeei ere ez baitzieten men egiten, gogoak ematen zienean baizik; eta, tropa laguntzailerik bidaltzen bazuten, euren buruzagiek agintzea eta ingurukoen aurka baizik ez gudukatzea eskatzen zuten. Eta, orduan, zurrumurua zabaldu zen ezen, sakabanatu eta lurralte urrunet-

*Sed antequam arma inciperent, misere legatos amicitiam obsequiumque memoraturos, et mansura haec si nullo novo onere temptarentur: sin ut victis servitum indiceretur; esse sibi ferrum et iuventutem et promptum libertati aut ad mortem animum. Simul castella rupibus indita conlatosque illuc parentes et coniuges ostentabant bellumque impeditum arduum cruentum minitabantur.*

[47] At Sabinus, donec exercitus in unum conduceret, datis mitibus responsis, postquam Pomponius Labeo e Moesia cum legione, rex Rhoemetalcis cum auxiliis popularium qui fidem non mutaverant, venere, addita praesenti copia ad hostem pergit, compositum iam per angustias saltuum. Quidam audientius apertis in collibus visebantur; quos dux Romanus acie suggressus haud aegre pepulit sanguine barbarorum modico ob propinqua suffugia. Mox castris in loco communis valida manu montem occupat angustum et aequali dorso continuum usque ad proximum castellum quod magna vis armata aut incondita tuebatur. Simul in ferocissimos, qui ante vallum more gentis cum carminibus et tripudiis persultabant, mittit delectos sagittariorum. Ii dum eminus grassabantur crebra et inulta vulnera fecere: proprius incedentes eruptione subita turbati sunt receptique subsidio Sugambrae cohortis, quam Romanus promptam ad pericula nec minus cantuum et armorum tumultu trucem haud procul instruxerat.

[48] Translata dehinc castra hostem propter, relictis apud priora munimenta Thraecibus, quos nobis adfuisse memoraui. Iisque permissum vastare, urere, trahere praedas, dum populatio lucem intra sisteretur noctemque in castris tutam et vigilem capesserent. Id primo servatum: mox versi in luxum et raptis opulenti omittere stationes, lascivia epularum aut somno et vino procumbere. Igitur hostes incuria eorum comperta duo agmina parant quorum altero populatores invaderentur; alii castra Romana adpugnarent, non spe capiendi sed ut clamore, telis suo quisque periculo intentus sonorem alterius proelii non acciperet. Tenebrae insuper delectae augen-

tara deserriturik, beste herri batzuekin nahasiko zituztela. Armetara jo aurretik, mezulariak bidali zituzten, euren adiskidetasuna eta leialtasuna gogoratzen eta hauek eutsiko zietela iragartzen, zama berriekin estutzen ez bazituzten; baina, menperatuei bezala, esklabotza ezartzen bazitzaien, bazutela armariak eta gazteriarik, eta askatasunerako zein heriotzarako gertu zegoen gogorik. Aldi berean, gurasoak eta emazteak bertan bilduak zituzten haitz gaineko gazteluak erakusten zituzten, gerra malkar, latz eta odoltsuarekin mehatxu eginez.

47. Baino Sabinok, armadak bateratzen zituen bitartean, erantzun biguna eman zien; Ponponio Labeon, Mesiatik legio batekin, eta Remetaltes erregea, leialtasunik aldatu ez zuten bere herriko laguntzakin, iritsi zirenean, gertu zeuzkan tropak gehitu eta etsaiaren aurka jo zuen, honek haizpitarte estuetan posizioak hartuak zituela. Ausartago batzuk muino garbietan ageri ziren, zeintzuk buruzagi erromatarak, gudu lerroan erasorik, erraz samar atzera bota zituen; barbaroek hildako gutxi izan zuten, ihesbide hurbilak baitzezkaten. Gero, kanpamentu gotor bat bertan jaso eta, tropa indartsuz, mendi estu eta bizkarlau bat hartu zuen, gaztelu hurbil bateraino iristen zena, indar armatu handi, baina nahasiak babestua berau. Era batera, arkulari hautak bidaltzen ditu etsairik ausartenen aurka, zeintzuek, barruti aurrean bertan, gerrako kanta-dantzakin jauzi egiten zuten, herri hartako ohituraen arabera. Arkulariek urrundik eraso zutenean, etsai ugari zauritu zuten, minik jasan gabe; baina, gehiago hurbildu zirenean, bat-bateko erasoak asaldu zituen, eta kohorte sugarbroaren babesera jo behar izan zuten, erromatarak handik ez urrun kokatu zuena berau, arriskurako gertu, eta ez gutxiago beldurgarri, armen eta kanten burrunbagatik.

48. Gero, kanpamentua etsaiaren hurrera aldatu zuten, lehenengo gotorlekuan gure alde zeudela esana dudan traziarrak utzirik. Hauei arpilatzeko, su emateko, harrapakiak biltzeko baimena eman zitzaien, beti ere egunez izatekotan, eta, gauez, kanpamentua ernaitasun etengabez zaintzekotan. Lehenengotan, errespetatu zuten, baina gero, larke-riari emanik eta harrapaketaz aberasturik, zaintzak laxotzen zituzten oturuntzen nahasmenean, edo loguraren eta ardoaren menpean lurreratzen ziren. Etsaiek, haien ezaxolaz ohartu zirenean, zutabe bi prestatu zituzten, bata, arpilazaileen gainera oldartzeko, bestea, erromatar kanpamentuari erasotzeko; ez, hau harrapatzeko asmoz, baizik gure soldaduek, zalaparta eta jaurtiketengatik, bakoitza bere arriskura adi, beste

*dam ad formidinem. Sed qui vallum legionum temptabant facile pelluntur; Thraecum auxilia repentina incursu territa, cum pars munitionibus adiacerent, plures extra palarentur; tanto infensius caesi quanto perfugae et proditores ferre arma ad suum patriaeque servitium incusabantur:*

[49] *Postera die Sabinus exercitum aequo loco ostendit, si barbari successu noctis alacres proelium auderent. Et postquam castello aut coniunctis tumulis non degrediebantur; obsidium coepit per praesidia quae opportune iam muniebat; dein fossam loricamque contexens quattuor milia passuum ambitu amplexus est; tum paulatim ut aquam pabulumque eriperet contrahere claustra artaque circumdare; et struebatur agger unde saxa hastae ignes propinquum iam in hostem iacerentur. Sed nihil aequa quam sitis fatigabat, cum ingens multitudo bellatorum imbellium uno reliquo fonte uterentur; simulque armenta, ut mos barbaris, iuxta clausa egestate pabuli examinari; adiacere corpora hominum quos vulnera, quos sitis peremerat; pollui cuncta sanie odore contactu.*

[50] *Rebusque turbatis malum extremum discordia accessit, his deditiōnēm aliis mortem et mutuos inter se ictus parantibus; et erant qui non inultum exitium sed eruptionem suadērent. Neque ignobiles tantum his diversi sententiis, verum e ducibus Dinis, provectus senecta et longo usu vim atque clementiam Romanam edoctus, ponenda arma, unum afflictis id remedium disserebat, primusque secum coniuge et liberis victori permisit: secuti aetate aut sexu imbecilli et quibus maior vitae quam gloriae cupido. At iuventus Tarsam inter et Turesim distrahebatur. Utique destinatum cum libertate occidere, sed Tarsa properum finem, abrumpendas pariter spes ac metus clamitans, dedit exemplum demisso in pectus ferro; nec defuere qui eodem modo oppeterent. Turesis sua cum manu noctem opperitur haud nescio duce nostro. Igitur firmatae stationes densioribus globis; et ingruebat nox nimbo atrox, hostisque clamore turbido, modo per vastum silentium, incertos obsessores effecerat, cum Sabinus circumire, hortari, ne ad ambigua sonitus aut simulationem quie-*

gatazkaren harrabotsik entzun ez zezaten; gainera, gaua hautatu zuten, izua handitzeko. Bainā gotorlekuaren murruari eraso ziotenak aisā atzeratuak izan ziren; traziar tropa laguntzaileak, osteria, bat-bateko era-soak izuturik, zati bat bakarrik baitzegoen gotorlekua zaintzen, gehienak kanpoan alderrai zebiltzala, hainbat ankerkiago sarraskituak izan ziren, armak euren eta sorterriaren esklabotzarako harturiko iheslaritzat eta traidoretzat salatzen baitzituzten.

49. Biharamunean, Sabinok leku lauan hedatu zuen armada, ea barba-roak, gaueko arrakastaz animaturik, erasora ausartzen ziren. Bainā gaztelutik eta inguruko muinoetatik irteten ez zirenez gero, setioa hasi zuen, behar bezala hornituriko zokoen bitartez. Gero, zangak eta parapetoak kateatz, lau miliako bueltan inguratuz zituen. Orduan, astiro-astiro, ur eta larre gabe uzteko, setioa ixten eta blokeoa estutzen hasi zen; lubeta ere egiten ziharduten, handik etsai jada hurbilari harriak, pika eta sua jaurtitzeko. Bainā ezerk ez zituen egarriak adina akitzen, gerlari pilo izugarriak geratzen zen iturri bakarra erabili behar baitzuen; aldi berean, barbaroek ohi bezala, batera ukuiluratzentzituzten abelburuak belar fal-taz hiltzen ari ziren; ondoan, zauriak eta egarriak menperaturiko gizonak zeutzan; dena zoldua zen odol ustel, kirats, kutsaduraz.

50. Nahasmen handi hari gaitzik okerrena batu zitzaison, diskordia, ale-gia, batzuek entregatzea, beste batzuek elkar zauritz hiltzea pentsatzen baitzutzen; baziren aholkatzen zutenak ere, ez mendeku gabeko heriotza, irtenbidea baizik. Jarrera hauen artean, jende xehea bakarrik ez zegoen banatua, baizik buruzagietariko batek, Dinisek, adin handi eta espe-rientzia luzeagatik, errromatarren indarra eta bihozkortasuna ezagutzen zituenak, esaten baitzien euren nahigabearen erremedio bakarra armak uztea zela, eta bera entregatu zitzaison lehenen garaileari, emazte eta umeekin. Adinez edo sexuz makalak zirenak eta aintza baino bizia mai-teago zutenek jarraitu zioten. Gazteak, osteria, Tarsaren eta Turesisen artean banaturik zeuden. Biek erabakia zuten askatasunaren alde hil-tzea, baina Tarsak azken bizkorra eskatzen zuen, itxaropena eta beldu-ra batera suntsitu behar zirela aldarrikatuz, eta etsenplua eman zuen, bularrean ezpata sarturik; ez zen falta izan heriotza era hartan bilatu zuenik. Turesisek, bere jendearekin, gauari itxaron zion, ez gure buru-zagiak jakin gabe. Beraz, gunea tropa ugariagoz indartsu ziren. Gaua haizete izugarriarekin zetorren, eta etsaiak, zalaparta istilutsuan, setia-tzaileak nahastea lortu zuen; orduan, Sabino gunez gune abiatu zen,

*tis casum insidiantibus aperirent, sed sua quisque munia servarent immoti telisque non in falsum iactis.*

[51] *Interea barbari catervis recurrentes nunc in vallum manualia saxa, praeustas sudes, decisa robora iacere, nunc virgultis et cratibus et corporibus exanimis complere fossas, quidam pontis et scalas ante fabricati inferre propugnaculis eaque prensare, detrahere et adversum resistentis comminus niti. Miles contra disturbare telis, pellere umbonibus, muralia pila, congestas lapidum molis provolvere. His partae victoriae spes et si cedant insignitus flagitium, illis extrema iam salus et adsistentes plerisque matres et coniuges earumque lamenta addunt animos. Nox aliis in audaciam, aliis ad formidinem opportuna; incerti ictus, vulnera improvisa; suorum atque hostium ignoratio et montis anfractu repercussae velut a tergo voces adeo cuncta miscuerant ut quaedam munimenta Romani quasi perrupta omiserint. Neque tamen pervasere hostes nisi admodum pauci: ceteros, deiecto promptissimo quoque aut saucio, adpetente iam luce trusere in summa castelli ubi tandem coacta deditio. Et proxima sponte incolarum recepta: reliquis quo minus vi aut obsidio subigerentur prae-matura montis Haemi et saeva hiems subvenit.*

[52] *At Romae commota principis domo, ut series futuri in Agrippinam exitii inciperet Claudia Pulchra sobrina eius postulatur accusante Domitio Afro. Is recens praetura, modicus dignationis et quoquo facinore properus clarescere, crimen impudicitiae, adulterum Furnium, beneficia in principem et devotiones obiectabat. Agrippina semper atrox, tum et periculo propinquae accensa, pergit ad Tiberium ac forte sacrificantem patri repperit. Quo initio invidia non eiusdem ait mactare divo Augusto victimas et posteros eius insectari. Non in effigies mutas divinum spiritum transfusum: se imaginem veram, caelesti sanguine ortam, intellegere discrimin, suspicere sordis. Frustra Pulchram praescribi cui sola exitii causa sit quod Agrippinam stulte prorsus ad cultum delegerit oblita Sosiae ob eadem adflictae. Audita haec raram occulti pectoris vocem elicuere,*

harengatuz ezen ez ziezaietela enboskatuei aukerarik eman, zarata dudazkoekin edo patxada itxurarekin fidaturik, baizik bakoitzak bere egitekoa tinko bete zezala, segurrera baino ez tiratuz.

51. Bitartean, barbarek, saldoetan jaitsirik, behin jaurtitzen zitzuten, hesiaren kontra, eskuzko harrikadak, sutan zorrozturiko hageak eta zuhaitz zatiak, behin zuloak betetzen zitzuten sastrakaz, koltzaz eta hilotez; batzuek, gotorlekuen kontra, zubiak eta aurretiaz eginiko sokak jaurtitzen zitzuten eta, eurotan gora, erauzten eta defendatzaleekin gorputzez gorputz borrokan saiatzen ziren. Gure soldaduek azkonez uxatzen, ezkutuekin bultzatzen eta harresien defentsan ohi diren pikak eta harritzarrak jaurtitzen zizkieten. Batzuen adoregarri dira garaipen hurbilaren itxaropena eta, etsiz gero, desohorerik nabarmenena. Beste batzuena, salbamenaren azken ahalbidea, gehienetan ama-emazteen bertan egote eta auhenak. Gaua batzuek kemengarri zitzaien, beste batzuei beldurgarri; jaurtiketak zalantzazkoak ziren, kolpeak ustegabeak; ez norberatarrik, ez etsairik ez ikusteak, eta mendi arramatsuko hotsen oihartzunak, erretagoardiatik etorri bezala entzunarezten zituenak, halako nahaspila eragin zuen, ezen errromatarrek zenbait gune bertan behera utzi baitzuten, bortxatuak izan zirelakoan. Baino etsai banakak bakarrik lortu zuen ihes egitea. Gainerakoei, kementsuenak jausiak edo zaurituak zirela, egunsentian, gazteluaren goienera sakatu zieten, non, azkenik, entregatu beharra izan zuten. Ingruetako bizilagunek eurenez men egin zuten. Gelditzen zirenak Hemo mendiko negu goiztar eta gogorrak salbatu zituen, indarrez edo setioz menperatuak izatetik.

52. Erroman, ostera, printzearen etxea dardartu egin zen: Agripina akabatzeko azpikerien saila hasteko, haren iloba Klaudia Pulkra auzipera-tu zuten, Domizio Afro salatzaile zuela. Hau, pretoretzan izan berri, ospe urriko gizona zen, ospetsu egiteko gertu, edozein gaiztakeriaren bitartez. Klaudia salatzen zuen inpudiziaz, Furniorekiko adulterioz, printzearen aurkako begizkoz eta hora pozoitzeko asmoz. Agripina, beti gogorra, eta orduan ahaidearen arriskuak sumindua, Tiberiorengana joan zen, zeina, hain zuzen, aitari opariginan aurkitu baitzuen. Hori haserrebidetzat harturik, esan zion ez zela bidezko Augusto jainkozkoari biktimak eskaintzea eta haren ondorengoak jazartzea; haren espiritu jainkozko ez zela transmititu irudi mutuetara; bera, haren egiazko irudia, haren odol zerutarretik sortua, jabetzen zela arriskuaz, lutuz jar-tzen zela. Alferrik zen Pulkra aitzakiatzat hartzea, zeina galdua baitzen,

*correptamque Graeco versu admonuit non ideo laedi quia non regnaret. Pulchra et Furnius damnantur: Afer primoribus oratorum additus, divulgato ingenio et secuta adseveratione Caesaris qua suo iure disertum eum appellavit. Mox capessendis accusationibus aut reos tutando prospereiore eloquentiae quam morum fama fuit, nisi quod aetas extrema multum etiam eloquentiae dempsit, dum fessa mente retinet silentii impatientiam.*

[53] *At Agrippina pervicax irae et morbo corporis implicata, cum viseret eam Caesar; profusis diu ac per silentium lacrimis, mox invidiam et preces orditur: subveniret solitudini, daret maritum; habilem adhuc inventam sibi neque aliud probis quam ex matrimonio solacium; esse in civitate, \*\*\* Germanici coniugem ac liberos eius recipere dignarentur. Sed Caesar non ignarus quantum ex re publica peteretur, ne tamen offensionis aut metus manifestus foret sine responso quamquam instantem reliquit. Id ego, a scriptoribus annalium non traditum, repperi in commentariis Agrippinae filiae quae Neronis principis mater vitam suam et casus suorum posteris memoravit.*

[54] *Ceterum Seianus maerentem et improvidam altius perculit, immissis qui per speciem amicitiae monerent paratum ei venenum, vitandas soceri epulas. Atque illa simulationum nescia, cum propter discumberet, non vultu aut sermone fleti, nullos attingere cibos, donec advertit Tiberius, forte an quia audiverat; idque quo acrius experiretur; poma, ut erant adposita, laudans nurui sua manu tradidit. Aucta ex eo suspicio Agrippinae et intacta ore servis traxisit. Nec tamen Tiberii vox coram secuta, sed obversus ad matrem non mirum ait si quid severius in eam statuisse a qua beneficii insimularetur. Inde rumor parari exitium neque id imperatorem palam audere, secretum ad perpetrandum quaeri.*

[55] *Sed Caesar quo famam averteret adesse frequens senatoi legatosque Asiae ambigentis quanam in civitate templum statueretur pluris per dies audivit. Undecim urbes certabant,*

Agripina gurgarritzat ergelki hautatu zuelako bakarrik, Sosia ere arrazoi beragatik zanpatua izan zela ahazturik. Hitz horiek entzunik, bular ezkutu hark oihu ezohiko bat jaurti zuen, eta bertso greko batekin ahal kar egin zion ez zitzaiola zauririk egiten ez agintzeagatik. Pulkra eta Furnio kondenatuak dira. Afro hizlaririk gorenentzat jo zuten, haren talentua zabaltzean, eta Zesarren konfiantzarekin, gainera, zeinak eskubide propioko bere hizlari izendatu zuen. Aurrerantzean, salaketei eta defentsei emanik, etorrian ospetsuago izan zen izaera moralean baino, adin aurreratuan, etorria ere asko galdu zuen baina; izan ere, gogoa ahuldu arren, isildu ezinak jarraitu zion.

53. Bainan Agripinak, haserrean setati eta gaixoturik, Zesar bisitatza joan zitzainean, negar luze eta isilez hartu zuen; gero, herraz eta errenguz hitz egin zion: sorots zezala bere barkardadea, eman ziezaioa senarra; bera oraindik gaztetasun gordinean zegoela eta emakume garbiek ezkontzaz beste kontsolamendurik ez zeukatela; bazirela hirian (\*\*\*) , Germanikoren emaztea eta seme-alabak hartzeko gertu zeudenak. Bainan Zesarrek, eskariaren garrantzi politiko handiaz ohartzen zenak, baina erremink, ez beldurrik erakutsi nahi ez zuenak, erantzun gabe utzi zuen, hark ekin arren. Hori, analen idazleek jaso ez zutena, bere bizitza eta beretarren zorigaitza geroarentzat gogoratu zuen Agripina alabaren, Neron enperadorearen amaren, oroitzapenetan aurkitu dut.

54. Gainerakoan, Seianok Agripinaren samina eta imprudentzia sakonago kolpatu zituen, ohartazleak bidaliz, lagun itxuran, pozoitu egin nahi zutela esanez, eta aitaginarrebaren mahaia saihesteko. Berak, disimulatzen ez zekienez, behin, haren ondoan eserita zegoela, aurpegikera eta hizkera zurrunean iraunez, ez zuen batere janik dastatu, Tiberio ohartu arte, halabeharrez edo zerbaitek entzuna zuelako; sakonago probatzearren, errainari zerbitzatu berri zituzten fruitu batzuk opatu zizkion, laudatuz. Horrekin, Agripinaren susmoak areagotu ziren eta, ahora era man gabe, otseinei pasatu zizkien. Tiberiok, ostera, ez zion ezer agerian esan, baizik, amarengana itzulita, esan zuen ez zela harritzekoa neurri zorrotz samarrak hartzea pozotzea salatzen zionarentzat. Hortik sortu zen zurrumurrua, haren azkena prestatu nahi zuela, eta enperadorea, agerian ausartzen ez, eta horixe burutzeko era sekretuaren bila ari zela.

55. Bainan Zesar, zurrumurruie albo egiteko, maiz joaten zen senatura eta, zenbait egunetan zehar, Asiako legatuei entzun zien, bere tenplua

*pari ambitione, viribus diversae. Neque multum distantia inter se memorabant de vetustate generis, studio in populum Romanum per bella Persi et Aristonici aliorumque regum. Verum Hypaepeni Trallianique Laodicensis ac Magnetibus simul trmissi ut pamum validi; ne Ilienses quidem, cum parentem urbis Romae Troiam referrent, nisi antiquitatis gloria pollebant. Paulum addubitatum quod Halicarnassi mille et ducentos per annos nullo motu terrae nutavisse sedes suas vivoque in saxo fundamenta templi adseveraverant. Pergamenos (eo ipso nitebantur) aede Augusto ibi sita satis adeptos creditum. Ephesii Milesiique, hi Apollinis, illi Dianaee caerimonia occupavisse civitates visi. Ita Sardianos inter Zmyrnaeosque deliberatum. Sardiani decretum Etruriae recitavere ut consanguinei: nam Tyrrhenum Lydumque Atye rege genitos ob multitudinem divisisse gentem; Lydum patriis in terris resedisse, Tyrrheno datum novas ut conderet sedes; et ducum e nominibus indita vocabula illis per Asiam, his in Italia; auctamque adhuc Lydorum opulentiam missis in Graeciam populis cui mox a Pelope nomen. Simul litteras imperatorum et icta nobiscum foedera bello Macedonum ubertatemque fluminum suorum, temperiem caeli ac ditis circum terras memorabant.*

[56] At Zymyiae repetita vetustate, seu Tantalus Iove ortus illos, sive Theseus divina et ipse stirpe, sive una Amazonum condidisset, transcendere ad ea, quis maxime fidebant, in populum Romanum officiis, missa navali copia non modo externa ad bella sed quae in Italia tolerabantur; seque primos templum urbis Romae statuisse, M. Porcio consule, magnis quidem iam populi Romani rebus, nondum tamen ad summum elatis, stante adhuc Punica urbe et validis per Asiam regibus. Simul L. Sullam testem adferebant, gravissimo in discrimine exercitus ob asperitatem hiemis et penuriam vestis, cum id Zymynam in contionem nuntiatum foret, omnis qui adstabant detraxisse corpori tegmina nostrisque legionibus misisse. Ita rogati sententiam patres Zmyrnaeos praetulere. Censuitque Vibius Marsus ut M'. Lepido, cui ea provincia obvenerat, super numerum legaretur qui templi curam susci-

zein hiritan eraiki behar zuten eztabaidan. Hamaika hiri ziren lehian, gutizia berdinez, baina indar ezberdinez. Antzeko argudioz gogoratzten zuten norbere jatorri zaharra eta erromatar herriari eginiko zerbitza, Perses, Aristoniko eta beste errege batzuen gerretan. Hippea, Trades, Laodizea eta Magnesia, behintzat, baztertu egin ziren, euren modu urriagatik. Troia Erromaren ama-hiritzat kontatzen zuten iliotarrek ere antzinatasunaren aintza besterik ez zuten aurkezten; apur bat zalantzegan ziren, Halikarnasokoek ziurtatu zutenean ezen, mila eta berrehun urtean zehar, euren lurra inoiz ez zuela lurrikarak jo eta tenpluaren zimenduak haitz bizian oilharrituko zirela. Pergamokoek bazutela nahikoa lorturik pentsatu zen, Augustoren tenplua han kokatu izanaz, horixe aipatzen baitzuten. Efeso eta Mileto ere, han Dianaren, hemen Apoloren kultuarekin, hiri aski ohoratuak zirela pentsatu zen. Azkenean, Sardes eta Esmirnaren artean eztabaidatu zen. Sardestarrek etruskoen dekretu bat irakurri zuten, odolkidetzat hartuz; izan ere, Tirrenok eta Lidok, Atis erregearen seme-ek, herria erdibitu egin ei zuten, hain asko izateagatik; Lido asaba lurrean geratu ei zen, eta Tirrenok beste kokaleku bat aurkitu behar izan ei zuen; buruzagiongandik datorrela batzuen izena Asian, besteena Italian; lidotarren boterea areagotu egin zela, koloniak Greziara bidaltzean, zeina gero Pelope deituko zen. Baita gogoratu zituzten jeneralen gutunak eta gurekiko itunak Mazedoniako gerran, eta euren ibaien ugaritasuna, klimaren gozotasuna eta inguruko lurren aberastasuna.

56. Esmirnarrik, antzinatasuna aipatu ondoren, dela Jupiterren seme Tantalo izan zutela sortzaile, dela Teseo, jainko leinukoa hau ere, dela amazonetariko bat, gehien fiatzen ziren arrazoietara igaro ziren: erromatar herriari eginiko zerbitzuak, untziak bidaliz, ez kanpo gerretarako bakarrik, baizik baita Italia barrukoetara ere; eurak izan zirela Erromako Hiriari tenplua jaso zioten lehenengoak, Marko Portzioren kontsulaldian, erromatar herriaren boterea jada handia zenean, noski, baina oraindik gailurrik jo gabe, artean Kartagoko hiria tente eta Asian errege ahaltsuak zeudela. Aldi berean, Luzio Sila lekuko jartzen zuten, nola, gure armada, neguaren gogorragatik eta jantziengatik, kinka larrian aurkitzen eta hori Esmirnako batzarrean iragarri zenean, han zeuden guztiek soinekoak erantzi eta gure legioei bidali zizkieten. Beraz, senadoreek, iritzia eskatu zitzaienean, Esmirnaren alde egin zuten. Bibio Marsok proposatu zuen probintzia hura berea izan zuen Marko Lepidori eman zekiola legatu supernumerarioa, tenplugintzaz arduratuko zena. Eta,

peret. Et quia Lepidus ipse deligere per modestiam abnuebat, Valerius Naso e praetoriis sorte missus est.

[57] Inter quae diu meditato prolatoque saepius consilio tandem Caesar in Campaniam, specie dedicandi templo apud Capuam Iovi, apud Nolam Augusto, sed certus procul urbe degere. Causam abscessus quamquam secutus plurimos auctorum ad Seiani artes rettuli, quia tamen caede eius patrata sex postea annos pari secreto conionxit, plerumque permovere num ad ipsum referri verius sit, saevitiam ac libidinem cum factis promeret, locis occultantem erant qui crederent in senectute corporis quoque habitum pudori fuisse: quippe illi praegracilis et incurva proceritas, nudus capillo vertex, ulcerosa facies ac plerumque medicaminibus interstincta; et Rhodi secreto vitare coetus, recondere voluptates insuerat. Traditur etiam matris impotentia extrusum quam dominationis sociam aspernabatur neque depellere poterat, cum dominationem ipsam donum eius accepisset. Nam dubitaverat Augustus Germanicum, sororis nepotem et cunctis laudatum, rei Romanae imponere, sed precibus usoris evictus Tiberio Germanicum, sibi Tiberium adscivit. Idque Augusta exprobrabat, reposcebat.

[58] Profectio arto comitatu fuit: unus senator consulatu functus, Cocceius Nerva, cui legum peritia, eques Romanus praeter Seianum ex inlustribus Curtius Atticus, ceteri liberalibus studiis praediti, ferme Graeci, quorum sermonibus levaretur. Ferebant periti caelestium iis motibus siderum excessisse Roma Tiberium ut redditus illi negaretur. Unde exitii causa multis fuit properum finem vitae coniectantibus vulgaribusque; neque enim tam incredibilem casum providebant ut undecim per annos libens patria careret. Mox patuit breve confinium artis et falsi veraque quam obscuris tegerentur. Nam in urbem non regressurum haud forte dictum: ceterorum nescii egere, cum propinquuo rure aut litore et saepe moenia urbis adsidens extremam senectam compleverit.

Lepidok ez baitzuen, modestiaz, berak hautatu nahi, Balerio Nason pretore ohia zotzez izendatu zuten.

57. Bitartean, luzaz pentsaturiko baina maiz atzeraturiko asmoa burutuz, Zesar Kanpaniara joan zen, Kapuan Jupiterri tenplu bat eta Nolan Augustori beste bat eskaintzeko aitzakian, baina hiritik urrun bizitzea erabakita. Erretiratze horren arrazoia, autorerik gehienei jarraituz, Seianoren trikimainei egotzi diet; baina, hau hilarazi ondoren, erretira hartan beste sei urtetan bizi izan zenez gero, pentsatzenago ez ote den egiago bere kontua izan zela, zeren, egintzeten ankerkeria eta nahikeria ageri bazuen, horiek ezkutuan gauzatzea gustatzen baitzitzaiten. Baziren, baita, uste zutenak, zahartzaroan, lotsatu egiten zela bere gorputzaz, luzea baitzen, izan ere, baina argala eta makurra, burugain soila zeukana, aurpegi ultzerosoa eta, gehienetan, botikaz gantzutua. Rodasen ere, erretiraz, jendea saihesten eta nahikeriak ezkutatzen saiatzen zen. Baita esaten da amaren lotsagabekeriaren mende egon zela, zeina ez ei zuen aginte-lagun nahi, baina harengandik libratzerik ere ez ei zeukan, agintea bera haren oparitzat hartu zuelako. Izan ere, Augusto zalantzan egon zen, Germaniko, arrebaren biloba eta denek goraldua, errepublikaren buru jarriko ote zuen, baina, emaztearen erreguek menperaturik, Tiberiok Germaniko eta berak Tiberio adoptatzea egin zuen; eta Augustak horixe aurpegiratzen, aldarrikatzen zion.

58. Haren joatea segizio txikikoa izan zen: senatari bakarra, Kokzeio Nerba, konsul ohia eta legeetan aditua; Seianoz gainera, erromatar zaldun gorenatariko bat, Kurtzio Atiko; gainerakoak, jende eskoladuna, gehienak grekoak, haien solasekin entretenitzeko. Astrologian adituek zioten Tiberio izarren halako fasean irten zela Erramatik, ezen itzultzea eragotzikoa baitzioten. Horixe izan zen haren biziaren azken azkarra irudikatzen eta zabaltzen ibili ziren askoren hondamena; ezin zuten hain kasu sinestezinik aurreikusi, hamaika urtetan sorterriaz nahita gabetzea, alegia. Geroago, argi geratu zen jakintzatik gezurrera zer tarte txikia dagoen, eta egia nolako iluntasunek estaltzen duten. Hirira itzuliko ez zelakoa ez zuten funts gabe esan, baina, gainerako guztian, ezjakin jokatu zuten, zeren Tiberiok, inguruko lur eta kostan bizi zela, eta, sarritan, hiriko murruean oinez, zahartzaro luzea atzemant baitzuen.

[59] *Ac forte illis diebus oblatum Caesari anceps periculum auxit vana rumoris praebuitque ipsi materiem cur amicitiae constantiaeque Seiani magis fideret. Vescebantur in villa cui vocabulum Speluncae mare Amunclanum inter et Fundanos montis nativo in specu. Eius os lapsis repente saxis obruit quosdam ministros: hinc metus in omnis et fuga eorum qui convivium celebrabant. Seianus genu voltuque et manibus super Caesarem suspensus opposuit sese incidentibus atque habitu tali repertus est a militibus qui subsidio venerant. Maior ex eo et quamquam exitiosa suaderet ut non sui anxius cum fide audiebatur. Adsimulabatque iudicis partis adversum Germanici stirpem, subditis qui accusatorum nomina sustinuerent maximeque insectarentur Neronem proximum successioni et, quamquam modesta iuventa, plerumque tamen quid in praesentiarum conduceret oblitum, dum a libertis et clientibus, apiscendae potentiae properis, extimulato ut erectum et fidentem animi ostenderet: velle id populum Romanum, cupere exercitus, neque ausurum contra Seianum qui nunc patientiam senis et segnitiam iuvenis iuxta insultet.*

[60] *Haec atque talia audienti nihil quidempravae cogitationis, sed interdum voces procedebant contumaces et inconsultae, quas adpositi custodes exceptas auctasque cum deferrent neque Neroni defendere daretur; diversae insuper sollicitudinum formae oriebantur. Nam aliis occursum eius vitare, quidam salutatione redditu statim averti, plerique incepturn sermonem abrumpere, insistentibus contra inridentibusque qui Seiano fautores aderant. Enimvero Tiberius torvus aut falsum renidens vultu: seu loqueretur seu taceret iuvenis, crimen ex silentio, ex voce. Ne nox quidem secura, cum uxor vigilias somnos suspiria matri Liviae atque illa Seiano patefaceret; qui fratrem quoque Neronis Drusum traxit in partis, spe obiecta principis loci si priorem aetate et iam labefactum demovisset. Atrox Drusi ingenium super cupidinem potentiae et solita fratribus odia accendebat invidia quod mater Agrippina promptior Neroni erat. Neque tamen Seianus ita Drusum fovabat ut non in eum quoque semina futuri exitii meditaretur; gnarus praferocem et insidiis magis opportunum.*

59. Egun haietan, zoriak nahi izan zuen Zesarri gertaturiko arrisku batek zurrumurru hutsalak handitzea eta hora Seianoren adiskidetasun eta leialtasunaz gehiago fidatzeko arrazoia ematea. Spelunka izeneko villan baziakten ari ziren, Amiklasko itsasoaren eta Fondiko mendien artean, berezko haitzulo batean. Bat-batean, sarrerako haitzak eraitsi ziren, zenbait otsein azpian harrapaturik. Denei beldurra sartu zitzaien eta baziakten ihesari eman zioten. Seianok, Zesar belaunez, aurpegin eta eskuz estaltzen zuela, harri jaustunei aurre egin zien, eta halaxe aurkitu zuten laguntzera etorri ziren soldaduek. Horrekin, ahaltsuago bilakatu zen eta, aholku hondagarriak eman arren, bere buruaz ardurtzen ez zelakoan, konfiantzaz entzuten zitzaison. Eta Germanikoren leinuaren aurkako epailetzan bereganatua zuen, salatzaile egingo zutenak infiltratuz, batez ere Neron zelata zezaten, ondorengotzatik hur berau eta, mutil neurria izanik ere, sarritan, unean zer komeni zen ahazten zitziona, liberto eta cliente aginte-goseen mende, zeintzuek kitzikatzen zuten gogo gailena eta tentea erakuts zezan. Erromatar herriak horixe nahi, armadek horixe desio zutela esaten zioten, eta Seiano ez zela ezer aurka egiten ausartuko, zeina, orain, zaharraren pazientziaz eta gaztearen moteltasunaz berdin ernegatzen zen.

60. Horiek eta antzekoek ez zuten, noski, Neronengan pentsakizun bihurrik eragiten, baina, noiztenka, esakune harro samarrak eta gutxi pentsatuak irteten zitzazkion, hartara zeuden zelatariek jaso eta handiturik kontatzen zitzutenak, Neroni defendatzeko aukerarik eman gabe; gainera, era askotako kezkak sortzen ziren: batzuek harekin topo egitea saihesten zuten; beste batzuek agurra itzuliz batera alde egiten zioten; eta gehienek solasa bat-batean eteten zuten, Seianoren aldekoen zelata eta barreen aurrean. Tiberiok maltzurki edo gezurrezko irribarrez begiratzen zion; mutilak hitz egin, zein isilik egon, isiltasuna salagarri zen, berdin hitz egitea. Gauez ere ez zegoen seguru, emazteak haren itzarraldien, loen, haspereren berri Libia amari ematen baitzion, eta honek Seianori. Honek Druso ere, Neronen anaia, bereganatu zuen, printzeagoaren itxaropena aurrean jarriz, anaia zaharragoa, baina lokatzen hasia, paretik kentzen bazuen. Drusoren izaera bortitz, botere goseaz eta anaia arteko ohiko liskarrez gainera, bekaitzez ere sutzen zen, ama, Agripina, Neronzaleago zelako. Seianori, berriz, Drusori laguntzeak ez zion kentzen, honen kontra ere, hondamen hazia prestatzerik, buruaria eta azpikeriek aurigarriagoa zela jakinik.

[61] *Fine anni excessere insignes viri Asinius Agrippa, claris maioribus quam vetustis vitaque non degener; et Q. Haterius, familia senatoria, eloquentiae quoad vixit celebratae: monumenta ingeni eius haud perinde retinentur. Scilicet impetu magis quam cura vigebat; utque aliorum meditatio et labor in posterum valescit, sic Haterii canorum illud et profluens cum ipso simul extinctum est.*

[62] *M. Licinio L. Calpurnio consulibus ingentium bellorum cladem aequavit malum improvisum: eius initium simul et finis extitit. Nam coepito apud Fidenam amphitheatro Atilius quidam libertini generis, quo spectaculum gladiatorum celebraret, neque fundamenta per solidum subdidit neque firmis nexibus ligneam compagem superstruxit, ut qui non abundantia pecuniae nec municipali ambitione sed in sordidam mercedem id negotium quaesivisset. Adfluxere avidi talium, imperitante Tiberio procul voluptatibus habiti, virile ac muliebre secus, omnis aetas, ob propinquitatem loci effusius; unde gravior pestis fuit, conferta mole, dein convulsa, dum ruit intus aut in exteriora effunditur immensamque vim mortaliuum, spectaculo intentos aut qui circum adstabant, praeceps trahit atque operit. Et illi quidem quos principium stragis in mortem adflixerat, ut tali sorte, cruciatum effugere: miserandi magis quos abrupta parte corporis nondum vita deseruerat; qui per diem visu, per noctem ululatibus et gemitu coniuges aut liberos noscebant. Iam ceteri fama exciti, hic fratrem, propinquum ille, alias parentes lamentari. Etiam quorum diversa de causa amici aut necessarii aberant, pavere tamen; nequedum comperto quos illa vis perculisset, latior ex incerto metus.*

[63] *Vt coepere dimoveri obruta, concursus ad exanimos complectentium, osculantum; et saepe certamen si confusior facies sed par forma aut aetas errorem adgnoscentibus fecerat. Quinquaginta hominum milia eo casu debilitata vel obtrita sunt; cautumque in posterum senatus consulto ne quis gladiatorium munus ederet cui minor quadringentorum milium res neve amphitheatrum imponeretur nisi solo firmi-*

61. Urtearen azkenean, bi gizon goaren hil ziren: Asinio Agripa, arbaso zaharrak baino gehiago ospetsuak zituena eta bera ere haien pareko izana bizitzan, eta Kinto Haterio, senadore sendikoa, bizitzan bere etorriagatik goraipatua; gordetzen diren honen lanak ez dira handiegitzat jotzen. Izan ere, oldarra gehiago zeukan, artea baino; eta, beste batzuen lan pentsatuak geroan ere indartsu diraueen moduan, Haterioren estilo kanoro eta gainezkorra berarekin iraungi zen.

62. Marko Lizinio eta Luzio Kalpurnioren kontsulaldian, gerra handietako hondamenei ustekabeko ezbeharra gaineratu zitzaien. Bere hasiera-amaierak bat-batera gertatu ziren. Atilio delako batek, izatez libertoa bera, Fidenan anfiteatro bat eraikitzeari eman zion, gladiadoreen ikuskizunak egiteko, baina ez zion oinarri sendorik ipini, ez zurezko egitura gogor lotu, diru sobran ez baitzebilen, ezta udal ospeareen bila ere, baizik negozio harekin nahi zuena irabazi zikina zelako. Jendetza etorri zen, halako ikuskizunen egarri, Tiberioren agintean, gozamenetik aparte eduki baitzuten; gizonak eta emakumeak batera, adin guztietakoak, lekutik hurrago eta gehiago; oholtza lepo zegoela, zartatu egin zen, gero erdirantz jausteko, alde batzuk kanporantz lehertzen zirela. Ikuskizunera adi edo kanpoaldean zegoen gizateria eskerga hura berarekin arrastatu eta ehortzi zuen. Kontua da hondamenaren lehenengo unean hilak, gutxienez, zorte harekin, ondorengo oinazeetatik libratu zirela. Errukarriago ziren oraindik biziak alde egiteke zeuden mutilatuak, emazte eta seme-alabak ezagutzen saiatzen zirenak, egunez bisitzak, eta gauez, negarrez eta garrasika. Besteek lasterka, hondamenaren berri jakinik, honek anaiari negar egiten zion, horrek ahaideari, hark gurasoei; legun edo ahaideak zerbaitegatik kanpotik zituztenak ere ikaraturik zeuden; ezbeharrok nortzuk harrapatu zituen ez zekiteno, zalanatzak beldurra handitu egin zuen.

**[6.3]** *At Iunium Gallionem qui censuerat ut praetoriani actis stipendiis ius apiscerentur in quattuordecim ordinibus sedendi violenter increpuit, velut coram rogitans quid illum militibus quos neque dicta imperatoris neque praemia nisi ab imperatore accipere par esset. Repperisse prorsus quod divus Augustus non providerit: an potius discordiam et seditionem a satellite quaesitam, qua rufis animos nomine honoris ad corrumpendum militiae morem propelleret? hoc pretium Gallio meditatae adulacionis tulit, statim curia, deinde Italia exactus; et quia incusabatur facile tole raturus exilium delecta Lesbo, insula nobili et amoena, retrahitur in urbem custoditurque domibus magistratum. Isdem litteris Caesar Sextium Paconianum praetorium perculit magno patrum gaudio, audacem maleficum, omnium secreta rimantem delectumque ab Seiano cuius ope dolus G. Caesar pararetur. Quod postquam patefactum prorupere concepta pridem odia et summum supplicium decernebatur ni professus indicium foret.*

**[6.4]** *Ut vero Latinum Latiare ingressus est, accusator ac reus iuxta invisi gratissimum spectaculum praebebantur. Latiaris, ut rettuli, praecipuus olim circumveniendi Titi Sabini et tunc luendae poenae primus fuit. Inter quae Haterius Agrippa consules anni prioris invastit, cur mutua accusatione intenta nunc silerent: metum prorsus et noxae conscientiam pro foedere haberit; at non patribus reticenda quae audivis-*

handi haien artean sartu nahi zuen. Printzeari eskatzen baitzion senatariak hauta zitzala, eurotariko hogeい zotzez atereak eta gerrian ezpata eta guzti, haren pertsona defendatuko zutenak, kuriara sartzen zen guztian. Izan ere, sinestu egin zuen gutun hartakoa, non Tiberiok kontsuletariko baten babesa eskatzen zuen, Kapritik Erromara segur joateko. Gauza serioekin zer barregarriak nahastu ohi zituen Tiberiok, ostera, senatarien onberatasuna eskertu zuen; baina nortzuk utzi eta nortzuk hartuko zituen? Beti berak izango ziren ala txandatz joan behar zuen? Karguren bat izan zutenak ala gazteak, edo partikularrak ala magistratuak? Hitz batez, zer nolako itxura emango zuten gizon ezpatadunek kuriaren atarian? Gainera, ez ei zuen bere bizia hainbeste estimatzen, armekin babestua izatekotan. Horixe da Togonioren aurka esan zuena, nahiz eta hitz bigunez eta mozioaren abolizioa bakarrik aholkatuz.

3. Junio Galioni, ostera, pretoriarrak, lizentziatzean, zaldunen hamalau lerroetan esertzeko eskubidea izan zezatela proposatu zuenari, agiraka latza egin zion, agerian galdetuz bezala ea zer zerikusi zeukan hark soldaduekin, zeintzuentzat ez baitzen bidezko agindurik hartzerik, enperadorearenaz besterik, ez saririk, enperadoreagandik baizik. Augusto jainkozkoari bururatu ez zitzaion zerbait asma berri zuela esan zion. Ala, Seianoren satelite bihurturik, liskar eta sedizio bila ari al zen, gogo zakar haiet, ohore aitzakian, disziplina militarra usteltzera bultzatzeko? Horixe izan zen Galionen adulazio kalkulatuaren saria; berberian egotzi zuten kuriatik, eta gero Italiatik; eta Lesbosen, berak hautaturiko irla gailen eta atseginean, erbestea aisa jasango zuela objektatzen baitzitzion, berriro Erromara ekarri eta magistratuen etxeetan gorde zuten. Gutun berean, Zesarrek Sestio Pakoniano pretore ohiari zartakoa ematen zion, senatuaren poz handiz, gaizkile lotsagabea baitzen, denen sekretuak zelatzen baitzituen eta Seianok hautatua izan baitzen, Gaio Zesarren aurkako enboskadan laguntzaile. Hori jakin zenean, antzinako gorrotoak kanporatu ziren eta heriotzara kondenatua izango zen, salaketa egingo zuela agertu ez balu.

4. Baina, Lukanio Laziaren aurka jo zuenean, salatzaile-salatuek, biak berdin gorrotatuek, ikuskizun txit atsegina eman zuten. Laziar, esana dudanez, Tizio Sabinori behinola jarritako lakioaren egile nagusia izan zen, eta orduan bera izan zen erruaren lehen ordaintzailea. Baina, bitartean, Haterio Agripa aurreko urteko kontsulen gainera

*sent. Regulus manere tempus ultionis seque coram principe executurum; Trio aemulationem inter collegas et si qua discordes iecissent melius obliterari respon dit. Vrgente Agrippa Sanquinius Maximus e consularibus oravit senatum ne curas imperatoris conquisitis insuper acerbitatibus augerent: sufficere ipsum statuendis remediis. Sic Regulo salus et Trioni dilatio exitii quae sita. Haterius invisiō fuit quia somno aut libidinosis vigiliis marcidus et ob segnitiam quamvis crudelēm principem non metuens inlustribus viris perniciem inter ganeam ac stupra meditabatur.*

[6.5] Exim Cotta Messalinus, saevissimae cuiusque sententiae auctor eoque inveterata invidia, ubi primum facultas data arguitur pleraque C. Caesarem quasi incestae virilitatis, et cum die natali Augustae inter sacerdotes epularetur, novendialem eam cenam dixisse; querensque de potentia M'. Lepidi ac L. Arruntii, cum quibus ob rem pecuniariam disceptabat, addidisse: 'illos quidem senatus, me autem tuebitur Tiberiolus meus.' quae cuncta a primoribus civitatis revincebatur iisque instantibus ad imperatorem provocavit. Nec multo post litterae adferuntur quibus in modum defensionis, repetito inter se atque Cottam amicitiae principio crebrisque eius officiis commemoratis, ne verba prave detorta neu convivialium fabularum simplicitas in crimen duceretur postulavit.

[6.6] Insigne visum est earum Caesaris litterarum initium; nam his verbis exorsus est: 'quid scribam vobis, patres conscripti, aut quo modo scribam aut quid omnino non scribam hoc tempore, di me deaeque peius perdant quam periire me cotidie sentio, si scio.' adeo facinora atque flagitia sua ipsi quoque in supplicium verterant. Neque frustra praestantissimus sapientiae firmare solitus est, si recludantur tyrannorum mentes, posse aspici laniatus et ictus, quando ut corpora verberibus, ita saevitia, libidine, malis consultis animus dilaceretur. Quippe Tiberium non fortuna, non solitudines protegebant quin tormenta pectoris suasque ipse poenas fateretur.

oldartu zen, ea orain zergatik zeuden isilik, elkarren kontrako salapenetan saiatu ondoren; beldurak eta erru kontzientziak, noski, itunear bezala lotzen bide zituela, baina ezin zietela senatariei zer entzun zuten ezkutatu. Regulok esan zuen bazela mendekurako astia eta printzearen aurrean bilatuko zuela; Trionek erantzun zuen kide arteko liskarrak eta elkarri diskordian zuzenduriko irainak ahaztea hobe zela. Agriparen ekinean, Sankinio Maximo kontsulak senatuari erregutu zion ez zeztela enperadorearen buruhausterik areagotu, mingoskeria bihurrekin; hura bera zela erremedioak ezartzeko gauza. Halaxe lortu zuten Regulok salbatzea eta Trionek hondamenaren atzerapena. Haterio gorrotagarriago bilakatu zen, zeren, loak edo logabetasun lizunek zimeldurik, eta printze krudel, baina zahartu haren beldurrik gabe, oturuntza eta estupro artean, gizon ospetsuen hondamena antolatzen baitzuen.

5. Gero, aukera izan zenaz batera, Kotta Mesalinok, mozioniak ankerrenen egile eta, beraz, aspalditik gorrotatuak, salaketa ugari jaso zuen: Gaio Zesarren gizontasuna dudazkoa zela iradoki zuela, eta, Augustaren urteegunean, abadeen mahaian eseri zelarik, hura hil afaria izan zela esan zuela; haietan diruagatik eztabaideak zituen Marko Lepido eta Luzio Arruntzioren indarra kexaturik, gaineratu zuela: «Haien senatuak babes-tuko ditu, noski, baina ni neure Tiberiotxok». Salaketa haietan guztiak hiriko jaunek berretsiak ziren, eta, jarraitzen baitzuten, enperadorearengana jo zuen. Handik laster, Tiberioren gutuna heldu zen, non, defentsa gisan, bere eta Kottaren arteko adiskidetasunaren hasiera eta haren zerbitzu ugarriak gogoraturik, hitz zitalki bihurrituak eta oturuntzetako esamesa arinak ez erabiltzeko eskatu baitzuen, salaketak ezartzeko.

6. Zesarren gutunaren hasiera deigarri izan zen, honela hasten baitzen: «Zer idatziko dut, senadoreok, edo nola idatziko dut, edo zer ez dut oraingoan inola ere idatziko, Jainko-Jainkosek egunero nabari dudan gainbehera baino gehiago gal ez nazaten, hori jakiten badut?». Haren gaizkintzak eta lotsagabekeria hartarainoxe bilakatu ziren beretzat ere oinaze. Jakinduriaren printzeak ez zuen alferrik esaten ezen, tiranoen gogoak bistaratuko balira, urratuak eta zauriak ikusiko liratekeela, zeren, nola gorputzak zigorkadek, gogoak ere halaxe zartatzen dituztela ankerkeriak, grinek eta asmo zitalek. Izan ere, Tiberio, ez zoriak, ez bakardadeek libratzen zuten, gogoaren oinazeak eta bere zigorrak berak aitortzetik.

[6.7] Tum facta patribus potestate statuendi de Caeciliano senatore qui plurima adversum Cottam prompserat, placitum eandem poenam inrogari quam in Aruseium et Sanquiniū, accusatores L. Arruntii: quo non aliud honorificentius Cottae evenit, qui nobilis quidem set egens ob luxum, per flagitia infamis, sanctissimis Arruntii artibus dignitate ultiōnis aequabatur. Q. Servaeus posthac et Minucius Thermus induci, Servaeus praetura functus et quondam Germanici comes, Minucius equestri loco, modeste habita Seiani amicitia; unde illis maior miseratio. Contra Tiberius praecipuos ad scelera increpans admonuit C. Cestium patrem dicere senatui quae sibi scripisset, suscepitque Cestius accusacionem. Quod maxime exitiabile tulere illa tempora, cum primores senatus infimas etiam delationes exercent, alii propalam, multi per occultum; neque discerneret alienos a coniunctis, amicos ab ignotis, quid repens aut vetustate obscurum: perinde in foro, in convivio, quaqua de re locuti incusabantur, ut quis praevenire et reum destinare properat, pars ad subsidium sui, plures infecti quasi valetudine et contactu. Sed Minu cius et Servaeus damnati indicibus accessere. Tractique sunt in casum eundem Iulius Africanus e Santonis Gallica civitate, Seius Quadratus: originem non repperi. Neque sum ignarus a plerisque scriptoribus omissa multorum pericula et poenas, dum copia fatiscunt aut quae ipsis nimia et maesta fuerant ne pari taedio lecturos adficerent vererentur: nobis pleraque digna cognitu obvenere, quamquam ab aliis incelebrata.

[6.8] Nam ea tempestate qua Seiani amicitiam ceteri falso exuerant ausus est eques Romanus M. Terentius, ob id reus, amplecti, ad hunc modum apud senatum ordiendo: fortunae quidem meae fortasse minus expeditat adgnoscere crimen quam abnuere: sed utcumque casura res est, fatebor et fuisse me Seiano amicum et ut essem expetisse et postquam adeptus eram laetatum. Videram collegam patris regendis praetoriis cohortibus, mox urbis et militiae munis simul obeuntem. Illius propinqui et adfines honoribus augebantur; ut quisque Seiano intimus ita ad Caesaris amicitiam validus: contra qui-

7. Orduan, senatuaren esku utzi zen Zesilio senatariarekin zer egin, berau izan baitzen Kottaren aurkako salaketarik gehienak aurkeztu zituena, eta Asureio eta Angunnioren, Luzio Arruntzioren salatzaileen, zigor berdina ezartzea erabaki zuten. Horrela, Kottari ohorerik handiena egin zitzaison, zeren, noblea izan arren, larkerian lurjorik eta gaiztake-riengatik lotsagarri, Arruntzio txit prestuaren portaerarekin berdindurik aurkitzen baitzen, zigorraren duntasunez. Gero, Kinto Serbeo eta Minuzio Termo agerrarazi zituzten. Pretoretzan jarduna zen Serbeo, behinola, Germanikoren segiziokoa izan zen; Minuziok, zaldun sailekoak, Seianorekiko adiskidetasuna neurriz erabili zuen; hortik harenganako erruki handiagoa. Tiberiok, ostera, krimenzale berezitzat jorik, Gaio Zestio aitari agindu zion senatuan irakurtzeko hark berari zer idatzi zion, eta Zestiok bere gain hartu zuen salaketa. Garai haietan beharreko gauzarik zantarrena izan zen: senataririk gailenenak salaketarik zakarrenak egiten, batzuk agerian, asko ezkutuan; ez ziren bereizten etxeokoak arrotzetarik, lagunak ezezagunetarik, oraintsukoa zaharraren zaharrez ilunetik; foroan eta mahaian, dena delakoaz esaten zen edozer berdin salatzen zen, batzuk azkar baitzebiltzan aurrea hartu eta salagaia hautatzen, beste batzuk, euren burua salbatzeagatik, eta gehienak, gaitz kutsakorrak jota bezala. Baino Minuzio eta Serbeo kondenatuak salatzaileengana batu ziren. Hala, Julio Afrikano, santonoen galiar herrikoa, eta bere jatorririk aurkitu ez dudan Seio Quadrato ere, zori berera arrastatuak izan ziren. Eta badakit historialaririk gehienek ez zutela beste askoren arrisku eta zigorrik kontatu nahi izan, bai hainbestez nazkaturik, edo bai beldur zirelako, eurei hain gehiegizko eta penagarri iruditurik, irakurleei ez ote zien antzeko atsekabea emango. Guk hamaika kasu aurkitu ditugu, jakitea merezi dutenak, beste batzuek zabaldu ez baditzute ere.

8. Esaterako, besteek Seianorekiko adiskidetasuna faltsuki baztertu zuten une hartan, Marko Terentzio zaldun erromatarra, horrexegatik auziperatua, eusten ausartu zen, senatuaren aurrean, honela mintzo: «Nire zoriari, beharbada, salaketa aitortzea gutxiago komeni zaio ukatzea baino; baina, gertatzeko gertatzen dela, aitortuko dut ez nintzela Seianoren adiskide izan bakarrak, izatea bilatu nuela baizik. Eta, lortutakoan, poztu egin nintzela. Bere aitaren kide ikusi nuen, pretorian kohorteen buru, eta gero hiriaz eta armadaz batera kargutzen. Haren etxeoko eta ahaideek ohoreak hartzen zituzten; Seianoren lagun zen neu-rian, Zesarrekiko adiskidantzan aurreratzen zen; haren aurka zeude-

*bus infensus esset, metu ac sordibus conflictabantur. Nec quemquam exemplo adsumo: cunctos qui novissimi consilii expertes fuimus meo unius discrimine defendam. Non enim Seianum Vulsiniensem set Claudio et Iuliae domus partem, quas adfinitate occu paverat, tuum, Caesar, generum, tui consulatus socium, tua officia in re publica capessentem colebamus. Non est nostrum aestimare quem supra ceteros et quibus de causis extollas: tibi summum rerum iudicium dedere, nobis obsequii gloria relicta est. Spectamus porro quae coram habentur; cui ex te opes honores, quis plurima iuvandi nocendive potentia, quae Seiano fuisse nemo negaverit. Abditos principis sensus et si quid occultius parat exquirere inlicitum, ancesps: nec ideo adsequare. Ne, patres conscripti, ultimum Seiani diem sed sedecim annos cogi taveritis. Etiam Satrium atque Pomponium venerabamur; libertis quoque ac ianitoribus eius notescere pro magnifico accipiebatur. Quid ergo? indistincta haec defensio et promiscua dabitur? immo iustis terminis dividatur. Insidia in rem publicam, consilia caedis adversum imperatorem puniantur: de amicitia et officiis idem finis et te, Caesar, et nos absolverit.'*

[6.9] *Constantia orationis et quia repertus erat qui efferret quae omnes animo agitabant eo usque potuere ut accusatores eius, additis quae ante deliquerant, exilio aut morte multarentur. Secutae dehinc Tiberii litterae in Sex. Vistilium praetorium, quem Druso fratri percarum in cohortem suam transtulerat. Causa offensionis Vistilio fuit, seu composuerat quae-dam in Gaium Caesarem ut impudicum, sive ficto habita fides. Atque ob id convictu principis prohibitus cum senili manu ferrum temptavisset, obligat venas; precatus que per codicillos, immitti rescripto venas resolvit. Acervatim ex eo Annius Pollio, Appius Silanus Scauro Mamerco simul ac Sabino Calvisio maiestatis postulantur; et Vinicianus Pollioni patri adiciebat, clari genus et quidam summis honoribus. Contremuerantque patres (nam quotus quisque adfinitatis aut amicitiae tot inlustrium virorum expers erat?), ni Celsus urbanae cohortis tribunus, tum inter indices, Appium et Calvisium discrimini exemisset. Caesar Pollionis ac Viniciani Scaurique*

nak, ostera, beldurpean eta lotsapean bizi ziren. Inor ez dut etsenplutzat hartuko: neure arrisku hutsez, haren azkeneko planetatik aparte egon ziren guztiak defendatuko ditut. Ez baikenuen Seiano Boltsenakoa zerbitzatzen, Klaudia eta Julia etxean osagai bat baizik, etxe haietan ezkon ahaidetasunez sartu zena. Zeure suhia ohoratzen genuen, Zesar, zeure kontsulkidea, zeure eginkizun politiko berak betetzen zituena. Guri ez dagokigu epaitzea nor goratzen duzun besteen gainetik, ez zergatik egiten duzun. Jainkoek zeuri eman dizute gauzen azken epaia, guretzat leialtasunaren aintza utzirik. Horregatik, begi aurrean daukagunari begiratzen diogu: nork hartzen dituen zuregandik ondasunak eta ohoreak, nori damaiozun botererik handiena, on zein txar egiteko; eta inork ez du ukatuko Seianok hori guztia izan zuenik. Printzeak zer pentsakizun ezkutu darabilen eta asmo sekreturik baduen arakatzea bidegabea eta arriskutsua da; eta ezer ez lortzekoa. Ez begiratu, guraso konkiptuok, Seianoren azken egunari, hamasei urteei baino. Satrio eta Ponponio ere gurtzen genituen; haren libertoen eta atezañen ezagun izatea ere zer bikaintzat hartzen zen. Orduan zer? Defentsa indiskriminatu hau denei eskaini? Ez. Neurri zuzenei eutsi behar zaie. Zigor bitez errepiblikaren aurkako azpikeriak, enperadorearen aurkako asmo hiltzaileak, zeren, haren adiskidantzatik eta horri dagozkion betebeharretatik, zu, Zesar, eta gu azken berak absolbituko baikaitu».

9. Mintzaldiaren irmotasunak eta denek euren kautan pentsatzen zutena adierazten ausartu zen bat aurkitu izanak halako indarra izan zuen, ezen haren salatzaileak, euren aurreko hobenak gaineraturik, heriotzaz edo erbestez zigortuak izan baitziren. Gero, Tiberioren gutun bat jarraiki zen, Sesto Bistilio pretore ohiaren aurka, Druso anaiak hain maitea berau, ezen bere kohortera aldatu baitzuen. Bistilioren aurkako erreminaren arrazoia zen ezen, edo egia zela Gaio Zesarren aurkako idazki bat egin zuela, hura lizuntzat joz, edo gezurrezko salaketaren bat sinestu zela. Horregatik, printzearekin mahairatzea debekatu zitzaión eta, agure-esku dardaratz, bere buruaz beste egiten saiatu ondoren, zainak lotu eta erregu txostena bidali zion; erantzun gupidagabea harturik, berriro zainak ebaki zituen. Gero, maiestatez salatuak izan ziren, erreskan, Annio Polion eta Apio Silano, Eskauro Mamerko eta Sabino Kalbisiorekin batera, eta Polion aitari Bini-ziano ere gehitu zitzaión; denak leinu handikoak ziren eta batzuk goren ohoreak izanak. Senatariak beldurrez dardar zeuden, zeren zenbat zeuden, bada, hain gizon guren ahaidetasun edo adiskidantzatik aparte? Eskerrak

*causam ut ipse cum senatu nosceret distulit, datis quibusdam in Scaurum tristibus notis.*

[6.10] *Ne feminae quidem exsortes periculi. Quia occipit pan-  
dae rei publicae argui non poterant, ob lacrimas incusa-  
bantur; necataque est anus Vitia, Fufii Gemini mater, quod  
filii necem flevisset. Haec apud senatum: nec secus apud  
principem Vescularius Flaccus ac Iulius Marinus ad mor-  
tem aguntur; et vetustissimis familiarium, Rhodum secuti et  
apud Capreas individui, Vescularius insidiarum in Libonem  
internuntius; Marino partice Seianus Curtium Atticum  
oppresserat. Quo laetus acceptum sua exempla in consulto-  
res recidisse. Per idem tempus L. Piso pontifex, rarus in  
tanta claritudine, fato obiit, nullius servilis sententiae sponte  
auctor et quoties necessitas ingrueret sapienter mode-  
rans. Patrem ei censorium fuisse memoravi; aetas ad octo-  
gesimum annum processit; decus triumphale in Thraecia  
meruerat. Sed praecipua ex eo gloria quod praefectus urbi  
recens continuam potestatem et insolentia parendi gravio-  
rem mire temperavit.*

[6.11] *Namque antea profectis domo regibus ac mox magis-  
tratibus, ne urbs sine imperio foret in tempus deligebatur qui  
ius redderet ac subitis mederetur; feruntque ab Romulo Den-  
trem Romulum, post ab Tullo Hostilio Numam Marcum et  
ab Tarquinio Superbo Spurium Lucretium impositos. Dein  
consules mandabant; duratque simulacrum quoties ob ferias  
Latinas praeficitur qui consolare munus usurpet. Ceterum  
Augustus bellis civilibus Cilnium Maecenatem equestris  
ordinis cunctis apud Romanum atque Italiam praeposuit: mox  
rerum potitus ob magnitudinem populi ac tarda legum auxi-  
lia sumpsit e consularibus qui coerceret servitia et quod  
civium audacia turbidum, nisi vim metuat. Primusque Mes-  
sala Corvinus eam potestatem et paucos intra dies finem  
acepit quasi nescius exercendi; tum Taurus Statilius, quam-  
quam proiecta aetate, egregie toleravit; dein Piso viginti per  
annos pariter probatus publico funere ex decreto senatus  
celebratus est.*

Zelsok, hiri kohorte bateko tribunoak, orduan lekuoen artean zegoenak, Apio eta Kalbisio arriskutik libratu zituen. Zesarrek Polion, Biniziano eta Eskauroren auzia atzeratu egin zuen, berak senatuarekin batera ebazteko, baina ez Eskauroren aurkako zenbait ohar beldurgarri gabe.

10. Emakumerik ere ez zegoen arriskutik at, eta, errepublikaz jabetzen sariatzea salatzerik ez zegoenez gero, malkoengatik inkulpatzentzituzten, eta halaxe hil zuten Bizia zaharra, Fufio Geminoren ama, semearen hilketari negar egiteagatik. Honelakoxeak egiten ziren senatuau. Printzearen etxearen ere ez zebiltzan oso bestela: heriotzara daramatzate Beskulario Flako eta Julio Marino, bere hurbilekorik antzinakoentarikoak, Ordasen lagun eta Kaprin banagaitz zituenak; Beskulario Libonen aurkako azpikerietan bitartekari izan zen eta Marino Seianoren laguntzaile, Kurtzio Atiko akabatzen. Horregatik, pozik hartu zen euren etsenplu bera hartan lagundu zutenen gainera etortzea. Aldi berean, Luzio Pison pontificea, zer arraroa hain gizon ospetsuarengan, berez hil zen; ez zen izan, berak nahita, ezein mozio zuriren eragile eta esturan aurkitu zen guztian, neurritasun zuhurrez jokatu zuen. Esana dut haren aita zentsorea izan zela; laurogei urtera arte bizi izan zen eta garaipen ohorea Trazian irabazi zuen. Bainan haren aintza nagusia zen ezen, hiriko prefektu zela, tentu miresgarritz eraman zuela aginte berriki iraunkor bilakatua eta bereziki zaila, obe-ditzeko ohitura galdua zelako.

11. Lehenago, izan ere, erregeak eta gero magistratuak Erromatik kanpo-  
ratzen zirenean, hiria aginpide gabe ez gelditzeko, aldi baterako bat hauta-  
tzen zuten, zuzenbidea eraman eta egoera larriak konpon zitzan; Romulok  
Dentre Romulio izendatu ei zuen, gero Tulo Hostiliok Numa Martzio, eta  
Tarkinio Harroak Espurio Lukrezio. Geroago, kontsulek hautatzen zituz-  
ten, eta horren simulazio bat Feria Latinoetan gelditzen da, kontsulatuan  
ariko dena hautatzen dutenean. Gero, Augustok, gerra zibiletan zehar, zaldun  
ordenako Zilnio Mezenas Erromako eta Italiako agintari orokor egin  
zuen. Gero, aginte guztiaz jabetu zenean, biztanleen gehitzea eta auzibide-  
en geldotasuna arrazoi, kontsul ohien artetik, arduradun batzuk hautatu  
zituen, esklaboak eta indarraz besteri beldurrik ez zioten hiritar batzuen  
ausarkeriak eragindako istiluak itotzeko. Lehenengoak, Mesala Korbinok,  
kargua hartu eta egun gutxiren buruan utzi zuen, bera hartarako ez zela  
gauza eta. Orduan, Tauro Estatilio, adinean aurrera zihoan arren, bikain  
aritu zen; azkenik, Pison dugu, hogeit urtean arrakasta berdinez aritu zena  
eta, hiltzean, senatuaren dekretuz, hileta publikoz ohoratua izan zena.

[6.12] Relatum inde ad patres a Quintiliano tribuno plebei de libro Sibullae, quem Caninius Gallus quindecimvirum recipi inter ceteros eiusdem vatis et ea de re senatus consultum postulaverat. Quo per discessionem facto misit litteras Caesar; modice tribunum increpans ignarum antiqui moris ob iuventam. Gallo exprobrabat quod scientiae caerimoniarumque vetus incerto auctore ante sententiam collegii, non, ut adsolet, lecto per magistros aestimatoque carmine, apud infrequentem senatum egisset. Simul commonefecit, quia multa vana sub nomine celebri vulgabantur. Sanxisse Augustum quem intra diem ad praetorem urbanum deferrentur neque habere privatim liceret. Quod a maioribus quoque decretum erat post exustum sociali bello Capitolium, quae sitis Samo, Ilio, Erythris, per Africam etiam ac Siciliam et Italicas colonias carminibus Sibullae, una seu plures fuer datoque sacerdotibus negotio quantum humana ope potuissent vera discernere. Igitur tunc quoque notioni quindecimvirum is liber subicitur.

[6.13] Isdem consulibus gravitate annonae iuxta seditionem ventum multaque et pluris per dies in theatro licentius efflagitata quam solitum adversum imperatorem. Quis commotus incusavit magistratus patresque quod non publica auctoritate populum coercuissent addiditque quibus ex provinciis et quanto maiorem quam Augustus rei frumentariae copiam advectaret. Ita castigandae plebi compositum senatus consultum præca severitate neque segnus consules edixere. Silentium ipsius non civile, ut crediderat, sed in superbiam accipiebatur.

[6.14] Fine anni Geminus, Celsus, Pompeius, equites Romanii, cecidere coniurationis crimine; ex quis Geminus prodigentia opum ac mollitia vitae amicus Seiano, nihil ad serium. Et Iulius Celsus tribunus in vincis laxatam catenam et circumdatam in diversum tendens suam ipse cervicem perfregit. At Rubrio Fabato, tamquam desperatis rebus Romanis Parthorum ad misericordiam fugeret, custodes additi. Sane is repertus apud fretum Siciliae retractusque per centurionem nullas probabilis causas longinquae peregrinationis adferbat: mansit tamen in columis oblivione magis quam clementia.

12. Ondoren, Kintilianok, popularen tribunoak, senatuari Sibilaren liburu baten berri eman zion, zeina Kanino Galo kindezinbiroak profetisa beraren beste liburuen artean sartzeko eskatu zuen, senatuaren hartarako dekretuz. Hori eztabaidea gabe bozkatzea onarturik, Zesarrek gutun bat idatzi zuen, gaztetasunagatik antzinako ohiturak ezagutzen ez zituen tribunoari apur bat agiraka eginez. Galori aurpegiratzen zion ezen, errituen ezagutzan bera aspaldikoa izanik, eta liburua egile ezezagunarena zela, kolegioak iritzia eman aurretik eta, ohi bezala, iragarpena maisuek irakurri eta baloratu gabe, senatuaren bilkura jendez urria eraman zuela. Aldi berean, gogoratu zuen ezen, izen ospetsu haren pean, iragarpen hutsal asko zebilenez gero, Augustok epea ezarri zuela, haietako hiriko pretoreari aurkezteko, edukitze pribatua debekaturik. Baina arbasoek ere ezarria zutela, Kapitolioa gerra sozialean erre ondoren; Samosen, Ilion, Eritrisen, baita Afrikan eta Sizilian eta italiar kolonietan zehar ere, Sibilaren iragarpen bila ibili zirela, bat bakarra zein batzuk izan, eta abadeen esku utzi zutela, giza ahalak ematen zienetik, egiazkoak bereizteko ardura. Beraz, liburu hora orduan ere kindezinbiroek atzertzeko utzi zuten.

13. Kontsulaldi berean, sedizio puntuan egon ziren, gariaren urriagatik, eta, hainbat egunetan zehar, enperadoreari kexa asko eta ohi baino jareginago agertu zioten. Berak, aztoraturik, magistratuei eta senatuari herria euren aginte publikoz ez menperatu izana aurpegiratu zien, ondoren gogoratu zeintzuk probintziatik eta Augustok baino zenbat gehiago ekarrarazten zuen gari hornimena. Beraz, herria antzinako zorroztasunaren arabera zigortzeko, senatuaren dekretu bat osatu zen, eta kontsulek berehala zabaldu zuten ediktua. Tiberioren isiltasuna ez zen hartzen gizalegetzat, berak uste bezala, harrokeriatzat baizik.

14. Urte amaieran, Geminio, Zelso eta Ponpeio, zaldun errromatarra, konjurazio salaketaz jausi ziren. Geminio Seianoren lagun egin zen, bere oparotasun eta bizimodu laxoagatik, baina ez zen ezer seniorako gauza. Julio Zelso tribunoak, preso zegoela, katea luzatu, lepoan buelta bat eman eta besterantz tiraturik, berak hautsi zuen bere lepoa. Rubrio Fabatori, Erromako egoeraz nazkaturik, partoen babesera ihes egin nahi zuelako aitzakian, guardia ipini zioten; egia da, Sizilian aurkitua eta zenturioi batek ekarria izanik, ez zuela hain bidaia luzearen arrazoi sinesgarririk ematen; baina bizirik apartatu zen, areago ahanzenez, klementziaz baino.

[6.15] Ser: Galba L. Sulla consulibus diu quaesito quos nepibus suis maritos destinaret Caesar; postquam instabat virginum aetas, L. Cassium, M. Vinicium legit. Vinicio oppidum genus: Calibus ortus, patre atque avo consularibus, cetera equestri familia erat, mitis ingenio et comptae facundiae. Cassius plebeii Romae generis, verum antiqui honoratiue, et severa patris disciplina eductus facilitate saepius quam industria commendabatur. Huic Drusillam, Vinicio Iuliam Germanico genitas coniungit superque ea re senatui scribit levi cum honore iuvenum. Dein redditis absentiae causis admodum vagis flexit ad graviora et offensiones ob rem publicam coeptas, utque Macro praefectus tribunorumque et centurionum pauci secum introirent quoties curiam ingredieretur petivit. Factoque large et sine praescriptione generis aut numeri senatus consulto ne tecta quidem urbis, adeo publicum consilium numquam adiit, deviis plerumque itineribus ambiens patriam et declinans.

[6.16] Interea magna vis accusatorum in eos inrupit qui pecunias faenore auctitabant adversum legem dictatoris Caesaris qua de modo credendi possidendique intra Italianam cavitur; omissam olim, quia privato usui bonum publicum postponitur: Sane vetus urbi faenebre malum et seditionum discordiarumque creberrima causa eoque cohibebarant antiquis quoque et minus corruptis moribus. Nam primo duodecim tabulis sanctum ne quis unciario faenore amplius exerceret, cum antea ex libidine locupletium agitaretur; dein rogatione tribunicia ad semuncias redactum, postremo vetita versura. Multisque plebi scitis obviam itum fraudibus quae toties repressae miras per artes rursum oriebantur. Sed tum Gracchus praetor, cui ea quaestio evenerat, multitudine pericitantium subactus rettulit ad senatum, trepidique patres (neque enim quisquam tali culpa vacuus) veniam a principe petivere; et concedente annus in posterum sexque menses dati quis secundum iussa legis rationes familiaris quisque componerent.

[6.17] Hinc inopia rei nummariae, commoto simul omnium aere alieno, et quia tot damnatis bonisque eorum divenditis

15. Serbio Galba eta Luzio Silaren kontsulaldian, birloben senartsat norantzuk eman asko pentsatu eta gero, Zesarrek, birjinien adinak presatzen baitzuen, Luzio Kasio eta Marko Binizio hautatu zituen. Binizio udal leinukoa zen, Kalesen jaioa, aita eta aitita kontsulak izan zituena; gainera-koan, zaldun familiakoa zen, izaera gozokoa eta ekarri finekoa. Kasio Erromako plebe familiakoa zen, baina antzinakoa eta ohoretsua; aitak diziplina zorrotzean hezirik, adeikortasunagatik ospetsuago zen, ekinkortasunagatik baino. Honekin Drusila eta Biziniorekin Julia ezkondu zituen, biak Germanikoren alabak, eta, gai hartaz, senatura gutun bat bidali zuten, mutil haien gorespen neurturekin. Gero, bere ausentziaren arrazoiaik hitz lauso samarretan azaldutakoan, arazo larriagoetara eta errepublikagatik jasan zituen gorrotoetara jo zuen; kuriara zetorren bakoitzean, Makronek eta tribuno eta zenturioi banaka batzuek bakarrik lagun ziezaiotela eskatu zuen. Senatuaren dekretu zabal bat osatu zen, goardien izaera eta kopurua gehiegi zehaztu gabe, baina gehiago ez zuen hiriko etxerik zapaldu, eta are gutxiago kontseilu publikorik, sorterriaren inguruau alderrai eta ia beti bide galduetatik eta zeharka zebilela.

16. Bitartean, salatzale pilo handia oldartu zen lukurreriaz diruginan ari ziren aurka, Zesar diktadorearen legea hautsirik, zeinak kreditua eta Italia barruko posesioa mugatzen zituen, aspalditik ahaztua bera, on publikoa irabazi pribatua baino atzerago ibiltzen baita. Lukurreriaen gaitza zaharra zen, izan ere, hirian, eta sedizio eta liskar etengabeen era-gilea; horregatik, antzina ere, ohitura hain usteldurik ez zeudenean, zigortua izan zen. Lehenengotan, Hamabi Oholetan, inork ontza batetik gorako interesdun mailegurik ez ipintzea ezarri zen, aurretik, aberatsen apetaren arabera jokatzen baitzen; gero, tribunoen proposamenez, ontza erdira jaitsi zen; azkenik, interesa debekatu egin zen. Eta, plebisitu askoren bitartez, iruzurrei bidea moztu zitzaien, baina, hainbeste alditan zanpatu arren, trikimaina harrigarri berritzen ziren. Baina orduan Grako pretoreak, auziaren instrukzioa egokitu zitzzionak, bere burua arriskuan ikusten zuen jendetza beharturik, senatura parte eman zuen, eta gurasoek, ikaraturik, inor ez baitzegoen errutik libre, printzeagandik grazia eskatu zuten. Honek eman egin zuen, eta urtebete eta sei hilabete-ko epea ezarri zen, legeak aginduaren arabera, bakoitzak bere ondare kontuak konpon zitzan.

17. Horrek diru urritasuna ekarri zuen, zor guztiak batera erreklamatzean, eta, ondasunen enkanterera zeraman hainbeste zigor izanik, zilar txan-

*signatum argentum fisco vel aerario attinebatur: Ad hoc senatus praescripserat, duas quisque faenoris partis in agris per Italiam conlocaret. Sed creditores in solidum appellabant nec decorum appellatis minuere fidem. Ita primo concursatio et preces, dein strepere praetoris tribunal, eaque quae remedio quaesita, venditio et emptio, in contrarium mutari quia faeneratores omnem pecuniam mercandis agris condiderant. Copiam vendendi secuta vilitate, quanto quis obaeratior, aegrius distrahebant, multique fortunis provolvebantur; evercio rei familiaris dignitatem ac famam praeceps dabat, donec tulit opem Caesar disposito per mensas milies sestertio factaque mutuandi copia sine usuris per triennium, si debitor populo in duplum praediis cavisset. Sic refecta fides et paullatim privati quoque creditores reperti. Neque emptio agrorum exercita ad formam senatus consulti, acribus, ut ferme talia, initiiis, incurioso fine.*

[6.18] *Dein redeunt priores metus postulato maiestatis Considio Proculo; qui nullo pavore diem natalem celebrans rapturn in curiam pariterque damnatus interfectusque, et sorori eius Sanciae aqua atque igni interdictum accusante Q. Pomponio. Is moribus inquies haec et huiusce modi a se factitari praezendebat ut parta apud principem gratia periculis Pomponii Secundi fratris mederetur. Etiam in Pompeiam Macrinam exilium statuitur cuius maritum Argolicum socerum Laconem e primoribus Achaeorum Caesar adflixerat. Pater quoque inlustris eques Romanus ac frater praetorius, cum damnatio instaret, se ipsi interfecere. Datum erat criminis quod Theophanen Mytilenaicum proavum eorum Cn. Magnus inter intimos habuisse, quodque defuncto Theophani caelestis honores Graeca adulatio tribuerat.*

[6.19] *Post quos Sex. Marius Hispaniarum ditissimus deferatur incestasse filiam et saxo Tarpeio deicitur: Ac ne dubium haberetur magnitudinem pecuniae malo vertisse, aurariasque eius, quamquam publicarentur; sibimet Tiberius seposuit. Inritatusque suppliciis cunctos qui carcere attinebantur accusati societatis cum Seiano necari iubet. Iacuit immensa*

pondua fiskoak edo erarioak atxikita zeukalako. Horren aurrean, senatuak agindu zuen bakoitzak diru prestatuaren bi heren Italiako lurretan inberti zitzala. Hartzedunek, ostera, osoa eskatzen zuten eta, erreklamatzentzitzaientzat, ez zen itxurazko kreditua gutxitzea. Hala, lehenik bisitak eta erreguak izan ziren, gero pretorearen auzitegian zalapartak, eta erremediotzat erabakitako neurria, sal-erosia, kaltegarri bilakatu zen, mailegu-emaileek diru guztia gorde baitzuten, lurrik erosteko. Salmenten ugariari prezioen beherapenak jarraitu zion; zenbat eta zorpetuago zegoenak, zailago zeukan sailak saltzea, eta askoren edukiak gainbehera zetozen. Ondasun familiarren hondamenak duintasuna eta ospea eraisten baitzituen, Zesarrek laguntza bat jarri zuen, bankuetara ehun milioi sestertzio banaturik eta euron mailegu, hiru urtean, interes gabe baimendurik, zordunak, aurretiaz, herriari dobleko bermea eskaintzen bazion onibarretan. Halaxe berritu zen kreditua eta, apurka-apurka, mailegu-emaile partikularrak ere aurkitu ziren. Bainaz ez zen gertatu senatuaren dekretuan araberako lur erosterik, ia beti gertatzen baita, hasiera indartsuaren ondoren, azkenean, indiferentzia nagusitzen dela.

18. Gero, aurreko beldurrak itzuli ziren, Konsidio Prokulo maiestatez auziperatu zutenean; ezeren beldurrik gabe, bere urte-eguna ospatzentzitzaientzat, ari zela, bat-batean kuriara arrastatu zuten, kondenaturik eta hilik; haren arreba Santzia ur-suen debekura kondenatu zuten, Kinto Ponponioen salaketaz. Hau, izakeraz, azpikaria zen, eta horrelakoak eta antzekoak egiten ei zituen, Zesarren aurrean, bere anaia Ponponio Sekundoren arriskua sorosteko grazia lortzearren. Ponpeia Makrinaren aukako erbestea ere erabakitzentzitzaientzat, zeinaren senar Argoliko eta aitagiarrreba Lakon, akeo txit gorenak, Zesarrek jazarriak zituen; errromatar zaldun ospetsua zen bere aitak eta pretorea izaniko nebak ere, kondenaren mehatxuan aurkitzean, euren burua hil zuten. Errutzat ezartzen zitzaien ezen Mitileneko Teofanes, euren birraitita, Gneo Ponpeio Magok bere lagun minen artean eduki zuela, eta, Teofanes hildakoan, gretkoen adulazioak ohore zerutarrak eskaini zizkiola.

19. Hauen ondoren, Sesto Mariori, Hispanietako gizonik aberatsenari, alabarekin intzestua izana salatzen diote, eta Tarpeia haitzetik amiltzen dute; eta bere ondasun izugarriek hondatu zutela dudarik izan ez zedin, haren urre eta (zilar) meatzeak, konfiskatuak izan arren, Tiberiok beretzat gorde zituen. Gero, suplizio hauengatik beroturik, Seianorekiko konplizitatez salaturik, preso zeuden guztiak exekutatzeko agindua

*strages, omnis sexus, omnis aetas, inlustres ignobiles, dispersi aut aggerati. Neque propinquis aut amicis adsistere, inlaczimare, ne visere quidem diutius dabatur; sed circumiecti custodes et in maerorem cuiusque intenti corpora putrefacta adsectabantur; dum in Tiberim traherentur ubi fluitantia aut ripis adpulsa non cremare quisquam, non contingere. Interciderat sortis humanae commercium vi metus, quantumque saevitia glisceret, miseratio arcebatur.*

[6.20] *Sub idem tempus G. Caesar, discedenti Capreas avo comes, Claudiam, M. Silani filiam, coniugio accepit, immamen animum subdola modestia tegens, non damnatione matris, non exitio fratrum rupta voce; qualem diem Tiberius induisset, pari habitu, haud multum distantibus verbis. Unde mox scitum Passieni oratoris dictum percrebuit neque meliorrem umquam servum neque deteriorem dominum fuisse. Non omiserim praesagium Tiberii de Servio Galba tum consule; quem accitum et diversis sermonibus pertemptatum postremo Graecis verbis in hanc sententiam adlocutus ‘et tu, Galba, quandoque degustabis imperium,’ seram ac brevem potentiam significans, scientia Chaldaeorum artis, cuius apiscendae otium apud Rhodum, magistrum Thrasullum habuit, peritiam eius modo expertus.*

[6.21] *Quotiens super tali negotio consultaret, edita domus parte ac liberti unius conscientia utebatur: Is litterarum ignarus, corpore valido, per avia ac derupta (nam saxis domus imminet) praeibat eum cuius artem experiri Tiberius statuisset et regredientem, si vanitatis aut fraudum suspicio incesserat, in subiectum mare praecipitabat ne index arcani existeret. Igitur Thrasillus isdem rupibus inductus postquam percontantem commoverat, imperium ipsi et futura sollerter patefaciens, interrogatur an suam quoque genitalem horam compriisset, quem tum annum, qualem diem haberet. Ille positus siderum ac spatia dimensus haerere primo, dein pavescere, et quantum introspiceret magis ac magis trepidus admirationis et metus, postremo exclamat ambiguum sibi ac prope ultimum discrimen instare. Tum complexus eum Tiberius praescium*

ematen du. Sarraski izugarria zetzan lurrean: sexu bietakoak, adin guztietakoak, ospetsuak eta ezezagunak, banan edo piloan. Ahaide eta lagunei ez zitzaien utzi hurbiltzen, negar egiten, ezta begiratzen ere luzaroan; aitzitik, guardia bat ezarri zuten inguruan, bakoitzaren saminaren adi, hilotz usteli jarraitzen ziena, Tiberrera arrastatzten zitzuten bitartean, non, flotatzen edo ertza jaurtiak baziren, inori ez zioten erretzen uzten, ezta ukitzen ere. Giza izatearen elkartasuna beldurraren indarrak moztu zuen, eta, zenbat eta ankerkeria areagotu, errukia urrunago zen.

20. Garai berean, aititari Kapriko erretiroan laguntzen zion Gaio Zesar Marko Silanoren alaba Klaudiarekin ezkondu zen; apaltasun engaina-garriz, jenio basatia estaltzen zuen, ez amaren kondenak, ez anaien hilketak ahotsik aldatu ziotela. Tiberiok nolako eguna zeukan, halako airea hartzen zuen, eta hitzetan ere ez zeukan alde handirik. Hortik dator Prosenio hiszliariaren esate zorrotz eta txit zabaldua: «inoiz ez zen morroia hobea izan, ez ugazaba txarragoa». Ez nuke aipatu gabe utzi nahi Tiberioren presagio bat, orduan kontsul zen Serbio Galbaz. Deiturik eta zenbait hitzez tentaturik, gero honelatsu esan zion grekoz: «Heuk ere, Galba, imperioa probatuko duk noizbait», haren agintaldi berantiar eta laburra adieraziz, kaldearren artearen ezagutzari esker. Tiberiok Rodasko aisialdia horixe ikasten egin zuen, Trasilo irakasle zuela, zeinaren trebetasuna honako eran probatzen zuen:

21. Gai honi buruz kontsultatzen zuen guztian, etxearen goialdea eta liberto bakarraren laguntza erabiltzen zituen. Hau, letretan ejjakina eta gorputzez oso indartsua, alde malkar eta erripetik, etxea haitzean koka-tua baitzen, Tiberiok haren ahalmena probatzea erabakia zuenaren aurretik joaten zen, eta, bueltan, gezur edo iruzur susmorik sortu bazen, azpian zegoen itsassora jaurtitzen zuen, bere sekretuaren lekukorik ez geratzeko. Trasilo ere halaxe eraman zuten haitz beretara, eta, galdeketan, zirrara handia eragin zionez gero, bere imperioa eta etorkizuna argiro igarriz, Tiberiok galduetu zion ea bere horoskopoa ere egiaztatu zuen, eta urte hartan eta egun hartan zer zegokion. Hark izarren posizioak eta espazioak neurtu zituen, eta, lehenik, zalantzaz gelditu zen; gero, ikaraz bete zen eta, zenbat eta gehiago kalkulatu, are eta areago dardaratzan zen harriduraz eta beldurrez; azkenik, arrisku anbiguo eta ia muturreko baten mehatxupean dagoela hots egiten du. Orduan Teberiok, besarkaturik, zoriondu egiten du, arriskuak aurreikusi zizkiolako

*periculorum et incolumem fore gratatur; quaeque dixerat orationi vice accipiens inter intimos amicorum tenet.*

[6.22] *Sed mihi haec ac talia audienti in incerto iudicium est fatone res mortalium et necessitate immutabili an forte voluntur: Quippe sapientissimos veterum quique sectam eorum aemulatur diversos reperies, ac multis insitam opinionem non initia nostri, non finem, non denique homines dis curae; ideo creberrime tristia in bonos, laeta apud deteriores esse. Contra alii fatum quidem congruere rebus putant, sed non evagis stellis, verum apud principia et nexus naturalium causarum; ac tamen electionem vitae nobis relinquunt, quam ubi elegeris, certum imminentium ordinem. Neque mala vel bona quae vulgus putet: multos qui conflictari adversis videantur beatos, at plerosque quamquam magnas per opes miserimos, si illi gravem fortunam constanter tolerent, hi prospera inconsulte utantur: Ceterum plurimis mortalium non eximitur quin primo cuiusque ortu ventura destinentur; sed quadam secus quam dicta sint cadere fallaciis ignara dicentium: ita corrumphi fidem artis cuius clara documenta et antiqua aetas et nostra tulerit. Quippe a filio eiusdem Thrasulli praedictum Neronis imperium in tempore memorabitur; ne nunc incepto longius abierim.*

[6.23] *Isdem consulibus Asinii Galli mors vulgatur; quem egestate cibi peremptum haud dubium, sponte vel necessitate incertum habebatur: Consultusque Caesar an sepeliri sineret, non erubuit permittere ultroque incusare casus qui reum abstulissent antequam coram convinceretur: scilicet medio triennio defuerat tempus subeundi iudicium consulari seni, tot consularium parenti. Drusus deinde extinguitur; cum se miserandis alimentis, mandendo e cubili tomento, nonum ad diem detinuisse. Tradidere quidam praescriptum fuisse Macroni, si arma ab Seiano temptarentur; extractum custodiae iuvenem (nam in Palatio attinebatur) ducem populo imponere. Mox, quia rumor incedebat fore ut nuru ac nepoti conciliaretur Caesar, saevitiam quam paenitentiam maluit.*

eta onik irtengo zelako, eta, hark esana orakulutzat harturik, bere lagun minen artean sartzen du.

22. Bainanik, horrelakoak eta antzeko historiak entzutean, ez dakit zer pentsatu: hilkorren gauzak patuaren eta behar aldaezinaren ala zoriaren arabera gertatzen ote diren. Behintzat, antzinako jakintsuenak eta haien irakatsiei jarraitzen dietenak banaturik aurkituko dituzu. Batzuen ustea da jainkoak ez direla ez gure hasieraz ez azkenaz, hitz batez, gizakumeoz, arduratzet, eta, horregatik, sarritan, onei okerrak eta gaitzoei onak gertatzen zaizkiela. Beste batzuek, ostera, uste dute badela historiarekin bat doan patu bat, baina ez izar deslaietatik harakoa, berezko printzipio eta loturei atxikia baizik; hauet, hala ere, bizitza hautatzen geuri uzten digitela eta, behin hau hautaturik, gertaeren segida aldaezina dela; herriak halakotzat dauzkanak ez direla ez on, ez txar; uste dute ezbeharrik joak diruditzen asko dohatsuak direla, eta beste batzuk, ostera, aberastasunik handienean ere, oso dohakabeak direla, lehenengoek patuaren pisuari irmoki eusten badiote, eta bigarrenet euren ongi-zatea zentzu gabe erabiltzen badute. Gainerakoan, hilkorrik gehienak ez dira libratzen uste izatetik bakoitzari jaiokeran bertan izendatzen zaiola etorkizuna, baina gauza batzuk zer dioten ez dakitenek iragarri dutenaz bestera gertatzen direla, eta horrelaxe andeatzen dela igarmenaren dohaia, zeinaren agiri argiak eskaintzen dituen hala antzinako, nola oraingo aldiak. Behintzat, Trasilo honen semeak Neronen imperioa iragarri zuen, bere garaian gogoratuko denez, orain ez baitut neure planetik alboratu gura.

23. Kontsulaldi berean, Asinio Galoren heriotzaren berri jakiten da, dudarik gabe, janari faltaz hil zena bera; nahita ala beharrez, hori ez zegoen argi. Ehorzten utziko ote zuen Zesarri galdezturik, ez zen lotsatu baimena ematen, ezta hobenduna, publikoki konbiktutzat joa izan aurretik, eraman zuten arrazoia deitoratzen ere; alegia, hiru urtean, nahikoa asti izan ez balitz bezala kontsul ohi zahar bat, hainbeste kontsulen aita, epaiketara ekartzeko. Gero, Druso hil zen, bederatzi egunez, janari tristetzat, ohearen betegarria karraskatuz iraun ondoren. Historialari batzuek kontatzen dute ezen, Seianok armetara jotzen bazuen, Makroni aginduta zegoela mutila espetxetik atera (jauregian atxilo baitzegoen) eta herriaren buru ipintzeko. Geroago, Zesar errainarekin eta birlobarekin adiskidetuko zela zabaldu zenean, damua baino nahiago izan zuen ankerkeria.

[6.24] *Quin et invectus in defunctum probra corporis, exitiabilem in suos, infensum rei publicae animum obiecit recitarique factorum dictorumque eius descripta per dies iussit, quo non aliud atrocius visum: adstitisse tot per annos, qui vultum, gemitus, occultum etiam murmur exciperent, et potuisse avum audire, legeret, in publicum promere vix fides, nisi quod Attii centurionis et Didymi liberti epistulae servorum nomina praeferebant, ut quis egredientem cubiculo Drusum pulsaverat, exterruerat. Etiam sua verba centurio saevitiae plena, tamquam egregium, vocesque deficiens adiecerat, quis primo [alienationem mentis simulans] quasi per dementiam funesta Tiberio, mox, ubi exspes vitae fuit, meditatas compositasque diras imprecabatur; ut, quem ad modum nurum filiumque fratris et nepotes domumque omnem caedibus complevisset, ita poenas nomini generique maiorum et posteris exolveret. Obturbabant quidem patres specie detestandi: sed penetrabat pavor et admiratio, callidum olim et tegendis sceleribus obscurum huc confidentiae venisse ut tamquam dimotis parietibus ostenderet nepotem sub verbere centurionis, inter servorum ictus extrema vitae alimenta frustra orantem.*

Artabanok altxorak eta gorte-neskak pilatu zituen gazteluan geraturik, hitzarmenak hausteko denbora eman zuen. Zeren Fraates eta Hieron, eta koroakuntzara, batzuk beldurrez, beste batzuk gortean eta errege berriarenag angitzen zuen Badgesesen aurkako bekaitzez, etorri ez ziren guztiak Artabanorenengana pasatu baitziren. Hirkanoen artean aurkitu zuten berau, zarpaliez jantzia eta arkuarekin janari bila. Lehenik, beldurtu egin zen, emboskada zelakoan, baina bere nagusigoa itzultzera zetozene frogak eman zizkiotenean, animatu egin zen, eta bat-bateko aldakuntza hau zerena zen galdu. Orduan Hieronek hitz gogorrez dio Tiridates haurra besterik ez dela eta imperioa ez dagoela atsaziden eskuan, eta hau biguntasun arrotzeko koldar bati emaniko izena dela, eta agintea Abdagesesen etxearena dela.

44. Agintari beterano hora ohartu zen, haien maitasuna gezurrezkoa izanik, gorrotoak ere ez zituztela fingitzen. Beraz, errefortzuak hartze-ko baizik ez zen gelditu. Arin abiatu zen, etsaien maltzurkeria eta lagunen damua aurreikusirik. Zikinkeriarik ez zuen utzi, populuaren errukia eragitearren. Ez zuen ez iruzurrik, ez erregurik, ez ezer omititu, zalanzkorraek erakartzeko eta erabakidunak segurtatzeko. Eta tropa handiarekin Seleuzia ingurura hurbiltzen ari zela, Tiridates, albistea eta Artabano bera batera iristeaz durditurik, bi erabakiren arteko dudan zebilen: haren aurka abiatu ala gerra atzeratzen saiatu. Guduaren eta gertaerak azkartzearen aldekoek zioten ezen gizon haien, ibilaldiaren luzez sakabanaturik eta nekatutik, obeditzeko gogoa eurengan errotze-ko astirik ere ez zutela izan, orain berriro lagundu behar diotenaren traideore eta etsai atzo arte. Abdagesesek, ostera, Mesopotamiara erretiratzea aholkatzen zuen, erdian ibaia zela eta, bitartean, armeniarak eta elimeoak eta erretagliadiako beste herri batzuk altxaturik, eta tropa aliatuekin eta erromatar jeneralak bidaliko zizkietenekin indarturik, zortea probatzeko. Iritzi horixe nagusitu zen, Abdagesesen autoritatea handia baitzen, eta Tiridates koldarra, arriskuen aurrean. Baina erretirak ihes antza zeukan; eta, aurrenengoak arabiarrak zirela, gainerakoek etxera edo Artabanoren kanpamentura alde egin zuten, harik eta Tiridatesek, banaka batzuekin Siriara itzulita, traizioaren desohoretik denak absolbitu zituen arte.

45. Urte berean, sute larriak atsekabetu zuen hiria; Abentino ondoko zirkua eta Abentino bera erre ziren. Ezbehar hau Zesarrek bere aintza-

*pretiis. Milies sestertium in munificentia conlocatum, tanto acceptius in vulgum, quanto modicus privatis aedificationibus ne publice quidem nisi duo opera struxit, templum Augusto et scaenam Pompeiani theatri; eaque perfecta, contemptu ambitionis an per senectutem, haud dedicavit. Sed aestimando cuiusque detimento quattuor progeneri Caesaris, Cn. Domitius, Cassius Longinus, M. Vinicius, Rubellius Blandus delecti additusque nominatione consulum P. Petronius. Et pro ingenio cuiusque quaesiti decretique in principem honores; quos omiserit reperitur in incerto fuit ob propinquum vitae finem. Neque enim multo post supremi Tiberio consules, Cn. Acerrius C. Pontius, magistratum occipere, nimia iam potentia Macronis, qui gratiam G. Caesaris numquam sibi neglectam acris in dies sovebat impuleratque post mortem Claudiae, quam nuptam ei rettuli, uxorem suam Enniam imitando amorem iuvenem inlicere pactoque matrimonii vincire, nihil abnuentem, dum dominationis apisceretur; nam etsi commotus ingenio simulationum tamen falsa in sinu avi perdidicerat.*

[6.46] *Gnarum hoc principi, eaque dubitavit de tradenda re publica, primum inter nepotes, quorum Druso genitus sanguine et caritate propior; sed nondum pubertatem ingressus, Germanici filio robur iuventae, vulgi studia, eaque apud avum odii causa. Etiam de Claudio agitanti, quod is composta aetate bonarum artium cupiens erat, imminuta mens eius obstitit. Sin extra domum successor quaereretur; ne memoria Augusti, ne nomen Caesarum in ludibria et contumelias verterent metuebat: quippe illi non perinde curae gratia praesentum quam in posteros ambitio. Mox incertus animi, fesso corpore consilium cui impar erat fato permisit, iactis tamen vocibus per quas intellegetur providus futurorum; namque Macroni non abdita ambage occidentem ab eo deserit, orientem spectari exprobravit, et G. Caesari, forte orto sermone L. Sullam inridenti, omnia Sulla's vita et nullam eiusdem virtutem habiturum praedixit. Simul crebris cum lacrimis minorum ex nepotibus complexus, truci alterius vultu, 'occides hunc tu' inquit 'et te alias.' sed gravescente valetudine nihil e*

rako okasio bihurtu zuen, etxeen eta maizter-etxeen prezioak berak ordainduz. Ongintza hartan, ehun milioi sestertzio inbertitu ziren, populuaren aldetik hainbat estimu handiagoz, nola, eraikuntza pribatuetan neurta izanik, bi etxe publiko baizik ez baitzituen eraiki: Augustoren tenplua eta Pompeioren antzokiko eszena. Hauek amaiturik, dela ospearren arbuioz, dela zaharrez, ez zituen berak inauguru. Bietako okerrak estimatzeko, Zesarren birloben lau senarrak delegatu zituzten: Gneo Domizio, Kasio Longino, Marko Bizinio eta Rubelio Blando; eta, kontsulen izendapenez, Publio Petronio gehitu zuten. Bakoitzaren asmamenaren arabera, printzearentzako ohoreak bilatu eta dekretatu ziren; onartu zituen ala ez, ez zen ziur jakin, biziaren azkenetik hur baitzegoen. Izan ere, handik laster, Tiberioren agintaldiko azken kontsulak, Gneo Azerronio eta Gaio Pontzio, karguratu ziren, Makronen eragina jada handiegia zenean. Gaio Zesarren grazia inoiz deskuidatu ez zuen honek, egunetik egunera, gehiago zaintzen zuen, eta, harekin ezkondu zela esana dudan Klaudia hil zenean, bere emazte Ennia bultzatu zuen, gaztea maitasun itxuran erakarri eta ezkon-itunez atxikitza; hark ez zion ezeri uko egiten, aginpidea eskuratzeko bazeen, zeren, izaera berokoa izan arren, simulazioaren faltsukeria aititaren altzoan ikasi baitzuen.

46. Horren berri jakinik, printzea dudan egon zen, agintea nori utzi; lehenik, birloben artean, Drusoren semea zegoen, odolez eta xeraz hurbilen zuena, baina oraindik pubertarora iritsi gabea; Germanikoren semeak gaztetasunaren indarra eta herriaren gogoa zeukan, baina hori, aititarentzat, gorrotorako arrazoia zen. Adinez heldua eta ikastuna zen Klaudiorengan ere pentsatu zuen, baina argitasunik ezak atzera eragin zion. Etxetik kanpoko ondorengoa bilatzen bazuen, ostera, beldur zen Augustoren oroimena eta Zesarren izena lotsagarri eta iraingarri ez ote zituen utziko; hari ez zion hainbeste ardura oraingoen ospeak, nola gerokoek estimauak. Gero, gogoz zalanzkor eta gorputzez makal, bera gauza ez zen erabakia patuaren esku utzi zuen, ez etorkizuna aurreikusita zeukala pentsatzeko moduko hitzak jaulki gabe. Hala, Makroni jaukitzen zion, itzulinguru gabe, mendebaldea utzi eta ekialdera begiratzen zuela; eta, kasualki sortutako solas batean, Gaio Zesar Luzio Silaz isekatu zenean, iragarri zion berak haren bizio guztiak izango zituela, eta bertuterik bat ere ez. Aldi berean, birlobarik gazteena malko ugariz besarkaturik, eta bestearen begirada ohilean, esan zion: «Hau heuk

*libidinibus omittebat, in patientia firmitudinem simulans solitusque eludere medicorum artes atque eos qui post tricessimum aetatis annum ad internoscenda corpori suo utilia vel noxia alieni consili iindigerent.*

[6.47] *Interim Romae futuris etiam post Tiberium caedibus semina iaciebantur: Laelius Balbus Acutiam, P. Vitellii quondam uxorem, maiestatis postulaverat; qua damnata cum premium accusatori decerneretur, Iunius Otho tribunus plebei intercessit, unde illis odia, mox Othoni exitium. Dein multorum amoribus famosa Albucilla, cui matrimonium cum Satrio Secundo coniurationis indice fuerat, defertur impietatis in principem; conectebantur ut consciit et adulteri eius Cn. Domitius, Vibius Marsus, L. Arruntius. De claritudine Domitii supra memoravi; Marsus quoque vetustis honoribus et inlustris studiis erat. Sed testium interrogationi, tormentis servorum Macronem praeseditse commentarii ad senatum missi ferebant, nullaeque in eos imperatoris litterae suspicione dabant, invalido ac fortasse ignaro ficta pleraque ob inimicitias Macronis notas in Arruntium.*

[6.48] *Igitur Domitius defensionem meditans, Marsus tamquam inediā destinavisset, produxere vitam: Arruntius, cunctationem et moras suadentibus amicis, non eadem omnibus decora respondit: sibi satis aetatis neque aliud paenitendum quam quod inter ludibria et pericula anxiam senectam toleravisset, diu Seiano, nunc Macroni, semper alicui potentium invisus, non culpa sed ut flagitiorum impatiens. Sane paucos ad suprema principis dies posse vitari: quem ad modum evasurum imminentis iuventam? an, cum Tiberius post tantam rerum experientiam vi dominationis convulsus et mutatus sit, G. Caesarem vix finita pueritia, ignarum omnium aut pessimis innutritum, meliora capessitum Macrone duce, qui ut deterior ad opprimendum Seianum delectus plura per scelera rem publicam conflictavisset? prospectare iam se acrius servitium eoque fugere simul acta et instantia. Haec vatis in modum dictitans venas resolvit. Documento sequentia erunt bene Arruntium morte*

hilko duk, eta hi beste batek hilko hau». Hala ere, osasunean okerrera egin arren, biziorik ez zuen bat ere uzten; bere pairamenean, sendo itxura egiten zuen, eta medikuen zientziaz eta, hogeita hamar urtetik gora, euren gorputzarentzat zer den on eta zer txar bereizteko aholkua behar dutenez isekatzen zen.

47. Bitartean, Erroman, Tiberioren ondoren ere etorriko ziren hilketen hazia botatzen ari zen. Lelio Balbok maiestatzet salatua zuen Akuzia, Publio Bitelioren behinolako emaztea. Kondenatua izan zen eta, salatzaileari zer eman tratatzen ari zirela, Junio Oton populuaren tribunoak betoa sartu zuen; hortik haien gorrotoa eta, gero, Otonen hondamena. Ondoren, Albuzila, maitaleen ugariz entzutetsua, Satrio Segundorekin, konjurazioaren salatzailearekin, ezkondua egon zena, printzearekiko inpietatez salatua izan zen. Gneo Domizio, Bibio Marso eta Luzio Arruntzio konplize eta maitaletzat implikatzen zituzten. Domizioren nobleziak gorago mintzatua naiz; Marso ere aspaldiko ohorez beterikoa familiakoa zen eta, gainera, talentu handikoa. Hala ere, senatura bidalitako aktetan ageri zen lekukoen galdeketa eta esklaboen tortura Makronek presiditu zituela; gainera, haien aurkako enperadorearen gutunik bat ere ez egoteak susmarazten zuen ia hora guztia Markonen asmazioa izan zela, Arruntziorekiko etsaigo ezagunagatik eta Tiberioren sentontasunaz baliaturik, eta, beharbada, beronek ez zekiela.

48. Beraz, Domiziok, defentsa pentsatuz, eta Marsok, gosez hiltzen uztea erabaki balu bezala, bizia luzatzea lortu zuten. Arruntziok, lagunek zalantzak eta atzerapenak aholkatu zizkiotenean, erantzun zuen gauza berak ez zirela denentzat ohoragarri; berak bazuela nahikoa urte, eta ez zeukala ezertaz damutu beharrik, laido eta arrisku artean, zahartzaro larria eraman izanaz ez bazea, Seianok luzaroan, orain Makronek eta beti ahaltuetariko batek gorrotaturik; eta ez bere erruz, desohorerik ezin jasateagatik baizik; salba zitzakeela, noski, printzeari geratzen zitzaizkion egun apurrak, baina nola ihes egin behar zion etortzeko mehatxuan zegoenaren gaztetasunari? Baldin Tiberiok, hainbesteko esperientzia praktikoaren ondoren, botere absolutuaren eraginez, hala-ko konbultsioa eta erabateko aldakuntza izan bazuen, Gaio Zesarrek, haurtzarotik irten berri zenak, denaren ejakutun edo txarrenean eskolatua izan zenak, bide hobea hartuko ote zuen, Makron gidari zuela, Seiano baino okerragotzat, berau akabatzeko hautatua, eta krimen uga-

*usum. Albucilla inrito ictu ab semet vulnerata iussu senatus in carcerem fertur. Stuprorum eius ministri, Carsidius Sacerdos praetorius ut in insulam deportaretur; Pontius Fregellanus amitteret ordinem senatorium, et eaedem poenae in Laelium Balbum decernuntur; id quidem a laetantibus, quia Balbus truci eloquentia habebatur; promptus adversum insontis.*

[6.49] *Isdem diebus Sex. Papinius consulari familia repentinum et informem exitum delegit, iacto in paeceps corpore. Causa ad matrem referebatur; quae pridem repudiata adsentationibus atque luxu perpulisset iuvenem ad ea quorum effugium non nisi morte inveniret. Igitur accusata in senatu, quamquam genua patrum advolveretur luctumque communem et magis imbecillum tali super casu seminarum animum aliaque in eundem dolorem maesta et miseranda diu ferret, urbe tamen in decem annos prohibita est, donec minor filius lubricum iuventae exiret.*

[6.50] *Iam Tiberium corpus, iam vires, nondum dissimulatio deserebat: idem animi rigor; sermone ac vultu intentus quiesita interdum comitate quamvis manifestam defectionem tegebant. Mutatisque saepius locis tandem apud promuntarium Miseni consedit in villa cui L. Lucullus quondam dominus. Illic eum adpropinquare supremis tali modo compertum. Erat medicus arte insignis, nomine Charicles, non quidem regere valetudines principis solitus, consili tamen copiam praebere. Is velut propria ad negotia digrediens et per speciem officii manum complexus pulsum venarum attigit. Neque fefellit: nam Tiberius, incertum an offensus tantoque magis iram premens, instaurari epulas iubet discumbitque ultra solitum, quasi honori abeuntis amici tribueret. Charicles tamen labi spiritum nec ultra biduum duraturum Macro- ni firmavit. Inde cuncta conloquiis inter praesentis, nuntiis apud legatos et exercitus festinabantur. Septimum decimum kal. Aprilis interclusa anima creditus est mortalitatem expluisse; et multo gratantum concursu ad capienda imperii pri- mordia G. Caesar egrediebatur, cum repente adfertur redire*

riz errepublika suntsitu zuena? Jadanik, are morrontza gogorragoa aurreikusten zuela zioen, eta, horregatik, gertatuari eta gertatzear zeneri batera ihes egiten ziela. Hori orakulu gisan esanez, zainak ebaki zituen; ondorengo gertaerek frogatuko dute Arruntziok ondo egin zuela bere burua hilez. Albuzila, kolpe okergabez bere burua zauritu zuena, espoxera daramate senatuaren aginduz. Haren lizunkerien kidetzat, Karsidio Sazerdos pretore ohia irla batera deporta zedila eta Pontzio Fregelanok senatari izatea gal zezala dekretatu zen; zigor berak ezartzen dira Lelio Balboren aurka, eta pozik egin ere, Balboren etorria gaiztotzat jotze baitzen, beti errugabeen aurka gertu.

49. Egun beretan, Sesto Papinio konsul familiakoak heriotza bat-bateko eta ikaragarria hautatu zuen, bere burua lehertzera jaurti baitzuen. Errua amak ei zeukan, zeinak, aspalditik zapuztu izanik, gazteari, nahikeriaz eta luxuz, heriotzaz baizik ezin ihes egiteko egoerara sakatu baitzion. Senatuan salatua izan zen, bada, eta, nahiz eta, senatarien oinetan, euron belaunak besarkatu, eta lutu komunaz eta emakumeen gogoaren –areago halako zorigaitzean– ahultasun handiagoaz, eta beste hainbat zer goibel eta penagarriz mintzatu, dena bere saminaren sinesgarri, hiritik hamar urterako kanporatu zuten, semerik gazteena gaztaroko arriskuetatik irten arte.

50. Tiberiori, bai gorputza, bai indarra, bazihoakion, baina ez disimulua: gogoaren zorroztasuna bera zuen; hizkeran eta begirakeran adi, noiztenka adei bilatua erakusten zuen, gainbehera nabarmena ezkutatzeko. Lekuz maizago aldatzen zen, Miseno harkaitzean kokatu arte, behinola Luzio Lukulorenaren izaniko villan. Han, honako eran hurreratu zela azkenera dakigu. Bazen Karikles izeneko mediku bat, jakinduriagatik ospetsua, printzearen gaixotasunez ohiki arduratu ez zena, baina aholkua ematen ziona. Honek, bere zereginetara balihoa bezala agurtuz eta omen itxura eginez, eskutik heldu eta zainetako pultsua hartu zion. Ez zuen, ordea, engainatu: Tiberiok, ez jakin iraindurik eta suminari areago eutsiz, mahaia zerbitzatzeko agindu eta ohi baino luzaroago eserita darrai, bazihoan adiskideari ohore eginez bezala. Baina Kariklesek Makroni segurtatzen dio haren bizia bazihoala eta ez zuela pare bat egunetik gora iraungo. Beraz, inguruau daudenak zer guztiei buruzko jardunean hasten dira eta legatuei eta armadei mezulariak bidaltzen dizkiete. Martxoaren hamaseian, arnasa joan zitzaison eta haren izate hil-

*Tiberio vocem ac visus vocarique qui recreandae defectioni cibum adferrent. Pavor hinc in omnis, et ceteri passim dispergi, se quisque maestum aut nescium fingere; Caesar in silentium fixus a summa spe novissima expectabat. Macro intrepidus opprimi senem iniectu multae vestis iubet discedi que ab limine. Sic Tiberius finivit octavo et septuagesimo aetatis anno.*

[6.51] *Pater ei Nero et utrumque origo gentis Claudioe, quamquam mater in Liviam et mox Iuliam familiam adopti- nibus transierit. Casus prima ab infantia ancipites; nam proscriptum patrem exul secutus, ubi domum Augusti privi- gius introit, multis aemulis conflictatus est, dum Marcellus et Agrippa, mox Gaius Luciusque Caesares viguere; etiam fra- ter eius Drusus prosperiore civium amore erat. Sed maxime in lubrico egit accepta in matrimonium Iulia, impudicitiam uxoris tolerans aut declinans. Dein Rhodo regressus vacuos principis penatis duodecim annis, mox rei Romanae arbitrium tribus ferme et viginti obtinuit. Morum quoque tempo- ra illi diversa: egregium vita famaque quoad privatus vel in imperiis sub Augusto fuit; occultum ac subdolum fingendis virtutibus donec Germanicus ac Drusus superfuere; idem inter bona malaque mixtus incolumi matre; intestabilis sae- vitia sed obiectis libidinibus dum Seianum dilexit timuitve: postremo in scelera simul ac dedecora prorupit postquam remoto pudore et metu suo tantum ingenio utebatur.*

korra burututzat eman zuten. Bazihoaan Gaio Zesar, zorion korruaren erdian, agintea eskuratzera, eta bat-batean diragarte Tiberiori hitza eta ikusmena itzuli zaizkiola eta janaria eramateko eskatzen duela, indar- berritzeko. Denak izuak hartzen ditu; ingurukoak aldentzen dira eta triste eta ezjakin planta egiten dute. Gaio Zesarrek, isiltasunean josirik, aginte gorena barik, azkena itxaroten du. Makronek, oldartsu, agurea itotzeko agintzen du, arropa mordoa gainera jaurtirik, eta irteteko gelatik. Halaxe egin zuen Tiberiorenak, hirurogeita hamazazpi urterekin.

51. Aita Neron izan zuen, eta jatorria Klaudiotar familiarena, alde bie- taticik, nahiz eta ama, hurrenez hurrengo adopzioetan, Libiotar eta, gero, Juliotar familiara igaroa izan. Zori zalantzazkoa izan zuen ume-umeta- rik; izan ere, aita erbesteratuari atzerrira jarraitu ondoren, Augustoren etxeen semeorde legez sartu zenetik, lehiakide askorekin topo egin zuen, Martzelo Agripa eta, gero, Gaio eta Luzio Zesarrak bizi izan zireno; bere anaia Druso ere herriak maiteago zuen. Hala ere, egoerarik labainena Juliarekin ezkontzean aurkitu zuen, emaztearen lizunkieriaren erantzukizuna jasanez edo saihestuz. Gero, Rodasera itzulita, printzearen etxe hutsa hamabi urtez bereganatu zuen, eta jarraian, erromatar estatuaren aginte gorena, ia hogeita hiru urtez. Bere jokaera ere denborarekin asko aldatu zen: bizieraz eta ospez nabarmendu zen, hala zer pribatuetan, nola aginteetan, Augustoren menpealdian; ezkutua eta ber- tuteen simulatzaile engainakorra, Germaniko eta Druso bizi zireno; ongi-gaizkien nahastea, halaber, ama hil arte; anker nazkagarria, baina bizioak estaliz, Seiano maite edo beldur izan zuen artean; azkenean, krimenera eta desohorera batera jo zuen, lotsa eta beldurra urrundurik, bere izaera hutsez jokatu zuenean.

[1] \* \* \* nam Valerium Asiaticum, bis consulem, fuisse quondam adulterum eius credidit, pariterque hortis inhians, quos ille a Lucullo cooptos insigni magnificientia extollebat, Sullum accusandis utrisque immittit. Adiungitur Sosibius Britannici educator qui per speciem benevolentiae moneret Claudiu[m] cavere vim atque opes principibus infensas: praecipuum auctorem Asiaticum interficiendi G. Caesaris non extimuisse contione in populi Romani fateri gloriamque facinoris ultro petere; clarum ex eo in urbe, didita per provincias fama parare iter ad Germanicos exercitus, quando genitus Viennae multisque et validis propinquitatibus subnixus turbare gentilis nationes promptum haberet. At Claudius nihil ultra scrutatus citis cum militibus tamquam opprimendo bello Crispinum praetorii praefectum misit, a quo repertus est apud Baias vinclisque inditis in urbem raptus.

[2] Neque data senatus copia: intra cubiculum auditur; Mesalina coram et Suillio corruptionem militum, quos pecunia et stupro in omne flagitium obstrictos arguebat, exim adulterium Poppaeae, postremum mollitiam corporis obiectante. Ad quod victo silentio prorupit reus et 'interroga' inquit, 'Suilli, filios tuos: virum esse me fatebuntur' ingressusque

1. (\*\*\*) uste izan zuelako Balerio Asiatiko, birritan kontsula, lehenago haren maitalea izan zela; eta, gainera, haren lorategiak, Lukulok eginak eta berak arrandia handiz edertzen ziharduenak, gutiziatzen zituenet, Suilio biak salatzera jaurtitzen du. Sosibio, Britanikoren hezitzalea, biltzen zaio, Klaudiori ohartarazteko, mesede eginez bezala, kontuz ibil zedila printzeen mehatxu ziren indar eta ondasunekin; Asiatikok, Gaio Zesarren hilketaren kitzikatzaile nagusiak, erromatar herriaren batzarrean aitortzeko beldurrik ez zuela izan, ezta krimenaz loriatzeko ere; horregatik, hirian ospetsu eginik, eta bere izena probintzietan zabaldu zelarik, Germaniako armadetara abiatzekotan zela, zeren, Bienan jaioa eta ahaidetasun asko eta ahalsuek babestua izanik, matxinadak aisa sortzen ahal baitzituen bere nazioko herrien artean. Eta Klaudiok, ezer besterik arakatu gabe, tropak agudo bidali zituen, gerra akabatzera bezala, Krispinoren agindupean, pretorioko prefektua berau, Baiasekin batera, hura aurkitu eta hirira kateaturik arrastatu zuena.

2. Eta ez zioten senatuan agertzeko aukerarik eman: deklarazioa bere gelan hartzen zaio, Mesalinaren aurrean eta Suiliok salatuz soldaduak erosи zituela, zeintzuk, diruz eta lizunkeriaz, edozein gaizkitzatarako prest ei zeuzkan; gero, Popearekiko adulterioaz eta, azkenik, emekia izateaz. Honen aurrean, erruztatuak isiltasuna menperatu eta hots egin zuen: «Galde zeure semeei, Suilio; haiiek aitortuko dizute

*defensionem, commoto maiorem in modum Claudio, Messalinae quoque lacrimas excivit. Quibus abluendis cubiculo egrediens monet Vitellium ne elabi reum sineret: ipsa ad perniciem Poppaeae festinat, subditis qui terrore carceris ad voluntariam mortem propellerent, adeo ignaro Caesare ut paucos post dies epulantem apud se maritum eius Scipionem percontaretur cur sine uxore discubuisse, atque ille functam fato responderet.*

[3] *Sed consultanti super absolutione Asiatici flens Vitellius, commemorata vetustate amicitiae utque Antoniam principis matrem pariter observavissent, dein percursis Asiatici in rem publicam officiis recentique adversus Britanniam militia, quaeque alia conciliandae misericordiae videbantur; liberum mortis arbitrium ei permisit; et secuta sunt Claudii verba in eandem clementiam. Hortantibus dehinc quibusdam inediā et lenem exitum, remittere beneficium Asiaticus ait: et usurpati quibus insueverat exercitationibus, lauto as corpore, hilare epulatus, cum se honestius calliditate Tiberii vel impetu G. Caesaris peritum dixisset quam quod fraude muliebri et impudico Vitellii ore caderet, venas exolvit, viso tamen ante rogo iussoque transferri partem in aliam ne opacitas arborum vapore ignis minueretur: tantum illi securitatis novissimae fuit.*

[4] *Vocantur post haec patres, pergitque Suillius addere reos equites Romanos inlustris, quibus Petra cognomentum. At causa necis ex eo quod domum suam Mnesteris et Poppaeae congressibus praebuissent. Verum nocturnae quietis species alteri obiecta, tamquam vidisset Claudiū spicēa corona evinctum spicis retro conversis, eaque imagine gravitatem annonae praedixisset. Quidam pampineam coronam albentibus foliis visam atque ita interpretatum tradidere, vergente autumno mortem principis ostendi. Illud haud ambigitur; qualicumque insomnio ipsi fratrique perniciem adlatam. Sestertium quindecies et insignia praeturae Crispino decreta. Adiecit Vitellius sestertium decies Sosibio, quod Britannicum praeceptis, Claudiū consiliis iuvaret. Rogatus sententiam et*

gizona naizela». Orduan, bere defentsa hasi zuen, Klaudio gehiago zirraratu zuena, baina Mesalinari ere malkoak atera zizkiona. Gelatik lehortzera irtenik, Biteliori abisatzen dio ez uzteko erruztatuari ihes egiten; bera bizkortzen da Popea hondatzen, espetxearen izuz heriotza boluntariora bultzatzekoak ondoan ipinita, Zesarrek hain ezer jakiteke, ezen, egun gutxi geroago, haren senar Eszipion mahaikide zuela, ea emazte gabe zergatik eseri zen galdetu baitzion, eta hark erantzun destinoa bete zuela.

3. Bainan, Klaudio Asiatiko absolbitzeko pentsaketan ari zela, Bitezliok, negarrez, adiskidetasun zaharra gogoratu zion, eta biek Antoniarekin, printzearen amarekin, izan zituzten ardurak; gero, Asiatikok errepublikari eginiko zerbitzuak xehatu zituen, Britaniaren aurkako oraintsuko kanpaina, eta errukia erakartzekoa zirudien beste hainbat kontu, azkenean, berak nahi zuen heriotza hautatzen uzteko esanez; eta Klaudio, jarraian, klementzia beraren alde mintzatu zen. Gero, batzuek baraua eta heriotza leuna aholkatu ziotenean, Asiatikok esan zuen mesedeari albo egiten ziola; ohiko jardunei ekin zien, bainatu, umorez bazkaldu, eta, beretzat, Tiberioren trikimainaz edo Gaio Zesarren gogorkeriaz hiltzea, emakume baten engainuagatik eta Bitezlioren mihi lizunagatik izatea baino ohoragarriago izango zela esanik, zainak ebaki zituen, ez aurretitik bere hileta txondorra ikuskatu eta beste toki batera eramateko eskatu gabe, suaren bafadak zuhaitzen trinkotasunari kalterik egin ez ziezaion; halakoxe irmotasuna izan zuen azken unean.

4. Horren ondoren, senatua bilarazten da eta Suiliok salatuak pilatzen darrai; erromatar bi goi zaldun, Petra deiturakoak biak. Eta heriotzaren arrazoia Mnester eta Popearen elkar-ikusteetarako etxea eskaintza izan zen. Bainan euretarik bati amets bat izana egozten zitzaison, non Klaudio galburuak atzerantz zituen koroarekin ikusia izango zuen eta, ikuspen hartatik, gariaren urritasuna iragarri zuen. Batzuek diote hosto zuriskako mahats koroa ikusi zuela, hartatik ulerturik printzea udazkeneren azken aldean hilko zela. Dendarik ez dagoena da amets batak edo besteak bere eta anaiaren heriotza ekarri zuela. Krispinorentzat, milioi eta erdi sestertzio eta pretoretzaren ikurrak onartu ziren. Bitelioi milioi baten proposamena gaineratu zuen Sosibiorentzat, Britanikori irakaspenez eta Klaudiori aholkuz laguntzearren. Eszipioni bere botoaren

*Scipio, ‘cum idem’ inquit ‘de admissis Poppaeae sentiam quod omnes, putate me idem dicere quod omnes,’ eleganti temperamento inter coniugalem amorem et senatoriam necessitatem.*

[5] *Continus inde et saevus accusandis reis Suillius multique audaciae eius aemuli; nam cuncta legum et magistratum munia in se trahens princeps materiam praedandi patefecerat. Nec quicquam publicae mercis tam venale fuit quam advocatorum perfidia, adeo ut Samius, insignis eques Romanus, quadringentis nummorum milibus Suillio datis et cognita praevaricatione ferro in domo eius incubuerit. Igitur incipiente C. Silio consule designato, cuius de potentia et exitio in tempore memorabo, consurgunt patres legemque Cinciam flagitant, qua cavetur antiquitus ne quis ob causam orandum pecuniam donumve accipiat.*

[6] *Deinde obstrepentibus iis quibus ea contumelia parabatur, discors Suillio Silius acriter incubuit, veterum oratorum exempla referens qui famam et posteros praemia eloquentiae cogitavissent. Pulcherrimam alioquin et bonarum artium principem sordidis ministeriis foedari; ne fidem quidem integrum manere uhi magnitudo quaestuum spectetur. Quod si in nullius mercedem negotia agantur pauciora fore: nunc inimicitias accusationes, odia et iniurias foveri, ut quo modo vis morborum pretia medentibus, sic fori tabes pecuniam advocatis ferat. Meminissent Asinii, Messalae ac recentiorum Arruntii et Aesernini: ad summa proiectos incorrupta vita et facundia. Talia dicente consule designato, consentientibus aliis, parabatur sententia qua lege repetundarum tenerentur, cum Suillus et Cossutianus et ceteri qui non iudicium, quippe in manifestos, sed poenam statui videbant, circumsistunt Caesarem ante acta deprecantes.*

[7] *Et postquam adnuit, agere incipiunt: quem illum tanta superbia esse ut aeternitatem famae spe praesumat? usui et rebus subsidium praeparari ne quis inopia advocatorum potentibus obnoxius sit. Neque tamen eloquentiam gratuito*

berri galdetu ziotenean, erantzun zuen: «Popearen jokaeraz, denona uste baitut, egizue denona diodala». Neurritasun elegantea, ezkon mai-tasunaren eta senatari eginkizunaren artean.

5. Harrezkero, Suilioren salaketen ankerkeria etengabea izan zen eta haren ausardiak imitatzale asko izan zuen; zeren, hark legeen botere guztia eta magistratuen agintea bereganaturik, printzeak harrapaketarako bidea zabalik utzi baitzuen. Orduan, abokatuengen gaiztakeria baino jenero salgarriagorik ez zegoen, hainbestean, ezen Samiok, Suiliori laurren mila sestertzio eman zizkion zaldun errromatar ospetsuak, prebarikazioa ezagutu zenean, bere burua ezpatan eratzan baitzuen etxeen. Beraz, Gaio Silio kontsul izendatuaren ekimenez, zeinaren botereaz eta galeraz bere garaian mintzatuko naizen, senatariak Zintzia Legea balariaz jaiki ziren, zeinaren arabera antzinatik ezarrita dagoen inork ez dezala, auzi bat defendatzeagatik, dirurik edo oparirik jaso.

6. Gero, kondena hura gainera zetorkienak zalapartan hasi zirenean, Siliok, Suilioren etsaiak, gogor eraso zuen, antzinako hizlarien adibideak gogoratuz, zeintzuek geroko ospea eta aintza hartu zituzten elokuentziaren saritzat; bestela, arte liberalik ederrena eta nagusia salerosi narratsak zikintzen zuela; zintzotasuna ere ez zela salbatzen, ordainsarien handiari begiratzen bazitzaion. Ostera, auziak, inoren etekingarri ez baziren, gutxitu egingo zirela; orain, etsaigoak, salaketak, gorrotoak eta injustiziak faboratzen zirela, eta, nola gaixotasunen larriak medi-kuei irabazia ematen dien, hala foroko ustelkeriak ere abokatuei dirua zekarkiela. Gogora zitzatela Gaio Asinio, Mesala eta, oraintsukoen artean, Arruntzio eta Esernino: hauek gailurrenera iritsi ei ziren, bizi-tzarik eta etorririk lorrindu gabe. Besteak ere bat zetozentzil konsul izendatuaren hitzokin, konkusio legea ezarriko zitzaien dekretua prestatzentzihardutela, Suiliok, Kosuzianok eta gainerakoek, han epaibidea barik, errudun jakinen aurkako auzia baitzen, zigorra ezartzen ari zirela iku-sirik, Zesar inguratzen dute, iragan egintzen barkamen eske.

7. Honek baietz esandakoan, argudiatzen hasten dira: nor zen hain harroputzik, betiko ospea itxaropenez aurreikus zezakeenik? Egiten zena premia bati laguntzea zen, inor ez zedin, abokaturik ezagatik, ahaltsuen gorabeheran gerta. Elokuentzia ere ez zen doango dohaia: etxeeko ardurak bertan behera uzten ziren, inoren auzietan jardutearren. Batzuek

*contingere: omitti curas familiaris ut quis se alienis negotiis intendat. Multos militia, quosdam exercendo agros tolerare vitam: nihil a quoquam expeti nisi cuius fructus ante providerit. Facile Asinium et Messalam, inter Antonium et Augustum bellorum praemiis refertos, aut ditium familiarum heredes Aeserninos et Arruntios magnum animum induisse. Prompta sibi exempla, quantis mercedibus P. Clodius aut C. Curio contionari soliti sint. Se modicos senatores qui quieta re publica nulla nisi pacis emolumenta peterent. Cogitaret plebem quae toga enitesceret: sublatis studiorum pretiis etiam studia peritura. Ut minus decora haec, ita haud frustra dicta princeps ratus, capiendis pecuniis posuit modum usque ad dena sestertia quem egressi repetundarum tenerentur.*

[8] *Sub idem tempus Mithridates, quem imperitasse Armeniis iussuque G. Caesaris vinctum memoravi, monente Claudio in regnum remeavit, sisus Pharasmanis opibus. Is rex Hiberis idemque Mithridatis frater nuntiabat discordare Parthos summaque imperii ambigua, minora sine cura haberi. Nam Gotarzes inter pleraque saeva necem fratri Artabano coniisque ac filio eius paraverat, unde metus [eius] in ceteros, et accivere Vardanen. Ille, ut erat magnis ausis promptus, biduo tria milia stadiorum invadit ignarumque et exterritum Gotarzen proturbat; neque cunctatur quin proximas praefecturas corripiat, solis Seleucensibus dominationem eius abnuentibus. In quos ut patris sui quoque defectores ira magis quam ex usu praesenti accensus, implicatur obsidione urbis validae et munimentis obiecti amnis muroque et commeatibus firmatae. Interim Gotarzes Daharum Hyrcanorumque opibus auctus bellum renovat, coactusque Vardanes omittere Seleuciam Bactrianos apud campos castra contulit.*

[9] *Tunc distractis Orientis viribus et quonam inclinarent incertis, casus Mithridati datus est occupandi Armeniam, vi militis Romani ad excindenda castellorum ardua, simul Hibero exercitu campos persultante. Nec enim restitere Armenii, fuso qui proelium ausus erat Demonacte praefecto. Paululum cunctationis attulit rex minoris Armeniae Cotys,*

bizimodu milizian, beste batzuek lur lantzan ateratzen zuten; inor ez da ezertan saiatzen, aurretik fruiturik ikusi ez badu. Asiniok eta Mesalak, Antonio eta Augustoren arteko gerretan sariz beteak, edo Eserninoak eta Arruntzioak, ondasun handien oinordekoak, erraz ager zitezkeen esku-zabal; baina adibideak eskura daude Publio Klodiok edo Gaio Kurionek hitzaldiengatik zenbat kobratzen zuten. Eurak ez ei ziren senadore apal batzuk baizik, errepublika lasaian, bakeari dagokion ordaina besterik bilatzen ez zutenak. Pentsa zezala abokatutzen distiratzen zen populuan; ikasketon ordaina kentzen bazen, ikasketak eurak hilko ziren. Printzeak, kontsiderapen horiek hain ohoragarriak izan ez arren, zentzugabeak ere ez zirela pentsaturik, ordainsarien goia hamar mila sestertiaren jarri zuen; hausten zutenak konkusioz epaituak izango ziren.

8. Garai berean, Mitridates, zeinari buruz kontatua dudan armeniarren gainean erreinatu zuela (eta Gaio) Zesarren (aginduz) preso egon zela, erreinura itzuli zen, Klaudiok animaturik eta Farasmanesen babe-sean fdaturik. Honek, hiberoen errege eta Mitridatesen anaia, iragar-tzen zion partoak liskarrean zebiltzala eta, aginte gorenaren zalantzan, zer txikiez ez zirela arduratzan. Izan ere, Gotarzesek, beste hainbat izu-garrikeriaren artean, bere anaia Artabanoren eta bere emazte eta seme-aren heriotza eragin zuen; horrek besteen artean beldurra sortu zuen eta Bardanesi deitu zioten. Honek, eginkizun handietarako beti gertu, egun bitan, hiru mila estadio korritzen ditu eta, Gotarzes ezustean harrapatu-rik, izupean desegiten du; eta inguruko probintziak ere laster beragan-tzen ditu, bere agintea errefusatu zuen Seleuzia izan ezik. Herri haren aurka, unearen komententiak eskatzen zuen baino haserre handiagoz suturik, bere aitarekiko defekzioa egina baitzuten, aurretik igarotzen den ibaiak, harresiak eta hornimen ugarik babesturiko gotorlekua setia-tzen tematzen da. Bitartean, Gotarzesek, dahan eta hirkanoen laguntzak indarturik, berriro gerrara jotzen du, eta Bardanesek, Seleuzia uztera beharturik, kanpamentua Baktrianako lautadara aldatu zuen.

9. Orduan, Ekialdeko indarrak zatiturik, zer aldetara makurtuko ote ziren garbi ez zegoela, Mitridatesi Armenia okupatzeko aukera eman zitzzion, soldadu erromatarren laguntzaz, goienetako gotorlekuak eta lautadan zegoen armada hiberoarena ere hartzeko. Armeniarrek ez zuten erresistentziarik jarri, gudukatzen saiatu zen Demonakte prefek-tua desegina izan zenetik. Atzerapen txikia eragin zuen Kotisek, Arme-

*versis illuc quibusdam procerum; dein litteris Caesaris coeritus, et cuncta in Mithridaten fluxere, atrociorem quam novo regno conduceret. At Parthi imperatores cum pugnam pararent, foedus repente iaciunt cognitis popularium insidiis quas Gotarzes fratri patefecit; congressique primo cunctanter, dein complexi dextras apud altaria deum pepigeres fraudem inimicorum ulcisci atque ipsi inter se concedere. Potiorque Vardanes visus retinendo regno: at Gotarzes ne quid aemulationis existeret penitus in Hyrcaniam abiit. Regressoque Vardani deditur Seleucia septimo post defectionem anno, non sine dedecore Parthorum quos una civibas tam diu eluserat.*

[10] *Exim validissimas praefecturas invisit; et recuperare Armeniam avebat, ni a Vibio Marso, Syriae legato, bellum minitante cohibitus foret. Atque interim Gotarzes paenitentia concessi regni et vocante nobilitate, cui in pace durius servitum est, contrahit copias. Et hinc contra itum ad amnem Erinden; in cuius transgressu multum certato pervicit Vardanes, prosperisque proeliis medias nationes subegit ad flumen Sinden, quod Dahas Ariosque disternat. Ibi modus rebus secundis positus: nam Parthi quamquam victores longinquam militiam aspernabantur. Igitur extractis monumentis, quibus opes suas testabatur nec cuiquam ante Arsacidarum tributa illis de gentibus parta, regreditur ingens gloria atque eo ferocior et subiectis intolerantior; qui dolo ante compagno incautum venationique intentum interfecere, primam intra iuuentam, sed claritudine paucos inter senum regum, si perinde amorem inter popularis quam metum apud hostis quaesivisset. Nece Vardanis turbatae Parthorum res inter ambiguos quis in regnum acciperetur. Multi ad Gotarzen inclinabant, quidam ad Meherdaten prolem Phraatis, obsidio nobis datum: dein praevaluuit Gotarzes; potitusque regiam per saevitiam ac luxum adegit Parthos res mittere ad principem Romanum occultas preces, quis permitti Meherdaten patrium ad fastigium orabant.*

[11] *Isdem consulibus ludi saeculares octingentesimo post Romam conditam, quarto et sexagesimo quam Augustus edi-*

*nia Txikiko erregeak, zeinarengana jo baitzuten jaun batzuek; gero, Zesarren gutuna bide, amore eman zuen, eta dena Mitridatesen alde jarri zen, honek, agintaldi hasi berriako, jarrera gogorregia hartu zuen baina. Buruzagi partoek, jada gerrarako prestatzen ari zirela, bat-batean ituna egiten dute, herriaren konjurazioaren berri jakitean, Gotarzesek anaiai agerturik; bildu ziren eta, hasierako zalantzen ondoren, elkarri eskua emanik, Jainkoen aldare aurrean, etsaien iruzurra mendekatzea eta elkarri kontzesioak egitea hitzartu zuten. Bardaneseek errei-nuari eusteko egokiagoa zirudien, eta Gotarzesek, liskarrik izan ez zedin, Hirkania sakonera alde egin zuen. Bardanes itzultzean, Seleuzia ematen diote, honen defekziotik zazpi urtera, ez partoen lotsari gabe, zeintzuei hiri batek bakarrik burla egin baitzien hain luzaroan.*

10. Gero, probintziarik garrantzitsuenak bisitatu eta bazihoan Armenia berreskuratzera, Bibio Marsok, Siriako legatuak, atzera eragin ez balio, gerra mehatxuz. Baina Gotarzesek, bitartean, erreinua eman izanaz damuturik eta nobleziak deiturik, zeinaren morrontza bakean gogorragoa den, tropak batzen ditu. Erindes ibaiaren ondoan, bidera irteten zaizkio; haren pasaerako borroka gogorraren ondoren, Bardanes nagusitu zen eta, gudu oparoetan, bitarteko herriak menperatzen ditu, Sindes ibairaino, zeinak dahak eta arioak banatzen dituen. Han beste kontu bat izan zen, partoek, nahiz eta garaile, urrungo kanpainari uko egin baitzioten. Beraz, bere ahala eta artean ezein Arsazidak herri haiengandiko zergarik ez zuela lortu erakusten zuten monumentuak eraikirik, aintzaz gainezka itzultzen da eta, horregatik, menpekoekin krudelago eta intoleranteago. Hauek, lakioa ezarririk, ustekabeen eta ehizan ziharduela, hil egin zuten, gazte-gazterik, baina errege gutxi bezain ospetsu, herriaren maitasuna etsaien beldurra bezala bilatu izan balu. Bardanesen hilketaz, partoen artean nahaspilak sortu ziren, nor errege hautatu dudan. Asko Gotarzesen alde zeuden, batzuk Meherdatesen alde, guri bahiturtzat entregaturiko Fraatesen ondorengoa berau. Azkenean, Gotarzes nagusitu zen eta, behin agintean zela, bere ankerkeriaz eta gehiegikeriez, partoak erromatar printzeari erregu izkutuak bidaltzera bultzatu zituen, Meherdatesentzat bere gurasoen tronua eskatuz.

11. Kontsulaldi berean, Erromaren sorreratik zortziehun urtera, Mende Jokuak izan ziran, Augustok egin zituenetik hirurogeita laura. Printze bataren eta bestearen kalkuluak albora uztiko ditut, Domiziano enpera-

*derat, spectati sunt. Utriusque principis rationes praetermitto, satis narratas libris quibus res imperatoris Domitiani composui. Nam is quoque edidit ludos saecularis iisque intentius adfui sacerdotio quindecimvirali praeditus ac tunc praetor; quod non iactantia referto sed quia collegio quindecimvirum antiquitus ea cura et magistratus potissimum exequabantur officia caeremoniarum. Sedente Claudio circensis bus ludis, cum pueri nobiles equis ludicrum Troiae inirent interque eos Britannicus imperatore genitus et L. Domitius adoptione mox in imperium et cognomentum Neronis adscitus, favor plebis acrior in Domitium loco praesagii acceptus est. Vulgabaturque adfuisse infantiae eius dracones in modum custodum, fabulosa et externis miraculis adsimilata: nam ipse, haudquaquam sui detractor, unam omnino anguem in cubiculo visam narrare solitus est.*

**[12]** *Verum inclinatio populi supererat ex memoria Germanici, cuius illa reliqua suboles virilis; et matri Agrippinae miseratio augebatur ob saevitiam Messalinae, quae semper infesta et tunc commotior quo minus strueret crimina et accusatores novo et furori proximo amore distinebatur. Nam in C. Silium, iuventutis Romanae pulcherrimum, ita exarserat ut Iuniam Silanam, nobilem feminam, matrimonio eius exturbaret vacuoque adultero poteretur. Neque Silius flagitiis aut periculi nescius erat: sed certo si abnueret exitio et non nulla fallendi spe, simul magnis praemiis, operire futura et praesentibus frui pro solacio habebat. Illa non furtim sed multo comitatu ventitare domum, egressibus adhaerescere, largiri opes honores; postremo, velut translata iam fortuna, servi liberti paratus principis apud adulterum visebantur.*

**[13]** *At Claudius matrimonii sui ignarus et munia censoria usurpans, theatralem populi lasciviam severis edictis increpuit, quod in Publum Pomponium consularem (is carmina scaenae dabat) inque feminas inlustris probra iecerat. Et lege lata saevitiam creditorum coercuit, ne in mortem parentum pecunias filiis familiarum faenori darent. Fontisque aquarum Simbruiniis collibus deductos urbi intulit. Ac novas litterarum*

dorearen historia kontatzen nuen liburueta nahioka azaldu bainituen. Honek ere Mende Jokuak egin baitzituen, eta, euretan, parte-hartze berezia izan nuen, abadetza kindezinbiralaren jabe eta orduan pretore nintzen eta. Hau ez dut harrokeriaz kontatzen, kindezinbiroen kolegioak egiteko hori antzinatik daukalako baizik, eta magistratuek zeremoniarik gehienetan ofiziatzen zutelako. Klaudio zirku jokoetan zen batez, zaldizko mutil noble batzuek Troiako jokua antzezten zutela, eta Britaniko, enperadorearen semea, eta Luzio Domizio, gero, adopzioz, Neron deituraz, imperioa jarauntsiko zuena, artean zirela, populuaren begi ona, Domizioren gana biziago izan zena, presagiotzat hartu zen; eta jendeak zioen, haurtaroan, dragoiak izan zituela ondoan jagole, mirari arrotzatik harako ipuinak eurok; zeren Neronek berak, inola ere bere buruaren detraktore ez zenak, kontatzen baitzuen bere logelan suge bat besterik ez zuela ikusi.

12. Bainan herriaren joera hori, Germanikoren gomuta hondarra zen, bera baitzen haren ondorengo gizonezko bakarra; gainera, bere ama Agripinarekiko errukia Mesalinaren ankerkeriak areagotzen zuen, zeinak, beti gaitzo eta orduan buruberoago, ezin baitzuen gezurrezko salapenik eta salatzailerik sortu, maitasun berri eta zoratu beharrekoan nahasirik zegoelako. Izan ere, hain gartsu zebilen Gaio Silio erromatar mutilik ederrenagatik, ezen Junia Silana, andere noblea, haren ezkontzatik erauzi baitzuen, maitalea berak bakarrik gozatzearren. Silio jabetzen zen eskandaluaz eta arriskuaz; baina, ukatzen bazen, hondamena segur zeukan, eta bazuen disimuluan pasatzeko itxaropena; gainera, sari handiak hartzen zituen eta begiak geroari itxiz eta oraina gozatuz kontsolatzen zen. Emakumea maiz joaten zitzaison etxera, ez ezkutuan, segizio handiz baizik; urratsez urrats jarraitzen zion eta ondasunez eta ohorez betetzen; azkenerako, printzearen esklaboak, libertoak eta luxuak maitalearen etxearen ikusten ziren.

13. Bainan Klaudiok, bere ezkontzako berrien ezjakin, zentsore lanean ziharduenak, herriaren nasaikeria teatrala ediktu zorrotzekin zigortu zuen, Publio Ponponio konsul ohiari (olerkiak eszenaratzen zituen) eta andere ospetsuei irainak jauritzearren. Gainera, mailegu-emaileen zitalkeriaren aurka, lege bat eman zuen, familietako seme-alabei dirua ematea debekatuz, gurasoak hiltzean ordaintzekotan. Eta muino sin-bruinoetatik, uburua hiriraino eraman zuen; eta hizki berriak gehitu eta

*formas addidit vulgavitque, comperto Graecam quoque litteraram non simul coeptam absolutamque.*

[14] *Primi per figuras animalium Aegyptii sensus mentis effingebant (ea antiquissima monimenta memoriae humanae impressa saxis cernuntur), et litterarum semet inventores perhibent; inde Phoenicas, quia mari praepollebant, intulisse Graeciae gloriamque adeptos, tamquam reppererint quae acceperant. Quippe fama est Cadmum classe Phoenicum vectum rudibus adhuc Graecorum populis artis eius auctorem fuisse. Quidam Cecropem Athenensem vel Linum Thessanum et temporibus Troianis Palamedem Argivum memorant sedecim litterarum formas, mox alias ac praecipuum Simoniden ceteras repperisse. At in Italia Etrusci ab Corinthio Demarato, Aborigines Arcade ab Evandro didicerunt; et forma litteris Latinis quae veterrimis Graecorum. Sed nobis quoque paucae primum fuere, deinde additae sunt. Quo exemplo Claudio tres litteras adiecit, quae usui imperitante eo, post obliteratae, aspiciuntur etiam nunc in aere \*publico\* dis plebiscitis per forā ac templo fixo.*

[15] *Rettulit deinde ad senatum super collegio haruspicum, ne vetustissima Italiae disciplina per desidiam exolesceret: saepe adversis rei publicae temporibus accitos, quorum monitu redintegratas caerimonias et in posterum rectius habitas; primoresque Etruriae sponte aut patrum Romanorum impulsu retinuisse scientiam et in familias propagasse: quod nunc segnius fieri publica circa bonas artes socordia, et quia externae superstitiones valescant. Et laeta quidem in praesens omnia, sed benignitati deum gratiam referendam, ne ritus sacrorum inter ambigua culti per prospera obliterarentur. Factum ex eo senatus consultum, viderent pontifices quae retinenda firmandaque haruspicum.*

[16] *Eodem anno Cheruscorum gens regem Roma petivit, amissis per interna bella nobilibus et uno reliquo stirpis regiae, qui apud urbem habebatur nomine Italicus. Paternum huic genus e Flavo fratre Arminii, mater ex Actumero*

zabaldu zituen, alfabeto grekoak ere ez zela hasi eta dena batera osatu jakinik.

14. Egiptoarrak izan ziren pentsakizunak irudikatzen lehenengoak, animalien figuren bitartez, (haien dokumentuak, giza historiako zaharrak, harrian irarrita ageri dira), eta hizkien asmaztaleak eurak direla uste dute; gero, fenizarrek, itsasoan nagusi, Grezian sartu zituzten eta hartu zutenaren aintza eurek asmaturik bezala eraman zuten. Izan ere, Kadmo izan ei zen, feniziak flotan iritsirik, arte hura herri greko oraindik inkultuei irakatsi ziena. Batzuek diote atenastar Zekropek, edo tebastar Linok, edo Palamedes argiboak, troiarren garaian, hamasei hizkirenei formak asmatu zituztela, eta gero beste batzuek eta, batez ere, Simonidesek, gainerakoak asmatu zituztela. Italian, etruskoek korintiar Deramatorengandik ikasi zituzten, eta aborigenek, Ebandroengandik; hizki latinoen forma grekorik zaharrenena da. Baino, lehenengotan, geuk ere hizki gutxi izan genuen eta gero gehitu ziren. Etsenplu horren arabera, Klaudiok hiru hizki gehitu zituen, bere agintaldian erabiliak eta gero ahaztuak, oraindik ere foroek eta tenpluek finkatutako plebisituen argitalpen brontzeetan ikusten direnak.

15. Gero senatuari haruspize kolegioaren berri eman zion, Italiako zientziarik zaharrena utzikeriaz gal ez zedin. Errepublikarentzako garai okerretan, haruspizeei maiz deitu ei zitzainen, haien aholkuei esker, erritoak berritu eta, gero, zuzenago mantendu zirelatik; etrusko gorenak, euren kabuz edo erromatar senatuaren eraginez, zientzia hori landu eta familietan hedatu ei zuten; hori, orain, fintasun txikiagoz egiten ei zen, are onekiko ezaxola publikoagatik, eta sineskeria arrotzak gorantz zetozelako. Eta, oraingoz, dena ondo ei zihuan, noski, baina jainkoen onberatasuna eskertu behar ei zen, garai zailetan landutako errito sakratuak oparoaldian ahantz ez zitezen. Beraz, senatuaren dekretu bat publikatu zen, pontificeek ikus zezaten haruspizeen zer gorde eta zer indartu behar zen.

16. Urte berean, keruskoen herriak Errromari erregea eskatu zion, bere barne gerretan nobleak galdu baitzituen, eta erret odoleko bakarra geratzen baitzitzaien, hirian zeukanena, Italiko izenez. Arminioren anaia Flaboren semea zen, eta ama katoen printze Aktumeroren alaba zuen; gorputz ederrekoak eta armetan eta zaldietan trebatua zen, jaioterriko

*principe Chattorum erat; ipse forma decorus et armis equis-  
que in patrium nostrumque morem exercitus. Igitur Caesar  
auctum pecunia, additis stipatoribus, hortatur gentile decus  
magno animo capessere: illum primum Romae ortum nec  
obsidem, sed civem ire externum ad imperium. Ac primo  
laetus Germanis adventus atque eo quod nullis discordiis  
imbutus pari in omnis studio ageret celebrari, coli, modo  
comitatem et temperantiam, nulli invisa, saepius vinolen-  
tiam ac libidines, grata barbaris, usurpans. Jamque apud  
proximos, iam longius clarescere, cum potentiam eius sus-  
pectantes qui factionibus floruerant discedunt ad contermi-  
nos populos ac testificantur adimi veterem Germaniae  
libertatem et Romanas opes insurgere. Adeo neminem isdem  
in terris ortum qui principem locum impleat, nisi explorato-  
ris Flavi progenies super cunctos attollatur? frustra Armi-  
nium praescribi: cuius si filius hostili in solo adultus in reg-  
num venisset, posse extimesci, infectum alimonio servitu  
cultu, omnibus externis: at si paterna Italico mens esset,  
non alium infensiis arma contra patriam ac deos penatis  
quam parentem eius exercuisse.*

[17] *His atque talibus magnas copias coegere, nec pauciores  
Italicum sequebantur: Non enim inrupisse ad invitatos sed acci-  
tum memorabat, quando nobilitate ceteros anteiret: virtutem  
experimentur; an dignum se patruo Arminio, avo Actumero  
praeberet. Nec patrem rubori, quod fidem adversus Romanos  
volentibus Germanis sumptam numquam omisisset. Falso  
libertatis vocabulum obtendi ab iis qui privatim degeneres, in  
publicum exitiosi, ninil spei nisi per discordias habeant. Ads-  
trepebat huic alacre vulgus; et magno inter barbaros proelio  
victor rex, dein secunda fortuna ad superbiam prolapsus pul-  
susque ac rursus Langobardorum opibus refectus per laeta  
per adversa res Cheruscas adflictabat.*

[18] *Per idem tempus Chauci nulla dissensione domi et morte  
Sanquinii alacres, dum Corbulo adventat, inferiorem Germa-  
niā incursavere duce Gannasco, qui natione Canninefas,  
auxiliare stipendum meritus, post transfuga, levibus navigiis*

eran zein gurean. Zesarrek, beraz, dirua eman, eskolta ipini eta bere  
herriaren aintza bihotz-zabal hartzera bultzatzen du, gogoratz bera  
zela, Erroman jaiorik, eta ez bahi gisan, baizik hiritar gisan, aginte arro-  
tzeria zohoan lehenengoa. Haren iritsiera atsegina izen zen germania-  
rentzat, eta, inolako liskarretan sarturik ez egonik, denak begirune ber-  
dinez hartzten zituenet gero, ospatua eta lausengatua zen, batzueta, inork  
muzin ez dituen adeitasun eta neurritasunari ekinez, eta, gehiene-  
tan, barbaroek hain gogoko dituzten ardoari eta nahikeriei. Eta haren  
ospea, bai inguruan, bai urrunago, distiratzen ari zela, fakzioekin gora  
egin zutenek, haren botereaz desfidaturik, herri mugakideetara alde  
egiten dute, Germaniari antzinako askatasuna kentzen eta erromatar  
boterea ezartzen zitzaiola esanez. Ez al zegoen herrian bertan sortuta-  
korik, toki gorena bereganduko zuenik, Flabo ispiaren semea denen  
nagusi jarri beharrean? Arminioren izena aurretik ipintzeak ez ei zuen  
ezertarako balio: haren semea bera, lur arrotzean hazia, agintzera etorri  
balitz ere, beldurra izan zekiokeen heziketa, morrontza eta bizikera  
arrotzak erabat kutsaturik zegoenari; eta, baldin Italikok aitaren burue-  
ra bazeukan, inork ez zuen, bere sorterriaren eta Jainkoen aurka, hark  
baino amorratuago armariak erabili.

17. Halako eta antzeko hitzakin, indar handia bildu zuten; Italikoren  
aldekoak ez ziren gutxiago, gogoratzen baitzien bera ez zela euren arte-  
ra indarrez sartu, noblezian bestek baino aurrerago zegoela pentsatu  
zutelako baizik; kemenean, berriz, proba zezatela eurek, ea osaba  
Arminioren eta aitita Aktumeroren duin agertzen zen; ez zela lotsatzen,  
bere aitak, germaniarren oniritziz, erromatarrei agindutako leialtasunik  
inoiz hautsi ez zuelako; askatasuna gezurrezko aitzakia zela, pribatuki  
endakatuak eta komunitatearen hondamen izanik, liskarrean baizik  
itxaropenik ez zeukatenengan. Populuak honelako hitzak goraka har-  
tzen zituen eta, barbaroen arteko gudu itzelean, erregea nagusitu zen;  
gero, ostera, oparotasunak harrokeriara jasorik, destronatua eta berriro  
tronuratura izan zen, Ionbardoen laguntzaz, keruskoen botereari onean  
zein txarrean kalte eginez.

18. Aldi berean, kaukoek, etxeko disentsio gabe eta Sankinioren herio-  
tzagatik pozik, Korbulo iritsi bitartean, inkurtsioak egin zituzten, Behe  
Germanian zehar, Gannaskoren agindupean. Hau sortzez kanninefatea  
zen, mertzenario laguntzailea luzaroan, eta gero desertorea, untzi ari-

*praedabundus Gallorum maxime oram vastabat, non ignarus ditis et imbellis esse. At Corbulo provinciam ingressus magna cum cura et mox gloria, cui principium illa militia fuit, triremis alveo Rheni, ceteras navium, ut quaeque habiles, per aestuaria et fossas adegit; luntribusque hostium depressis et exturbato Gannasco, ubi praesentia satis composita sunt, legiones operum et laboris ignavas, populationibus laetantis, veterem ad morem reduxit, ne quis agmine decederet nec pugnam nisi iussus iniret. Stationes vigiliae, diurna nocturnaque munia in armis agitantur; feruntque militem quia vallum non accinctus, atque alium quia pugione tantum accinctus foderet, morte punitos. Quae nimia et incertum an falso iacta originem tamen e severitate ducis traxere; intutumque et magnis delictis inexorabilem scias cui tantum asperitatis etiam adversus levia credebatur.*

[19] Ceterum is terror milites hostisque in diversum adfecit: nos virtutem auximus, barbari ferociam infregere. Et natio Frisiorum, post rebellionem clade L. Apronii coeptam infensa aut male fida, datis obsidibus consedit apud agros a Corbulone descriptos: idem senatum, magistratus, leges impausit. Ac ne iussa exuerent praesidium immunivit, missis qui maiores Chaucos ad deditioinem pellicerent, simul Gannascum dolo adgredierentur: Nec inritae aut degeneres insidiae fuere adversus transfugam et violatorem fidei. Sed cacde eius motae Chaucorum mentes, et Corbulo semina rebellionis praebebat, ut laeta apud plerosque, ita apud quosdam sinistra fama. Cur hostem conciret? adversa in rem publicam casura: sin prospere egisset, formidolosum paci virum insignem et ignavo principi praegravem. Igitur Claudius adeo novam in Germanias vim prohibuit ut referri praesidia cis Rhenum iuberet.

[20] Iam castra in hostili solo molienti Corbuloni eae litterae redduntur. Ille re subita, quamquam multa simul offunderentur; metus ex imperatore, contemptio ex barbaris, ludibrium apud socios, nihil aliud prolocutus quam 'beatos quondam duces Romanos,' signum receptui dedit. Ut tamen miles otium

nekin piraterian zebilena, batez ere, Galiako itsaserta debastatzu, bai baitzekien aberatsak eta ez-gerlariak zirena. Baina Korbulo bizkor sartu zen probintzian eta laster lortu zuen aintza, zeinaren hasiera-kanpaina hura izan zen, non trirremeak Rhinen magalean zehar eroan zituen, eta gainerako untziak, bakoitzaren ahalaren arabera, estuario eta ubideetan zehar. Etsaien untziak hondoratu eta Gannasko uxatutakoan, uneko egoera nahikoa konponduta ikusi zuenean, alferkerian, lanera eta nekeira desohitrik, baina harrapaketan pozik zebiltzan legio haietan diziplina zaharrera bermoldatu zituen, inor zutabetik ez irteteko eta agindu gabe ez borrokatzeko manatuz. Eguneko eta gaueko guardiak eta zerbitzuak armaturik egiten ziren, eta arma gabe barrutia aitzurtzen zebilen soldadu bat eta sastagaiz bakarrik armaturik ziharduen beste bat heriotzaz zigortu ei zituen. Hori, nahiz eta gehiegizkoa izan, eta oinarri gabe egotzi ez ote zioten segurra ez izan, buruzagi haren zorroztasunetik dator; argi dago hoben handiekin inexorablea izan behar zuela akats txikien aurka halako laztasuna esleitzen ziotenak.

19. Gainerakoan, beldur horrek, armadan eta etsaiengan, alderantzizko ondorioak eragin zituen: gure kemenetareagotu egin zen eta barbaroen gailentasuna hautsi. Frisioen herria ere, Luzio Apronioren porroketik sortutako matxinadaren ondoren, etsaikor eta segurtasun txikiko agertzen zitzaigna, bahituak entregatu eta Korbulok markaturiko lurretan kokatu zen; halaber, senatua, magistratuak eta legeak ezarri zizkien. Gainera, bere aginduei desmen egitea ekiditeko, euren erdian gotorleku bat eraiki zuen, mezulariak bidalirik, kauko nagusiak menpera bil zitezen eta, aldi berean, Gannaskori iruzurrez esaso ziezaioten. Jarri zioten enboskada ez zen alferrekoa izan, ezta lotsagarria ere, zin egindako leialtasuna puskatu zuen desertore haren kasuan. Baina haren heriotzak kaukoen buruak irauli zituen, eta Korbulok ez zion matxinadarako motiboak emateari uzten, gehienak alde egonik ere, batzuk aurkako marmarrean ari baitziren. Izan ere, zergatik zirikatzen zuen etsaia? Okerrak errepublikaren gainera jausiko ziren, eta, arrakastarik izaten bazuen, bakearentzat beldugarria zen hain gizon ospetsua eta printze koldar parentzat jasan-zaila. Beraz, Klaudiok Germanien aurkako eraso berriak debekatu egin zituen, goarnizioak Rhinetik honantz erretiratzeko agintzeraino.

20. Korbulo jada kanpamentua etsaien zoruan muntatzen ari zela, gutuna heldu zitzaison. Zer ustekabe honen aurrean, haren baitan sentimendu

*exueret, inter Mosam Rhenumque trium et viginti milium spatio fossam perduxit, qua incerta Oceani vitarentur. Insignia tamen triumphi indulxit Caesar, quamvis bellum negavisset. Nec multo post Curtius Rufus eundem honorem adipiscitur, qui in agro Mattiaco recluserat specus quaerendis venis argenti; unde tenuis fructus nec in longum fuit: at legionibus cum damno labor, effodere rivos, quaeque in aperto gravia, humum infra moliri. Quis subactus miles, et quia pluris per provincias similia tolerabantur, componit occultas litteras nomine exercituum, precantium imperatorem, ut, quibus permissurus esset exercitus, triumphalia ante tribueret.*

[21] *De origine Curtii Rufi, quem gladiatore genitum quidam prodidere, neque falsa prompserim et vera exequi pudet. Postquam adolevit, sectator quaestoris, cui Africa obtigerat, dum in oppido Adrumeto vacuis per medium diei porticibus secretus agitat, oblata ei species muliebris ultra modum humanum et audita est vox ‘tu es, Rufe, qui in hanc provinciam pro consule venies.’ tali omni in spem sublatus degressusque in urbem largitione amicorum, simul acri ingenio quaesturam et mox nobilis inter candidatos praeturam principis suffragio adsequitur, cum hisce verbis Tiberius dedecus natalium eius velavisset: ‘Curtius Rufus videtur mihi ex se natus.’ longa post haec senecta, et adversus superiores tristi adulacione, adrogans minoribus, inter pares difficilis, consolare imperium, triumphi insignia ac postremo Africam obtinuit; atque ibi defunctus fatale praesagium implevit.*

[22] *Interea Romae, nullis palam neque cognitis mox causis, Cn. Nonius eques Romanus ferro accinctus reperitur in coetu salutantum principem. Nam postquam tormentis dilaniatur, de se non inficiatus conscos non edidit, in certum an occultans. Isdem consulibus P. Dolabella censuit spectaculum gladiatorum per omnis annos celebrandum pecunia eorum qui quaesturam adipiscerentur. Apud maiores virtutis id praemium fuerat, cunctisque civium, si bonis artibus fidearent, licitum petere magistratus; ac ne aetas quidem distinguebatur quin prima iuventa consulatum et dictaturas ini-*

asko nahasten baziren ere, –enperadorearen beldurra, barbaroen mesprexua, aliatuen iseka–, «dohatsuak antzinako buruzagi erromatarrek» besterik esan gabe, erretiratzeko agindua eman zuen. Hala ere, soldaduek alferkeria astin zezaten, Mosa eta Rhin artean, hogeita hiru miliako ubidea egin zuen, itsasoko duda-mudak ekidingo zituena. Hala ere, Zesarrek garaipen ikurrak eman zizkion, gerra ukatu bazion ere. Handik laster, Kurtzio Rufok ere ohore bera lortzen du, Mattioko lurraldean, zilar zainak bilatzeko meategia irekitzeagatik; honen onura urria eta laburra izan zen, baina legioek neke eta hil ugari izan zuten, ubideak eta agerian ere gogorrak ziratekeen lanak egiten. Zeregin haietara beharturik, soldaduek isil gutun bat idatzi zuten, armaden izenean, enperadoreari eskatuz, aginte militarra emango zitzaienei, garaipena aurretiaz emateko.

21. Batzuek gladiadore baten semea zela zioten Kurtzio Ruforen jatorriaz, ez nuke gezurrik zabaldu gura, baina egia esaten lotsatu egiten naiz. Nerabezaroa Afrika egokitu zitzaison kuestore baten segizioan igaro ondoren, Adrumeto hirian zegoela eta, eguerdian bera bakarrik, karrera-pe hutsetan pasioan zebilela, giza itxuraz haragoko emakume bat agertu zitzaison eta ahots bat entzun zuen: «Zeu zara, Rufo, probintzia honetara prokontsul etorriko dena». Halako augurioz, itxaropena handitu zitzaison eta, hirira itzulirik, lagunen eskuzabaltasunez eta baita bere talentu zorrotezez ere, kuestoretza eta gero, hautagai nobleen artean, pretoretza lortzen du, printzearen gomendioz, Tiberiok haren jatorri lotsagarri samarra hitz hauekin disimulatu zuela: «Kurtzio Rufo bere buruarengandik jaioa iruditzen zait». Gero zahartzaro luzea izan zuen eta, nagusiekiko adulazio ilunez, menpekoekin harroa, berdinak zakarra izan ondoren, aginte konsularra, garaipen ikurrak eta, azkenik, Afrikako probintzia beragan-du zituen; eta hantxe hilez bete zuen destinoaren iragarpena.

22. Bitartean, Erroman, ageriko eta gero ezagutu gabeko arrazoiz, Gneo Ninimo erromatar zaldun ospetsua ezpataz armaturik aurkitzen dute, printzea agurtzen dutenen korruan. Kontua da ezen, torturaz urratzen zutela, bere buruarenik ukatu gabe, ez zuela konplizerik jakinarazi, izkutatzen zituen ala ez, dudan geraturik. Konsulaldi berean, Publio Dolabelak gladiadoreen ikuskizuna urtero ospatza proposatu zuen, kuestoretza eskuratzeten zutenen kontura. Lehengoen artean, kargu hori bertutearren saria izaten zen eta hiritar guztiak zilegi zuten, euren izate onaz fidatzen baziren, magistratura hori eskatzea; adinagatik ere ez zen egi-

rent. Sed quaestores regibus etiam tum imperantibus instituti sunt, quod lex curiata ostendit ab L. Bruto repetita. Mansitque consulibus potestas diligendi, donec cum quoque honorem populus mandaret. Creatique primum Valerius Potitus et Aemilius Mamercus sexagesimo tertio anno post Tarquinios exactos, ut rem militarem comitarentur. Dein gliscentibus negotiis duo additi qui Romae curarent: mox duplicatus numerus, stipendiaria iam Italia et accendentibus provinciarum vectigalibus: post lege Sullae viginti creati supplendo senatui, cui indicia tradiderat. Et quamquam equites iudicia reciperauissent, quaestura tamen ex dignitate candidatorum aut facilitate tribuentium gratuito concedebatur, donec sententia Dolabellae velut venundaretur.

[23] A. Vitellio L. Vipstano consulibus cum de supplendo senatu agitaretur primoresque Galliae, quae Comata appellatur; foedera et civitatem Romanam pridem adsecuti, ius adipiscendorum in urbe honorum expeterent, multus ea super re variusque rumor. Et studiis diversis apud principem certabantur adseverantium non adeo aegram Italianam ut senatum sumpeditare urbi suae nequiret. Suffecisse olim indigenas consanguineis populis nec paenitere veteris rei publicae. Quin adhuc memorari exempla quae priscis moribus ad virtutem et gloriam Romana indoles prodiderit. An parum quod Veneti et Insubres curiam intruperint, nisi coetus alienigenarum velut captivitas inferatur? quem ultra honorem residuis nobilium, aut si quis pauper e Latio senator foret? oppleturos omnia divites illos, quorum avi proavique hostilium nationum duces exercitus nostros ferro vique ceciderint, divum Iulium apud Alesiam obsederint. Recentia haec: quid si memoria eorum moreretur qui sub Capitolio et arce Romana manibus eorumdem perissent satis: fruerentur sane vocabulo civitatis: insignia patrum, decora magistratum ne vulgarent.

[24] His atque talibus haud permotus princeps et statim contra disseruit et vocato senatu ita exorsus est: 'maiores mei, quorum antiquissimus Clausus origine Sabina simul in civitatem Romanam et in familias patriciorum adscitus est,

ten bereizketarik, lehen gaztaroen kontsulgoa eta diktadurak eragoztekorik. Kuestoreei dagokienez, oraindik erregeek agintzen zutela sortuak izan ziren, Luzio Brutok ezarritako kuria-legeak erakusten duenez. Gainera, kontsulena izan zen haiet hautatzeko ahalmena, ohore hura ere herriak ematera aldatu arte. Lehenen izendatuak Balerio Potito eta Emilio Mamerko izan ziren, Tarkinoak bidali eta hirurogeita hiru urtera, armadaz ardura zitezen. Gero, zereginen kopurua handitzean, beste bi gehitu ziren, Errromaz arduratzeko. Geroago, kopurua bibidertu egin zen, artean Italia zergadun zela eta probintzieta zergak ere batzen zirela. Ondoren, Silaren lege batez, hogei sortu ziren, senatua osatzeko, zeinari berak epaiketen bista esleitu zien, eta, nahiz eta gero epaiketak zaldunek berreskuratu, kuestoretza hautagaien dignitateagatik edo hautatzaileen faboreagatik eta doan ematen zen, Dolabelaren mozioarekin, enkantean erabaki arte.

23. Aulio Bitelio eta Luzio Bipstanoren kontsulaldian, senatua osatu nahi izan zutenean, Iledun Galia izeneko jaunek, federatuen eta erro-matar hiritarren izatea aspaldi lortua zutenek, hirian karguen jabe izateko eskubidea eskatu zuten, horrek zeresan handia eta askotarikoa emanez. Printzearen aurrean, interes kontrajarriak lehiatzen ziren: Italia ez zegoela hiriburuari senatua emateko gauza ez izateko bezain gainbehera esaten zen; antzina, indigenak herri odolkideentzat nahikoa izan zirela, eta antzinako errepublikaz lotsatu beharrik ez zegoela. Areago, oraindik gogoan zegoen erromatar endak, bere ohitura zaharren arabera, nolako bertute eta aintza etsenpluak eman zituen. Gutxi al zen benetoak eta insubreak kurian irrunputu izana, orain bertan atzerritar aldra bat gatibu talde gisan sartzeko? Zer ohore geratzen zitzaien jaun bizirauleei edo Lazioko senadore txiro bati, baldin bazen? Dena beteko ei zuten aberats handi haiet, zeintzuen aititek eta birraititek, herri etsaien buruzagiek, gure armadak armen indarrez suntsitu eta Alesian Julio jainkozko bera setiatu baitzuten. Hori guztia berri samarra zen: zer esan, Kapitolioaren eta Erromako gotorlekuaren oinetan, herri haren beraren eskuetan jausi zirenak gogoratz gero? Goza zezatela osasunez hiritar titulua, baina ez zitzatela arruntu senadoreen intsigniak eta magistratuen ohoreak.

24. Printzeari hauek eta antzeko arrazoiek ez zioten eragin, eta, berehalako kontra agerturik, senatuarri deitu eta honela hitz egin zuen: «Nire arba-

*hortantur uti paribus consiliis in re publica capessenda, transferendo huc quod usquam egregium fuerit. Neque enim ignoro Iulios Alba, Coruncanios Camerio, Porcios Tusculo, et ne vetera scrutemur; Etruria Lucaniaque et omni Italia in senatum accitos, postremo ipsam ad Alpis promotam ut non modo singuli viritim, sed terrae, gentes in nomen nostrum coalescerent. Tunc solida domi quies et adversos externa floruimus, cum Transpadani in civitatem recepti, cum specie deductarum per orbem terrae legionum additis provincialium validissimis fesso imperio subventum est. Num paenitet Balbos ex Hispania nec rrinus insignis viros e Gallia Narbonensi transvisse? manent posteri eorum nec amore in hanc patriam nobis concedunt. Quid aliud exitio Lacedemoniis et Atheniensibus fuit, quamquam armis pollerent, nisi quod victos pro alienigenis arcebant? at conditor nostri Romulus tantum sapientia valuit ut plerosque populos eodem die hostis, dein civis habuerit. Advenae in nos regnaverunt: libertinorum filiis magistratus mandare non, ut plerique falluntur; repens, sed priori populo factitatum est. At cum Senonibus pugnavimus: scilicet Vulcsi et Aequi numquam adversam nobis aciem instruxere. Capti a Gallis sumus: sed et Tuscis obsides dedimus et Samnitium iugum subiimus. Ac tamen, si cuncta bella recenseas nullum breviore spatio quam adversus Gallos confectum: continua inde ac fida pax. Iam moribus artibus adfinitatibus nostris mixti aurum et opes suas inferant potius quam separati habeant. Omnia, patres conscripti, quae nunc vetustissima creduntur; nova fuere: plebeii magistratus post patricios, Latini post plebeios, ceterarum Italiae gentium post Latinos. Inveteraset hoc quoque, et quod hodie exemplis tuemur; inter exempla erit.'*

[25] *Orationem principis secuto patrum consulto primi Aedui senatorum in urbe ius adepti sunt. Datum id foederi antiquo et quia soli Gallorum fraternitatis nomen cum populo Romano usurpant. Isdem diebus in numerum patriciorum adscivit Caesar vetustissimum quemque e senatu aut quibus clari parentes fuerant, paucis iam reliquis familiarum, quas Romu-*

soek, zeintzuetarik Klauso, antzinakoena, jatorri sabinokoa izanik, aldi berean erromatar hiritargoan eta familia patrizioen artean onartua izan baitzen, errepublikaren gobernuan antzeko irizpidez jokatzera bultzatzen naute, inon ezer bikainik izan bada, hona ekar dezadan. Badakit, bai, Julioak Albatik etorralari zituztela, Korunkanioak Kameriotik, Portzioak Tuskulotik, eta, antzinateko zehetasunetan ez sartzearen, Etruriako, Lukaniako eta Italia guztiko jendea sarrarazi zutela senatuan; azkenean, Italia Alpeetaraino zabaldu zela, norbaitzuk banan ez ezik, lurrak eta herriak gure izenera bil zitezen. Orduan, barne bake sendoa izan genuen; atzerrian ere oparotasuna gozatu genuen, Transpadanoak hiritargoan hartu genituenean; lur biria osoan zabalduriko legioen aitzakian, probintzietaiko suharrenak geuganaturik, geure imperio nekatua sorotsi genuenean. Damu al gara, Balboak Hispiatik eta gizon ez gutxiago gorenak Narbonar Galiatik guregana pasatu direlako? Oraindik badira haien ondorengoa, eta ez digute zorrik, aberri honenganako maitasunean. Gerra ahalmenik onenean zeudela, lazedemoniarra eta atenastarrak hondatzearren arrazoia zein beste izan zen, menperatuak arrotz bezala apartatzen zituztela baino? Gure sortzaile Romulo, ostera, hain jakintsua izan zen, ezen herri asko egun batez etsai eta hurrengoan hiritarkide izan baitzituen. Kanpotik etorriek gobernatu izan gaituzte; libertoen semeei magistraturak ematea ez da berria, asko erratuta daudenez, gure herri zaharraren praktika baizik. Senonekin borrokatu garela? Bolaskoek eta ekuoek armadarik gure aurka inoiz hedatu ez balute bezala! Galoen gatibu izanak gara, baina etruskoei bahituak entregatuak eta samnitzen uzta-rria jasanak ere bagara. Eta, hala ere, gerra guztiak berrikosten baditugu, bat ere ez zen galoen aurka egina baino denbora laburragoan amaitu, eta, harrezkero, bake jarraitua eta segurra izan dugu. Orain, gure ohitura, arte eta odolekin bat eginik, bekarte urea eta aberastasuna, eurek euretarra gozatu beharrean. Orain oso antzinakotzat jotzen diren gauza hauek, senatarioi, berriak izan ziren: magistratu plebeioak patrizioen ondoren, latinoak plebeioen ondoren, Italiako gainerako herrietakoak latinoen ondoren. Hau ere antzinako bihurtuko da, eta gaur etsenpluetan oinarritzen duguna, bera izango da, noizbait, etsenplu».

25. Printzearen mintzaldi ondorengo senatu dekretu batez, eduoek lortu zuten lehenen hirian senadore izateko eskubidea. Hau harekiko itun antzinako baten aitormena izan zen, eurok baitira erromatar herriaren anaia izena daramaten galo bakarrak. Egun haitan bertan, Zesarrek senatuko

*lus maiorum et L. Brutus minorum gentium appellaverant, exhaustis etiam quas dictator Caesar lege Cassia et princeps Augustus lege Saenia sublegere; laetaque haec in rem publicam munia multo gaudio censoris inibantur. Famosos probris quonam modo senatu depelleret anxius, mitem et recens repertam quam ex severitate prisca rationem adhibuit, monendo secum quisque de se consultaret peteretque ius exuendi ordinis: facilem eius rei veniam; et motos senatu excusatosque simul propositurum ut iudicium censorum ac pudor sponte cedentium permixta ignominiam mollirent. Ob ea Vipstanus consul rettulit patrem senatus appellandum esse Claudium: quippe promiscum patris patriae cognomentum; nova in rem publicam merita non usitatis vocabulis honoranda: sed ipse cohibuit consulem ut nimium adsentantem. Condiditque lustrum quo censa sunt civium quinquagies novies centena octoginta quattuor milia septuaginta duo. Isque illi finis inscitiae erga domum suam fuit: haud multo post flagitia uxoris noscere ac punire adactus est ut deinde ardesceret in nuptias incestas.*

[26] Iam Messalina facilitate adulteriorum in fastidium versa ad incognitas libidines profuebat, cum abrumpi dissimulationem etiam Silius, sive fatali vaecordia an imminentium periculorum remedium ipsa pericula ratus, urgebat: quippe non eo ventum ut senectam principis opperentur. Insontibus innoxia consilia, flagitiis manifestis subsidium ab audacia petendum. Adesse conscos paria metuentis. Se caelibem, orbum, nuptiis et adoptando Britannico paratum. Mansuram eandem Messalinae potentiam, addita securitate, si praevenirent Claudium, ut insidiis incautum, ita irae properum. Segniter eae voces acceptae, non amore in maritum, sed ne Silius summa adeptus sperneret adulteram scelusque inter ancipitia probatum veris mox pretiis aestimaret. Nomen tamen matrimonii concupivit ob magnitudinem infamiae cuius apud prodigos novissima voluptas est. Nec ultra expectato quam dum sacrificii gratia Cladius Ostiam proficisceretur, cuncta nuptiarum sollemnia celebrat.

antzinakoenak eta guraso gurenak izan zituztenak patrizioen kopuruan sarrarazi zituen, gutxi gelditzen baitziren Romulok lehen jendea eta Brutok bigarren jendea deitutako familiatarik, eta Zesar diktadoreak kasiar legez eta Augusto printzeak seniar legez gehituak ere agorturik baitzuden. Errepublikaren onerako neurriok zentsorearen poz handiz hartzen ziren. Entzute txarreko gizonak senatutik nola bidaliko ote zituen kezkaz, era leun eta asma berria erabili zuen, antzinako zorrostanaren ordez: bakoitzak bere buruaren gogoeta egin eta kargua uzteko eskubidea eska zezala agindu zuen; baimena aisa emango ei zen eta berak senatari bereiztuen eta dimitituen izenak batera aurkeztuko ei zituen, zentsoreen epaia eta eurenez erretiratzen ziren pudorea nahastean izateak lotsaizuna bigun zezan. Hori zela eta, Bipstano kontsulak Klaudiori senatua aita deitura ematea proposatu zuen, aberriaren aita arrunt bilakatu ei baitzen, eta errepublikaren aldeko meritu berriak artean ohitu gabeko tituluekin ohoratu behar ei baitziren; baina berak geldiarazi zuen kontsula, lar adulazio zaletzat. Lustroaren amaiera ere egin zuen, zeinean 5.984.072 hiritar erroldatu ziren. Eta orduantxe izan zen bere etxeko berri ez jakitearen amaia ere; handik laster, emaztearen eskandaluak ezagutu eta zigortu beharra izan zuen, geroago, intzestu ezkontzaren grinan sufu zedin.

26. Ordurako, Mesalina, adulterio errazegiekin gogaiturik, atsegin ezezagunetara oldartzen zela, Siliok ere disimuak haustera sakatzen zion, ergeltasun fatalak eraginik, edo arrisku inminenteen erremedioa arriskuak eurak izango zirela pentsaturik: bera ez ei zen hartaraino iritsi, printzearen zahartzaroaren zain egoteko. Plan inofentsiboak inozentzat utzirik, eskandalu ageriaren babesia ausardian aurkitu behar zela; beldur berdineko konplizeak zituela; bera ezkongea eta seme-alaba gabea zela, eta ezkontzeko eta Britaniko adopatzeko gertu zegoela. Mesalinak botere berarekin eta irmotasun handiagoz jarraituko ei zuen, Klaudioren gandik babesten baziren, zeina hala suminbera baitzen, nola azpikerien ez-ohartun. Mesalinak hitzok ez zituen berotasun handiegiz harti, ez senarra maite zuelako, baizik beldur zelako Siliok, dena eskratutakoan, azkenean, adulteriogiletzat zapuztuko ez ote zuen, eta arrisku artean probaturiko krimen hura ez ote zuen, geroago, bere benetako baliotik neurituko. Ezkontza hitzak, ostera, lotsagarikeriaren handiaz irrikarazi zuen, zeina, jada dena egina dutenentzat, azken atsegina den. Eta Klaudio, sakrifizioa eskaintzera, Ostiara zihoanaz beste aukeraren zain egon gabe, ezteiak solemnitate osoz egiten ditu.

[27] *Haud sum ignarus fabulosum visum iri tantum ullis mortaliū securitatis fuisse in civitate omnium gnara et nihil reticente, nedum consulem designatum cum uxore principis, praedicta die, adhibitis qui obsignarent, velut suscipiendo rum liberorum causa convenisse, atque illam audisse auspi cum verba, subisse, sacrificasse apud deos; discubitum inter convivas, oscula complexus, noctem denique actam licentia coniugali. Sed nihil compositum miraculi causa, verum audi ta scriptaque senioribus tradam.*

[28] *Igitur domus principis inhorruerat, maximeque quos penes potentia et, si res verterentur, formido, non iam secretis conloquiis, sed aperte fremere, dum histrio cubiculum principis insultaverit, dedecus quidem inlatum, sed excidi um procul afuisse: nunc iuvenem nobilem dignitate for ma, vi mentis ac propinquuo consulatu maiorem ad spem accingi; nec enim occultum quid post tale matrimonium superesset. Subibat sine dubit, metus reputantis hebetem Claudium et uxori devinctum multasque mortes iussu Messalinae patratas: rursus ipsa facilitas imperatoris fiduciam dabat, si atrocitate criminis praevaluissent, posse opprimi damnatam ante quam ream; sed in eo discrimen verti, si defensio audiretur, utque clausae aures etiam confidenti forent.*

[29] *Ac primo Callistus, iam mihi circa necem G. Caesaris narratus, et Appianae cactis molitor Narcissus fragantissi maque eo in tempore gratia Pallas agitavere, num Messalina nam secretis minis depellerent amore Sili, cuncta alia dissimulantes. Dein metu ne ad perniciem ultro traherentur; desistunt, Pallas per ignaviam, Callistus prioris quoque regiae peritus et potentiam cautis quam acribus consiliis tutius haberi: perstitit Narcissus, solum id immutans ne quo sermo ne praesciam criminis et accusatoris faceret. Ipse ad occasio nes intentus, longa apud Ostiam Caesaris mora, duas paellices, quarum is corpori maxime insueverat, largitione ac promissis et uxore deiecta plus potentiae ostentando perpulit delationem subire.*

27. Badakit ipuina emango duela, dena jakiten eta ezer isiltzen ez zen hirian, hain segur sentitzeko hilkorrik izatea; areago, kontsul izendatua printzearen emaztearekin biltzea, aurretiaz jarritako egunean, eta sinatza deituriko lekuoen aurrean, seme-alabak legitimatzea bailitzan; berak auspizioen hitzak entzun, eztei beloa jantzi eta Jainkoen aurrean sakrifiatzea; eta biak musu eta besarkada artean eserri eta, azken batez, ezkon lizentziari dagokion gaua igarotzea. Baina ez dut ezer moldatu, txundimena sortzearren; zaharragoei entzuna eta irakurria bakarrik kontatzen dut.

28. Printzearen etxea izuturik zegoen, beraz, eta, batez ere, eskuetan agintea eta, gauzak aldatuz gero, beldurrik handiena zeukatenek uluka ziharduten, ez isil solasetan, agerian baizik, esanez ezen, printzearen logela histrioi batek zapaltzen zueno, desohoratu zuela, bai, baina hondamen arriskutik urrun ibili zela; orain, osteria, gazte noble, bereziki lerden, talentudun eta laster kontsul izatekoak goragoko itxaropenera jotzen zuela; eta ez zela misterioa halako ezkontzak atzetik zer zekarren. Beldur ziren, duda gabe, uste zutelako Klaudio emazteak menperaturiko ergela zela, eta heriotza asko Mesalinak aginduak zirela. Baina, halaber, enperadorearen izaera onak konfiantza ematen zien, krimenaren izugarrikeriari gaina hartzen bazioten, emakumea akaba zezaketela, epaitu aurretik kondenatua; kontua zen haren defentsa entzungo ote zen, eta Klaudioren belarriak ixterik lortuko ote zen, haren aitortzan ere.

29. Lehenengotan, Kalisto, zeinaz mintzatua naizen Gaio Zesarren hilketan, Narziso, Apioren heriotza bilbatu zuena, eta Palante, orduan grazia bereziaren jabe zena, saiatu ziren Mesalina, azpi mehatxuekin, Silioren maitasunetik apartatzen, gainerako disimulatuz. Gero, hondamenera arrastatuak izateko beldurrez, atzera egin zuten; Palantek kol darrez, eta Kalistok ere bai, aurreko agintaldian gortea ezagutu zuelarik, uste baitzuen boterea neurri gogorrez baino zuhurrez segurkiago gordetzen dela. Narzisok berean jarraitu zuen, plana honetan bakarrik aldaturik: ezein iruzkinez ez aditzén ematea hobenik eta salatzailerik. Okasioaren zain, Ostian asko luzatzen ari baitzen, printzea haien gorputzeta bereziki ohiturik zegoen emagaldu bi, opariz eta agintzariz, eta, emaztea paretik kenduz gero, eurek botere handiagoa izango zute la ikusaraziz, delazioa euren gain hartzera bultzatu zituen.

[30] Exim Calpurnia (id pauci nomen), ubi datum secretum, genibus Caesaris provoluta nupsisse Messalinam Silio excludat; simul Cleopatram, quae id opperiens adstabat, an compresisset interrogat, atque illa adnuente cieri Narcissum postulat. Is veniam in praeteritum petens quod ei Vettios, Plautios dissimulavisset, nec nunc adulteria obiectum ait, ne domum servitia et ceteros fortunae paratus reposceret. Frueretur immo his set redderet uxorem rumperetque tabulas nuptialis. 'An discidium' inquit 'tuum nosti? nam matrimonium Sili vidit populus et senatus et miles; ac ni propere agis, tenet urbem maritus.'

[31] Tum potissimum quemque amicorum vocat, primumque rei frumentariae praefectum Turranium, post Lusium Getam praetorianis impositum percontatur: Quis fatentibus certatim ceteri circumstrepunt, iret in castra, firmaret praetoriaris cohortis, securitati ante quam vindictae consuleret. Satis constat co pavore offusum Claudium ut identidem interrogaret an ipse imperii potens, an Silius privatus esset. At Messalina non alias solutior luxu, adulto autumno simulacrum vendimiae per domum celebrabat. Urgeri prela, fluere lacus; et feminae pellibus accinctae adsultabant ut sacrificantes vel insanientes Bacchae; ipsa crine fluxo thyrum quatiens, iuxtaque Silius hedera vinctus, gerere cothurnos, iacere caput, strepente circum procaci choro. Ferunt Vettium Valentem lascivia in praecultam arborem conisum, interrogantibus quid aspiceret, respondisse tempestatem ab Ostia atrocem, sive cooperat ea species, seu forte lapsa vox in praesagium vertit.

[32] Non rumor interea, sed undique nuntii incedunt, qui gnara Claudio cuncta et venire promptum ultioni adferrent. Igitur Messalina Lucullianos in hortos, Silius dissimulando metu ad munia fori digrediuntur: Ceteris passim dilabentibus adfuere centuriones, inditaque sunt vincla, ut quis reperiebatur in publico aut per latebras. Messalina tamen, quamquam res adversae consilium eximerent, ire obviam et aspici a marito, quod saepe subsidium habuerat, haud segniter intendit misitque ut Britannicus et Octavia in complexam patris

30. Orduan, Kalpurnia (hala zeriton emagaldu batî), Zesarren harrera sekretu batean, haren belaunetara oldarturik, aldarrika hasten da, Mesalina Siliorekin ezkondu dela; aldi berean, Kleopatrari, inguruau adi zegoenari, ea ezer jakin zuen galdetzen dio eta, honek baietz erantzutean, Narziso etorrarako erregutzen du. Honek bere lehengo egintzen barkamena eskatzen du, Tizioak, Bettioak eta Pauzioak estali zituelako, orain ere adulterio salaketarik ez zuela egingo esanez, etxerik, esklaborkrik eta haren handitasunaren gainerako apainduriarik ez erreklamatzearen; aitzitik, utzi egin behar zitzaiola Siliori horiek denak gozatzen, baina itzul zezala emaztea eta hauts zezala ezkon ituna. «Jakin al duzu –galdetu zion– zure zaputzaren berri? Bada, Silioren ezteiak herriak, senatuak eta armadak ikusi ditu, eta, bizkortzen ez bazara, senarra hiriaren jabe egingo zaizu».

31. Orduan, lagunik onenei deitzen die eta, lehenik, Turranio galdekatzen du, ale horniduraren prefektua, eta, gero, Lusio Geta, pretoriaren burua. Hauek egia esan dioteneko, besteak uluka hasten zaizkio, joateko kuarteletara, bermatzeko pretoriak kohorteak, arduratzeko bere segurtasunaz, mendekuaz baino gehiago. Gauza ziur jakina da Klaudio halako izuak hartu zuela, ezen behin eta berriro galdetzen baitzuen ea bera agintearen jabe zen, ea Silio hiritar soila zen. Baina Mesalinak, inoizko luxurik handienez, udazkenaren bihotzean, mahats-batze simulakroa ospatzen du etxeen. Prentsak jardunean, dolareak gainezka, emakume larruz jantziak jauzika ari ziren, sakrifizioa eskaintzen edo delirioan zeuden bakanteen antzera; berak ere, adatsari jareginik, tirsoa astinduz, eta ondoan Siliok, huntzez koroaturik, koturnoak zeramatzen, burua astintzen zuten, inguruau koru lotsagabea oihuka. Bettio Balente, bere frenesian, zuhaitz puntara igo ei zen eta, zer ikusten zuen galdu ziotenean, Ostia aldetik zetorren ekaitz beldurgarria erantzun ei zuen, dela fenomeno hora abiatzen ari zelako, dela airera jaurtitako hitzak iragarpen bihurtuko zirelako.

32. Bitartean, zurrumurrua ez ezik, nondinahi mezuak heltzen dira, Klaudio, denaren jakitun, mendekurako gertu datorrela. Beraz, Mesalinak Lukuloren baratzen eta Siliok, beldurra disimulatzeko, bere foro lanetara alde egiten du. Gainerakoak hanka-jokoan zirela, zenturioiak etorri eta kateak ezarri zizkieten, bakoitza zegoen tokian bertan, agerian zein ezkutuan. Mesalinak, ostera, egoeraren okerrak zentzuna

*pergerent. Et Vibidiam, virginum Vestalium vetustissimam, oravit pontificis maximi auris adire, clementiam expetere. Atque interim, tribus omnino comitantibus—id repente sollitudinis erat—spatium urbis pedibus emensa, vehiculo, quo purgamenta hortorum eripiuntur; Ostiensem viam intrat nulla cuiusquam misericordia quia flagitiorum deformitas praevalebat.*

[33] *Trepidabatur nihilo minus a Caesare: quippe Getae praeatorii praefecto haud satis fidebant, ad honesta seu prava iuxta levi. Ergo Narcissus, adsumptis quibus idem metus, non aliam spem incolumitatis Caesaris adfirmat quam si ius militum uno illo die in aliquem libertorum transferret, seque offert suscepturum. Ac ne, dum in urbem vehitur, ad paenitentiam a L. Vitellio et Largo Caecina mutaretur; in eodem gestamine sedem poscit adsumiturque.*

[34] *Crebra post haec fama fuit, inter diversas principis voces, cum modo incusaret flagitia uxoris, aliquando ad memoriam coniugii et infantiam liberorum revolveretur; non aliud prolocutum Vitellium quam o facinus! o scelus! instabat quidem Narcissus aperire ambages et veri copiam facere: sed non ideo pervicit quin suspensa et quo ducerentur inclinatura responderet exemploque eius Largus Caecina uteretur. Et iam erat in aspectu Messalina clamitabatque audiret Octaviae et Britannici matrem, cum obstrepere accusator; Silium et nuptias referens; simul codicillos libidinum indices tradidit, quis visus Caesaris averteret. Nec multo post urbem ingredienti offerebantur communes liberi, nisi Narcissus amoveri eos iussisset. Vibidam depellere nequivit quin multa cum invidia flagitaret ne indefensa coniunx exitio daretur: Igitur auditurum principem et fore diluendi criminis facultatem respondit: iret interim virgo et sacra capesseret.*

[35] *Mirum inter haec silentium Claudi, Vitellius ignaro propior: omnia liberto oboediebant. Patefieri domum adulteri atque illuc deduci imperatorem iubet. Ac primum in vestibulo effigiem patris Sili consulto senatus abolitam demonstrat,*

murritzten zion arren, bidera irten eta senarrarengana aurkeztea erabakitzentzu du dudarik gabe, sarritan erabili zuen erremedioa berau, eta Britaniko eta Oktabiari mezua bidali zien, aita besarkatzeria etor zitezen. Gainera, Bibidiari, birjina bestalik zaharrenari, erregutu zion entzunazteko goren pontificeari, eskatzeko errukia. Eta, bitartean, hiru lagunek bakarrik lagundurik, —bat-batean, halakoxe bakardadean geratu zen—, hiri guztia oinez korritu ondoren, baratzetako zaborrak biltzeko orga batean, Ostiako bidean abiatzen da, inoren erruki gabe, haren itsuskeria lotsagarriak denen gainetik gailentzen baitziren.

33. Zesarren aldetik, larritasuna ez zen txikiagoa, pretorioko prefektu Getaz ez baitziren gehiegi fidatzen, onera zein txarrera berdin lerrakor bera. Hala, Narzisok beldur bera zutenak bereganaturik, Zesarrentzat beste salbabiderik ez dagoela dio, libertoetariko bat, egun hartarako bakanrik, aginte militarra transferitzea baino; eta bere burua eskaintzen du, hartzeko. Eta, hirira bidean, Luzio Biteliok eta Largo Zezinak damuarazteko astirik izan ez zezaten, ibilgailu hartan aulkia eskatzen eta lortzen du.

34. Gero, behin eta berriro kontatzen zen ezen, printzearen auhen kontraesankorren artean, behin emaztearen eskandaluak salatuz, behin ezkontzako gomutara eta seme-alaben adin samurrera itzuliz, Biteliok ez zuela besterik esaten: «Bai zerrikeria! Bai krimena!». Nartzisok, noski, garbi hitz egitera eta egia esatera sakatzen zion, baina ezin izan zuen atera erdizka eta edozertara ulertzeko moduko hitzak erantzutetik, eta Largo Zezina ere haren etsenplua segitzetik. Eta, dagoeneko, Mesalina bistan zegoen eta oihuka eskatzen zuen entzuteko Britanikoren eta Oktabiaren amari, baina haren hitzak salatzaileak ito zituen, Silio eta ezteiak aipatuz; aldi berean, haren gehiegikerien txostena entregatu zuen, Zesarren begirada distractzeko. Handik laster, hirian sartzen ari zela, bien seme-alabak aurkeztu nahi zizkioten, baina Narzisok erretiratzeko agindu zuen. Bibidia ezin izan zuen alboratu, ez eragotzi aldarrakatzerik, gorroto handiz, ez zezatela emazte indefentso bat hilaraz. Nartzisok erantzun zion, beraz, printzeak entzungo ziola eta emango ziola inputaziotik defendatzeko aukera; bitartean, joan zedila birjina eta ardura zedila elizkizunez.

35. Horiek horrela, Klaudio harrigarriro isilik zebilen eta Biteliok ezer ez zekiela zirudien: libertoaren esanera zegoen dena. Maitalearen etxea ireki eta enperadorea hara eramateko agintzen du. Eta, lehenen, atarte-

*tum quidquid avitum Neronibus et Drusis in pretium probri cessisse. Incensumque et ad minas erumpentem castris infert, parata contione militum; apud quos praemonente Narciso pauca verba fecit: nam etsi iustum dolorem pudor impediebat. Continuus dehinc cohortium clamor nomina reorum et poenias flagitantium; admotusque Silius tribunali non defensionem, non moras temptavit, precatus ut mors acceleraretur. Eadem constantia et inlustres equites Romani [cupido matrae necis fuit.] et Titium Proculum, custodem a Silio Messalinae datum et indicium offerentem, Vettium Valentem confessum et Pompeium Vrbicum ac Saufeum Trogum ex consciis tradi ad supplicium iubet. Decrius quoque Calpurnianus vigilum praefectus, Sulpicius Rufus ludi procurator, Iuncus Vergilianus senator eadem poena adfecti.*

[36] *Solus Mnester cunctationem attulit, dilaniata veste clamatans aspiceret verberum notas, reminisceretur vocis, quae obnoxium iussis Messalinae dedisset: aliis largitione aut spei magnitudine, sibi ex necessitate culpam; nec cuiquam ante pereundum fuisse si Silius rerum poteretur. Commotum his et pronum ad misericordiam Caesarem perpulere libertine tot inlustribus viris imperfectis histrioni consuleretur: sponte an coactus tam magna peccavisset, nihil referre. Ne Trauli quidem Montani equitis Romani defensio recepta est. Is modesta iuventa, sed corpore insigni, accitus ultro noctemque intra unam a Messalina proturbatus erat, paribus lasciviis ad cupidinem et fastidia. Suillio Caesonino et Plautio Laterano mors remittitur, huic ob patrui egregium meritum: Caesoninus vitiis protectus est, tamquam in illo foedissimo coetu passus muliebria.*

[37] *Interim Messalina Lucullianis in hortis prolatare vitam, componere preces, non nulla spe et aliquando ira: tantum inter extrema superbiae gerebat. Ac ni caudem eius Narcissus properavisset, verterat pernicies in accusatorem. Nam Claudius domum regressus et tempestivis epulis delenitus, ubi vino incaluit, iri iubet nuntiarique miserae (hoc enim verbo usum ferunt) dicendam ad causam postera die adesset. Quod ubi*

an, Silioren aitaren irudia ikusten du, senatuaren dekretu batek debekatua, eta gero Nerondarren eta Drusotarren ondasunak, desohorearen ordain bihurtuak. Suak harturik eta mehatxu urtika, kuarteletara eraman zuen, non soldaduak formaraziak zituen; haien aurrean, Nartzisok diktaturik, hitz bakanak jaulki zituen: samin bidezkoa izan arren, lotsak mozten baitzuen. Berehala, kohorteen berbaro luzea sortu zen, errudunen izenak eta zigorra eskatuz. Epaitegira eramanik, Silio ez zen ez defendatzen, ez atzeratzen saiatu; bere heriotza azkartzeko eskatu zuen. Irmotasun berak heriotza azkarra desiarazi zien erromatar zaldun ospetsuei. Eta Tizio Prokulo, Siliok Mesalinaren jagole jarria eta deklaratzeko prest zegoena, Bettio Balente, aitorzailea, eta Ponpeio Urbiko eta Saufio Togo, konplizeak, supliziora eramateko agintzen du. Dekrio Kalpurniano, prefektu suzain, Sulpicio Rufo, jokuen prokuradore, eta Junko Birgilianori ere, zigor bera ezarri zieten.

men gabeko gazteluaz beste gordelekurik ez zeukala; ez zezala armen zorte badezpadakoa hobetzat jo, akordio odolgabea baino. Mitridates proposamen horrekin zalantzaran eta prefektuaren aholkuekin susmoti zegoen bitartean, honek erret maitale bat seduzitua baitzuen eta diruagatik edozein zatarkeriarako gaitzat jotzen baitzuen, Kasperiok Farasmanesengana jotzen du, hiberoek setioa jaso dezaten eskatuz. Honek publikoan erantzun zion, hitz anbiguoiz, baina nahikoa adeikorrez, eta, bitartean, mezulari sekretuen bitartez, Radamistori agintzen dio hartzea bizkortzeko ahal den moduan. Prebarikazioaren prezioa gehitu eta Polioneik, izkutuka ustelaraziz, soldaduei bultz egiten die, bakea eskatu eta defentsa bertan behera uzteko mehatxua egin dezaten. Halako esturan, Mitridatesek ituna ezartzeko eguna eta lekua onartu zituen eta gazztelutik irteten da.

47. Lehenengotan, Radamisto besarkatzera oldartzen zaio, begirune itxuran, aitaginarreba eta aita deituz; gainera, zin dagio ez diola bortxarik egingo, ez burdinaz, ez pozoi. Aldi berean, inguruko oihan sakratu batera darama, han sakrifizio bat gertu zegoela esanik, bakea jainkoen lekukotzan sina zezan. Errege artean, aliantza egiterakoan, ohitura da eskuinak bildu, erpuruak lotu eta korapiloz estutzea; gero, odola hatz muturretan batutakoan, zauritxo batez erionarazi eta elkarren mihiatzaten dute. Halako ituna zer misteriosotzat jotzen da, elkarren odoljarioz konsakraturik bezala. Baina, aldi hartan, lokarri ekarlea, jauste itxuran, Mitridatesen belaunetara jaurtitzen da eta bera ere eraisten du; berehala, beste batzuk etorri eta kateatu egiten dute, gero bilurrez loturik arrastatzeko; barbaroentzat, desohore handia da hori. Herria ere, haren aginte zorrotza jasanik, laster hasi zitzaison kolpeka eta irainka. Baziren hain zori aldatze handiaz errukitizen zirenak ere. Atzetik, emaztea seme-alaba txikiiek zihohan, dena ahueneztatuz. Bakoitza ibilgailu banatan eta estalietan gordetzen dituzte, Farasmanesen aginduak egiaztatu bitartean. Harengan, erreinu goseak anaiaik eta alabak baino gehiago balio zuen, eta gogoa krimenerako gertu zegoen; ikuspenari kargu egin zion, hala ere, bere bistan hil ez zitzaten. Radamistok, bestalde, bere zina gogoraturik, ez darabil ez burdinari, ez pozoirik, arrebaren eta osabaren aurka, baizik, lurrera eraitsi eta ito egiten ditu, soineko askoz eta astunez estalita. Mitridatesen seme-alabak ere, gurasoen heriotzari negar egitearren, lepamoztu egin zitzuten.

[48] At Quadratus cognoscens proditum Mithridaten et regnum ab interfectoribus obtineri, vocat consilium, docet acta et an ulcisceretur consultat. Paucis decus publicum curae, plures tuta disserunt: omne scelus externum cum laetitia habendum; semina etiam odiorum iacienda, ut saepe principes Romani eandem Armeniam specie largitionis turbandis barbarorum animis praebuerint: poteretur Radamistus male partis, dum invisis infamis, quando id magis ex usu quam si cum gloria adeptus foret. In hanc sententiam itum. Ne tamen adnuisse facinori viderentur et diversa Caesar iuberet, missi ad Phrasmanen nuntii ut abscederet a finibus Armeniis filiumque abstraheret.

[49] Erat Cappadociae procurator Julius Paelignus, ignavia animi et deridiculo corporis iuxta despiciendus, sed Claudio perquam familiaris, cum privatus olim conversatione scurrum iners otium oblectaret. Is Paelignus auxiliis provincialium contractis tamquam recipaturus Armeniam, dum socios magis quam hostis praedatur, abscessu suorum et incursantibus barbaris praesidiis egens ad Radamistum venit; donisque eius evictus ultro regium insigne sumere cohortatur sumentique adest auctor et satelles. Quod ubi turpi fama divulgatum, ne ceteri quoque ex Paeligno coniectarentur; Helvidius Priscus legatus cum legione mittitur rebus turbidis pro tempore ut consuleret. Igitur propere montem Taurum transgressus moderatione plura quam vi composuerat, cum rediret in Syriam iubetur ne initium belli adversus Parthos existeret.

[50] Nam Vologeses casum invadendae Armeniae obvenisse ratus, quam a maioribus suis possessam externus rex flagitio obtineret, contrahit copias fratremque Tiridaten deducere in regnum parat, ne qua pars domus sine imperio ageret. Incensus Parthorum sine acie pulsi Hiberi, urbesque Armeniorum Artaxata et Tigranocerta iugum accepere. Deinde atrox hiems et parum provisi commeatus et orta ex utroque tabes perpellunt Vologesen omittere praesentia. Vacuamque rursus Armeniam Radamistus invasit, truculentior quam antea, tam-

48. Kuadratok, Mitridates entregatu zutela eta erreinua hiltzaileen esku gelditu zela jakin zuenean, kontseilua deitu, gertatua azaldu eta iritzia eskatzen du, mendekura jo behar zuenetz. Banakei bakarrik ardura zien estatuaren ohoreak; gehienak kontuz mintzatu ziren: arrotzen arteko edozein krimen pozez hartzekoa ei zen; areago oraindik, gorroto hazia zabaldu egin behar ei zen, erromatar printzeek, sarritan, Armenia bera eskuzabalatasun itxuraz hornitu zuten moduan, barbaroen gogoak liskartzearen; uzteko Radimistori aginte gaizki irabazia gozatzen, gorrotagarri eta laidogarri zeno, hori, guretzat, aintzaz lortu izan balu baino onuragarriago zela eta. Erabaki horixe hartu zen. Hala ere, krimena onesten zutenik ez emateko, eta Zesarrek bestelakorik agindu ez zezan ere, Farasmanesi mezulariak bidali zizkion, Armeniako mugetatik alde egiteko eta semea itzularazteko aginduz.

49. Orduan, Kapadoziako prokuradorea Julio Peligno zen, nazkagarria, bai gogoaren koldarrez, bai gorputzaren zatarrez, nahiz eta, lehenago, Klaudioren lagun mina izan, honek bere hiritar partikularren aisia inertea bufoien tratuz alaitzen zuenean. Peligno honek tropa laguntzialeak erreklutatzten ditu probintzian, Armenia berkonkistatzeko bezala; baina, etsai artean baino aliatu artean harrapaketa gehiago egina izanik, beretarrek abandonaturik eta barbaroen erasoaren aukako babesik gabe, Radimistorengana jotzen du. Haren opariek konbentziturik, bera da erret ikurrak har ditzan bultzatzen lehenengoa, koroapenean berme eta sateliteztat egonik. Berria bere lotsagarirako zabaldu zenean, eta beste erro-matarrak Pelignoren antzekotzat joak izan ez zitezen, Helbidio Prisko legatua legio batekin bidaltzen dute, nahasmena zirkunstantzien arabera konpon zezan. Tauro mendikatea azkar bestalderaturik, tentua indarra baino gehiago erabiliz, egoera ia konponduta zeukanean, Siriara itzultzeko agindua hartzen du, partoen aukako gerrariik gerta ez zedin.

50. Izan ere, Bologesesek, Armenia, bere arbasoek ukantzena eta orain, krimen bidez, errege arrotzaren esku zegoena, inbaditzeko aitzakia eman zitzaiola pentsaturik, tropak batu eta bere anaia Tiridates erreinu hartan ipintzera prestatzen da, etxeko ezein kide erreinu gabe egon ez zedin. Partoak sartzean, hiberoak borroka gabe egotzi zitzuzten eta Artaxata eta Tigranocerta armeniar hiriek uztarria onartu behar izan zuten. Gero, neguaren gogorrak, janarien urriak eta bietatik harako izurriteak Bologeses gauzak lehenean uztera behartzen dute. Radimistok Armenia berriz jabegabea inbaditzen du, aurrekoan baino amorratuago,

*quam adversus defectores et in tempore rebellaturos. Atque illi quamvis servitio sueti patientiam abrumpunt armisque regiam circumveniunt.*

[51] *Nec aliud Radamisto subsidium fuit quam pernitas equorum, quis seque et coniugem abstulit. Sed coniunx grava primam utcumque fugam ob metum hostilem et mariti caritatem toleravit; post festinatione continua, ubi quasi uterus et viscera vibrantur, orare ut morte honesta contumeliis captivitatis eximeretur: Ille primo amplecti adlevare adhortari, modo virtutem admirans, modo timore aeger ne quis relitta poteretur. Postremo violentia amoris et facinorum non rudes destringit acinacen vulneratamque ripam ad Araxis trahit, fluminis tradit ut corpus etiam auferretur: ipse praeceps Hiberos ad patrium regnum pervadit. Interim Zenobiam (id mulieri nomen) placida in eluvie spirantem ac vitae manifestam advertere pastores, et dignitate formae haud degenerem reputantes obligant vulnus, agrestia medicamina adhibent cognitoque nomine et casu in urbem Artaxata ferunt; unde publica cura deducta ad Tiridaten comiterque excepta cultu regio habita est.*

[52] *Fausto Sulla Salvio Othoni consulibus Furios Scribonianus in exilium agitur; quasi finem principis per Chaldaeos scrutaretur: Adnectebatur criminis Vibia mater eius, ut casus prioris (nam relegata erat) impatiens. Pater Scriboniani Camillus arma per Dalmatiam moverat; idque ad clementiam trahebat Caesar; quod stirpem hostilem iterum conservaret. Neque tamen exuli longa posthac vita fuit: morte fortuita an per venenum extinctus esset, ut quisque credidit, vulgavere. De mathematicis Italia pellendis factum senatus consultum atrox et inritum. Laudati dehinc oratione principis qui ob angustias familiaris ordine senatorio sponte cederent, motique qui remanendo impudentiam paupertati adicerent.*

[53] *Inter quae refert ad patres de poena seminarum quae servis coniungerentur; statuiturque ut ignaro domino ad id prolapsae in servitute, sin consensisset, pro libertis haberent*

traizio egin ziotenen eta lehen aukeran matxinatuko zitzaitzakionen aurka baitzihoa. Baino haien, morrontzara ohiturik egon arren, pazientzia hautsi eta erret jauregia armaturik inguratzen dute.

51. Eta Radimistok zaldien bizkortasunaz beste salbamenik ez zuen izan, berak eta emazteak haien gainean ihes eginez. Hau, ostera, haurdun zegoen eta, lehenengotan, ahal bezala eutsi zion ihesari, etsaien beldurrez eta senarraren maitez; gero, lasterketaren luzea sabelean astindua eta erraietan espasmoak eragiten hasi zitzaionean, erregutzen zuen ezen, heriotza ohoragarri batez, libra zezala gatibutzaren lotsaizunetik. Senarrak, lehenengotan, besarkatzen, baretzen, animatzen zuen, bai haren kemena miretsiz, bai, atzean uztera, beste baten eskuan eror zedin beldurrez. Azkenik, amadioaren biolentziak eraginik eta krimena ere ez baitzuen arrotz, ezpata zorrotik atera eta sastaturik, Araxes ibaaren hegaleraino arrastatu eta urlasterrari damaio, etsaiari haren gorputza ere kentzeko. Berak hankajokoan ihes egin zuen hiberoen lurrera, aitaren erreinura. Bitartean, Zenobiari, hala baitzuen izena, urlo batean gelditirik, oraindik arnasa eta bizi-antza zuela, artzain batzuek erreparatu zioten; hauek, itxuraren gurentasunetik, edonor ez zela pentsaturik, zauria bendatzeten eta osagai agresteak ezartzen dizkiote eta, haren izen eta zoriaren berri jakitean, Artaxata hiri-ra daramate. Handik, estatuaren kontura, Tiridatesi eraman zioten eta, bihozberaki hartua izanik, erregina tratua ukantzen zuten.

52. Fausto Silaren eta Salbio Otonen kontsulaldian, Furio Eskriboniano erbestera kondenatzen dute, kaldear aztien bitartez, printzearen azkena arakatzen ari zela eta. Gaizkintzan, bere ama Bibia ere sartzen zuten, zeinari aurreko zoria pazientzia ez eramatea leporatzen zioten, baztertu izan baitzen. Kamilok, Eskribonianoren aitak, matxinada armatua sustatu zuen Dalmazian; eta horrek Zesar klementziara makurtzen zuen, leinu etsai batir bigarrenez barkatzeko burueran. Hala ere, erbestera ez zen luzaro bizi izan; dela berez, dela pozoiz hil zela zabaldu zen, nork zer sinetsi kontu. Astrologoak Italiatik bidaltzea era-baki zen, senatuaren dekreto zorrotz bezain alferrekoz. Gero, printzearen mintzaldi batean, senatari maila, diru urritasunagatik, euren kabuz uzten zutenak goraldauak izan ziren, eta gelditu eta txirotasunari lotsagabekeria eransten ziotenak apartatu egin zituzten.

53. Aldi horretan, esklaboekin haragi harremana izaniko emakumeen zigorraz ere jarduten dute senatuan; ugazabaren ezjakinean izan bada,

*tur: Pallanti, quem repertorem eius relationis ediderat Caesar; praetoria insignia et centies quinquagies sestertium censuit consul designatus Barea Soranus. Additum a Scipione Cornelio grates publice agendas, quod regibus Arcadiae ortus veterrimam nobilitatem usui publico postponeret seque inter ministros principis haberi sineret. Adseveravit Claudius contentum honore Pallantem intra priorem paupertatem subsistere. Et fixum est [aere] publico senatus consultum quo libertinus sestertii ter milies possessor antiquae parsimoniae laudibus cumulabatur.*

[54] *At non frater eius, cognomento Felix, pari moderatione agebat, iam pridem Iudeae impositus et cuncta malefacta sibi impune ratus tanta potentia subnixo. Sane praebuerant Iudei speciem motus orta seditione, postquam \*\*\* cognita caede eius haud obtemperatum esset, manebat metus ne quis principum eadem imperitaret. Atque interim Felix intempestivis remedii delicta accendebat, aemulo ad deterrima Ventidio Cumano, cui pars provinciae habebatur, ita divisis ut huic Galilaeorum natio, Felici Samaritae parerent, discordes olim et tum contemptu regentium minus coercitis odiis. Igitur raptare inter se, immittere latronum globos, componere insidiias et aliquando proeliis congredi, spoliaque et praedas ad procuratores referre. Hique primo laetari, mox gliscente pernicie cum arma militum interiecissent, caesi milites; arsissetque bello provincia, ni Quadratus Syriae rector subvenisset. Nec diu adversus Iudeeos, qui in necem militum proruperant, dubitatum quin capite poenas luerent: Cumanus et Felix cunctationem adferebant, quia Claudius causis rebellionis auditis ius statuendi etiam de procuratoribus dederat. Sed Quadratus Felicem inter iudices ostentavit, receptum in tribunal, quo studia accusantium deterrentur; damnatusque flagitiorum quae duo deliquerant Cumanus, et quies provinciae redditia.*

[55] *Nec multo post agrestium Cilicum nationes, quibus Clitarum cognomentum, saepe et alias commotae, tunc Troxobore duce montis asperos castris cepere atque inde decursu*

emakumea ere esklabotzat hartua izan dadila erabakitzentz da, eta, haren onespenez izan bada, libertotzat. Zesarrek mozioaren egiletzat aurkeztu zuen Palanterentzat, Barea Sorano kontsul izendatuak pretore ikurrak eta hamabost milioi sestertzio eskatu zituen, Arkadiako erregeen ondorengoa izanik, bere noblezia txit antzinakoa denen onaren atzetik jartzen zuelako eta printzearen zerbitzarien artean eduki zezaten uzten zuelako. Klaudiok segurtatu zuen Palantek, ohorearekin pozik, nahiago zuela lehengo pobrezian jarraitu. Eta publikoaren ikusgai jarritako brontzezko plakan, senatuaren dekretua irarri zen, non liberto hura, hirurehun milioi sestertzioen jabea, antzinako austerritatearen gorespen guztiekin hornitzen zen.

54. Haren anaia, ostera, Felix izenekoa, ez zebilen halako moderazioan: aspalditik zegoen Judeako buru, eta hain agintz handian babesturik egoteak bere gaizkintza guztiak inpune utziko zituela uste zuen. Egia da juduek matxinatzeko egin zutela, sedizioa sortu zenean, [Gaio Zesarrek tenpluan bere irudia ipintzeko agindu zuenean; eta, nahiz eta], haren hilketaren berri jakitean, agindua ez zen bete, beste printzeren batek zer bera agindu zezan beldurra gelditu zen. Bitartean, Felixek, erremedio intenpestiboa, hobenera xaxatzen zuen, Bentidio Kumano txarrenerako lehiakide zuela. Honek probintzia zati bat zeukan, Bentidiok galilearrak eta Felixek samariarrak gobernatzen moduan erdibitua, antzinatik etsai ziren herriak eurok, baina orduan, agintarienganaiko arbuzoz, gorrotoari gutxiago eusten ziotenak. Hala, elkarri harrapaketan aritzen ziren, elkarren kontra bidelapur aldrak bidaltzen, enboskadak ezartzen, eta, inoiz, benetako batailei ekiten zieten, mozkinak eta harrapakinak prokuradoreei entregatuz. Hauak, lehenengotan, poztu egiten ziren, baina gero, gaitza handitzean, armadei eskua sarrarazi zieten eta soldaduen artean heriotzak izan ziren; probintzia gerran sutuko zen, Kuadrato Siriako gobernadorea etorri ez balitz. Gure soldaduak hil zitzuten juduek euren krimena buruarekin ordain zezaten duda handirik ez zen izan. Kumanok eta Felixek zalantzak eragiten zitzutzen, zeren Klaudiok, erreboltauen arrazoien berri jakitean, Kuadrtori eman baitzion prokuradoreena ere erabakitzeko eskubidea. Baina Kuadrtok Felix epaileen artean aurkeztu zuen, auzitegian harrera emanik, salatzaileen ahalegina mozteko; eta, biek buruturiko gaiztakerien-gatik, Kumano kondenatu zuten eta probintziara bakea itzuli zen.

55. Handik laster, zietak izeneko Ziliziako herri agresteak, lehen ere maiz matxinatuak, Troxobororen agindupean mendi malkartsuen gai-

*in litora aut urbes vim cultoribus et oppidanis ac plerumque in mercatores et navicularios audebant. Obsessaque civitas Anemuriensis, et missi e Syria in subsidium equites cum praefecto Curtio Severo turbantur; quod duri circum loci peditibusque ad pugnam idonei equestre proelium haud patiebantur. Dein rex eius orae Antiochus blandimentis adversum plebem, fraude in ducem cum barbarorum copias dissociasset, Troxobore paucisque primoribus interfectis ceteros clementia composituit.*

[56] *Sub idem tempus inter lacum Fucinum amnemque Lirim perrupto monte, quo magnificentia operis a pluribus viseretur, lacu in ipso navale proelium adornatur; ut quondam Augustus structo trans Tiberim stagno, sed levibus naviis et minore copia ediderat. Claudius triremis quadriremisque et undeviginti hominum milia armavit, cincto ratis ambitu, ne vaga effugia forent, ac tamen spatum amplexus ad vim remigii, gubernantium artes, impetus navium et proelio solita. In ratibus praetorianum cohortium manipuli turmaeque adstiterant, antepositis propugnaculis ex quis catapulta ballistaeque tenderentur. Reliqua lacus classiarii tectis navibus obtinebant. Ripas et collis montiumque edita in modum theatri multitudo innumera complevit, proximis e municipiis et alii urbe ex ipsa, visendi cupidine aut officio in principem. Ipse insigni paludamento neque procul Agrippina chlamyde aurata praesedere. Pugnatum quamquam inter sontis fortium virorum animo, ac post multum vulnerum occidioni exempti sunt.*

[57] *Sed perfecto spectaculo apertum aquarum iter: Incuria operis manifesta fuit, haud satis depresso ad lacus ima vel media. Eoque tempore interiecto altius effossi specus, et contrahendae rursum multitudini gladiatorum spectaculum editur; inditis pontibus pedestrem ad pugnam. Quin et convivium effluvio lacus adpositum magna formidine cunctos adfecit, quia vis aquarum prorumpens proxima trahebat, convulsis ulterioribus aut fragore et sonitu exterritis. Simul Agrippina trepidatione principis usa ministrum operis Narcissum incu-*

nean kanpatu ziren; handik itsasertza edo hirietara jaisten ziren eta baserritarrei zein kaletarrei eta, batez ere, merkatariei eta untzizainei bortxa egiten ausartzen ziren. Anemunio hiria setiatu ere egin zuten, eta Siriatiak laguntzera bidalitako zaldieria, Kurtzio Seberoren agindupean, suntsiturik gertatu zen, inguru haien malkartasunak, oinezkoen borrokarako egokiak, ez baitzuen zaldi batailarik jasaten. Azkenik, itsasertz hartako erregeak, Antiokok, populua balakatz eta buruzagia engainatz, barbaroen indarrak sakabanatzea lortu zuen eta, Troxoboro eta jaun bakan batzuk hildakoan, besteak klementziaz baretu zituen.

56. Garai harten berean, Fuzino aintziraren eta Liris ibaiaren arteko mendiak hondeatu zuten eta, lanaren handitasuna jende gehiagok miretsia izan zedin, untzi-gudua prestatu zuten aintziran bertan, Augustok, behinola, Tiber inguruan eraikitako urmaelean egin zuen bezala, untzi arinekin eta tropa gutxiagoz baina. Klaudiok hiru eta lau arraun lerroko untziak eta hemeretzi mila gizon prestatu zituen; barrutia puntoiz inguraturik zegoen, ihes eragaberik ez gertatzeko, baina bazen nahikoa leku, arraunlarien indarra, patroien trebetasuna, untzien abialdia eta gudu baten ohiko zer guztiak erakusteko. Pontoien gainean, pretoriar kohorteen destakamenduak eta eskuadroiak kokaturik zeuden, eta surrealdean bastioiak jaso zituzten, nondik katapultaz eta baleztaz tira zitekeen. Gainerako lakua itsas infanteek okupatzen zuten untzi estalietan. Ertzak eta maldak eta mendi tontorrak, antzoki erara, inguruko urietatik eta baita hiritik harako jendetza neurrigabez josita zeuden, ikusminez edo printzearekiko adeiz etorriak eurak. Klaudio, gerra-mantu bikainez eta, ez urrun, Agripina, urez brodaturiko klamidez, ikuskizunaren buru ziren. Gudua, nahiz gaizkile artean, gizon suharren kemenez burutu zen eta, zauri ugariren ondoren, elkar hiltzetik eximitu zituzten.

57. Baina, ikuskizuna amaitutakoan, uren bidea ireki zuten. Eta lanaren trakeskeria bistan geratu zen, ez baitzen aintziraren alderik apalenera iristeko bezain sakona. Denboraldi bat igarotzen utzi zuten, tunela sakonago egiteko, eta, berriz ere jendetza biltzeko, gladiadoreen ikuskizuna jartzen dute, oinezkoen borrokarako zubiak hedaturik. Otordua ere eman zuten lakuaren hustubide ondoan; horrek denen ikara handia ekarri zuen, uraren indar oldartsuak aurkitzen zuen guztia arrastatzen baitzuen, urruneraino dardaratz eta, burrumbaz eta harrabotsez, bazterrak izutuz. Agripinak, une hartantxe, printzearen beldurraz balia-

*sat cupidinis ac praedarum. Nec ille reticet, impotentiam muliebrem nimiasque spes eius arguens.*

[58] *D. Junio Q. Haterio consulibus sedecim annos natus Nero Octaviam Caesaris filiam in matrimonium accepit. Utque studiis honestis [et] eloquentiae gloria enitesceret, causa Iliensis suscepta Romanum Troia demissum et Iuliae stirpis auctorem Aeneam aliaque haud procul fabulis vetera facunde executus perpetrat, ut Ilienses omni publico munere solverentur. Eodem oratore Bononiensi coloniae igni haustae subventum centies sestertii largitione. Reddita Rhodiis libertas, adempta saepe aut firmata, prout bellis externis meruerant aut domi seditione deliquerant; tributumque Apamensibus terrae motu convulsis in quinquennium remissum.*

[59] *At Claudius saevissima quaeque promere adgebatur eiusdem Agrippinae artibus, quae Statilium Taurum opibus inlustrem hortis eius inhians pervertit accusante Tarquitio Prisco. Legatus is Tauri Africam imperio proconsulari regentis, postquam revererant, pauca repetundarum crimina, ceterum magicas superstitiones obiectabat. Nec ille diutius falsum accusatorem, indignas sordis perppersus vim vitae suaे attulit ante sententiam senatus. Tarquitius tamen curia exactus est; quod patres odio delatoris contra ambitum Agrippinae pervicere.*

[60] *Eodem anno saepius audita vox principis, parem vim rerum habendam a procuratoribus suis iudicatarum ac si ipse statuisse. Ac ne fortuito prolapsus videretur, senatus quoque consulto cautum plenius quam antea et uberior. Nam divus Augustus apud equestris qui Aegypto praesiderent lege agi decretaque eorum proinde haberet iusserat ac si magistratus Romani constituisserent; mox alias per provincias et in urbe pleraque concessa sunt quae olim a praetoribus noscebantur: Claudius omne ius tradidit, de quo toties seditione aut armis certatum, cum Sempronii rogationibus equester ordo in possessione iudiciorum locaretur; aut rursum Serviliae leges senatui iudicia redderent, Mariusque et Sulla olim de eo vel*

turik, Nartziso, lanen arduraduna, gutiziaz eta lapurretaz salatzen du; baina bera ez zen isildu, emakumeen lotsagabekeria eta gehiegizko itxaropena aurpegiratzen zizkiola.

58. Dezimo Junio eta Kinto Haterioren kontsulaldian, hamasei urteko Neronek Oktabia, Zesarren alaba, ezkontzaz hartu zuen. Ikasketa ohotretsueta aintza eta elokuentzian distira lortu nahirik, iliarren auzia defendatzeaz arduratu zen. Etorri handiz, troiarren jatorri erromatarra, Eneas juliar leinuaren sortzaile gisan, eta beste zenbait gauza antzinako, ipuinotik ez urrungo, gogoratu ondoren, iliarrak zama publiko orotatik libratzea lortzen du. Bere etoriak lortu zuen suteak irentsitako Bolonia-ko koloniar ere hamar milioi sestertioko dirulaguntza ematea. Rodioei askatasuna bihurtzen zaie, hainbeste aldiak kendua eta berretzia, kanpo gerretan merituak egin ala barne sedizioak eragin zitzuten kontu. Lurrikara jasan zuten Apameakoei bost urteko zergak barkatu zitzazkien.

59. Klaudio, bestalde, agindurik ankerrenak eman beharrean aurkitzen zen, Agripinaren trikimainen ondorioz, beti ere, zeinak aberatsean ospetsua zen Estatilio Tauro, haren baratzearen gutiziaz, Tarkizio Priskok aurkezturiko salaketarekin galdu zuen. Hau Tauroren ordezkarizan zen, hark Afrika prokonsul gisan gobernatzen zuenean; itzuli zirenean, haren aurkako salaketa egin zuen, zenbait konkusio aipatuz, nahiz eta, batez ere, praktika magikoak leporatuz. Taurok, salatzale faltsu eta merezi gabeko lotsaizuna gehiago ezin jasanez, bere buruaz beste egin zuen, senatuaren epai aurretik. Hala ere, Tarkizio kuriatik egotzia izan zen eta senatariak, salariarenaganako gorrotoz, Agripinaren azpikeriei aurre egiten zieten.

60. Urte berean, printzeak behin eta berriz adierazi zuen prokuradoreen epaiek bere erabakiek adina indar izan behar zutela. Eta arinki hitz egin zuela eman ez zezan, senatuaren dekretuz ere, hartarako neurriak harta ziren, artean ezagutuak baino xeheagoak eta osoagoak. Izan ere, Augusto jainkozkoak agindu zuen Egipro gobernatzen zuten zaldun erromatarrek legeak ezar zitzatela eta haien erabakiek Erromako magistratuenen begirune bera izan zezatela; geroago, beste probintzia batzueta eta baita Erroman ere, lehenago pretoreen esku egoniko auzi asko esleitu zitzaien. Klaudiok eskumen osoa eman zien; horrek hamai-ka sedizio eta borroka armatu eragin zuen, Senproniar Legeen indarrez epaiketak ordena ekuestrearen mende jarri zirenean, zeintzuk Serbiliar

*praecipue bellarent. Sed tunc ordinum diversa studia, et quae vicerant publice valebant. C. Oppius et Cornelius Balbus primi Caesaris opibus potuere condiciones pacis et arbitria belli tractare. Matios posthac et Vedios et cetera equitum Romanorum praevalida nomina referre nihil attinuerit, cum Claudius libertos quos rei familiari praefecerat sibique et legibus adaequaverit.*

[61] *Rettulit dein de immunitate Cois tribuenda multaque super antiquitate eorum memoravit: Argivos vel Coeum Latonae parentem vetustissimos insulae cultores; mox adventu Aesculapii artem medendi inlatam maximeque inter posteros eius celebrem fuisse, nomina singulorum referens et quibus quisque aetatibus viguissent. Quin etiam dixit Xenophontem, cuius scientia ipse uteretur; eadem familia ortum, precibusque eius dandum ut omni tributo vacui in posterum Coi sacram et tantum dei ministram insulam colerent. Neque dubium habetur multa eorundem in populum Romanum merita sociasque victorias potuisse tradi: sed Claudius facilitate solita quod uni concesserat nullis extrinsecus adiumentis velavit.*

[62] *At Byzantii data dicendi copia, cum magnitudinem onerum apud senatum deprecarentur; cuncta repetivere. Orsi a foedere, quod nobiscum icerant, qua tempestate bellavimus adversus regem Macedonum, cui ut degeneri Pseudophilippi vocabulum impositum, missas posthac copias in Antiochum Persen Aristonicum et piratico bello adiutum Antonium memorabant, quaeque Sulla aut Lucullo aut Pompeio obtulissent, mox recentia in Caesares merita, quando ea loca insiderent quae transmeantibus terra marique ducibus exercitusque, simul vehendo commeatu opportuna forent.*

[63] *Namque artissimo inter Europam Asiamque divortio Byzantium in extrema Europa posuere Graeci, quibus Pythium Apollinem consulentibus, ubi conderent urbem, redditum oraculum est, quaererent sedem caecorum terris adversam. Ea ambage Chalcedonii monstrabantur; quod priores*

Legeek berriro senatura bihurtu zitzuten. Garai bateko Mario eta Silaren arteko gerren arrazoi nagusia horixe izan zen. Baino, orduan, gizarte taldeean interesak banaturik zeuden eta garaileek euren indarra publi-koki ezartzen zuten. Gaio Opio eta Kornelio Balbo izan ziren, Zesarren boterean bermaturik, bake baldintzak ezarri eta gerrako arbitro jokatu ahal izango zuten lehenengoak. Honen ondoren, Mazioak eta Bedioak eta gainerako zaldun erromatar txit ahaltsuak aipatzeak ez luke ezertarako balio, Klaudiok etxe ondasunen buru zeuzkan libertoak berarekin eta legeekin berdindu zitzuenez gero.

61. Gero, Koskoei inimunitatea ematea proposatu zuen, haien antzinatasunari buruzko aipu ugarriz: Argiboak, edo Koeo, Latonaren aita, irlako biztanlerik antzinakoenak izan zirela; gero, Eskulapioren etorrerarekin, medikuntzaren artea iritsi zela bertara, eta, ondorengoen artean, ospe izugarria hartu zuela, izenak banan-banan eta bakoitza noiz loratu zen aipatuz. Xenofonte bera ere, zeinaren zientziaz bera baliatzen zen, familia beretik ei zetorren, eta beronen erreguei zor ei zitzaien Kostarrak, aurrerantzean, zerga orotarik libre bizitza, euren irla santu eta Jainkoari bakarrik zerbitzeoan. Ez dago dudarik, jende haren erromatar herriareniko meritu ugari eta gure garaipenetan parte-hartzea argudia zitezkeenik, baina Klaudio ez zen kanpo laguntzekin disimulatzen ahalgindu, bere ohiko erraztasunez, mesede pertsonal gisan eman zuena.

62. Euren kargen astunaz senatuaren aurrean kexatu ziren bizantziarrei hitza eman zitzaienean, ostera, azalpen osoa egin zuten. Mazedoniako erregearen, bere leinuaren ezduintzat, Pseudofilipo izena eman ziote-naren aurka borrokatzetan ginen garaian gurekin ezarritako hitzarmene-tik hasi ziren. Gero, Antioko, Perses eta Aristonikoren aurka bidalitako tropak gogoratu zitzuten, eta Antoniori piraten aurkako gerran eman-iko laguntza, baita Sila, Lukulo eta Ponpeiori eskainia ere; jarraian, Zesarrekiko meritu oraintsukoak, jeneralak eta armadak urez eta leho-rez ibiltzeko, baita horniduren garraiorako ere, hain lurralte estrategi-koan bizi ziren aldetik.

63. Bizantzio, izan ere, Europaren eta Asiaren artean bitarterik txikiiena dagoen lekuau sortu zuten grekoek, zeintzuei, Apolo Pitiori hiria non kokatuko zuten galdeturik, orakulua eman zitzaien bila zezatela gune bat itsuen lurrarren aurrean. Kaltzedoniarrak halako anbiguetatez aipatzen ziren, ezen, hara lehenago iritsi eta leku egokia zela ikusi arren, okerra-

*illuc advecti, praevisa locorum utilitate, peiora legissent. Quippe Byzantium fertili solo, secundo mari, quia vis piscium immensa Pontum erumpens et obliquis subter undas saxis exterrita omisso alterius litoris flexu hos ad portus defertur. Unde primo quaestuosi et opulent; post magnitudine onerum urgente finem aut modum orabant, adnitente principe, qui Thraecio Bosporanoque bello recens fessos iuvandosque rettulit. Ita tributa in quinquennium remissa.*

[64] *M. Asinio M'. Acilio consulibus mutationem rerum in deterius portendi cognitum est crebris prodigiis. Signa ac tentoria militum igne caelesti arsere; fastigio Capitolii examen apium insedit; biformis hominum partus et suis fetum editum cui accipitrum unguis inessent. Numerabatur inter ostenta deminutus omnium magistratum numerus, quaestore, aedili, tribuno ac praetore et consule paucos intra mensis defunctis. Sed in praecipuo pavore Agrippina, vocem Claudi, quam temulentus iecerat, fatale sibi ut coniugum flagitia ferret, dein puniret, metuens, agere et celerare statuit, perditam prius Domitia Lepida muliebribus causis, quia Lepida minore Antonia genita, avunculo Augusto, Agrippinae sobrina prior ac Gnaei mariti eius soror; parem sibi claritudinem credebat. Nec forma aetas opes multum distabant; et utraque impudica, infamis, violenta, haud minus vitiis aemulabantur quam si qua ex fortuna prospera acceperant. Enimvero certamen acerrimum, amita potius an mater apud Neronem praevaleret: nam Lepida blandimentis ac largitionibus iuvenilem animum devinciebat, truci contra ac minaci Agrippina, quae filio dare imperium, tolerare imperitantem nequibat.*

[65] *Ceterum obiecta sunt quod coniugem principis devotionibus petivisset quodque parum coercitis per Calabriam servorum agminibus pacem Italiae turbaret. Ob haec mors indicta, multum adversante Narciso, qui Agrippinam magis magisque suspectans prompsisse inter proximos ferebatur certam sibi perniciem, seu Britannicus rerum seu Nero poteretur; verum ita de se meritum Caesarem, ut vitam usui eius impenderet. Convictam Messalinam et Silium; pares iterum*

goa hautatu baitzuten. Benetan ere, Bizantziok lur emankorra eta itsaso joria dauka, zeren Pontotik irteten den arrain multzo neurrigabeak, urpeko haitz zehiarrek izuturik, beste ertzetik ihes egin eta portu hauetara jotzen baitu. Horregatik, lehenengotan, irabazi eta ondasun handiak izan zituzten; gero, kargen handiagatik, kentzeko edo jaisteko eskatu behar izan zuten, printzearen babesez, zeinak gogoratu zuen haien lurjota zeudela Traziako eta Bosforoko oraintsuko gerrekin, eta lagundu egin behar zitzaiela. Hala, bost urterako zergak barkatu zitzazkien.

64. Marko Asinio eta Manio Azilioren kontsulaldian, segidako mirarien bitarbez, gauzak okerrerantz aldatuko zirela iragarri zen. Zeruko suak bandera eta denda militarrak erre zituen; Kapitolioaren gailurrean, erlakumea kokatu zen; gizaki biformeak erditu ziren, eta gabirai erpedun txerri bat jaio zen. Presagioen artean jotzen zuten magistratu guztien kopurua urritzea ere, hilabete batzuen barruan hil baitziren kuestore bat, edil bat, tribuno bat, pretore bat eta kontsul bat. Baina Agripina bereziki izuturik zegoen, Klaudiori, mozkorturik, alde egin zioten hitz batzuen beldurrez, esanez bere patua emazteen krimenak jasatea eta gero zigortzea zela; beraz, jokatzea eta azkar ibiltzea erabaki zuen. Lehenik, Domizia Lepida hondatu zuen, emakume kontuengatik, zeren Lepidak, Antonia Txikiaren alaba, Augustoren birloba, Agripinaren aitaren lehengusin-arreba eta haren lehen senar Gneoren arreba izanik, bera bezain leinargia zela uste baitzuen. Egia da, ederrezz, adinez, aberatsez, ez zebiltzala urrun, eta biak, lizun, zital, biolentoak, bizioetan ez ziren gutxiago tematzen, zortearengandik hartutako oportasunean baino. Baina gogorrena beste lehia hora izan zen, ea Neronengan izebak ala amak izango ote zuen eragin handiagoa, zeren Lepidak, bigunkeriaz eta opariz, mutilaren gogoa bereganatzen baitzuen Agripina latz eta mehatxutiaren aurka, zeinak imperioa semeari ematea bai, baina erabil zezan ezin zuen jasan.

65. Zena zela, Lepida salatu zuen printzearen emazteari sorginkeriek eraso ziola eta Kalabriako esklabo saldo erdi goseekin Italiako bakea aztoratzen zuela. Horregatik, heriotzara kondenatu zuten, Nartzisoren oposizio handiz, zeinak, geroago eta Agripinaz susmotiago, bere lagun minei adierazi ei zien bere galera segurra zela, agintea Britanikok zein Neronek hartu, baina Zesarrek hainbeste zor ziola berari, ezen bizitza hari zerbitzatzen zeramala; Mesalina eta Silio berak egin zituela kon-

*accusandi causas esse, si Nero imperitaret; Britannico successore nullum principi metum: at novercae insidiis domum omnem convelli, maiore flagitio quam si impudicitiam prioris coniugis reticuisse. Quamquam ne impudicitiam quidem nunc abesse Pallante adultero, ne quis ambigat decus pudorem corpus, cuncta regno viliora habere. Haec atque talia dictitans amplecti Britannicum, robur aetatis quam maturum precari, modo ad deos, modo ad ipsum tendere manus, adolesceret, patris inimicos depelleret, matris etiam interfecatores ulcisceretur:*

[66] *In tanta mole curarum valetudine adversa corripitur; refovendisque viribus mollitia caeli et salubritate aquarum Sinucessam pergit. Tum Agrippina, sceleris olim certa et oblatae occasionis propera nec ministrorum egens, de genere veneni consultavit, ne repentina et praecipiti facinus proderetur; si lendum et tabidum delegisset, ne admotus supremis Claudius et dolo intellecto ad amorem filii rediret. Exquisitum aliquid placebat, quod turbaret mentem et mortem diffiret. Deligitur artifex talium vocabulo Locusta, nuper beneficii damnata et diu inter instrumenta regni habita. Eius mulieris ingenio paratum virus, cuius minister e spadonibus fuit Halotus, inferre epulas et explorare gustu solitus.*

[67] *Adeoque cuncta mox pernotuere ut temporum illorum scriptores prodiderint infusum delectabili boleto venenum, nec vim medicaminis statim intellectam, socordiane an Claudii vioalentia; simul soluta alvus subvenisse videbatur. Igitur exterrita Agrippina et, quando ultima timebantur, spreta praesentium invidia provisam iam sibi Xenophontis medici conscientiam adhibet. Ille tamquam nisus evomentis adiuvaret, pinnam rapido veneno inlitam faucibus eius demisisse creditur; haud ignarus summa scelera incipi cum periculo, peragi cum praemio.*

[68] *Vocabatur interim senatus votaque pro incolumitate principis consules et sacerdotes nuncupabant, cum iam exanimis vestibus et fomentis obtegeretur; dum quae res forent*

biktu; salapide berberak izango zirela berriro, Neronek agintzen bazuen; ondorengoa Britaniko izanez gero, printzeak ez zuela zertaz beldurturik. Hala ere, etxe guztia airean zebilela zioen, amaordearen azpikeriengatik, eta ezkutatzea krimen handiagoa litzatekeela aurreko emaztearen lizunkeriaz jokatzea baino; nahiz eta oraintxe ere ez ei zen lizunkieriarik falta, Palante maitaletzat edukitzean, inork dudarik izan ez zezan ohorea, pudorea, gorputza, dena, agintea baino gutxiagotzat zeukanik. Horrelakoak eta antzekoak errepikatuz, Britaniko besarkatzen zuen, adinaren indarra lehenbailehen erregutuz; besoak behin Jainkoengana, behin berarengana luzatzen zituen, esanez hazi egin behar zuela, aitaren etsaiak jaurti eta amaren hiltzaileez ere mendekatu egin behar zuela.

66. Hainbeste buruhausteren artean, Nartziso gaixotu egiten da eta Sinuesara doa, hango klimaren bigunez eta uren osasungarriz indarbeerritza. Orduan Agripinak, krimena aspalditik erabakita zeukanak, agertu zitzaion aukeraz bizkor baliaturik, eta zerbitzaririk falta ez zuela, zein pozoi hautatu deliberatu zuen: bat-batekoa eta bizkorra bazeen, krimena salatuko zuen; mantsoa eta astiro akabatzeko hautatzen bazuen, Klaudio, heriotzatik hur eta engainuaz jabeturik, semearen maitasunera itzul zitekeen. Zerbait berezia nahi zuen, burua nahasi eta heriotza atzeratuko zuena. Akzioaren egile, Lokusta zeritzon emakume bat hautatu zuten, pozotzeaz berriki salatua eta erreinuaren tresnetariko bat bezala zeukatena. Emakume harexen asmamenak prestatu zuen pozoia, eta Haloto eunukoak eman, janariak zerbitzatzen eta dastatzen zituenak.

67. Dena hain arin gelditu zen agerian, ezen garai hartako historialariek baitiote pozoia perretxiko gozo batean isuri zutela, eta edabearen indarra ez zela berehala nabaritu, dela Klaudioren ergelagatik, dela mozkorragatik; beheranzkoak salbatu zuela ere bazirudien. Horrek Agripina izutu egin zuen eta, okerrenaren beldurrez, aurrekoen gaitzespena arbuiatuz, Xenofonte medikuaren konplizitatera jotzen du, aurretik prestatua zegoena berau. Honek, Klaudiori oka egiten laguntzeko plantan, pozoi azkarrean beraturiko luma josi ziola zintzurrean uste da, ez jakin gabe krimen handiak arriskuarekin hasten eta sariarekin burutzen direla.

68. Bitartean, senatua deitzen zen eta kontsulak eta abadeak erreguaka ari ziren, printzearen osasunaren alde; hau, ia arnascabe, mantaz eta babeskiz estaltzen zuten bitartean, Neronen inperioa segurtatzeko

*firmando Neronis imperio componuntur. Iam primum Agripina, velut dolore victa et solacia conquirens, tenere ample-xu Britannicum, veram paterni oris effigiem appellare ac variis artibus demorari ne cubiculo egrederetur. Antoniam quoque et Octaviam sorores eius attinuit, et cunctos aditus custodiis clausera-t, crebroque vulgabat ire in melius valetu-dinem principis, quo miles bona in spe ageret tempusque prosperum ex monitis Chaldaeorum adventaret.*

[69] *Tunc medio diei tertium ante Idus Octobris, fortibus palatii repente diductis, comitante Burro Nero egreditur ad cohortem, quae more militiae excubiis adest. Ibi monente praefecto faustis vocibus exceptus inditur lecticae. Dubitavissem quosdam ferunt, respectantis rogantisque ubi Britannicus esset: mox nullo in diversum auctore quae offerebantur secuti sunt. Inlatusque castris Nero et congruentia temporis praefatus, promisso donativo ad exemplum paternae largitionis, imperator consalutatur. Sententiam militum secuta patrum consulta, nec dubitatum est apud provincias. Caelestesque honores Claudio decernuntur et funeris sollemne perinde ac divo Augusto celebratur; aemulante Agrippina proaviae Liviae magnificentiam. Testamentum tamen haud recitatum, ne antepositus filio privignus iniuria et invidia animos vulgi turbaret.*

behar zena moldatzen ziharduten. Lehen-lehenetik, Agripinak, saminak abaildurik eta kontsolamendu bila bezala, Britaniko besarkaturik zeukan, aitaren irudi berbera zela esanez eta zenbait trikimainaz entretenituz, logelatik irten ez zedin. Haren arreba Antonia eta Oktabia ere atxiki zituen, eta sarrera guztiak goardiekin itxita zeuzkan, behin eta berriz mezuak zabalduz, printzearen osasuna hoberantz zihoala, soldaduei itxaropena emateagatik, eta, kaldear aztien aginduen arabera, une ego-kia iritsi arte.

69. Orduan, urriaren hamahiruko eguerdian, Jauregiko ateak bat-batean ireki ziren eta Neron, Burrok lagundurik, ohitura militarraren arabera guardiako zegoen kohortearen aurrean aurkezten da. Han, prefektuak eraginik, aldeko oihuz hartzen eta literan jartzen dute. Batzuk zalantzaz egon ei ziren, atzerantz begira, Britaniko non ote zegoen, baina gero, inork besterantz ez tiratzean, zetorrenari jarraitu ei zioten. Neron kuartelatara daramate, eta, uneari zegokion mintzaldia eginik eta, aitaren eskuzabalaren etsenplura, saria agindurik, enperadore proklamatzen dute; soldaduen epaiari senatuak darraio, probintzieta duda-mudarik gertatzeke. Klaudiorentzat, ohore zerutarrak dekretatzen dira, eta Augusto Jainkozkoaren antzeko hileta solemnea ospatzentz dute, Agripinak Libia birramamaren handitasuna berdindu nahirik. Testamenturik, ostera, ez zuten irakurri, semeordea semearen aurretik jartzearen bide-gabekeria gorrotagarriak herriaren gogorik asalda ez zezan.

## *Aurkibidea*

HITZAURREA.....	7
LEHEN LIBURUA .....	23
BIGARREN LIBURUA .....	109
HIRUGARREN LIBURUA .....	187
LAUGARREN LIBURUA .....	257
BOSGARREN LIBURUA .....	331
SEIGARREN LIBURUA .....	337
HAMAIKAGARREN LIBURUA .....	393
HAMABIGARREN LIBURUA .....	429